



EGAN

Joseba GABILONDO
Globalizazioak eta
kulturaniztasunaren
fantasma

Mikel ATXAGA
Joakin Arostegi

Luis HARANBURU ALTUNA
In memoriam
Miguel Azaola

2007-3/4

AURKIBIDEA

LX alea – 2007-3/4

AZTERKETA LITERARIOAK

| | |
|---|-----|
| Joseba GABILONDO. Globalizazioak eta kulturantzatasunaren fantasma: | 3 |
| Luis Mari MUJICA. Trebiñu konterriko euskal toponimia (II) | 35 |
| Fertxu IZQUIERDO. Supermanen itzalaren mehatxupear: 1979 | 89 |
| Asier AGIRRE. Aforismoak | 127 |
| Mikel ATXAGA. Joakin Arostegi | 137 |
| Ibon EGAÑA, Jon KORTAZAR, Iratxe RETOLAZA. 2006ko euskal literatura | 157 |
| Patxi SALABERRI MUÑOA. Axularren Gero liburuaren bigarren argitalpena lehenaren argitan | 173 |

SORKUNTZA

| | |
|---|-----|
| Pello OTXOTeko. Egonen da leku bat | 203 |
| Mikelats GORROTO . Laukiak... Zutabeak... Biribilak | 207 |

HAUR ETA GAZTE LITERATURA

| | |
|---|-----|
| Iñaki ZUBELDIA. Seve Calleja | 215 |
| Jose Antonio MUJICA. 'Birjina': itzulpen-eredu antzua | 239 |

ADABAKIAK

| | |
|--|-----|
| Luis HARANBURU ALTUNA. In memoriam Miguel Azaola | 265 |
|--|-----|

KRITIKAK ETA ERRESEINAK

| | |
|---|-----|
| Amala ITURBIDE. Poesiaren aniztasuna | 271 |
| Amala ITURBIDE. Irudimenaren zergatiak | 275 |
| Pello OTXOTeko VAQUERO. Barne paisajeak marrazten | 279 |

EGAN



Maz. Salvador Ocampo Jofre

EUSKALERRIAREN ADISKIDEEN ELKARTEKO "BOLETINA"-REN EUSKARAZKO GEHIGARRIA

Idazkaritza: Euskalerrriaren Adiskideen Elkarte. Gipuzkoako Salla
3.263 Postakutxatila — DONOSTIA



Gipuzkoako Foru Aldundiak
eta
Eusko Jaurlaritzarem Kultura Sailak
diruz lagundutako aldizkaria

Euskalerrriaren Adiskideen Elkarteak
ez du derrigorrez bat etorri behar
EGAN Aldizkarian agertzen diren edukiekin

ERREDAKZIO BATZORDEA

Zuzendaritza eta Idazkaritza
GILLERMO ETXEBERRIA eta LUIS MARI MUGIKA


Administraria
BIZENTE ZARAGUETA

Bokalak
JOSE M^a URKIA
JUAN GARMENDIA LARRAÑAGA
ABEL MUNIATEGI

ISSN: 0422 - 7328. EGAN
Legezko Gordailua: S.S. 289/1958
Inprimategia: FASPRINT-IGARA - Donostia

Globalizazioak eta kulturantzitasunaren fantasma:

Demokrazia eta diferentziazio polemikak azterketan literatura eta literaturaren



Azterketa literarioak

Globalizazioak eta kulturantzatasunaren fantasma:

Biopolitika eta diferentzien polemikak euskal kultura eta literaturan ¹

Joseba GABILONDO

lñaki Aldekoak oraintsu argitaratu duen artikulu batean ("Post-modernitatea"), dagoeneko eztabaida ugari sortarazi dituena hain zuzen, postmodernitatearen arazoa suspertu du, euskal kultura eta literaturan kondizio honek dituen eraginak zehaztuz eta kronologia berri bat proposatuz. Hasteko, balirudike eztabaida bizantinoa dela bere kronologiakeriagatik, izan ere orain arteko datatzea kritikatu eta gero —postmodernitatea frankismoa amaitzean hasten dela 1975an— Aldekoak beste bat proposatzen du, 90ko hamarkadari hobesten diona. Alabaina, kronologia berri honek analisi soziologiko eta kultural berriak aurkezteko parada ematen dio, gainera, artikulua-ren azken aldean, "diferentzien polemikak" esango diodan honetan

1 Eskerrak eman nahi nizkieke Gillermo Etxeberriari, *EGAN*eko editore bezala, artikulu honen oinarri izan zen hitzaldi bat ematera gonbidatu ninduelako eta Donostian egindako egoitza hain atsegin bihurtu zidalako, lñaki Aldekoari, betiko lagun eta gogaide paregabe izateagatik, eta Iratxe Retolazari hitzaldiari hain kritika emankorrek egiteagatik. Last but not least, Juan Luis Zabala, Xabier Mendiguren Jr. eta Laura Mintegiri ere eskerrik beroenak informazio giltzarria humorez eta zorrotzasunez behar nuenean emateagatik. Alpu, erreferentzia eta bibliografia sistema, MLAREN eskuliburuaren arabera egin ditut, amierako oharren orde, oinoharrei hobetsiz soilik. Gaztelerazko eta ingelesezko aipuak bere hartan utzi ditut. Estatu Batuetan bizi naizenez, testu nagusi gehienak ingelesez kontsultatu ditut eta hala alpatu ditut.

sartzen delarik. Zehazkiago, euskal kanona maskulinista den akusazio feministei (Alvarez Uri) erantzuten die, bere euskal literaturaren historia maisua defendatuz eta beronen irizpide historikoak modernoak direla onartuz.

Hitzaldi honetan, Aldekoaren argumentazioarekin bat eginda, beronen ondorioak haratago bultzatuko ditut, alde batetik postmodernitateak globalizazioarekin duen erlazioa aztertuz —orain artean eztabaida postmodernitateaz izan baita gurean, eta ez globalizazioaz— eta, beste aldetik, diferentzien polemikak berak aztertuz beren historikotasunean polemikok duten balio literario, kultural eta historikoa azalduz —ni neu beste polemista bat gehiago bezala zuzenean sartu beharrean. Azken batean, polemika hauek gure garai postmoderno eta globalaren zantzu edo zeinu giltzarri direla aldarrikatu nahi nuke eta berotatik abiatuz postmodernitatearen eta globalizazioaren arazoak Euskal Herrian ondoen azter daitezkeela.

Diferentzien polemika bi modutara irakur eta eztabaida daitekeela proposatu nahi dut. Alde batetik, polemikok “erresentimentuaren kulturaren” (Nietzsche) indarketa bezala ikusta ditzakegu, non diferentzia tipien nartzisismoak (Freud “Taboo”) merkatuaren ideologia neoliberalaren hegemonia indartzen duen, berriro ere nostalgiaz modernitatera begiratuz. Baina bestetik, polemikak bestela ere irakur litezke, kulturantzitasun edota multikulturalismoaren zeinu prometa-garri bezala, globalizazio postmodernoan erantzun politiko eta historikoak topatzeko aukera ematen diguten aukerak bezala hain zuzen. Hala, artikulua honen helburua bikoitza da. Erresentimentuaren kulturaren amaitzeko arrisku neoliberalak salatu nahi ditut, bere ideologia global-kapitalista modernitatearen nostalgiaz mozorrotzen dela azpimarratuz; halaber, kulturantzitasunaren proiektua errebindikatu nahi dut, oraindik ere Euskal Herrian okupatzen duen leku fantasmatico baina zentrala aldarrikatuz.

Guzti hau teorikoegia iruditzen zaionari prometatzen diot, artikulua hasieratik abandona ez nazan, honako lau polemikak azalduko ditudala: Atxagaren *Soinujolearen semea*-ren gainean *El Pais*-en sortutakoa, Tropelaren belaunaldiarena, euskal literatura kanoniko maskulinistaren kontrako kritika feministarena eta Euskadi sariena. Are, elkarrekin polemikok komunean zer duten azaltzen saiatuko naiz, polemikek eta eskandaluek egun duten balio kognitibo, politiko, eta baikorra aldarrikatuz. Gainera, eta azkenik, gomendio pragmatiko

batzuk emango ditut, kritikak sarri izaten duen jite teoriko eta abstraktuak ondorio zehatzak izan ditzakeela eta egungo errealitatearekin konpromiso politiko bat duela frogatzeko.

Postmodernitatea, globalizazioa

"Postmodernitate" kontzeptua arkitekturaren historian garatzen da eta Jean François Lyotard-en txosten eraginkorrari esker, kultur alor anitzetan, ia gehienetan, eztabaidatu den kontzeptua izaten amaitu du. Bere formulaziorik konbentzigarri eta osatuena, ene us-tez, Fredric Jameson-ek eman zuen 1991ean, hain zuzen ere *Postmodernismoa* titulutzat duen liburuan. Jamesoni jarraiki, postmodernitatea ez litzateke soilik estilo edota moda kultural bat, baizik eta kapitalismo berantiar edota multinazionalak II. Mundu Gerraz gero, AEB bere zentro hegemonikotik, desplegatzen duen logika kulturala litzateke, hain zuzen kapitalismo industrial eta monopolikoak Europan XVI. mendeaz gero garatutako logika kultural zaharragoari, modernitateari, kontrajartzen zaiona. Jamesonek dioen bezala: "The conception of postmodernism outlined here is a historical rather than a merely stylistic one. I cannot stress too greatly the radical distinction between a view for which the postmodern is one (optional) style among many others available and one which seeks to grasp it as the cultural dominant of the logic of late capitalism" (45-6).

Testuinguru honetan eta pedagogikoki gauzak kronologia bati atxikitzeko, esan dezakegu postmodernitatea, Jamesonen aburuz, 1945an "hasten" dela eta ez diola bakarrik AEBi afektatzen baizik mundu guztiari, beste munduko parte batzuek postmodernitatea efektu inperialista bezala jasaten badute ere.

Lyotarden liburuak, analisi marxistari atxikitzen ez zaion aldetik, enfasia kulturalan bertan jartzen du, modernitatearen metadiskurtso nagusiak (marxismoa, psikoanalisi, eta abar) postmodernitatean amaitu direla aldarrikatuz eta amaiera hau postmodernitatearen zeinurik garrantzitsuentzat aldarrikatuz. Neu, Jamesonen analisiari jarraituz natzai eta berau uste dut dela oraindik ere koherenteen eta konbentzigarriena. Alabaina, postmodernitateak, bere bertsio popularizatuan, kritika ugari jaso ditu eta kritika hauek ulergarriak direla esango nuke gehienetan. Jamesonek ondo teorizatzen ez duena

zera da, postmodernitateak inperialismo europarren amaiera dakarren heinean, hirugarren eta bigarren munduko borroka antkolonialak eta independentziazkoak ere giltzarri direla postmodernitatea esplikatzeko eta, berak prozesu berriztat ematen dituenak (hala nola pastitxea-hibridazioa, historigabezia eta azalekotasuna-simulakroa) kolonietan lehenago ematen direla (adibidez "mestizaje"-aren ideologiarekin Latinoamerikan). Beraz, postmodernitateak sortu baino hegemoniko bihurtzen ditu bere logika kulturalaren ezaugarri giltzarri ugari eta, ondorioz, postmodernitatearen historia geopolitikoki ere uler dezakegu.

Hala balitz, eta Aldekoaren aurka, konkluditu beharko genuke postmodernitatea Euskal Herrian ere 1945an "hasten" dela eta beraz gerraondoko euskal kultura eta literatura postmodernoak direla. Plan-teamendu hau zail bada ere pentsatzen lehen momentu batean, bigarren batean badu bere koherentzia, izan ere, euskal kasuak, Espainiako beste nazionalitate periferiko guztiekin batera, nazio-estatu espainiarraren —eta hein askozaz txikiago baina era berean historikoan, frantsesaren— krisia eta gainbehera dakar, berrori fenomeno postmoderno giltzarri delarik.²

Alabaina, Aldekoarekin ados egongo nintzateke onartzerakoan 90ko hamarkadan beste eraldaketa nagusi bat gertatzen dela eta eraldaketa honek kultura postmodernoaren inplantazioa dakarrela Euskal Herrira, edota bestela esateko, kultura postmodernoak, kanpoko efektu amerikar baino, euskal kulturaren barne logika eta egitura giltzarri edo, nahi baduzue, hegemoniko bihurtzen dela 90ko hamarkadan. Hitz batean esateko, 1990az gero, euskal kulturak ordura arteko balio politiko nazionalistaz gain, balio merkataria ere adkiritzen du eta, ondorioz, inork ezin dio merkataltze prozesu honi ekidin. Dena den, postmodernitatearen bigarren momentu berri hau ulertzeko, ez dugu postmodernitate hitza erabili behar berez, baizik eta orain artean eztabaidatu ez den eta ni lehenagotik euskal literatur kritikan sartzen saiatu naizen (1999) beste terminoa baizik: globalizazioa (*Nazioaren* 181-213). Beraz berriro ere pedagogiarik atxikiz, esan

2 *Nazioaren hondarrak* liburuan tesi hau era zehatzago batean garatzen saiatu naiz, modernitatea euskal literaturan postmodernitatean jotzen dela baieztatuz, eta beraz euskal "modernitatea" fenomeno postmoderno bat dela aldarrikatuz, hala, modernitateari ez bakarrik zentzu historiko bat baizik eta geopolitiko bat ere emanez (144-56).

dezagun 1945ean postmodernitatea eta 1992an globalizazioa "has-ten" direla hurrenez hurren. Zentzu honetan, eta hau neure proposamen propioa litzateke, globalizazioa postmodernitatearen expansio eta indartze —edota hegemonizatze— prozesua baino ez litzateke, alegia, postmodernitatearen bigarren fase bat.³

Dena den, eta beti ere globalizazioaz singularrean aritzen garenez, eta globalizazioa kritikatu eta oposatu beharreko logika kulturala dugunez, esan dezagun, kritiko ugariak globalizazioa kuestionatu egiten duela —behiala postmodernitatea bezalatsu— eta gainera terminologia eta teoria desberdinak proposatzen dituztela, hala nola "transnazionalismoa"-rena (Hirst eta Thompson; Grewal; Lionnet eta Shih). Egia esan, globalizazioa oraindik ere fenomeno berria dugu eta beraz aukera terminologiko eta teoriko guztiak kontutan hartzeak merezi du, bat bakarra ere gaitzetsi gabe. Nik neuk eta oraingoz behin-behinik terminoa ekidinezina dela baietsiko nuke eta, aitzitik, terminoaren erabilera singularra jarriko nuke kinkan. Izan ere, eta kasu bat aipatzeagatik, Arjun Appadurai-k *Globalizazioa* titulupean editatu duen artikulu-bilduman, titulu bakarra defendatzen badu ere, gero elaboratzerakoan bi globalizazio bereizten ditu: behetik-gorakoa eta goitik-beherakoa (19-20). Alegia, Appadurairik globalizazioaren efektu singular eta zuzenbide-bakarrekoa kuestionatzen du. Neuk, Inderpal Grewal eta Caren Kaplan-en bidetik, eta beren "hegemonia barreiatuak" terminoa bereganatuz, globalizazioak ugari direla proposatuko nuke, zuzenbide eta efektu desberdinez, elkarrekin intersekzioan ala gainezarririk, koexistitzen dutela aldarrikatuz.

Euskal Herrian kasuko, eta EAE-ren gobernu ez-subiranoaren indartze eta instituzionalizazio hazkorraren ondorioz, euskal globalizazio bat sortzen ari dela baieztatuko nuke, zeina goitik-beherakoa eta behetik-gorakoa ere baden, eta globalizazio espainiar-hispaniko, europar eta amerikarrarekin intersekzioan bizi den. Eusko Jauriaritzak euskal diaspora kaptatu eta instituzionalizatzeko daraman politika edota EEA-k bere ingurune ez hain aberatsean, Errioxarekin hasi eta Iparraldearekin amaitu, eragin duen expansio inperialista, goitik-

3 Gurean oraindik "modernitatea" termino emankorra eta operatzailea denez, agian merezi du oraindik "postmodernitatea" terminoari heltzeak ere. Dena den, ez nintzateke kontra egongo, "postmodernitate" terminoa salestu eta "globalizazioa" bakarrik erabiliko bagenu, globalizazio honek bi fase (1945, 1992) ezagutu dituela baieztatuz.

beherako euskal globalizazioaren adibide lirateke. Beste eskualde eta herrialdeetatik Euskal Herrira desplazatu diren etorkinak, aldiz, edota globalizazioaren aurkako mobilizazioak berak, behetik-gorako euskal globalizazio baten adibide lirateke. Jakina, fenomeno hauek azken batean bi zuzenbideen gurutzaketaren ondorioz are fenomeno konplexu eta mixtoagoak bihurtzen dira luzaroan. Alabaina uste duk Appadurairen desberdinketak baduela indar deskriptibo eta politiko garrantzitsua. Beraz, globalizazioak, pluralean, azpimarratzeko intentzioak, hein batean, transnazionalismoaren proposatzailenarekin bat etortzea du helburu. Alegia, azpimarratu nahi nuke globalizazioa fenomeno bakar eta bateratu bezala aztertzea ideologia neoliberalak dela, globalizazioa hegemonikoki defendatzen duen ideologia indartzea baitakar azken finean. Are, globalizazioaren defentsa bateratu honek era berean ezkutatu egiten du oraindik ere estatuak globalizazioan duten funtzio garrantzitsua —estatu hauek jada postnazional eta neoliberal badira ere.

Biopolitika eta kulturantzitasuna

Beraz aurrerantzean globalizazioei buruz, eta bereziki euskal globalizazioaz, mintzatuko naizela argitu ondoren, pasa gaitezen zehazkiago kulturaren alorrera, kulturantzitasunak eta globalizazioak zer erlazio duten establezitzeko. Globalizazioak ekarri duen ondoriorik garrantzitsuenetako bat, nazio-estatuaren eta modernitatearen krisiaren ondoan, subjektu ugaritzearena izan da. Erretrospektiboki "gizon zuri, europar, kristau, burges eta heterosexuala" bezala historizatu duguna, modernitatearen subjektu hegemoniko eta bakar izan da, alegia, eta Musil berridatziz, ezaugarririk gabeko gizon biluzia —bere biluztasun hegemonikoan gutxiengo oso berezi baten adierazle unibertsal. Bere batasun hegemonikoan, subjektu hegemoniko honek nazio-estatu inperialista europar modernoaren jarraitasuna bermatu du. Ondorioz, nortasun diferentzia onargarri eta esanguratsu bakarria nazioarena izan da azken berrehun urteetan, alegia frantsesa edota alemaniarra izatea, eta abar. Hala, modernitateak berak eskuditutako diferentziak, giza unibertsaltasunaren izenean eskuditutakoak, modernitatearen beste (the other/autre/otro) bihurtu ditu, eta esklusio berean, beste hauei unibertsaltasun horretara allegatzeko aukera zabaldutakoak, ukaziotik ezinezko aukera bezala zabaldutakoak ere.

Kasurik enblematikoena, giza eskubideen izenean Haitin esklaboek XVIII. mende amaieran, Toussaint L'Overture-ren eskutik, egiten duten errebuelta da; izan ere urte gutxi batzuk lehenago giza eskubideen deklarazioa zinatu zuen estatu inperialistaren aurka egiten baitute eta beronen diskurtso modernoa erabiliz. Izan ere estatu frantsesak, bere modernitatea aldarrikatzean, sortzen dituen bestetasunei (esklaboak) modernitatearen unibertsaltasuna aldarrikatu eta eskuratzeko aukera bermatzen die, hasierako ukazioan bertan. Ez da kasualitatea, Olympe de Gouges-ek *Déclaration des droits de la femme et de la citoyenne* 1791ean argitaratzen badu. Gipuzkoako Forueldundiak 1794ean hartzen duen erabakia Konbentzio frantsesaren inbasioaren aurrean ere, hildo berean ulertu ahal liteke.

Aitzitik, postmodernitateak modernitatearen beste (autre/other/otro) guztiak komertzializatzen jo duenez, orain artean nortasun geopolitiko konplementariak zirenak (nazionalitatea) konfliktatu eta ugaritu egin ditu, politika berri bat sortuz, hain zuzen Foucault-ez gero, biopolitika bezala ezagutua izan dena. Beraz *geopolitikatik biopolitikara* hedatu den postmodernitate globalizatuak diferentzia eta nortasun ugariketa dakar. Giza eskubideen diskurtso politikoetan oinarrituta, eta jada XIX. mendean hasitako prozesu zenbaitzuen intentsifikazioz, egun, arraza, erlijioa, klase soziala, etnizitatea, generoa eta sexua nortasun biopolitiko ugaritu baten marka berri bihurtu dira; egun jende asko ez litzateke ados jarriko erabakitzeko orduan lehenik frantses ala musulman diren, edota espainiar ala emakume.

Diferentzia hauen ugalketa abiapuntu politikotzat hartu dutenek, alegia biopolitikaren alde egin dutenek, kulturantzatasun edota multikulturalismoaren aldeko apustu egin dute, kulturantzatasuna lekuan lekuko, lokalki, estatu-nazioaren barne eta kanpo negoziatuz (Young, Parekh). Estatu nazioaren batasunari atxiki zaizkionek aldiz, alegia geopolitika hutsaren alde egin dutenek, diferentzia hauei sekundario iritzi die eta "ziudadania-herritartasun"-aren proiektu barnean bateratu eta asimila daitezkeela defendatu dute (Habermas). Egun oraindik, euskal globalizazioan geopolitikaren proposatzailleak dira nagusi eta horregatik, artikulua honen izenburuan kulturantzatasuna fantasmatikoa dela aldarrikatu dut —era berean kulturantzatasuna goian aipatu polemika gehienek sorburu latente dela esplikatuko dut aurrerago.

Eta hain zuzen, 90ko hamarkadaz gero, euskal kulturantzatasun eta literaturan ikusi duguna zera da: "nortasun", edota agian teknikokia-

go, "diferentzia" esango diegunen ugalketa. Hau ere behetik-gorako euskal globalizazio baten zeinu genuke. Diferentzi ugalketa honek bere sarrera, behetik-gorakoa den heinean, traumatikoki egin du euskal gizarte eta kulturaren, eta beraz polemika itxura hartu du, izan ere, euskal kulturaren eta literaturaren eredu geopolitikoa kuestionatu behar izan baitu, alegia goitik-behera inposatu den eredu. Literaturaren dialekto zehatzean berresateko, esango genuke diferentzien ugalketak kanonikoa bihurtu den literatura kuestionatu duela.

Kanonaren polemika

Diferentzien polemika zehatza aztertu aurretik alabaina, kanona, edota literaturaren egituraketa geopolitikoa 90ko hamarkadan, zertan den ikusi behar dugu lehenik. Neure liburuan proposatu dudan bezala, euskal literatura nazionalistak ("nazionalista" zentzu tekniko-historikoan) Bernardo Atxagarenean, eta bere *Obabakoak*-en zehazkiago, ezagutu du bere kulminazioa. Ondorioz eta erretrospektiboki, literatura nazionalaren kanona berridatzi ahal izan dugu Etxeparenetik hona, telos nazionalak Atxagaren lan honetan bere kulminazio, baieztapen, eta legitimazioa topa dezan. Kritika filologiko-positibistaren barnean, ikus adibidez bi aipu hauek, 1990 eta 2000koak hurrenez hurren, zeinak progresiboki kanonizatzaileago bihurtzen diren:

Con la obra *Obabakoak* conseguía en 1989 el Premio Nacional de Narrativa. La obra ha causado un impacto profundo en el mundo de la literatura vasca, y su traducción al español ha permitido que la producción en lengua vasca sea conocida fuera de las fronteras de la lengua. (Kortazar 136)

Seguramente, no nos equivocáramos si dijéramos que Bernardo Atxaga es uno de los pocos, si no el único, escritor vasco conocido por el lector de literatura castellana. La presencia sociológica del autor ha trascendido las fronteras vascas y hoy por hoy, a nadie le es ajeno que estamos ante el autor vasco más premiado, traducido y exportado de toda la Historia de la Literatura en Lengua Vasca. (Olaciregui 550)

Hala, harrez gero idatzi den literatura, kanon hegemoniko honetikiko erreakzionatuz idatzi izan da. Alabaina, kanon honek bere momenturik gorena eta, ondorioz, bere krisia ere, 90ko hamarkadan

ezagutu duenez —merkataltzeak⁴ eta diferentzi ugalketak eraginda— aldaketa globalen ondorioz— kanon hau errepikaezina bihurtu da; alegia euskal literaturaren ezinezko estandarra bihurtu da, edota psikoanalisira pasatuz, euskal literaturaren superegoa bihurtu da.

Freudek bere *Totem eta tabua*-n jada teorizatu zuen, tribuko emakume eta aberastasun guztiak mediazorik gabe disfrutatzeko aukera zuen aita mitikoaren hilketak sortzen duela tribuko legea eta superegoa.⁵ Alegia, seme guztiak okupatu nahi duten baina ezin duten posizio absolutua hartzen du aitak hildakoan. Era berean, hilketak horrek errua sortzen duenez semeengan, bermatzen du aita mitikoaren posizio okupaezinak superego⁶ bezala funtzionatzea, bere hustasunean:

One day the brothers who had been driven out came together, killed and devoured their father and so made an end of the patriarchal horde.... Cannibal savages as they were, it goes without saying that they devoured their victim as well as killing him. The violent primal father had doubtless been the feared and envied model of each one of the company of brothers: and in the act of devouring him they accomplished their identification with him, and each one of them acquired a portion of his strength... They hated their father, who presented such a formidable obstacle to their craving for power and their sexual desires; but they loved and admired him too. After they had got rid of him, had satisfied their hatred and had put into effect their wish to identify themselves with him, the affection which had all this time been

4 Atxagak berak, bere arrakasta nazionalistari esker, ematen dio hasiera euskal literaturaren merkataltzeari, arrakastaren arrazola nazionalista bada, alegia, merkataltze-aurrekoa.

5 Freudek, *Totem eta tabu* 1913an argitaratzen du, superegoaren teoria esplizitua bilakatu aurretik; alabaina, bertan aurreratzen du superegoaren idela era filogenikoan. Berez, superegoaren teoria 1923an aurkeztuko du, bere *Egoa eta zera* liburuan, aparato psikologikoaren bigarren teoriaren parte bezala. Era berean, nahiago dut *Totem eta tabu*-ko bertsio filogenikoa, beronen bertsio ontogenikoa baino (Edipo konplexua), izan ere modu honetara legearen egituraketa ez dago zuzenean familia triangular burgesarekin loturik.

6 Lacan-ek bere burua Freudenganako itzulera proposatzen duen psikoanalizatzaile aurkeztu duela kontutan harturik, neuk Freudengana zuzenean jotzea erabaki dut, haren *Autre/Hom du Père* bikotea murrizgarria baita dinamika sozial hau deskribatzeko.

pushed under was bound to make itself felt. It did so in the form of remorse. A sense of guilt made its appearance, which in this instance coincided with the remorse felt by the whole group. The dead father became stronger than the living one had been.... What had up to then been prevented by his actual existence was thenceforth prohibited by the sons themselves... (141-43)

Era berean, euskal literaturan Atxaga eta bere *Obabakoak* momentu mitiko horren zeinu bihurtu dira: euskal nortasuna eta bere aberastasun guztiak zuzenean errepresenta zitzaizkeen aita literarioa dukegu Atxaga hau eta hala kontsumitu (jan) dugu irakurleok, instituzioek eta mediek, bere heriotza sinbolikoa lortu arte. Atxaga postobabarrak berak ere leku hau berriro okupa ezin dezakeenez, leku huts bihurtu da. Hilda dagoen aita mitiko literario nazionalistaren posizio hutsa, kanonaren gunea, dugu berau, hain zuzen inork okupa ezin dezakeelako. Posizio huts hau da superego literario bezala harez geroko idazle denek okupatu nahi eta ezin izan dutena.⁷ Eta lehen aipatu dudana bezala, argi esan behar da superego honen lehen pairatzaile eta sufritzaile Atxaga postobabarra dukegula, alegia leku hura berriro okupatu nahi eta ezin duen beste Atxaga hau.

Atxagaren posizio berri honen zentzurik garbiena bere azken eleberrian irakur liteke: *Soinujolearen semea* (2003). Alde batetik, eleberrri hau erabat globala dugu, izan ere euskal globalizazioan kokatzen baita: Obaban hasi eta Kalifornia eta Montevideoraino hedatzen da, euskal diaspora barneratuz; ETArekin diskurtso emantzipatzailea denuntziatzen du; aurreko eleberrietan ez bezala emakumeek, homosexualek eta etorkinek leku gehiago dute (leku handia ez bada ere); eta, azkenik, globalizazioan aberastu den klase ertain goikoaren partaideak eta bere ideologia neoliberalak dira protagonista, beti ere baserritarrekiko eta etorkinekiko oso erlazio konplexu eta fetixistak garatzen badituzte ere. David eta Joseba protagonisten arteko erlazio literarioak euskal globalizazioa islatzen du, izan ere

7 Judith Halberstam-ek teoria *queer*-ean garatutako idel esker, defendatuko nuke aitaren posizioa maskulinoa-nazionalista bada ere, maskulinitatea emakumeek, gizon gayek, eta subjektu ez-nazionalistek ere okupa dezaketen posizio bat dela azken batean (eta aitaren posizioa *erretrospektiboki bakarrik* dela maskulinoa, aitariarra, heterosexuala eta nazionalista). Hala, superegoaren posizioa gizonezko-heterosexual-nazionalista-ez-diren-subjektuek ere okupa eta desira dezaketen posizioa genuke, posizioarekiko negoziazioa desberdina bada ere subjektu bakoitzaren kasuan.

bi subjektuon erlazioak —diasporiko hilak (David) eta nazionalista biziak (Joseba)— berriro ere globalizazio neoliberal euskalduna Obaban birlekitzen baitu, Euskal Herri kontinentala (eta EAE bereziki) globalizazio euskaldun horren erdigunetzat legitimatuz.

Alabaina, eleberri global hau, *Obabakoak* bezala, mundu erruralean kokatzen da soilik, alegia Obaba eta Kaliforniako baserri eta rantxoetan, dagoeneko *Gizona bere bakardadean*-en azaltzen zen joera bat areagotuz —han ere hiritik kanpo, naturan, kokatzen den hotel isolatua baitugu. Hala, Ignacio Echevarriak Atxagaren eleberria pastorala dela badio ere (“Una elegía pastoral”), nik neuk estiloz ohiturazko eleberria dela esango nuke, non denbora eta giza gatazka erabat izozturik dauden (edo eliptikoki ezabatuta), eta istorioa ez den “historikoki” errepresentatzen, baizik eta aurrez planifikatutako egitura geopolitiko simetriko baten arabera: amerikar bat Obabara etortzen da, eta hark euskaldun bat Ameriketara bidaltzen du; beronek, Osaba Juanek, iloba eramaten du Ameriketara, David, eta ilobak berriz Joseba. Gainera, denek konpartitzen dute lekune errepikakor eta ahistoriko bat, zeina karlismoaren garaitan erakitakoa den eta beraz euskal historiaren lekune alegoriko bihurtzen den azkenean: ezkutalekua.

Eleberriko heroia, David, globalizazio euskaldunaren subjektu zentral da, diasporaren subjektu baita. Baina Joseba europarrak egindako literatur erreapropiazioaren ondorioz, isla europar berrian, subjektu honek euskal historia karlismotik egundaino —edota agian errepublikatik honaino— ohiturazko eleberri baten idillismoarekin kontaktatu digu, bere emakume baserritarrekiko (Virginia) enamoramendu txominagirretarrak eta arraza hiperzuriekiko estasi nordikoak barne (Mary Anne). Baserriarekiko nostalgia eta fetitxismoak, lehen momentu batean, klase ertain garaiko mutil baten neurositzat homodiegetikoki irakur litezke, testuaren joera ohiturazko orokortzat baino:

Baserritar giroari nion atxikimendua psikologoari arriskutsua iruditu izango zitzaion neurriraino hazi zitzaidan. Noiznahi hurbiltzen nintzen Iruainera Lubisi zaldi zainketan laguntzera, eta baita Obabako plazan zegoen ostatura ere, non Ubanbe, Opin, Pantxo eta zerrategiko langile gehienak biltzen ziren. Eta igandean, elizan harmonioa jotzen ari nintzela, baserrietatik etorritako neskei egiten nien kirika jaunartzera hurbiltzen ziren guztien artean: nahiz beren jantzi modaz kanpokoak, nahiz beren orrazketa arruntak.

Halek erakartzen ninduten, eta ez monsieur Nestorren klaseetan nirekin zebiltzanek. Teresa, Susana, Victoria, Obabako etxe aberatsetako neskak, nire gurasoen —eta ikastetxeko psikologoaren— faboritoak, ikaskide bezala ikusten nituen. Eta halaxe bakarrik. (78)

Alabaina, Kalifornian duen beste mundua ere idealizaturik azaltzen da, eta inon baino hobeto, emazte Mary Annen fetitxizazioan ikusta daiteke; hau ere lehenagoko Obabako baserritarrenaren pareko baita, oraingo honetan arraza hiperzuria fetitxizatzen bada ere. Bestela esanda, eleberririk lekuan lekuko emakumezko "natibismo-rik" exotikoenak diskurtsiboki ospatzen ditu. Horrela aurkezten du eleberririk Mary Ann: "Ile adatsa ez ezik, betazal eta betileak ere bellegiak zituen; begiak, berriz, oso urdinak, nola izaten diren urdin, ez islandiar edota sueditarrenak, baizik eta, areago, North Capeko jendearenak" (31). Fetitxizazio hiperzuri natibista honek, rantxoko langile mexikarrekin batera, ohiturazko koadro global berria osatzen du eleberrian eta, beraz, konkludi dezakegu ohiturismoa Obabatik euskal diaspora kaliforniarrera hedatzen dela etenik gabe testuan, nola halako ohiturismo global bat inauguratuz.

Ohiturazko eleberri honen helburu azkena, Obaba errurala eta nazionalista berri ere legitimatzea da euskal globalizazioaren bertsio berri batean bada ere —*Gizona bere bakardadean*-en, *Zeru Horiek*-en eta *Un traductor en Paris*-en ikasitako lezioak barneratuz. Alegia, eleberri hau *Obabakoak* berriro ere globalki kontatzeko saloa da, azken batean *Obabakoak*-ek autoreari eman zion posizio kanonikoa berriz okupatzea baita helburu. Hauxe genuke testuaren jite ohiturazkoa espilikatuko lukeen arrazola. *Soinujolearen semea*-ko azken hiru ipuinak dira eskema honetatik ateratzen diren bakarrak eta, dudarik gabe, eleberriko parterik onena, izan ere *Obabakoak*-eko ipuin-bildumaren eredia errepikatzen baitute, aurreko eleberri guztia ohiturazkoa dela argi utziz kontrastean.⁸ Nik uste Atxagak Obaban preso segitzen duela, eta berriro literatura benetan interesgarririk idatzi nahi badu, Obabatik atera beharko duela —eta kanonizazioaren eszenategi espektralari uko egin halaber. Alegia, ohiturazkoa ez den diskurtso

8 Ipuin hauek zein puntutaraino diren sinesgarriak eta "traidorea"-ren gai modernistak zein puntutaraino gaindeterminatzen duen istorioa beste nonbait luzago eztabaidatu beharreko gaiak lirateke.

berri bat, diskurtso hiritar berri bat, garatu beharko du, azken urteotan hiriaren alde egin duen defentsa narratiboki justifikatuz.

Babelia-ko kritiko zen Echevarriak sortutako polemika hain zuzen diferentzien polemiken zentroan kokatzen da eta goian alpatutako kontraesan politiko eta literarioak azaleratzen ditu. Alde batetik, askorentzat Atxaga euskal literaturaren kanona dela onartzetik abiatzen da: "mascarón de proa de la literatura de toda una comunidad, la del País Vasco". Alabaina, eleberrri hau hain eraberritzailea ez dela aldarrikatzean eta beste etsenplu euskaldunik ez ematean, Echevarriak euskal diferentziaren kontrako kritika orokor bat egin du, euskal literatura bere osotasunean juzkatuz: "A este respecto, la novela sólo vale como documento acríptico de la inopia y de la bobería —de la atrofia moral, en definitiva— que no han dejado de consentir y de amparar, hoy lo mismo que ayer, de forma más o menos melindrosa, el desarrollo del terrorismo vasco". Juzku orokor honek hain zuzen euskal diferentziak oraindik orain Espainian sortzen dituen antsietateak eta paranoiak azaltzen dizkigu. Echevarriaren begitan, denok segitzen dugu terrorismoaren konplize izaten, ez baita beste euskal literaturarik alpatzen "atrofia moral" horretatik ateratzen denik.

Era berean, Echevarriak, José Luis Martín Vigil-ekin Atxagaren eleberrria konparatzean —eta egia esan behar dut, neuri ere izen bera etorri zitzaidan burura eleberrria leitzean— eta "pastoral", "beatitude/maniqueísmo" eta "sentimentalidad jurásica"-zkoa dela ere eransterakoan, Atxagaren jite ohiturazkoa sumatzen duela esango nuke, ohiturazko literaturak, ohiturismoak, Txomin Agirrerenean bezalaxe, sortzen duen sentimentalitate nostalgiko eta erlijiosoaren zantzia hartu baitio Echevarriak Atxagaren eleberriri —Txomin Agirre nor den ez badaki eta Pereda urrutiegil geratzen bazaio ere.

Azkenik, Echevarría Babeliatik despeditzeak esplikatzeko du globalizazio euskaldunak Madrilen ere hartu duen indar berria. Lehenengo aldiz euskal idazle baten lanak, bertan duen apoio editorialari esker, kritiko espainiar bat neutralizatu eta kanporatzeko indar politiko eta kulturala izan du —indarra baino bortxa esan beharko genioke seguruenik. Ironia azkena, Babeliako zuzendari-ondoko (adjunto) den Lluís Bassets-en argumentazioarena da. Echevarría-k argitaratutako eskutitz publiko batean haren hitzak jasotzen ditu, non berriro ere terrorismoa erabiltzen den figura erretoriko bezala: " 'Se ha dicho', me escribías, 'y supongo que te habrá llegado, que tu crítica era

como *un arma de destrucción masiva* y que el periódico hace mucho tiempo que ha renunciado a utilizar este tipo de armas contra nadie' " (Herrscher, nere azpimarraketa). Alegia Bassetsek Echeverría terrorista kritikoa diskurtsibotzat jotzen du, beronek Atxagari eragotzitako kritika errepikatuz. Bestela esanda, euskal literatura-ren idazle kanonikoenak idatzitako eleberri global-postmodernoareen kritikak, bere horretan kritika huts bezala amaitu beharrean, euskal terrorismoaren eztabaida moderno batean amaitu du.

Euskal diferentzia dela medio, azkenean biak, idazlea eta kritikoak, terrorismoaren auzian itota amaitu dute, berriro ere gaindiezina dirudien eta erantzun postmoderno-globalik ez duen arazo moderno batean itota, hain zuzen. Bestela esanda, diferentzien polemika hau postmodernoa genuke, baina erantzunak moderno. Hala, polemika honetatik erreskatatu behar dugun azken elementua biolentziarena da, izan ere diferentzien eztabaida polemika bortitz eta traumatiko postmoderno bezala azaleratu baita. Ez da harritzekoa, lau urte beranduago, oraindik orain, Atxagak zera badio: "Sanan las cuchilladas pero no las malas palabras. Sólo puedo decir que es cierto. Yo continúo afectado" (Larrauri).

Tropelaren polemika

Era berean, diferentzien borroka honetan, bigarren polemika interesgarria Tropelaren belaunaldikoak sortu du. Jon Alonsok 2003an asmatu eta Iban Zalduak, era oso ironiko eta azkarrean, hari erantzunez, urte berean kontsakratutako terminoa genuke. 30 eta 50 urteren artean, bi belaunaldiren zangalatrauan, itzalean geratu diren idazle arrakasta-gabeak, auratikoak ez direnak, deskribatuko lituzke Tropelaren izendaketak. Alonsoren hitzetan:

Mordo bat gara; ez gara ez belaunaldi bat, ez bi; ez gara talde batekoak, ez dugu talde-sen berezirik. Ez gara ezaugarri batzuen inguruan sailkatzeko modukoak. Norbanako solteak gara, ontzi isolatuak. 31 eta 49 [1954-1972] arteko idazleez ari naiz. Eta hala ere, bada denok elkartzen gaituen zerbait: Obabatik SP-rako tranbiara doan soka, tarte luzea, liburuz betetzen lagundu izana. "Katea ez da eten" famatua posible egin dugu literaturan, neurri batean. Horra, ikuspegi historikotik begiratuta, gure eginkizuna zela izan den, antza. Obabatik tranbiara idatzi dut, Zalduaren titulu-

lua gogoan, baina berdin idatz nezake behi sakratua izatera iritsi ez eta lasterka zaldia izateko sasoirik ez duten idazleak (mandoak?), edo are, Jethro Tull-eko lan Andersonek aspaldi kantatzen zuenez, zaharregiak rokanrolerako eta gazteegiak hiltzeko. Trope-la, azken batez. ("Tropela")

Alonsok oraindik ikusten dio zeregin historiko bat belaunaldi honi: katea osatzea. Alabaina Zalduak porrotarekin eta anomiarekin lotzen ditu batik bat tropelekoak. Are, eta psikoanalisisira joaz, ukazioaren (*verneinung*) izate errepikatzaileak atzean erresistentzia erakusten duela gogoraraziz, Zalduak konkluditzen du idazle tropelekoak halako ukaziozko errepikapen bati loturik bizi direla: porrotaren espektroa ukatu eta arrakasta zoriontsua balestearen errepikapena. Eta hain zuzen, errepikapen horrek frogatuko luke Tropelaren existentzia Zalduarentzat:

Tira, ezin da esan halako idazle zoriontsurik ez dagoenik, baina horrenbeste *ukazio* sendo eta errepikakor susmagarri gertatzen da azkenerako. Sigmund Freudek honako hau esaten zuen psikoanalisten dibanetan ohikoa den Ukazioaren (*Verneinung*) fenomenoaren inguruan: "Subjektuak ukatzen duen horixe da errepresentazio obsesiboaren benetako zentzua (...). Analisia inkontzientearen aurkikuntzara heldu izanaren frogarik erabatekoena hauxe da: analizatuak erreakzionatzea hitz hauek esanez aldi berean: 'Horretan ez dut sekula ere pentsatu'". (Ea nor auzartzen den orain esatera Tropela ez denik existitzen...). (67)

Hemen ere "Tropela" izendaketaren ukazioa, azpian datzan trauma baten adierazle izango litzateke eta, ukazio hau errepikatu beharrik esplikatu luke bere izate traumatikoa. Zalduak arrakasta-ezaren trauma proposatzen du defentsazko ukazio errepikatuaren arrazoi bezala, izan ere Tropela belaunaldiak bere burua harrapatu luke Atxagaren belaunaldiko arrakasta nazionalaren eta belaunaldi gazteenaren arrakasta merkatariaeren artean. Hala, arrakastaezak definituko luke Tropela eta, zehazkiago, merkatal arrakastaezak. Zalduak ironikoki dioen bezala,

Tropela eta Arrakasta elkartzeak oximorona dirudi, baina ez dago halakorik.... ohiko Tropelari gaixoa Arrakastatsua bihurtzen da une batez, edo hori uste du behintzat. Tropelekoa izateko era trantsitorioa da, beraz, Tropelari Arrakastatsua, EzTropelaria bihurtzeko arriskua barneratzeraino iritsi daitekeena [da].... Edonola ere, arrakasta-une iragankor horietan eskuzabal sentitzen da Tro-

pelaria, bizipozaz gainezka... Baina Eguneroko Bizitza Literarioaren Labezomorroak berriz ere gainean jausten zaizkionean, *irudikeria* amaituko da, eta atzera hasiko da kexatzen, mingoski... (67-8).

Bestela esanda arrakasta gabeziak, eta gabezia horrekiko ke-xuak definitzen du Tropelaren belaunaldia Zalduentzat.

Termino psikoanalitikoagotan, gabezia beti ere kastrazioaren zeinu denez, arrakasta eza idazleok literatur sistematan kastraturik dauden zeinu izango litzateke. Edota gorago bilakatutako superegoaren teoriari atxikiz, aita primalaren gozamen betea inoiz lortuko ez duten ziurtasunak markatuko luke Tropelaren belaunaldia. Bestela esanda, Atxaga obabarraren lekua inoiz hartuko ez duten legeak markatuko lituzke idazleok eta beraz, azken batean, idazle hauek inoiz kanonaren olinpoan eserlekurik izango ez duten segurantziak definitzen ditu. Alonsok are argiago uzten du bere artikulua bere amaieran bere kanonizazio-nahia:

iruditzen zait tropeleko batzuk prest egon gintezkeela urteotan lortutako esperientzia eta ofizioa nolabaiteko, esan dezagun, "intendentzia literarioa" osatzearen alde jartzeko. Uler bedi, dauzka-gun hutsune izugarriak -itzulpengintzan, kritikan, teorian, produkzio-arlo batzuetan, didaktikan- betetzeko intententzia lanetan hornitzaile ibiliko litzatekeen jende multzo bat. Euskal literaturaren eraikuntzan paper bat izatea litzateke, bederen.

Jakina, ballabideak beharko lirateke, eta nolabaiteko plana, eta egitura berriak. Puntu honetara iritsirik, etsiak hartzen nau eta orain arte esandako guztia ezinezkoa dela konturatzen naiz. ("Tropela")

Ez dago garbi, Alonsok "jende multzo bat" dionean, "gu, Tropeleko batzuk" esan nahi duen ala Tropelekoen lana promobitzeko multzo desberdin bat. Lehenengo aukerak dirudi logikoena, baina dena den, talde multzo hori badagoela esan behar da (unibertsitatea, mediak, Eusko Jauriaritzako kultur saila, Durangoko azoka, eta abar). Beraz Alonsok beste multzo bat nahiko luke, Tropela kanonizatuko lukeena hain zuzen. Hitz batean esanda, Alonsok beste *kanon* bat nahi du. Are, Alonsok irakurlegoa ez du ekuazioan zuzenean sartzen eta beraz irakurle-eza, aipatzen badu ere, ez du esplikatzen. Alegia idazle eta irakurlego arteko dibortzioa ez dio literaturari egosten, baizik eta aparatu kanonizatzaileari. Arrakastarena, arazo postmoderno du gu eta beraz interesgarria euskal literatura aztertzeo, eta

batez ere Tropelarena —beti ere irakurlegoa eta bere aniztasun biopolitikoak kontutan hartzen badira eta arazo instituzionalista-kanoniko huts bihurtzen ez badira, Alonso egiten salatzen den bezala.

Alabaina, klasifikazio honen oinarri bakarra kanonizitatea eta arrakasta bateratua direnez, eta arrakasta kanonaren efektu bezala esplikatzan denez, Tropelaren klasifikazioa bera da daukagun kanonisten, hegemonikoen eta modernoena. Alegia, Tropelaren teorizazio-historizazioaren bidez, arazo postmoderno bati erantzun moderno bat ematen zaio. Bestela esanda, Tropelaren belaunaldian ez dira idazle arteko diferentziak eta desberdintasunak markatzen baizik eta ezinezkoa zaien kanonizitate baten bortxa. Arrakasta kastrazioa, arrakasta gabezia, zeina agian idazle batzuk sentitzen duten, belaunaldi guztuari gaineratik ezarri zaion benetako bortxakeria litzateke. Alonsok dagoeneko emakumeak kanporatu bide ditu zera dionean: "Zilegi bekit —errespetu osoz esanda—, frustrazioaren usaina dela esatea, norberak ahal duen bezain duin eramaten duen frustrazio-aire bat, *burua soiltzan hastea edo tripatxoa egunetik egunera hazten* ikustea ere ahal bezain duin eramaten salatzen garen bezala" ("Tropela", nere azpimarraketa). Azken "garen" maskulinista hori (burusolla eta tripaundia) da problematikoa. Alegia, Tropela belaunaldia definitzeko era berri bat zera litzateke: "kanonizazioaren esperoan eta berau lortu nahiz eta ezinez idatzi duten idazle batzuen saioa, beren kanon-gabeziara beste denak kondentatzeko".⁹

Bortxa honen traumak eta ez arrakasta-gabeziak berak sortzen du Alonsok aipatu eta Zalduak ukazio errepikakorraren bidez isolatu duen Tropelaren definizioa. Alegia, belaunaldi hau, belaunaldi edo talde bada, ez da arrakasta gabeziak kexatzen, baizik eta arrakasta izan behararen eta ezin izatearen bortxaz —bortxa erabat traumatikoa azken finean. Beraz Tropelaren belaunaldiaren sorkuntza eta popularizazioa, ekintza kanonizatzaile, bortxatzaile eta modernotzat salatuko nuke, kanona baita idazle hauen definizio irizpide bakarra. Eta bortxa sinboliko hau are gehiago errepikatu eta are indar traumatiko handiagoa izango du.

9 Alonsok artikuluan erabiltzen duen hitza/metafora ere adierazgarria da: intendentzia. Nik dakidalarik, eta agian oker nago, soldaduskan militarren artean erabiltzen den hitza da bera, eta beraz konnotazio militar-maskulinistaz ziprztindua.

Arazoa zera litzateke, Tropela bere barne aniztasunean, kanonaren obsesio gabe, are, kanonaren aurka, pentsatzea bere historikotasunean, irakurlegoarekin konektatzeko izan (ez) dituen arazoak bere historikotasun zehatz eta aberatsean pentsatuz. Uste dut horrek, eztabaida, interesa, eta irakurketa sortuko lituzkeela, kanon barruan eta at, arrakasta komertzialaz eta gabe. Alonsok berak dagoeneko eman du lehen klabea literatura hau bere historikotasunean leitzeko: belaunaldi honek edota hauek izan dira egonkortasuna eta jarraitasuna —normaltasuna?— lortu dutenak euskal literaturan. “Normaltasunean” denak ezin kanoniko izan; hori baita normaltasunaren zeinu, hemen eta beste edozein literatur tradizioan.

Uste dut belaunaldi honen edota hauen arazo oraindik ez ukitua libidoarena dela: norentzat idatzi dute eta zein irizpide literarioen arabera? Alegia, zein puntutaraino izan dira gauza idazle hauek irakurlego jada biopolitikoki anitz baten desira eta nahiei erantzuteko? Jada pasata dagoen kanon moderno baten arabera idatzi al dute, dagoeneko desagerturik zegoen “kalitatezko” irakurle moderno batentzat? Joxean Sagastizabalen *Kutsidazu bidea*, *Ixabel*-ek agian *Obabakoak*-ek baino gehiago saldu du, eta idazle hau Tropelekoa litzateke. Beste zenbait idazlek ehun aletik behera saldu du aldiz. Laura Mintegik oso irakurlego leiala du. Sagastizabali mediek harrera ona egin diote. Beste zenbaitzuei ez. Guzti hau Tropelaren arrakasta-gabeziaren arazopean homogeneousatzea arazo postmoderno bati erantzun moderno bat ematea da —irakurlego biopolitikoki dibertso bati literatur eredu moderno bat ezartzea hain zuzen. Alegia, kanonaren polemika hau, kanonak ezabatzen dituen diferentzien salaketa den aldetik, polemika postmodernoa genuke. Alabaina, Salaketaren erantzun bezala beste kanon bat iradokitzen duen neurrian, polemika honek erantzun moderno baten zain segitzen du.

Generoaren polemika

Goazen orain, beste diferentzia batera eta beste polemika batera. Generoaren polemika esan diezaiokegu, gizonen polemika, edota emakumeen polemika. 90ko hamarkadaz gero, Espainiako zinean gertatu den bezalatsu (Cami Vela), emakumezko idazleen boom bat izan da euskal literaturan ere. Lurdes Oñederraren Euskadi sariarekin, Jasone Osororen arrakasta komertzialarekin edota *Gutziak* liburu ko-

lektiboaren argitalpenarekin (Arkotxa) historikoki koka daitekeen ez-tanda honek, gizonezko idazle ugariengan halako antsietate bat piztu du, zeina oso zail den dokumentatzen, batez ere ahozko esamesa ez-ofizial moduan hedatu delako.

Amaia Alvarez Uriak dagoeneko literatur kritikaren mailan orain arteko historiaren kanonak duen jite maskulinista salatu du: "Hasier Etxeberriaren liburuak jadanik zegoen kanon maskulinoa finkatu du, sendotu du, zilegitasuna eman dio (Aldekoaren historian berresten eta are gehiago murrizten dena)" (69). Alvarezek, artikulua berean, emakumezkoen literatur ihardunak behar duen hedapen eta azterketa aldarrikatzen du: "Euskal literaturaren historia osatu behar dugu beraz. Denontzako lekua egon beharko litzateke, eta laginik behar izanez gero, honek errealitatearen adierazgarria izan beharko luke, benetan daukagunaren erakusgarri. Diskurtso hegemoniko androzentrikoarekin amaitu eta euskal literatura aberastu behar dugu, feminizatu behar dugu, andrazkoen esperientzia eta kontamolde berriei bide emanez, estereotipo zaharrak apurtuz eta berriak sortuz, mundua ikusteko beste modu batzuk ezagutu eta zabaldu" (70). Gene-roaren diferentziaren polemika honetan, Aldekoak bere posizioa historikoki garbi ikusten du eta hala aldarrikatu du: "Literatura modernoari dagokionez ere, Arantxa Urretabizkaia, Amaia Lasa, Teresa Irastortza, Itxaro Borda, Miren Agur Meabe edo Lourdes Oñederraz hitz egiten da liburuan [bere euskal literaturaren historian]. Baina, inondik ere, ez da nahikoa. Eta alde horretatik, Amaia Alvarezek arrazoi du. Zergatik? Nirea historiaren ikuspegi modernotik, modernitatearen kontzientzia eta ballo estetikoetatik idatzitako liburua delako" ("Postmodernitatea" 154).

Alabaina, Alvarezek ere ez dio modernitatearen iruzurrari erabat ihes egiten. Alde batetik, eta Gayle Rubin eta Judith Butler-en teorizazioak jasotzen ez dituelako, oraindik ere sexu/genero banaketaz baliatzen da, biologia eta gizartea bereizteko. Ondorioz, Alvarezek genero-sistema monolitiko bat eraikitzen amaitzen du, non "emakume" kategoria esentzializatzen duen, zentzurik modernoan. Alegia, bell hooks bezalako kritikoez gero, feminista gehienek onartzen dute, "emakume" kategoria lehen munduko feminismo zuri, burges, kristauak desplegatu duen nortasuna dela, eta beraz ezin dela era ez-kritiko batean erabili, izan ere emakume mota asko marjinalatzen ditu kategoria esentzialista horrek. Bestela esanda, lehen momentu ba-

tean, feminismoa "emakume" kategoriaren bidez eraikitzen bada ere lehen munduan, kategoria horrek oso azkar frogatzen ditu bere mugak eta barne-kontraesanak. Alegia, Euskal Herrian emakumeak daude, baina zehazkiago lesbarrak eta heterosexuak daude, klase ertainekoak eta beste klasetakoak (proletarioak, etorkinak, eta abar), estatu espainiarrean eta frantsesean bizi direnak, beren buruak euskaldun kontsideratzen dituztenak eta ez dituztenak, beren nortasun lehena "emakume" kategoriak definitzen duela sinesten dutenak eta ez dutenak, bertakoak eta etorkinak.... Eta emakume guzti hauek ezin dira "emamuke" kategoriapean esentzialki bateratu, emakume talde berezi batek (zuria, klase ertainekoa, eta abar) beste guztiak errepresentatzen amaituko duelako. bell hooksek, Amerikatako esperientzia beltzetik, dioen bezala:

White women who dominate feminist discourse, who for the most part make and articulate feminist theory, have little or no understanding of white supremacy as a racial politic, of the psychological impact of class, of their political status within a racist, sexist, capitalist state.... While it is evident that many women suffer from sexist tyranny, there is little indication that this forges "a common bond among all women." There is much evidence substantiating the reality that race and class identity creates differences in quality of life, social status, and lifestyle that take precedence over the common experience women share—differences which are rarely transcended.... A central tenet of modern feminist thought has been the assertion that "all women are oppressed." This assertion implies that women share a common lot, that factors like class, race, religion, sexual preference, etc. do not create a diversity of experience that determines the extent to which sexism will be an oppressive force in the lives of individual women. Sexism as a system of domination is institutionalized but it has never determined in an absolute way the fate of all women in this society. (4-5)

"Emakume" kategoria estrategikoa egun desplegatzea garrantzitsua bada ere, tradizio ahantzi bat errekuiperatzeko eta kanonaren maskulinismoa salatzeke, kritika estrategikoko honek era berean aurreikusitako behar ditu kategoria esentzialista honen arazoak eta esentzialismoa honetatik ateratzeko bideak zabaldu. Hala, Aldekoak galdera moderno batekin erantzuten dio Alvarez, kalitatearena; alabaina, galdera honen atzean uste dut badela kezka garrantzitsu bat, eta hain zuzen zera litzateke: emakume kategoriaren beraren bar-

nean ezkututzen diren beste diferentzia eta kategoriak ez ahanzte. Alvarezen galderek euskal tradizio modernoa bere osotasunean kuestionatu dute eta kuestionatze hau postmodernoa eta erabat beharrezkoa genuke. Alabaina galdaketa honi erantzun postmoderno-global bat eman behar zaio, biopolitikaren ugaritasuna kontutan hartuko duena hain zuzen.

Euskadi sarien polemika

Eta azkenik irits gaitezen oraintsu sortu den azken diferentzien polemikara, hau ere Jon Alonsok hasia. Euskadi sariekin du zerikusia eta autore honek *Euskal kulturaren urtekaria*-n atera zuen artikulua batean du sorrera ("Euskadi sariak"). Alonsok, itzulpen sarian izandako esperientzia kontatu eta gero, Koldo Izagirrek sari hau ez lortzearen arrazoiak aztertzen ditu, eta hala amaitzen du saioa: "Zeren, literaturaren altzakian beste zerbait epaitzen ari denean, ofizioa denean barkatzen ez dena, planto egiteko garaia iritsi dela garbi geratzen baita. Ez gaitzaten tronparazi beren baraja markatuekin, uneko egokieraren arabera aldatzen dituzten arautegiekin, botoak kontatzen egiten dituzten hutsekin. Planto egin, baraja zaharra puskatu eta berria eskatu" (188). Artikulu hau zela eta, 2007ko otsailan, 29 idazlek, gehienak "ezker abertzale" izenpean nola edo hala batera ditzakegunak, manifestu bat plazaratu zuten "Utikan Euskadi Sariak", non diferentzia berri bat, hau kulturala eta politikoa zentzurik modernoenean, aldarrikatu zuten, literatur ofiziala eta ona kontrajarriz (Zubiri et al.). Merezki du manifestuaren lehenengo lau puntuak aipatzea:

- Baleztatu ahal izan dugu, urterik urte, gero eta ageriago, sarion helburua ez dela literatur kalitatearen gaineko ebazpen zintzoa ematea.
- Sarion helburua, funtsean, egungo aginteari otzana zaion jardun intelektual eta literario bat sortzea ez ote den hasiak gara sumatzen.
- Horretarako, antolamendu instituzionaletan behin eta berriz ageri den literatur aditu multzoaz eta zenbait erakunde gremialen dependentziaz baliatzen dira Euskadi Sariak.
- Zenbait teknikari, kritikari eta epai-mahaikok osatzen duten literatur sistema kudeatzen duen multzo horrek, irregularta-

sunak egin eta ontzat ematerainoko jokabidea erakutsi du, pertsonari dagokion diskrezionalitatek harantzago joanez.

Eta hain zuzen alternatibatzat, "literatur kalitatezkoa" proposatzen dute: "Jardun intelektual libre eta kritiko, kultura anitz, garatu eta agintearekiko autonomo baten alde gaude[nez]". Manifestuak aldarrikatzen dituen kategoriak modernoak ditugu: "intelektual" "kritiko" "autonomo". "Kultura aniztasuna" hemen ez da kulturantzatasun postmoderno bezala ulertu behar, baizik eta tolerantziaren kontzeptu liberal zaharragoaren arabera baizik.

Literaturaren historian "kalitatea" hemeretzigarren mendearen bigarren erdialdean burgesiak desplegatzen duen kontzeptu kulturala da, langileriak kultura egiten dituen aurrerakadak neutralizatzeko eta, estiloaren kontzeptuarekin batera, arte burgesa, eta zehazkiago modernista, defendatzeko; alegia burgesiak "distintzioaren kultura" sortzen du (Bourdieu). Are, kulturaren eta instituzioen soziologiak argi uzten du estatuaren instituzioek erregulatzen dutela "kalitatea" azken instantzian —bertatik literatur global komertzialak estatuarekiko lortu duen independentzia erlatiboa.

Beraz, azken polemika honek ere diferentzia berri bat erakusten du: EAEko gobernuak eratutako instituzio kultural moderno bat, Euskadi Sariak, krisian sartu dela eta ez dituela idazle guztiak egokiro interpelatzen; alegia interpelazio diferenteen polemika genuke berau. Alabaina, eskandaluan, ezkerak alternatibarik ez du azaldu. Azken batean beste instituzio/kultur sail ezkertiarago bat proposatzen ari baita solilik eta, dakigun bezala, horrek historikoki errealismo sozialistan eta zhdanovismoan amaitu du. Gurean "modernismo sozialista" batean amaituko luke seguruenik, beste kanon batekin, dagoena bezain hegemoniko eta eksklusiboa seguruenik: Koldo Izagirre eta/ala Joseba Sarrionaindia. Beraz, nik uste harantzago begiratu behar dugula. Alegia, ni 29 idazleekin ados nago, eta beren Eusko Jaurlaritzaren ihardunen kritika anti-modernoarekin, baina era berean, idazlearen erantzunak moderno izaten segitzen duela azpimarratu nahiko nuke.

Gainera, eta behintzat Elaine Showalter (73-99), Sandra Gilbert eta Susan Gubar-ek (45-92) gero, badakigu hain zuzen kalitatea eta ihardun intelektuala, besterik gabe, bere hutsean, aldarrikatzen direnean, emakumeak diskriminatuz amaitzen dela, gurean Laura Mintegik ondo azaldu duen bezala ("Literatura"). Manifestua zintatu zuten

hasierako 29 idazleetatik, oker ez banago, bi dira bakarrik emakumezkoak: Eider Rodriguez eta Idoia Gillenea, eta ez da kasualitatea.

Diferentzia txikien nartzisismoa: zenbait proposamen

Beraz zer egin goian azaldu ditudan diferentzien lau polemika horiekin? Zer esan bere izaera traumatiko eta eskandalosoari buruz? "Eskandalosoa" zentzu literalean diot, alegia eskandalu bezala azaleratu baitira. Lehen-lehenik esan dezadan, diferentzian oinarritzen diren neurrian —polemika biopolitikoak diren heinean hain zuzen— eta denak behetik-gorakoak direnez beren globaltasunean, polemika horiek oraindik ere are ugartzera deituak daudela: oraindik ere polemika gehiago espero ditzakegu.

Izan ere diferentziak berez eragiten du diferentzia bere barnean, diferentzia hauen eredu sortzaille eta erregulatzaille bateratua, kanonikoa eta superego mailakoa baita. Alegia, goiko polemika guzti horiek diferentziari apuntatzen badiote ere, azkenean, denek alternatiba bezala kanon bateratu eta hegemoniko bat defendatzen amaitzen dute, hala diferentzia eta polemika gehiago sortzeko aukera ahalbidetuz. Diferentzia bakoitzak kanonarekiko bere burua diferente bezala definitzen duen bitartean, diferentzia honek beste diferentzia "diferenteago" batzuk sortuko ditu osterantzean.

Diferentzien polemikak bi modutara irakur ditzakegu. Nietzsche-k bere *Moralaren genealogia*-n *ressentiment*-aren logika bezala definitzen duena, hitz frantsesa erabiliz, lehen irakurketaren gunean egongo litzateke, izan ere diferentzien polemika erresentimentuaren moralak ekarriko bailuke irakurketa honen arabera. Abiapuntu nietzschearra egun onargarria ez bada ere, erresentimentuaren logikak kultura eta moral berri hau esplikatzeko balio du eta kritiko batek baino gehiagok erabiliko du aurrerantzean. Nietzscheren arabera, diferentziaren polemika, eta honek sortzen dituen moral eta kultura berriak, mediokritatearen fruitu dira, izpiritu noble-librearen aurka eraikitzen diren izpiritu esklaboen morala baita azken batean: "The slave revolt in morality begins when *ressentiment* itself becomes creative and gives birth to values: the *ressentiment* of natures that are denied the true reaction, that of deeds, and compensate themselves with an imaginary revenge" (36). Alegia, diferentziak

sortzen dira kultura indartsu bat krisian sartzen denean eta men-
dekuak diktatzen duenean kultura horren noranzkoa. Beraz erresenti-
mentuaren logika dekadentziaren zeinu litzateke. Neurri batean, Sla-
voj Zizek-ek ere kulturantzatasuna prisma honetatik ikusi du eta, are,
mediokritatearen eta dekadentzia honetan, kapitalismo globalak eta
neoliberalismoak are indartuagorik aterako direla defendatzen du:

the much-praised postmodern 'proliferation of new political sub-
jectivities', the demise of every 'essentialist' fixation, the asser-
tion of full contingency, occur against the background of a certain
silent *renunciation* and *acceptance*: the renunciation of the idea of
a global change in the fundamental relations in our society (who
still seriously questions capitalism, state and political democra-
cy?) and, consequently, the acceptance of the liberal democratic
capitalist framework which *remains the same*, the unquestioned
background, in all the dynamic proliferation of the multitude of
new subjectivities. (321)

Ondorioz, Zizekek "nortasun amaiezinen dantza eroak" azke-
nean "Terrorea" ekarriko digula abisatzen digu. Alegia denok denon
kontra gure diferentziarik txikiengatik borrokatuz mendekuzko
kaos orokor batean amaituko dugula ohartarazten digu autore ho-
nek: "today's 'mad dance', the dynamic proliferation of multiple
shifting identities, also awaits its resolution in a new form of Terror"
(326). Alegia, diferentzien dantza ugaltzaileak berak, azkenean ehun
soziala erabat urratu aurretik, beste aita tribal baten beharra sortuko
digu adierazi nahi du Zizekek, eta beraz aita berri honek ezabatuko
dituela diferentzia guztiak terrorez, berriro ere bere indar eta balio
sinboliko bateratzailea berrezarrit. Beraz galdera zera litzateke, Terro-
rera al goaz? Euskal literaturak eta kulturak nortasun ugaritze ero eta
amaiezin batean amaituko al dute, beste Atxaga bat etor dadin guz-
tiok erregutzen amaitzen dugun arte, seguruenik belauniko eta bi
eskuak bateratuta zerurantz begira? Euskal diferentzia ere ezabatuz
gatzelerazko eta frantseseko kulturetan sarrera eskatuz amaituko al
dugu, geure euskal diferentzia ere azkenean erresenti-mentu hutsa-
ren produktu dela aitortuz (bi estatuetan askok sinesten duten beza-
la)? Neoliberal espainiar eta frantses zintzo izaten amaituko al dugu?

Bada bigarren irakurketarik. Nik uste Freudek ematen digula
egoera hau ulertzeko abiapunturik onena, sarritan aipatu den pasarte

isolatu batean. 1918ko "Virgintasunaren tabua" artikuluan, Freudek Ernest Crawley antropologoa aipatzen du eta zera konkluditzen:

Crawley... sets forth how each individual is separated from the others by a "taboo of personal isolation" and that it is precisely the little dissimilarities in persons who are otherwise alike that arouse feelings of strangeness and enmity between them. It would be tempting to follow up this idea and trace back to this "narcissism of small differences" the antagonism which in all human relations we see successfully combating feelings of fellowship and the commandment of love toward all men. ("Taboo" 76-7).

Beraz Freudi jarraikiz, orain galde dezakegu *diferentzia tipien nartzisismoan* erori den euskal literatura, bakarrik egoteko tabu hipotetiko bat dela medio. Uste dut globalizazioak ekarri duen prozesu merkantillistak horretara bultzatzen gaituela: alegia, gure diferentzia biopolitiko guztiak merkatuaren arrakastan frogatu eta gozatu ditugun esperantzan sinestera, guztiok kanona izan gaitzkeela prometatuz. Horregatik egon behar dugu guztiok batera, merkatuaren espazio bakarrean, gure arteko diferentzia biopolitiko erreal eta historikoak diferentzia tipien nartzisismo bihur daitezzen. Postmodernitateak eta globalizazioak gozamina ekarri dute kultur printzipio berri bezala —kultura eta literatura libidinalizatuz— baina era berean gozamen hori merkaturak bakarrik goza daitezkeela agindu digute, merkaturak dela gozamen horren neurri bakar aldarrikatuz. Nik uste ideologia hori desmuntatu behar dugula, subjektu diferentteek, beren bakardadean, beren historikotasunean, berauen diferentziak goza ditzaten, nartzisismoan edota minimalismoan erori gabe. Hemen dago nire ustez Zizeken hutsegiterik handiena: diferentzien historikotasuna eta diferentzia tipien nartzisismoa nahastea. Zizek bera bihurtzen da azkenean kapitalismoaren hegemoniaren eta ekidinezintasunaren defendatzaile nagusien. Nerea ez da beste doktrina pseudo-modernista bat, literatur merkataritzaren kontra. Merkaturak oso leku garrantzitsua da, baina ez bakarria edota azkena. Modernitatearen aurka, merkaturak gogorarazten digu gure diferentziak gozatu egin behar ditugula eta ez kanonizatu; baina era berean gogoratu behar dugu, merkaturak ez duela gure *telosa* izan behar edo gozaleku bakar. Hemen dago oraindik literaturaren balio utopiko eta anti-kapitalista, Zizekek ikusten ez duena hain zuzen.

Zer esan nahi du guzti honek euskal literaturaren gaurko egoera zehatzean? Bada Euskadi sariak, adibidez, ezin direla kanon moderno baten arabera eta kanon hori legitimatzen duten instituzio eta profesionalen arabera eman. Modernoa ez den eta merkataria soilik ez den gozamenaren ulerkera berri batetik eman behar ditugu. Euskadi sariak, "nazional" izatekotan, edozein epaimahai signaturen gustu, jakintza eta hutsegiteetatik arantzago joan behar dute. Hain zuzen diferentzien kulturen bizi garelako, despotismo ilustratuaren garaitik datorren eredu bertikalak ez digu jada balio. Oraindik ere polemika gehiago sortzera deitua da sistema hau eta azken batean kanon modernoaren indarketaren itzalpetik ez da aterako. Diferentzien polemikarekin amaitzeko, eredu barneratzaile edota inklusibo bat behar dugu. Eredu korporatibista bat askozaz ere sorgarriagoa izango litzateke, izan ere idazle guztiak barneratuko lituzke —idazle nor den arazoa indartuko balu ere. Hitz gutxitan, urtero idazle guztiek finalistak izendatu eta finalista horietatik irabazlea zein den bozkatzeko aukera izango lukete.

Jakina, idazle komunitateak ere bere superego propioa sortuko luke, eta bere kanona halaber. Baina superego eta kanon hauek barneratzaile diren heinean, diferentzien polemikatik haratago joateko aukera emango digute. Bestela esanda, modernitatearen zama gainetik kentzeko aukera eman diezagukete. Proposamen hau ez da betierekoa edota idealala. Historikoa da eta egungo kinkari erantzuten dio era errealista batean. Are, Oscar/Goyen formatua hartuz gero, idazlegoak medien ikusgarritasuna eta presentzia berreskuratuko luke.

Kritikari dagokionez, bi proposamen ditut. Lehen proposamena zera litzateke: kanona dekonstruitzea-historizatzea eta kanonikoak ez diren idazleen berrirakurketa ez-kanoniko bat egitea. Kritikoak dira kanonaren erlijioari apostasia egin behar dioten lehenak. Adibidez, Tropelaren belaunaldia, talde porrotatu bezala teorizatzen eta historizatzen segi beharrean, bertan idazle desberdinen artean dauden desberdintasun eta diferentziak leituz berrirakurri beharko genuke. Diferentziak aztertzen hasiz gero, Joxean Sagastizabal bat nola kokatu erabaki beharko genuke, eta nik uste Sagastizabalek beste ikuspen oso desberdin bat emango ligukeela belaunaldi guztiaren gainean —halaber Montoiak edota Epaltzak. Deskanonizazioak bestalde, bigarren lan soziologiko bat ere bada: literatura eta instituzioak

batera pentsatzea, filologiak proposatzen duen idealismo platoniko-textualetik haratago.

Beste proposamena, erkaketarena litzateke. Kritikak ardua garantzitsua du euskal literatura bere nartzisismotik atera eta testuiguru erkatzaille batean ezartzeko. Gutxitan aztertzen da euskal literatura galiziarrekin eta katalanarekin batera. Salbuespen merituzkorik bada, baina salbuespen azken batean. Uste dut lan erkatzaille honek ikuspegi erreago eta historiko bat emango ligukeela euskal literatura aztertzerakoan. Hemen ere erkaketa instituzionala lagungarri litzaliguke.

Azkenik, uste dut idazleek esfortzu bat egin behar dutela, merkatuaz gain, hitzaldi ofizialez gain, sari nazionalez haratago, merkatutik kanpo dauden diferentzia sozial horien gozamina sortzeko, lekune berriak asmatzeko. Hau ez da ezer berria. Hain zuzen maila honetan emakumezkoen literatura eredu dukegu: kanonak eta instituzioek onartzen eta apoiatzen ez zituzten garaietan, bide berriak jorratu zituzten, askotan merkatutik pasatzen zirenak, beren diferentzien literatura gozamen bezala hedatzeko. Egun eta batez ere internetari esker, idazleak bere irakurlegoa sortu eta irakurlego horrekin oso erlazio pertsonala sortzeko aukera dauka, irakurlego hori zaindu eta hedatuz. Egun idazketa ez da amaitzen testua burutzean, kanonaren superego aitatiarrak onespina noiz emango idazlea zain geratzen delarik bere espazio pribatu modernoan betiereko isiltasunean zintzo-zintzo —elkarrizketa mediatiko bat edo bi emanez isiltasun hori balesteko. Egun idazketa orduantxe hasten da, liburua argitaratzean; egun literatura komunitate-sorketa baita. Promozio komertzialaz haratago doan ihardun askozaz biopolitiko eta historikoago batean sortzen da literatura egun. Bestela, marketinak, “consumer research”-ak eta promozio egituratuak hartuko diete aurrea honetan ere idazleei.¹⁰

Beraz, amaitzeko esan dezadan, gaur egun arte, diferentziaren gozamina, kulturantzitasuna, euskal literaturaren fantasma izan direla. Diferentziak ezabatu edota erreprimitu egin dira kanonari hobetsiz.

10 Eta badirudi idazlego gazteenaren superego berria merkatua dela hain zuzen, eta beraz belaunaldi berriak ere bere superegoa kuestionatu eta dekonstruitu beharko duela, merkatuaren morroi izaten amaitu nahi ez badu behintzat.

Uste dut badela garaia kanona eta merkatua fantasma bihur ditza-
gun, hala kulturantzatasuna gure literaturaren giltzarri bihur dadin.

Bibliografia

- Aldekoa, Iñaki. *Historia de la literatura vasca*. Donostia: Erein, 2004.
- , "Postmodernitatea gurean?". *Egan* 1.2 (2006): 141-156.
- Alonso, Jon. "Tropela". *Argia*. 1897. 2003 Mai. 4.
- , "Testuingurua". *Argia*. 2000. 2005 Uzt. 10.
- , "Euskadi Sariak". *Euskal kulturaren urtekaria: 2007*. Donostia: Argia, 2007. 183-88.
- Alvarez Uribe, Amaia. "Euskal emakume idazleen lekua literaturaren historian. Dorrearen arrakalak agerian uzten." *Jakin* 148 (2005): 37-74.
- Appadurai, Arjun, ed. *Globalization*. Durham, NC: Duke University Press, 2001.
- Arkotxa, Aurelia et al. *Gutziak*. Tafalla: Txalaparta, 2000.
- Atxaga, Bernardo. *Obabakoak*. Donostia: Erein, 1988.
- , *Gizona bere bakardadean*. Pamplona: Pamiela, 1993.
- , *Zeru horiek*. Donostia: Erein, 1995.
- , *Un traductor en París*. 1. (10-11, 1996 Abuz. 26); 2. (8-9, 1996 Abuz. 27); 3. (8-9, 1996 Abuz. 28); 4. (8-9 1996 Abuz. 29); 5. (12-13, 1996 Abuz. 30); 6. (10-11 1996 Abuz. 1). (*Un traductor a París i altres relats*. Itzul. Margaret Jull Costa.artzelona: La Magrana, 1999).
- , *Soinujolearen semea*. Iruñea: Pamiela, 2003.
- Bourdieu, Pierre. *Distinction: A Social Critique of the Judgment of Taste*. Cambridge, MA: Harvard University Press, 1984.
- Butler, Judith. *Gender Trouble: Feminism and the Subversion of Identity*. New York: Routledge, 1990.
- , *Bodies that Matter: On the Discursive Limits of "Sex."* New York: Routledge, 1993.
- , Ernesto Laclau and Slavoj Žižek. *Contingency, Hegemony, Universality: Contemporary Dialogues on the Left*. London: Verso, 2000.
- Cami Vela, María. *Mujeres detrás de la cámara. Entrevistas con cineastas españolas de la década de los 90*. L.e.: Ocho y medio, 2001.
- Echevarría, Ignacio. "Una elegía pastoral". *El país*. 2004 Irai. 4. http://www.elpais.com/articulo/semana/elegia/pastoral/elpepuculbab/20040904elpbabese_3/Tes.

- Foucault, Michel. *Histoire de la sexualite. I. La volonté de savoir*. Paris: Gallimard, 1976.
- Freud, Sigmund. "The Taboo of Virginity". *Sexuality and the Psychology of Love*. New York: Collier, 1963. 70-86.
- , *Totem and taboo*. New York: Norton, 1950.
- Gabilondo, Joseba. *Nazioaren hondarrak: Euskal literatura garaikidearen historia postnazional baterako hastapenak*. Bilbo: EHU-ko Argitalpen Zerbitzuak, 2006.
- Gilbert, Sandra M. eta Susan Gubar. *The Madwoman in the Attic: The Woman writer and the Nineteenth-Century Literary Imagination*. New Haven: Yale University Press, 1979.
- Gouges, Olympe de. *Ecrits politiques, 1788-1791*. Paris : Côté-femmes, 1993.
- Grewal, Inderpal. *Transnational America: Feminisms, Diasporas and Neoliberalisms*. Durham, NC: Duke University Press, 2005.
- , eta Caren Kaplan, edk. *Scattered Hegemonies: Postmodernity and Transnational Feminist Practices*. Minneapolis: University of Minnesota Press, 1994.
- Habermas, Jürgen. *The Inclusion of the Other: Studies in Political Theory*. Cambridge, MA: The MIT Press, 2001.
- Halberstam, Judith. *Female Masculinity*. Durham NC: Duke University Press, 1998.
- Herrscher, Roberto. "El caso Echeverría- 'Babella'. Sobre la independencia de la crítica". *Lateral* 121 (2004). <http://www.circulolateral.com/revista/debates/deb7.htm> l. 2007 Mai. 20.
- Hirst, Paul eta Grahame Thompson. *Globalization in Question*. Cambridge: Polity, 1996.
- hooks, bell. "Black Women: Shaping Feminist Theory". *Feminist Theory: From Margin to Center*. Boston, MA: South End Press, 1984. 1-15.
- Jameson, Fredric. *Postmodernism, or, The cultural logic of late capitalism*. Durham, NC: Duke University Press, 1991.
- Kortazar, Jon. *Literatura vasca, siglo XX*. Donostia: Etor, 1990.
- Larrauri, Eva. "Los escritores nacionales son sujetos de cartón piedra". *El país*. 2007 Mar. 17. Lexis-Nexis, Main Lib. Michigan State University. http://web.lexis-nexis.com.proxy2.cl.msu.edu:2047/universe/document?_m=bdf85f972f05de6337d1081d6a7c8430&_docnum=11&wchp=dGLbVzz-z5kVb&_md5=6dbbe07c5298b12cda226cbd54d81edb. 2007 Mai. 20.

- Lyonnet, Françoise eta Shu-mei Shih, edk. *Minor Transnationalism*. Durham, NC: Duke University Press, 2005.
- Lyotard, Jean-François. *La condition postmoderne: rapport sur le savoir*. Paris: Éditions de Minuit, 1979.
- Martín Vigil, José Luis. *La vida sale al encuentro*. Madrid: Escelicer, 1964.
- Mintegi, Laura. "Literatura emez janzten denean". *Argia* 1779. 2000 Urr. 15. 33.
- Olaciregui, María José. "Un siglo de novela en euskera". *Historia de la literatura vasca*. Patricio Urquizu, ed. Madrid: Uned, 2000. 504-88.
- Oñederra, Lourdes. *Eta emakumeari sugeak esan zion*. Donostia: Erein, 2000.
- Osoro, Jasone. *Tentazioak*. Donostia: Elkar, 1998.
- Parekh, Bhikhu. *Rethinking Multiculturalism: Cultural Diversity and Political Theory*. New York: Palgrave, 2006.
- Nietzsche, Friedrich. *On the Genealogy of Morals; Ecce Homo*. New York: Vintage, 1969.
- Rubin, Gayle. "The Traffic in Women: Notes on the 'Political Economy' of Sex". *Feminism and History*. Ed. Joan Wallach Scott. New York: Oxford University Press, 1996. 105-51.
- Sagastizabal, Joxean. *Kutsidazu bidea, Ixabel*. Irun: Alberdania, 1994.
- Showalter, Elaine. *A Literature of their Own: British Women Novelists from Brontë to Lessing*. Princeton, NJ: Princeton University Press, 1977.
- Young, Iris Marion. *Inclusion and Democracy*. New York: Oxford University Press, 2000.
- Zaldúa, Iban. "Tropelekoa izateko bederatzi manera (beste panfleto bat, puztua)". *Animalia disekatuak*. Donostia: Utriusque Vasconiae, 2005. 66-73.
- Zizek, Slavoj. "Holding the Place." Butler, Laclau, Zizek. 308-29.
- Zubiri, Harkaitz et al. "Utikan Euskadi Sariak". www.utikan.com. 2007 Mai. 21.

Trebiñu konterriko euskal toponimia (II)

Luis Mari MUJICA

ABABANA

Sasetako lurgintza, Lpz. Gereñu 1665 urtea.

ABAI SOLO

Obekuriko lurtsaila *.

ABAI SOLO, ABADESOLO

Obekuriko saila, González Salazar 1735 urtea.

ABARDURI

Azkartzako saila, erreg. 221.50.46.

ABARO

Trebiñuko saila.

ABELLANA

Trebiñuko lurtsaila, erreg. 188.31.77.

ADABANA

Sasetako lurgintza, Lpz. Gereñu 1691 urtea.

ADABARRA

Sasetako saila.

AGALATIA

Trebiñuko saila.

AGILLO (AGILU)

Trebiñu konterriko herria *.

AGITURRI

Golernioko saila, erreg. 291.75.194.

AIARRO

Pedruzoko saila.

* *Abaisolo, Abadesolo* saila. *Abade* -"B" "sacerdote" lat. *abbatem*-etik *abad* erro-manikoaren zehar; *-solo* "heredad, sembradio", "campo".

* *Aguillo (Agilu)* herria. *Gogate una rega, Agellu una rega, Pudio una rega* 1025 urtean, *Balparda, Vizcaya y sus fueros I*, 388, *Gogate I Rg., Agellu I rg...*, Serrano, C.S. Millán, 104. Badira beste testigutzak ere: *Aguello* 1325 urtean, *Agilli* 1637 urtean (Lpz. Gereñu, op.c. 20). Hemengo toponimo nagusiaren ildokoa da *Agilllobide*. Llorente-ren ustean, Kalagurriko zerrendako *Aguelu* geroko *Aguillo (Agilu)* da; kasu horretan lat. *ager*-en erroitik datorren *agellus* "campo pequeño, campillo" diminutibalaren errokoa litzateke. Cfr. *J. Caro Baroja*, *Historia General del País Vasco III*, 189-190.

| | |
|--------------------------------|---------------------------------|
| AIMA | ALANBALZA (ARANBALZA?) |
| Baxauriko saila. | Uzkioko saila. |
| AIMA (ZARUASTEIA) | ALARRTE |
| Baxauriko saila, Gonz. Salazar | Trebiñuko saila. |
| 1561 urtea. | ALBAINA (ALBAITA) |
| AISPE | Trebiñu konderriko herria * |
| Ozanako saila, erreg. | ALBINETE |
| 151.186 * | Billa Toberako saila. |
| AISUNZA | ALDA |
| Agiluko saila, erreg. 10. 206. | Dordonizko hegia. |
| AJARTE (AXARTE) | ALDABASA |
| Trebiñu konderriko herria * | Sasetako lurtsaila, erreg. 113. |
| AKARRANDURI | 16. 212. |
| Doroñuko lurtsaila, erreg. | ALDAI |
| 209. 43. 32. | Trebiñuko lurtsaila, erreg. |
| AKITURRI | 189. 34. 218. |
| Golernioko saila, erreg. 291. | ALDAIA |
| 75. 194. | Billa Toberako lurgintza. |
| AKUZMENDI | ALDAPETA |
| Billa Toberako saila. | Baxauriko saila * |
| ALAGATIA (AGALATIA?) | |
| Trebiñuko saila. | |

* *Aispe* saila. *Aispe* tokizenean *aitz*-“roca” ekialdekoa islatzen da; -pe “cabe, debajo”. Bere ondoan *Aspe* “sopeña” mendebalekoa.

* *Ajarte* (*Axarte*) herria. *Hasarte*, *Fachart* 1025 urtean Donemillagako zerrendan, *Fachart* 1257 urtean (Hergueta), *Haxarte* 1325 urtean, *Axarte* 1593 urtean. *Fachart* aldakiak hasierako *h* fonemaren nolabaiteko zintzurkatzea islatzen du *Haxarte* / *Hassarte* arkaikoarekiko). Hemengo *Axarte*- “*entrerrocas*” *Ajarte* bihurtu da gerora gaztelaniaren ukituan; -*arte* “entre”, “espacio intermedio”.

* *Albaina* (*Albaita*) herria. *Albaita* bezala 1257 urtean (Hergueta), *Albaina* 1556 urtean eta ondorengoetan. Badirudi *alb*- erroa aurelatinoa dela eta amaierako -*ina* atziki latino baten ildokoa. Bestalde, 1257 eta 1325 urtetako *Albaita*-k arabiar ildora ere garamatza, hizkuntza horretan *balda* “blanca” izaki. Cfr. J. *Asín Palacios*, *Toponimia árabe*.147, M. L. *Albertos*, “Alava prerromana y romana, estudio lingüístico”, in *Estudios de Arqueología Alavesa* (1968), 181.

* *Aldapeta* saila. *Aldapa*- “*cuesta, repecho*”, seguraski, bere erroan *alde*- eta -*pe* “cabe” osagaiak daudela -azkenengoa bokalaren apofoniaz;- eta tokizko atziki latinoa. Hemengoaren osaera dute *Bialdapeta*, *Bialdapebe* (1753 urtea) tokizenek.

- ALDEBELARRA
Trebiñualdeko salla.*.
- ALEKAZA
Trebiñuko salla.
- ALINDAURRA
Lañuko salla.
- ALINDORRA
Lañuko salla.
- ALITXANDI
Axarteko lurtsalla.
- ALKARRIO
Trebiñualdeko salla.
- ALKUMENDI
Trebiñualdeko salla.
- ALMAIA
Trebiñualdeko salla.
- ALMOJABE
Trebiñualdeko salla.
- ALMORA
Trebiñualdeko salla.
- ALMORAZ
Trebiñualdeko salla.
- ALMOSTEA
Sasetako lurgintza, Lpz. Gere-
ñu 1684 urtea.
- ALMOSTIA
Sasetako lurgintza, Lpz. Gere-
ñu 1734 urtea.
- ALOSTE
Azkartzako salla.
- ALPIDIA (ARPIDIA)
Trebiñuko salla, erreg. 75. 10.
206*.
- ALRANZA
Lañuko salla.
- ALRATEGI
Sasetako lurgintza, Lpz. Gere-
ñu 1691 urtea.
- ALRIANA
Lañuko salla.
- ALRUSA
Ogetako salla.
- ALTAZA
Zurbituko salla, erreg. 139.
24. 137.
- ALTEGI
Torreko salla.
- ALTIKURIBE
Ozanako salla, erreg. 250.
60. 39.

* *Aldebelarra* salla. "Ittn otra plesa en el termino de Aldebelarra de una fanega surco por bochorno a Fernando Mendoza...". Arch. H. Prov. Hipot. 3384, 267, 1772 urtea.

* *Alpidia* salla. *Al- ar-* "piedra" *r<l* disimilazioaz, *Arpidia* protoera beherago ematen dela, *-pidia* "el camino" kasuan lehen kontsonantearen ahoskabetzeaz. Disimilazio bera *Artegi Altegi*, *Sarbide Salbide*, *Aritxandi Alitxandi* kasuetan. Beherago *Alzubia / Arzubia* "puente de piedra" aldaketa beraz. Ertaroko lekukoetan *arri*-tik hurrengoak: *Ilia vinea de Harrate* 1087 urtean, *Illo monasterio de Arrigorria* 1197 urtean, *Michaelm Petri de Argayc* 1268 urtean, *Johan Periz d'Arryeta* 1350 urtean. Cfr. Términos vascos, 125.

- (ALTO) ALARRATE
Ozanako saila.
- (ALTO) ARTAZA
Saratsuko saila.
- (ALTO) BEROKIA
Axarteko saila, erreg. 92. 13. 6.
- (ALTO) MENDIGURI
Imiruri eta Otxateko saila.
- (ALTO) SAGARRALDIA
Uzkioko saila.
- (ALTO) ESPIRIBIL
Marauriko saila.
- (ALTO) GOMETIZA
San Vicentejoko saila.
- (ALTO) GUSTIBE
Ozanako saila.
- (ALTO) ITURRATE
Ogetako saila.
- (ALTO) KOKUMENDI
Argoteko saila.
- (ALTO) KRUZABALA
Paritzako saila.
- (ALTO) MASEGA
Billa Toberako saila, erreg. 6. 226.
- (ALTO) MATRIKUANA
Billa Toberako saila.
- (ALTO) ORMAZABE
Pedruzoko saila.
- (ALTO) POZARRATE
Ozanako saila.
- (ALTO) REBALZA
Billa Toberako saila.
- (ALTO) SARRTE
Billa Toberako saila.
- (ALTO) SOLARAN
Moscatorko saila.
- (ALTO) SUARRA
Saratsuko saila.
- (ALTO) TALAMENDIA
Paritzako saila.
- (ALTO) TURRIALDEA
Torreko saila.
- (ALTO) TURRISAGRADO
Saratsuko saila.
- ALUDUBE
Bustuko saila, erreg. 2. 186.
- ALZABARRENA
Lañuko saila, erreg. 323. 86. 216.
- ALZABASTERRA
Lañuko saila *.
- ALZAIA
Lañuko saila.
- ALZARRETA
Albaitako saila.

* Alzabasterra saila. Alza- "aliso", agian, lat. *alsinum*-en ildotik; -bastera "rincón, orilla". Hemengoaren segidakoa da Alzabarrena.

- ALZARTIA (AZARTIA?)
Tربیñualdeko saila *.
- ALAZA
Lañuko saila, ereg. 213. 46.
125.
- ALZUBIA
Lañuko saila.
- ALLONDO
Tربیñualdeko saila.
- ALLORI
Burgetako saila.
- AMASOLO
Obekuriko saila, Gonz. Salazar
1802 urtea *.
- AMESTUIA
Fuidioko saila, erreg. 27. 3.
85.
- AMEZTUIA
Baxauriko saila, Gonz. Salazar
1802 urtea *.
- AMOLDIA
Sanmartintzarko saila, erreg.
108. 15. 54.
- AMURALDE (ARMORALDE?)
Axarteko saila.
- ANASTURI
Imiruri-Otxateko saila.
- ANDABIA
Tربیñualdeko saila.
- ANDARAZO
Albaitako saila.
- ANDOÑANA
Tربیñualdeko saila *.
- ANDIGOZA
Paritzako saila.
- ANDOÑANA
Golernioko saila, erreg. 135.
146.
- ANDUGATXE
Paritzako saila.
- ANEA
Sasetako lurgintza, Lpz. Gere-
ñu 1827 urtea.
- ANPERIZ
Tربیñualdeko saila.

* *Alzartia (Azartia?)* saila. "Otra en el termino de Alzartia labor de media Yugada... de Juan Bajo y herederos de Juan Villarreal...". Arch. H. Prov. Burgos, Hipot. 3384, 237, 1774 urtea.

* *Amasolo* saila. "Itt. Otra heredad en Amasolo de una fanega lintera a dicho Juan Lopez Mayordomo Joseph de Lozo y regajo en medio". Arch. H. Prov. Hipot. 3384, 266, 1775 urtea.

* *Ameztuia* saila. *Ametz* "quejigo, melojo"; *-tuia* tokizko atzizkia hozkariaren ahoskabetzeaz afrikariaren ostean. Baxauri-Obekurialdean ezaguna da *almez* delakoa "clase de roble" esanguraz; hemengo *ametz*-en ildokoa da, antza. Cfr. *Gonz. Salazar*, art.c. Eusko Folklore (1971-72), 10.

* *Andoñana* saila. Arabako *Antoñana* toponimo nagusia bezala, lat. *Antoniana* batetik *nt<nd* prozedura ozenaz sudurkariaren ostean; beste bidea -ez-hain probalea, ordea- euskal *andu* erroa litzateke.

- ANSOLETA
San Martin Galbaringo saila *.
- ANSUSOLO
Trebiñualdeko saila.
- ANTAURIA
Zurbituko saila, erreg. 239.
56. 182.
- ANTAURRIO
Zurbituko saila, erreg. 239.
56. 182.
- ANTETXA
Sasetako baserria, Lpz. Gereñu 1665 ruta.
- ANTURBIDE
Trebiñualdeko saila.
- ANTURBIRI
Pedruzoko sala.
- ANTURRARAN
Moscatoroko saila.
- ANTUSPIA (INTUSOPEA)
Baxauriko saila, 1561 urtea
- ANZASULO
Trebiñualdeko saila.
- ANZINA
Trebiñuko saila.
- AÑASTRO
Trebiñu konderriko herria.
- AÑASTURRI
Imiruri-Otxateko saila.
- APORIO (ASPORIO?)
Baxauriko mendia.
- ARABANA
Sasetako saila, Lpz. Gereñu 1827 urtea.
- ARAENAKOTXA
Sasetako lurgintza, Lpz. Gereñu 1827 urtea.
- ARAICO (ARAIKO)
Trebiñu konderriko herria *.
- ARAKA
Trebiñualdeko saila.
- ARALDE
Trebiñualdeko saila.

* Ansoleta saila. Anso- Santxo (lat. Sanctius) izen berezitik beste Anso, Antxo, Ansotegi, Ansoain kasuak bezala; -ola egonlekua adierazten duen paratizikia; -eta tokizko atzizkia. Bere segidakoa da Anusolo.

* Añastro herria. *Et in villa Anggastro uno collazo cum suas casas Monnio Blasoz nomine 1083 urtean, Serrano, C.S. Millán 255, Et meam hereditatem quod habeo in ipsa villa Anggastro 1083 urtean, Serrano, C.S. Millán 256.* Ortografia zaharrean hemengo gg- taldeak ñ bustidurazkoa ukan du ordain, jakina denez. Toponimo honen ildokoa dirudi Añasturri tokizen tiplak. Añastro herriak hiribildu titulua 1734 urtean jaso zuen. Bertako toponimoak, gehienbat, gaztelaniarrak dira, herria Konderraren hego-mendebaldean kokatzen delako.

* Araiiko herria. Egun despopulaturik dago. Baliteke -icus atzizkia duen erro aurrelatino baten iturrikoa izatea (ala Araius latinoaren hurrenkerakoa Araica Arai (illa) gisako epigrafiaren ematen delarik Kontrastako harri batean). -ko euskal deklinatibo delakoa (Ara(in)ko*Aranko batetik) hemen ez zaigu hain egatia iruditzen. Toponimo hau egon daiteke, bestalde, Araka izen nagusiaren erlazioan.

- ARAMAIOR (ARAMAYOR)
Bustuko lurgintza.
- ARAMAKOTXA
Sasetako saila.
- ARANBE
Trebiñualdeko saila.
- ARAMENDI
Uzkioko saila, Lpz. Gereñu
1836 urtea *.
- ARAMENDIA
Sasetako saila.
- ARANA
Trebiñu konderriko herria *.
- ARANANZARTE
Trebiñualdeko saila.
- ARANBALZA
Uzkioko saila, erreg. 157. 22.
- ARANBE
Araikoko saila, erreg. 250.
60. 17.
- ARANBIDE
Dordonizko erreka, Mosca-
torko saila, erreg. 11. 222.
- ARANBIDI
Aranako saila.
- ARAMBURA
San Vicentejoko saila, erreg.
1. 245.
- ARANDI
Saratsuko saila, erreg. 275.
69. 150.
- ARANDOÑO (ARANDOÑA)
Billa Toberako saila.
- ARANGATXA
Sasetako saila *.
- ARANGUNITA
Pedruzoko saila, erreg. 140.
210.
- ARANGURA (ARANBURUA?)
San Vicentejoko saila, Lpz.
Gereñu 1706 urtea.
- ARANGURENA
Baxauriko saila, G. Salazar,
1753 urtea,
- ARANGUTE
Armentiako saila.
- ARANGUTI
Bustuko sakana, erreg. 154.
128.
- ARANKATXA (ARANGATXA)
Trebiñualdeko saila.

* *Aramendi* saila. *Ara(n)*- "valle" kontsonante aitzinean eroritako sudurkariak; -*mendi* "monte". *Aran* osagalak, oraindik, *Aranbidia*, *Aranbalz* "valle negro, oscuro", *Aranbe*, *Aranbura* (*Aranburua*) "cabezo o colina del valle", *Aranguti*, *Arantxiplia*, *Aran-solo* gisakoak eman ditu. Bigarren osagai bezala, berriz, *Iturraran*, *Arrutxaran*, *Marabillaran*, *Barrokaran* modukoetan.

* *Arana* herria. *Arana* "valle". Ogeta herrian bada *Arana* izeneko saila. "Itt. io el dicho Juan de Argote hipoteco otro termino de Arana de media Yugada...". Arch. H. Prov. Burgos, Hipot. 3384, 278, 1775 urtea.

* *Arangatxa* saila. *Aran*- "valle"; -*gatxa* "malo, abrupto", "grande". *Arankatxa* hemengoaren aldaera da. Osagai bera dute *Mikagatxa* (Uzkio), *Andigatxa* (Paritza) toponimoek. *Aran*-ek, bestalde, dardarkari bikoitza du *Arantxiplia*, *Arransolo* kasuetan.

ARANOBÍ

Marauriko saila.

ARANSOLO

Billa Toberako saila, erreg.
117. 18. 10.

ARANTXIPI

Obekuriko sakana, erreg.
431. 108. 187.

ARANUDO

San Martin Galvaringo saila.

ARANURALDE

Agilu eta Axarteko saila.

ARANZETA

Albaitako saila *.

ARASTUIA(ARESTUIA)

Sasetako lurgintza, erreg.
147. 111 *.

ARATURI

Caicedoko saila, erreg. 135.
21.

ARBE

Aranako saila, erreg. 218. 48.
155.

ARBE-ANZASULO

Moscatoroko saila.

ARBEA

Trebiñuko saila, erreg. 115.
16. 12.

ARBINA

Otxateko saila, erreg. 210.
44. 5 *.

ARBINETA

Morazako lurgintza.

ARBITEA

Sasetako saila.

ARCEINA

Trebiñualdeko despobulatua *.

ARDANZA

Baxauriko saila, erreg. 213.
46. 224 *.

* *Aranzeta* saila. *Arantzeta*- "espina", "espino"; -*eta* tokizko atzizkia. Jatorrian *arantzeta* terminoak zerikusia ukan dezake *aran* "ciruelo" delakoarekin, amaierako -*tza*, agian, botanikaren esparruan eman ohi den -*tze* atzikiaren (*pikhotze*, *othatze*, *iratze* delakoen) aldaki apofoniduna izaki. Dena den, *Arantzeta* batzuetan *Ardanzeta* "lugar de viñedos"-ren sinkopa da *rd*>*r* murrizketaz (*Ardanzuri*>*Aranzuri*, *Andramaria*>*Anrramaria* toponimoetan bezala).

* *Arastuia* lurgintza edo soroa. *Arestuia*-ren aldakia *aretx* "roble" mendebalekotik; -*tua* tokizko atzizkia.

* *Arbina* saila. "Otra heredad en termino que dizen Arbina lavor de un quarto de lugada...". Arch. H. Prov. Burgos, Hipot. 3384, 278m, 1775 urtea.

* *Arceina* (*Arceña*) despobulatua. "Lo cita la Reja como *Arceyna*, y parece que estaba situado entre Golerio y Meana, en el Condado de Treviño". *Lpz. Gereñu*, op.c. 536.

* *Ardanza* saila. *Ardantzeta* "viñedo" *ardan/ardano*- arkaikotik "viño" esanguraz; -*za* ugaltasunezko atzizkia (iparraldean -*tze* formula duela ordain). Hemengoaren segidakoa da *Ardanzuri* "vino blanco". Ertaroko lekuko orokorretan, berriz, ildo beretik: *Et la vinea de Eçteve Ardancea* 1261 urtean, *Domenga Ardençeco* 1200 urtean. Cfr. Términos vascos, 115-116.

ARDANZETA
Albaitako salla, erreg. 233.
54. 142 *.

ARDANZURI ETA ARGANZURI
Armentiako lurgintza.

ARDUIA
Paritzako salla *.

AREGURO
Trobiñualdeko salla.

AREMENDI (ARAMENDI?)
Uzkioko salla, erreg. 193. 35.
36

ARENAGA
Paritzako lurgintza, erreg.
113. 11. 142.

ARESTUIA
Sasetako salla, Lpz. Gereñu
1684 urtea, erreg. 265. 66.
178.

ARETXANI
Azkartzako salla.

ARGAMAIA
San Vicentejoko salla, erreg.
5. 133.

* *Ardanzeta* salla. *Ardanzeta* "lugar de viñedos". "Itt. Otra en termino de Ardan-zeta a surco de ... Joseph Argote" (Arch. H. Prov. Burgos, Hipot. 3384, 235 or., 1772 urtea.

* *Arduia* salla. Ar- "piedra" eta *-duia* tokizko atzikitik, kasu mugatuan ageri dela. Iparraldean bada *Hardoi* toponimoa. Azkuek *ardui* AN, B "pedregal" eta B. "zarzal muy espeso" (azkenengo esangura *ar-* / "zarza" delakotik).

* *Argatxi* salla. Ar- "piedra", *-gatxi*, agian, *gaitz-* / *gaitze* "difícil", "duro"-ren aldaera itxitik.

* *Argote* herria. *Betruz una rega*, *Argote una rega*, *Santimeiano una rega* 1025 urtean, *Balparda*, Vizcaya y sus fueros I, 388, *Rivo de Ibita XXXV rgs.*: *Betruz I rg.*, *Argote I rg.*, 1025 urtean, *Serrano*, C.S. Millán 105, *Et omnes alavenses aqul fuerunt in Argote ad iunctam de senior Sancio* 1110 urtean, *Martin Duque*, D.M. Leire 325. Lehen elementua izan daiteke *ar-* / *arr()* "piedra", baina tokizenaren bigarren osagaia ez-ezaguna zaigu.

ARGANBIDE
Moscatoroko salla.

ARGANZURI
Pedruzoko lurgintza, erreg.
140. 128.

ARGATXI
Agilu eta Axarteko salla *.

ARGIÑA
Trobiñualdeko salla.

ARGOTE
Trobiñu konderriko herria *.

ARGOTESOLO
Marauriko salla.

ARGOZEDA
Argantzongo lurgintza, Lpz.
Gereñu 1724 urtea.

ARGUMAIA
San Vicentejoko salla.

ARIAZA
Arrietako salla.

ARIDIGORA (?)
Paritzako salla, erreg. 207.
41. 83.

- ARITXENDI (ARITZANDI?)
Azkartzako saila.
- ARIZULO
Obekuriko saila *.
- ARJUDIA
Trebiñualdeko saila, erreg.
14. 60.
- ARKINAGA
San Vicentejoko saila, erreg.
138. 23. 146.
- ARKUMENDI EDO KOMENDI
Caricedoko saila.
- ARLANZA
Trebiñualdeko saila *.
- ARLOSTE
Azkartzako lurgintza, Lpz Ge-
reñu 1676 urtea.
- ARMATXI
Fuidioko saila.
- ARMENDIHI (ARMENTIA)
Trebiñu konderriko herria,
1025 urtea.
- ARMENDIA
Fuidioko saila, erreg. 142. 20.
- ARMENTIA
Trebiñu konderriko herria *.
- ARMIRALDE
Axarteko saila, erreg. 13. 6.
- ARMOSTIA
Sasetako lurgintza.
- ARMOTXA
San Martin Galvaringo saila *.
- ARMOTXI
Fuidioko saila.
- ARNA
Trebiñuldeko despokatua*

* *Arizulo* saila. Lehen osagaien *aritz*- "roble" ekialdekoa egon bide da *Aritxandi* *Alitxandi* kasuetan bezala; *-zulo* "agujero, cavidad". Hala ere, *Aletxandi* aldakia (*aretx* mendebalekotik) ezaguna da.

* *Arlanza* saila. "Itt. Otra en Arlanza de fanega y media a surco de Manuel Diaz de Argumaniz...". Arch. H. Prov. Burgos, Hipot. 3384, 274, 1774 urtea.

* *Armentia* herria. *Prango et Prango duas regas, Armendihi una rega...* 1025 urtean, *Balparda*, Vizcaya y sus fueros I, 388, *Rivo de Ibita XXXV rgs.: Armendihi I rg....* 1025 urtean, *Serrano*, C.S.Millán 105. Probableki, lat. *armentum* "rebaño" delakoaren iturrikoa da *Armenteros*, *Armenteiro*, *Armentera*, *Armentières* (Frantzia) erro-manikoak bezala (*mentia* euskal *mendia* formula saihestekoa dela *nt* talde kontsonantikoagatik). Cfr. L. *Michelena*, Apellidos vascos, 54.

* *Armotxa* saila. Ar- "piedra" delakotik ohiko *Armora*, *Armorea* kasuetan bezala. Bigarrena *-motxa* "corto" erromanikoa bide da, hots, *desmochar*, *esmochar* hitzetako bera. Hemengoaren aldaerak dira *Ernotxi*, *Arnotxe*, *Almotxe* (*r<l* disimilazioaz).

* *Arna* despokatua. Probableki, *Arana* "valle" delakotik, azentu arroza lehen silabara lerratu bide delako. "Lugar treviñés, aunque lindando con Oquina, que estubo situado entre los pueblos, también del Condado, de Ajarte y Aguillo...". Lpz. *Gereñu*, op.c. 537.

- ARNABERA
Ozanako erreka.
- ARNAGA
Paritzako saila.
- AROMAKOTXA
Sasetako saila.
- AROTXEGA
Aranako saila.
- ARPIDIA
Trebiluko lurgintza, Lpz. Gereñu 1709 urtea, erreg. 159. 88.
- ARRABIA
Paritzako saila.
- ARRAITURRI
Imiruriko saila.
- ARRALDE
Sasetako saila, erreg. 210. 44. 212.
- ARRALDE (BEITIA)
Saratsuko saila.
- ARRALDE (GOITIA)
Saratsuko saila.
- ARRALDIA
Sanmartintzarko lurgintza, erreg. 108. 15. 54.
- ARRANATXA
Sasetako saila, erreg. 139. 33.
- ARRANOBI
Marauriko saila *.
- ARRANSOLO
Billa Toberako saila.
- ARRANTXIPI (ARANTXIPI)
Kutxuko saila, erreg. 169. 29. 107.
- ARRANZETA (ARANZETA)
Albaitako saila, erreg. 70. 9. 54.
- ARRAS-ALDAI
Arrietako saila.
- ARRATAETA
Meanako bidea, Lpz. Gereñu 1482 urtea.
- ARRATE
Mesantzako saila *.
- ARRATURI
Caricedoko saila.
- ARRETO (ARETO?)
Trebilualdeko saila.
- ARRIAGARI (ARRIAGARAI?)
Imiruriko saila, erreg. 136. 22. 191.

* *Arranobi* saila. Ausaz, *arrano*- "águlla" delakotik (baldin hemen *aran*- "valle" izan ez bada); *-(h)obi* "cavidad" lat. *foveam*-etik. "It. otra heredad en arranobi de lauor de un quarto de lugada de heredad del cauldo de Albaina y camino de el". Arch. H. Prov. Burgos, Hipot. 3384, 285, XVIII, mendea.

* *Arrate* saila. *Arrate* B "puerta de montaña", "portillo de monte", B, G "puerta rústica de campo" *arr(i)- eta -ate* osagai ezagunetatik. Trebilualdeko toponimian *Ollarrate*, *Lanarrate*, *Arratubi*, *Arraturi* tokizenetan osagai bera.

- ARRIARAN**
Imiruri eta Otxateko lurgintza,
erreg. 138. 22. 218.
- ARRIASTURI**
Imiruriko saila.
- ARRIETA**
Trebilñu konderriko herria *.
- ARRIKAIA**
San Vicentejoko saila.
- ARRITO**
Panguako saila, erreg. 393.
102.115.
- ARROA**
Doroñuko lurgintza eta osina,
Lpz. Gereñu 1693 urtea.
- ARROIABE**
Albaitako saila.
- ARROIALDE**
Axarteko saila.
- ARROKO**
Azkartzako lurgintza, Lpz. Ge-
reñu 1676 urtea.
- ARROLONDO**
Marauriko saila.
- ARRONARTE**
- Doroñuko soroa, Lpz. Gereñu
1693 urtea.
- ARROTE**
Ozanako saila.
- ARROZABALA**
Trebilñualdeko saila, erreg.
122. 19. 152.
- ARRUA**
Sasetako saila.
- ARRUBIALDE**
Axarteko saila *.
- ARRUGAZA**
Obekuriko saila.
- ARRUTXARAM (ATXURRARAM)**
Obekuriko saila, Gonz. Salazar
1730 urtea.
- ARRUTXI**
Arrietako saila.
- ARRUZABAL**
Trebilñualdeko saila *.
- ARRUZABALA**
Sasetako lurgintza, Lpz. Ge-
reñu 1691 urtea.
- ARTADUTXO**
Agilu eta Axarteko saila.

* *Arrieta* herria. *Arrieta* "pedregal". *Harrieta* 1257 urtean (Mergueta), *Harrieta* 1354 urtean (*E. Enciso*, Catálogo). *Arzua* kasuan ere *arri*- erroa datza, baina -zu atzizkiak. *Arri* erroak etaroko onomastikan ondorio joria du: *Blasco de Arrieta* 1085 urtean, *En Escussag et en Arrieta* 1346 urtean, *Lope Garceiz de Arratia* 1053 urtean, *Illa vinea de Harrate* 1087 urtean. Cfr. Términos vascos, 125.

* *Arrubialde* saila. *Arrubi* / *arrobi*- "cantera" *arr*(i)- eta -*obi* "hoyo" (lat. *foveam-etik*); -*alde* "paraje, lado".

* *Arruzabal* lurgintza edo soroa. *Arru-* / *arro-* "cuenca ancha de arroyo o río", "barranco"; -*zabala* "ancho, extenso". Baliteke *Arroiabe* tokizena *Ildo berekoa* izatea.

- ARTAMADURA**
Marauriko saila *.
- ARTANZOSTE (ARTAZOSTE) (BEITIA)**
Saratsuko saila.
- ARTANZOSTE (GOITIA)**
Saratsuko saila.
- ARTAZA**
Zurbitu eta Saratzuko saila *.
- ARTAZOSTE**
Saratsuko lurgintza.
- ARTEGI**
Torreko saila *.
- ARTEMADURA**
Trebñualdeko sala, ereg.
207. 41. 29.
- ARTIA**
Baxauriko saila, Gonz. Salazar
1753 urtea.
- ARTIASO**
Marauriko lurgintza.
- ARTIESO**
- Marauriko saila, Lpz. Gereñu
1706 urtea.
- ARTIKONTE**
Ladrera eta Ozillako saila.
- ARTIMENDI**
Obekuriko saila, Gonz. Salazar.
- ARTUKUDILA (ARTIKUZILA?)**
Baxauriko saila.
- ARTIKUZILA**
Baxauriko saila.
- ARTIKUZILLA**
Baxauriko mendia.
- ARTIMENDI**
Obekuriko saila.
- ARTIZABAL**
Marauriko saila.
- ARTOLA**
Marauriko saila.
- ARTOSTE**
Azkartzako lurgintza, Lpz. Gereñu 1676 urtea.

* *Artamadura* saila. *Arta*- "encina", *-madura* "terreno húmedo". "Itt. otra heredad en Artamadura de cauida de una lugada a surco de Juan de Ogueta y de heredad de la obra pia de Fuidio". Arch. H. Prov. Burgos, Hipot. 3384, 385, XVIII. mendea.

* *Artaza* saila. *Artaza* "encinal", *Artazoste* "tras Artaza", *Artadutxo* (*Artaduitxo?*), *Artazu*, *Artimendi*, *Artiaso* (**Artibaso*), *Artizabal*, *Artikuzilla* hemengo segidakoak izaki. *Artikuzila* (**Artekozilla*) kasuan *arte*- eta *-ko* deklinatiboaz gain, *-zil* "brote de plantas" terminoa (Trebñualdean, bestalde, ezaguna den hitz euskalduna berau). J. M. Merino Urrutia-k proposaturiko *zil / zilo* "agujero" ez da egia, ze hegoaldeko Euskal Herrian ez da ezaguna *zilo* "agujero" formula. Cfr. *Idem*, El vascuence en La Rioja y Burgos, 54. Hona toponimoaren lekuko bat: "Itt. otra en el termino de Artaza de cavida de una Yugada...". Arch. H. Prov. Burgos, Hipot. 3384, 288, 1770 urtea.

* *Artegi* saila. *Artegi* izan daiteke "lugar de encinas", "encinal" beste *Lizarregi*, *Gorostegi*, *Aitzegi* kasuetakoa, baina, gehienetan, *artegi* "redil" da *-ardi-* / *art-* "oveja" eta *-(t)egi* tokizko atzizkitik. Beheragoko *Artola* tokizenak iturri bera du. Bada *Altegi* disimilaziodun formula ere.

- ARTXANTI
Imiruri eta Otxateko salla.
- ARURAN
Obekuriko salla.
- ARZA
Axarteko salla *.
- ARZABIA
Armentiaiko salla, erreg. 196.
36. 231.
- ARZEÑA (ARCEINA)
Trebiluko baseliza, Lpz. Gere-
ñu 1693 urtea.
- ARZIBIDE
Bustuko salla.
- ARZUA
Sasetako lurgintza, Lpz. Gere-
ñu 1666 urtea.
- ARZUBE
Mesantzako salla.
- ARZUBIA
Pedruzoko salla, erreg. 3.
491.
- ARZUMEL
Taravero eta San Andresko
lurgintza.
- ASINOGA
Armentiaiko salla.
- ASKARRA
Trebilualdeko salla *.
- ASKARRO
Baxauriko salla.
- ASKARZA (AZKARTZA)
Trebilñu konderriko herria *.
- ASKORRI
Imiruri eta Otxateko salla *.
- ASMOGA
Armentiaiko salla.
- ASOA
Armentiaiko salla *.

* Arza salla. Arza "pedregal". "Itt. Otra heredad en termino de que dizen arza laour... a surco de heredad de Lorenzo de Ozilla vezino del lugar de Imiruri..." Arch. H. Prov. Burgos, Hipot. 3384, 283, 1774 urtea.

* Askarra salla. Askarra "arce". "Primeramente como bienes de mi... hipoteco una pieza en el termino de Ascarza de fanega y media de sembradura..." Arch. H. Prov. Hipot. 3384, 263, 1775 urtea.

* Askarza (Azkartza) herria. Askarça 1257 utean (Hergueta), Ascarçaha 1325 urtean (E. Enciso, Catálogo), Eskarza azkar / ezkar- "arce"-ren erroitik; -za ugaltasunezko atzizkia. Bere ildokoak dira askarro, askarrio terminoak (Trebilualdean ere ezagunak), eta Laskarro, Leskarro (artikulu erromanikoaren deglutizioaz), Eskarreko, Eskarzalabide, Eskaralabide (r l disimilazioaz), Eskaralde delakoak.

* Askorri salla. As- "roca" monoptongazioaz mendebaleko atx ezagunetik; -korri "rojo", "desnudo, pelado" (azken semantika exozentrikoaz Aizkorri oronimo ezagunean bezala). Beherago Aspida "camino de rocas" adieraziz (baina, idazki batzuetan Arpidia "camino de piedras" gisa ere agertzen da).

* Asoa salla. Azua-ren aldakia beranta u o bilakaeraz. Tokizenean *arr(i)- eta -zu elementuak atzematen dira "pedregal" esanahiaz.

- ASOA-ARANGUTI
Armentiaiko saila.
- ASPE
Agiluko lurgintza, Lpz. Gereñu
1746 urtea.
- ASPIARTE
Argoteko saila.
- ASPIDIA (ARPIDEA?)
Mesantzako saila.
- ASPIL
Trebñualdeko saila *.
- ASPORIO (ASPOLIO)
Baxauriko saila, Gonz. Salazar
1760 urtea.
- ASTANETA
Argoteko saila, erreg. 13.
130.
- ASTARRANA
Sasetako lurgintza, Lpz. Gereñu
1666 urtea.
- ASTASULO
Argoteko saila, erreg. 152.
136.
- ASTURRARA (?)
Pedruzoko saila.
- ASTURZIA
Sanmartintzarko saila.
- ASUA
Sasetako lurgintza, Lpz. Gereñu
1691 urtea.
- ATAZABAL
Trebñualdeko despoblata *.
- ATUA
Ladrera eta Ozillako saila.
- ATXAGA
Azkartzako lurgintza, Lpz. Gereñu
1636 urtea *.
- ATXARANA
Trebñualdeko saila.
- ATXARBIN
Albaitako saila.
- ATXARTES
Trebñualdeko saila.
- ATXEGA
Aranako lurgintza, erreg. 134.
58.

* *Aspil* saila. *Aspil* "acerolo", "especie de zurba silvestre" (Lpz. Gereñu), orobat, "majuelo", *azpil* L, S "acerolillo", *maspil* B. "acerolo". *Maspil* formulak lehen osagaian *maats*- "uva" ukan dezake: *azpil* aldakia, berriz, *az(i)* -"simiente"-tik bide dator; *-bil* bigarren elementua *-bil(du)* "recogido", "redondo" delakoa da (*hurbil*, *zurbil* kasuetan bezala). Konderriko mintzairan *aspilal* kasua ere ematen da (*-al* atxizki errromanikoaz).

* *Atazabal* (*Atezabal*) despoblata. *Atazabal* "entrada ancha". "Entre Armendihi (Armentia) y Betruz (Pedruzo), en la merindad de Rivo de Ibita (Treviño), tenemos contribuyendo con "I rega", este hoy mortuorio de Atezaual...". Lpz. Gereñu, op.c. 540.

* *Atxaga* lurgintza. *Atxaga* "lugar de rocas". *Atxiega* aldaerak, berriz, -Arabako ipar-mendebaldean maiz ematen den *-iega* amaiera dago (diptongazio arrotzaz). *Atx*-en segidatik, oraindik, *Atxoste* "tras la roca", *Atxiturri* "fuente de la roca". Bada, gainera, *Ajoste* $s < j$ bilakaera berantaz (*Axarte* / *Ajarte* toponimo nagusian bezala).

ATXIEGA

Sanmartintzarko lurgintza,
Lpz. Gereñu 1676 urtea.

ATXITURRI

Golernioko saila.

ATXONDOS

Sasetako saila.

ATXOSTE

Dordonizko saila, erreg. 102.
15. 88.

ATXUNARAN

Trebiñualdeko saila *.

ATXURRARAN (ATXUNARAN?)

Obekuriko saila, Gonz. Salazar
1730 urtea.

AUMASOLO

Trebiñualdeko saila *.

AUSA

Agilu eta Axarteko saila.

AUSEJAS

Ladrera eta Ozillako saila.

AUTXA

Agiluko saila.

AYUDA

Trebiñualdeko Ibaia *.

AZARTIA

Trebiñualdeko saila *.

AZARZIA

Albaitako saila.

AZAS

Argantzongo saila, Lpz. Gereñu
1706 urtea.

AZKARRA

Obekuriko saila.

AZKARRO

Baxauriko saila.

AZKUZA

Torreko lurgintza, Lpz. Gereñu
1737 urtea.

AZUA

Trebiñualdeko saila, erreg.
159. 50.

BABATULLAZA

Trebiñualdeko saila *.

BADAREA

Dordonizko saila.

* *Atxunaran* saila. "... De Achunaran de quatro fanegas lintera por la ondonada de Maria de Garibal y por la cavezada Fausto Gonzalez...". Arch. H. Prov. Hipot. Burgos, 3384, 266, 1755 urtea.

* *Ayuda* Ibaia. *Ayuda* Zadorra Ibaia urak Isurtzen dituen trebiñuar ibai handiena da. Ertaroan *lhuda* 1375 urtean, *Yuda* 1417 urtean, *lba* 1258 urtean (eta *Rivo de Ibita* ere bai). Batzuek *ibai* eta *uda* ura "agua" erroak atzeman bide dituzte *Ayuda*-ren etimologian, baina ez dira guztiz ziurrak. Ikus *M. Mieves Sánchez*, op.c. 191, *J.M. Sasía*, Top. Eusk. Encartaciones, 108.

* *Azartia* saila. *Azartia*, probableki, "entre pedregales" arza- eta -arte osagaletatik. "Primeramente hipoteco al seguro de este dicho Zenso una heredad en el termino de Azartia de una yugada a surco de el cavildo de este Lugar de Albaina...". Arch. H. Prov. Hipot. 3384, 241, 1774 urtea.

* *Babatullaza* saila. "Itt. Hipoteco otra heredad en termino de Babatullaza Jurisdiccion de dicho Lugar de Imiruri de labor de un quarto de yugada a surco de heredad de herederos de...". Arch. H. Prov. Burgos, Hipot. 3384, 317, 1774 urtea.

- BADULET**
Ladrera eta Ozillako saila.
- BADURETA**
Ladrerako saila, erreg. 256.
62. 44.
- BAIATE**
Marauriko saila *.
- BAJAURI (BAXAURI)**
Trebiñu konderriko herria *.
- BALAREA**
Moskatorko lurgintza.
- BALBERKA**
Azkartzako lurgintza, Lpz. Gereñu 1693 urtea.
- BALDEBELARRA (VAL DE BELARRA?)**
Burgetako saila.
- BALDEGORTA (VAL DE GORTA?)**
Marauriko mendia.
- BALDERRUTIA (VAL DE URRUTIA?)**
Azkartzako auzoa.
- BALARRANA (BALLARAN)**
San Martin Galvaringo saila, erreg. 233. 54. 150.
- BALLARBIDI**
San Martin Galvaringo saila.
- BALLIKOTE**
Araikoko saila.
- BARAITEGI**
Samianoko saila.
- BARAKUA**
Lañuko lurgintza, Lpz. Gereñu 1706 urtea.
- BARASTEGI**
Samianoko saila.
- BARBATILLAZA (BARBATULLAZA)**
Imiruri eta Otxateko saila *.
- BARBAO**
Añastroko saila.
- BARDAKABARRO**
Baxauriko saila, Gonz. Salazar 1561 urtea.
- BARDAKABARRUA**
Baxauriko saila, Gonz. Salazar 1561 urtea.
- BARDANKOVARRO**
Baxauriko saila, Gonz. Salazar 1873 urtea.
- BARDASKA**
Armentiako saila, erreg. 39. 4. 112.
- BARDUJANA**
Dordonizko hegia.
- BARINAZA**
Albaitako saila.

* *Baiate* saila. Agian, *lbaite* batetik. "Itt. otra en Bayate de lavor de una lugada larga a surco de regajo y ribazos y heredad de ...". Arch. H: Prov. Burgos, Hipot 3384, 286, XVIII. mendea.

* *Bajauri (Baxauri)* herria. Bas- "bosque" eta -uri jobledo-tik. Bejauldi aldaki beranta da, zinez.

- BARIZAHAZA**
Trebilñu konderriko herri ohia,
1025 urtea.
- BARRABIA**
San Martin Galvaringo saila.
- BARRABUTXI**
Argoteko saila *.
- BARRAKUA**
Lañuko saila.
- BARRANBIA**
Ozillako saila.
- BARANKOBARRO**
Baxauriko saila, Gonz. Salazar
1561 urtea.
- BARRANKONDO**
Sasetako saila.
- BARRARANA ETA
LASPIKORRETAS**
Sasetako saila.
- BARRASTEGIN**
Samianoko lurgintza.
- BARRATXA**
Lañuko saila.
- BARREKORANA**
Baxauriko saila.
- BARREKUA**
Baxauriko saila.
- BARRESTEGIN**
Torreko saila.
- BARRIBARRIA**
Añastroko saila.
- BARRIKOLANDA**
Sanmartintzarko saila eta
erreka, Lpz. Gereñu 1686 ur-
tea.
- BARROKARAN**
Dordonizko hegia *.
- BARROKAZAR**
Dordonizko saila, erreg. 10.
1. 121.
- BARRONDO**
Trebilñualdeko saila.
- BARRUETA**
Bustuko lurgintza, Lpz. Gere-
ñu 1693 urtea, erreg. 166.
28. 56.
- BARRUNBIDE**
Trebilñuko saila, erreg. 10.
1049. 96
- BARRUNDIA**
Albaitako saila eta erreka,
erreg. 32. 3. 56 *.

* *Barrabutxi* saila. Bigarren elementua *-butxi (gutxi)*, *bitxi* "menor" da, beste hainbat tokizenetan bezala (hots, *Bidibutxi*, *Biributxi*, *Iturgutxi*, eta abarretan). *Barlehen* osagala, agian, (*l)barra-* "la vega"-en hondarra da (*barra-* bera ukatu gabe)..

* *Barrokaran* saila. Agian, **Berrokaran*-en aldaera, *berro/ barro* "seto", "sel", "terreno húmedo" delakotik; *-ko* deklinatiboa; *-aran* "valle" (baldin gaztelanlar *barranco*-ren sinkopa ez bada).

* *Barrundia* saila eta erreka. Erroan *barru / barrun* "lugar acotado" egon daiteke, amaierako *-di* tokizko atzizkia dela.

- BARTIBUSAKO**
Agilu eta Axarteko belardiak eta aintzira.
- BARZIBUTXI**
Burgetako saila, erreg. 47. 6. 100.
- BASABARRE**
Zurbituko saila.
- BASABE**
Kutxuko saila *.
- BASABUTXI**
Azkartzako saila.
- BASAGRO (BASAGURU, BASABURU?)**
Saratsuko lurgintza.
- BASAHURI (BAXAURI)**
Trobiñu konderriko herria, 1025 urtea.
- BASALDE**
Dordonizko saila.
- BASALDIA**
Kutxuko lurgintza.
- BASANIKO**
Trobiñuko saila, erreg. 44. 5. 147.
- BASARAM**
Trobiñualdeko saila, erreg. 1. 1. 50.
- BASARTE**
Mesantza, Fuidio eta Trobiñuko saila, erreg. 44.5. 147.
- BASATXA**
Pedruzoko lurgintza.
- BASAUL**
Aranako saila.
- BASAURI (BAJAURI)**
Trobiñu konderriko herria.
- BASITURRI**
Paritzako saila, erreg. 54. 7. 226.
- BASITURRI ETA BASTITURRI**
Albaitako saila.
- BASOA**
Frankuko sala.
- BASONDO**
Villanueva de la Oca eta Trobiñuko saila, Lpz. Gereñu 1713 urtea, erreg. 44. 5. 147.
- BASTULARAN**
Lañuko saila.
- BASTURRI (BASITURRI?)**
Albaitako saila.
- BATXI**
Burgetako lurgintza, Lpz. Gereñu 1748 urta.

* *Basabe* saila. *Baso*- "bosque, selva"; -*gutxi* "menor" *g*<*b* disimialtzoaz. *Baso* osagaia ematen da, orobat, *Basaran*, *Basiturri* (*Basturri*), *Basetxe*, *Basondo* delakoe-tan. Hegoaldeko toponimian, ekialdeko *oihan*-en ordeztan, *baso* kausitzen da "bosque" espresatzeko. Ertaroan bere errotoik: *Presbiter Kardellu de Bassobauzo* 928 urtean, *Diego de Basozabal* 1488 urtean, *Peita de Bassaburua* 1280 urtean, *Martin Peres de Uasaçabal* 1475 urtean. Cfr. *Términos vascos*, 156.

BAXAURIBIDEA

Obekuriko saila, Gonz. Salazar
1613 urtea.

**BAZDANKOBARROA (BARDAN-
KOBARROA?)**

Baxauriko saila, Gonz. Salazar
1561 urtea.

BAZIBUTXI

Mesantza eta Fuidioko saila.

BEALDAPETA

Baxauriko saila, Gonz. Salazar
1753 urtea *.

BEGORTA

Agiluko saila.

BEKOBIDE

Ozanako saila.

BEJARDUIA

Baxauriko saila, erreg. 256.
62. 239.

BELAGANDIA

Agiluko saila.

BELLOSTEGI

San Vicentejoko saila *.

BEOLANDAGANA

Baxauriko saila, Gonz. Salazar
1589 urtea.

BERAKAZ

Ogetako lurgintza.

BERATEGI EDO PRADO

Samianoko saila, erreg. 257.
63. 159.

BERGINDINA

Taravero eta San Andresko
saila.

BERGISONA

Trebiñu konderriko aintzin he-
rria, XIII. mendea.

BEROKIA

Trebiñualdeko lurgintza, erreg.
70. 9. 2 *.

BERRASTEGIN

Torreko saila, erreg. 54. 7.
10.

BETRUZ

Pedruzo herria, 1025 urtea.

BIALDAPEBE

Baxauriko saila, Gonz. Salazar
1753 urtea.

BIARRATE

Zurbituko mendatea.

BIBORENA ETA BIMORENA (?)

Aranako lurgintza.

* *Bealdapeta* saila. Be- "debajo, cabe"; -*aldapeta* "lugar de repechos".

* *Bellostegi* saila. *Bellos*-*bellaus* (**Belaurtegi* / *Bellaustegi*) "lugar de herbales" esanguraz *belar*-en segidatik (bigarren silabak *Intxaur* *Intxor*, *ñhaur* *ñhor* kasuek bezala aldaki monoptongatua duela, Alaraldean bezala); -*tegi* toikizko azizkia.

* *Berokia* lurgintza. *Beroki* BH, AN (Azkue) "abrigo, refugio tras una pared, bajo un árbol, etc". Bere osagaletan *bero*- "calor" eta -(t)oki "lugar" osagaiak. Ertaroko onomastikan: *Johan de Beroqui* 1366 urtean, *Eximinius de Veroquia* 1244 urtean. Cfr. Términos vascos, 170.

- BIDARTE**
Moscatoroko lurgintza *.
- BIDAZIA**
Obekuriko saila.
- BIDIBUTXI**
Saratsuko saila.
- BIGARAMENDI**
Mesantzako gainaldea, erreg.
1. 1. 97.
- BIGARRA**
Mesantzako gainaldea.
- BIGARRAMENDI**
Mesantzako saila.
- BIKALZAI**
Morazako lurgintza.
- BIKORALDE (MIKURALDE)**
Baxauriko saila, Gonz. Salazar
1753 urtea.
- BIKUARAN**
Marauriko saila *.
- BIKUBIDE**
Taraveroko saila, erreg. 210.
44. 50.
- BIKURALDE**
Baxauriko saila, Gozn. Salzar
1753 urtea.
- BILLABIDE**
Ladrera eta Ozillako saila.
- BILLARBIDE (VILLARBIDE)**
San Martin Galbaringo saila,
erreg. 886. 201. 146.
- BILLIBARRI**
Azkartzako lurgintza.
- BIOLANDA**
Billa Toberako saila.
- BIRAZA**
Torreko lurgintza.
- BIRIBUTXI**
Agilu eta Axarteko saila.
- BIRIGETXE**
Agiluko saila, erreg. 75. 10.
221.
- BIRIGUTXI**
Agiluko saila.
- BIRURAL (BISURAL?)**
Lañuko saila.
- BIRZA**
Baxauriko saila, Gonz. Salazar
1873 urtea.
- BISURAL**
Lañuko lurgintza.
- BITORDOBE**
Golernioko saila, erreg. 209.
43. 137.
- BIZKAIA**
Sanmartintzarko saila, erreg.
202. 40. 131.

* *Bidarte* lurgintza. *Bidarte* "entre caminos", B "encrucijada". Bestalde, *ildo* beretik *biri-* aldaki asimilaziozkoaz *Birigutxi*, *Biributxi*, *Biribitxi*, *Biritxi* "camino menor" delakoak.

* *Bikuaran* saila. *Biku-* "higo" lat. *ficum*-etik lehen herskariaren ozenduraz, beste *Bikubide*, *Bikuralde* kasuen modura (eta *Mikuralde m* ezpainkariaz); *-aran* "valle". *Gainera*, *Pikaburua* "colina de la higuera" ere bai.

- BIZKAINA**
Argoteko lurgintza.
- BIZKARANA**
San Vicentejoko saila.
- BIZKARGANA**
Sasetako lurgintza, Lpz. Gereñu 1825 urtea, erreg. 122. 19. 130.
- BIZKARGAÑA**
Sasetako lurgintza, Lpz. Gereñu 1734 urtea *.
- BIZKAROLA**
"eta Otxateko saila.
- BIZKARRA**
Sanmartintzar et Mesantzako lurgintza, Lpz. Gereñu 1676 urta, erreg. 1.1. 111.
- BOKARAN**
Albaitako saila, erreg. 84. 11. 32.
- BOKARANA ETAOKARANA**
Grandivalgo sakana.
- BORINZABAL**
Baxauriko saila, Gonz. Salazar 1589 urtea.
- BORINZABALA**
- Baxauriko saila, Gonz. Salazar 1589 urtea *.
- BORNIZABAL (BORINZABAL?)**
Obekuriko saila.
- BORRENDIKO (BARRENDIKO?)**
Albaitako saila, erreg. 33. 3. 63.
- BORRUNBIDE (BORUNBIDE)**
Trebñualdeko saila, erreg. 10. 1. 96.
- BORUNBEDE (-BIDE)**
Trebñuko saila, Lpz. Gereñu 1704 urtea.
- BOSTINSOL**
Doroñuko saila.
- BOSTIUSTE**
Ozanako saila.
- BOSTUARAN**
Axarteko saila.
- BOSTUIA**
Imiruri eta Otxateko saila.
- BOSTUIALES**
Imiruri eta Otxateko saila.
- BOSTUSTE EDO BOSTIOSTE**
Ozanako saila.

* *Bizkargaña* lurgintza. *Bizkar-* "loma"; *-gaña* "parte alta, altura", bustiduraz hemen. Formula ez-bustiak, hots, *gan / gana* delakoak ohikoagoak dira Arabako mendebaldean (nahiz bi aldakiak present egon, batzuetan, eskualde berean). *Bizkar-* en ildotik, oraindik, *Bizkarrostea*, *Bizkarola*, *Biskaran*, *Biskarluz*, eta abar.

* *Borinzabala* saila. *Borin-* lat. *molin(u)m*-etik "molino"; *-zabala* "ancho". Dena den, errota latinismoa ere ezaguna da, *Rotola*, *Rotabe*, *Rodaltia*, *Rodaldia* kasuetan bezala. *Borrunbide*, *Borunbe*, *Burunbe* tokizenetan, berriz, *borun / boru* aldakia ematen da.

- BOTIKARANA (BOSTIKARANA?)**
Trebilñuko saila, erreg. 44. 5.
147.
- BOTAZARRA**
Albaitako saila.
- BOTOSOLO (BOTASOLO?)**
Aranako saila, erreg. 222. 51.
132.
- BOTRUSO**
Ogetako saila.
- BRINKOSOLO**
Lañuko saila, erreg. 213. 46.
38.
- BRISUL**
Taraveroko saila.
- BULGARIAN**
Billa Toberako saila.
- BURABUTXI**
Arrietako saila.
- BURGETA (BURGUETA)**
Trebilñu konderriko herria *.
- BURGONDO**
Otxateko galdea eta baseliza.
- BURIALDE**
Otxateko lurgintza, Lpz. Gere-
ñu 1716 urta.
- BURIASTE**
Ozanako lurgintza, erreg.
251. 61. 14.
- BURIBUTXI**
Saratsuko saila.
- BURIELA**
Marauriko saila.
- BURIELA**
Lañuko saila, erreg. 213. 46.
38.
- BURRIALDE**
Imiruri eta Otxateko lurgintza,
erreg. 136. 22. 65.
- BURRIARAN**
Argoteko lurgintza.
- BURRIATE**
Grandivalgo lurgintza.
- BURTABARRE**
Ozillako saila.
- BURUALDE**
Otxateko saila *.
- BURUBE**
Bustuko saila.
- BURUMBE (BORUMBE?)**
Trebilñuko saila, Lpz. Gereñu
1708 urtea.

* *Burgeta* herria. Toponimoaren alpuia, orobat, hurrengoetan: *Scemeno Garceiz de Burgueta* 1087 urtean, *Diego Lopez de Burgueta* 1325 urtean. *Burgeta* lat. *burgus-*etik (nahiz hitza jatorrian *burgs* "fortaleza" germaniarra izan); *-eta* txikidurazko atzizkia da (eta ez tokizkoa, antza). Beraz, *Burgeta* "burgo o poblado pequeño" bide da. Arabako *Burgelu*, *Burgondo* toponimoek *burgu-* erroa dute, orobat

* *Burualde* saila. *Burualde* "paraje del cabezo". "Itt. otra en Jurisdizion de dicho lugar de Ochate y termino de Burualde de caulda de medio lugada a surco de tierra de Nuestra Señora de Burgondo...". Arch. H. Prov. Burgos, Hipot. 3384, 311, 1775 urtea.

BURUONDO

Otxateko mendia eta basiliza.

BURZIBUTXI

Trebiñuko lurgintza.

BUSTABARRE

Bustuko saila.

BUSTABARRI

Ladrera eta Ozillako saila, erreg. 44. 5. 133.

BUSTARAN

Agiluko lurgintza, Lpz. Gereñu 1706 urtea.

BUSTI-BUSTI

Taraveroko saila.

BUSTIA

Bustuko herria, 1025 urtea.

BUSTIAGAL

Trebiñualdeko saila.

BUSTIBARRI

Agiluko lurgintza.

BUSTIBUTXI

Trebiñualdeko saila, erreg. 99. 14. 100.

BUSTIGUTXI

Trebiñuko lurgintza, Lpz. Gereñu 1706 urtea.

BUSTINA

Trebiñualdeko saila.

BUSTINGAÑA

Arrietako lurgintza, Lpz. Gereñu 1877 urtea.

BUSTINKO

Azkartzako lurgintza, Lpz. Gereñu 1800 urtea.

BUSTIINSOL (BUTINSOLO?)

Doroñuko saila, Lpz. Gereñu 1693 urtea.

BUSTINZA

San Martin Grandivalgo saila, erreg. 166. 28. 56*.

BUSTITURRI

Agillo eta Axarteko saila.

BUSTIÑA

Trebiñualdeko saila*.

BUSTO (BUSTU)

Trebiñualdeko herria*.

* *Bustinza* saila. *Buztin*- "arcilla", *gustin* / *austin* disimilazioak ere ezagunak direla; -za ugaltasunezko atzizkia.

* *Bustiña* saila. *Buztina* "la arcilla". "Otra en la misma Jurisdiccion y termino de Bustiña... de nuebe celemines...". Arch. H. Prov. Burgos, Hipot. 3384, 317, 1777 urtea.

* *Busto (Bustu)* herria. *Guzkiano de uso una rega, Bustia una rega, Gogate una rega* 1025 urtean, *Balparda, Vizcaya* y sus fueros 1, 388, *Guzkiano de uso, una rega, Bustia, una rega* 1025 urtean, *Ubleto, C.S.Millán* 178. Jatorriz lat. *bustum*-etik "rebaño de bueyes", "monte, braña o cabañal con pastizales boyales de invierno y verano" (Santander) espresatuz; *Gazteierri*an *Busto, Bustiello, Bustillo* gisakoak ematen dira. Hemengo toponimoaren segidakoak dira *Bustaran* "valle de Busto", *Bustusabela* "hondonada o seno de Busto", *Bostiuste, Bosti, Bustibarre*, eta abar. Kasu urri batzutan bere iturria *busti* "húmedo", "mojado" izan daiteke, baina gehienetan *Busto* (Busto) delakoa da. *Busti-Busti* kasuan erreduplikazioa ematen da.

- BUSTUARAN**
Agilu eta Axarteko saila.
- BUSTUIA**
Sasetako lurgintza, Lpz. Gereñu 1666 urtea *.
- BUSTUIARAN**
Ajarteko saila *.
- BUSTURIA**
Albaitako saila
- BUSTUSABELA**
Sasetako saila, Lpz. Gereñu 1666 urtea.
- BUARTE**
Fuidioko saila.
- BUTISARRE**
Caricedoko saila.
- BUTISARRI (BUTISARRI)**
Caricedoko lurgintza.
- BUTUSTE**
Ozanako saila.
- BUTXIGAINA**
Arrietako saila, Lpz. Gereñu 1733 urtea.
- BUTXISOLO**
Sasetako saila.
- BUURDUNIGA**
Doroñuko lurgintza, Lpz. Gereñu 1693 urtea.
- BUXASTETA**
Baxauriko saila, Gonz. Salazar 1589 urtea.
- BUXOSTETA**
Baxauriko saila, Gonz. Salazar 1561 urta.
- BUZIBAI**
Fuidioko saila.
- (CAMPA) ISALA**
Tربیñuko lurgintza.
- CARICEDO**
Tربیñu konderriko herria *.
- (CERRO) MORAZA EDO MENDIGUREN**
San Martin Galvaringo saila.
- CUCHO (KUTXU)**
Tربیñu konderriko herria *.
- DOBERA**
Doroñuko saila, erreg. 1.

* *Bustuia* saila. " Otra en el misma Jurisdizion y termino de Bustuia de cauida de media fanega a surco de tierras de Rudesindo de Sasetas...". Arch. H. Prov. Burgos, Hpot. 3384, 319, 1777 urtea.

* *Bustuiaran* saila. "... Una heredad de quatro fanegas de sembradura en termino que dizen Bustuiaran a surco de tierras de Dn. Juan de Parra...". Arch. H. Prov. Burgos, Hpot. 3384, 306, 1775 urtea.

* *Caricedo* herria. "Este lugar viene citado en el siglo XIII como Caycedo, en el arciprestazgo de Treviño. Hoy puede considerarse como arruinado por completo, ya que hace años tan sólo quedaban dos vecinos en todo el pueblo...". Lpz. Gereñu, op.c. 544.

* *Cucho (Kutxu)* herria. *Cucho* Konderriko mendebaldean datza, ordoki batean, Ayuda Ibaletik hurbil. *Sancti Cipriani de Dordoniz*, *Sancti Petri de Cuisu* 1110 urtean, *Martin Duque*, D.M.Leire 314, *Parheça de Cucho* 1299 urtean, *Saéz de Cucho* 1522 urtean.

- DONAMARIA
Azkartzako salla, Lpz. Gereñu
1676 urtea.
- DONAMARIOSTE
Imiruriko salla *.
- DONARIA
Axarteko salla.
- DONARIOSTE
San Vicentejo, Imiruri eta
Axarteko salla, erreg. 136.
22. 164.
- DONARIZ
Agilu eta Axarteko salla.
- DONASOLO
Trebñualdeko salla *.
- DOÑAMARIA
Azkartzako lurgintza, Lpz. Ge-
reñu 1780 urtea, erreg. 196.
36. 2.
- DORDONIZ
Trebñu konterriko herria *.
- DORNARAN
Agilu eta Axarteko sakana.
- DOROÑO (DOROÑU)
Trebñu konderriko herria *.
- DORRONDA
Meanako salla, Lpz. Gereñu
1824 urtea.
- DURALDE
Araikoko salla, erreg. 952.
217. 106.
- DUTABE
Agilu eta Axarteko lurgintza.

* *Donamarioste* salla. *Donamaria*- "Santa María" ertaroko lat. *dom(i)na/ dona*-tik beste lekuetako *Donamaria* bezala; Konderrian, gainera, *Donamaria / Doñamaria* Azkartzan, *Donamarti* (San Martín) Axarten, *Donariz* (*Dona Eriz Dom(i)na Felic(em)-etik*); -oste "tras, detrás".

* *Donasolo* salla. *Dona-*, probableki, lat. *Dom(i)ne / Dom(i)na*-tik "santo, santa" adierazpenaz; -*solo* "campo, sembradío". "It. de dicho Prudencio Lopez una pieza en... Donasolo de un Robo de sembradura surca á Bernardo de Loza y Santiago Gonzalez". Arch. H. Prov. Burgos, Hlpot. 3384, 262, 1775 urtea.

* *Dordoniz* herria. "...*Et dono ... decanima Sancti Cirpiani de Dordoniz* 1105 urtean, *Balparda*, Vizcaya y sus fueros 2, 230, *Hec sunt nomina illorum (...)* *Sancta Maria de Ocozt, Sancti Cipriani de Dordoniz* 1110 urtean, *Martin Duque* D. M. Leire 326. Bere jatorrian -*iz* genitibala duen latindar antroponimo baten ildoa, eta, agian, *Hordonius* izenaren segidakoa -ze *Ordoño IX* mendean ezaguna zen (eta kasu horretan hasierako *d* ezpalkaria de preposizio erromanikoaren hondarra litzateke). Ikus *J. Caro Baroja*, *Materiales*, 102-106; baita ere gure LEEE (*Latina eta erromanikoaren eragina euskarán*), 259-264. Gainera, *Trokoniz*, *Betrikiz*, *Albiniz*, *Markiniz* antroponimoak atziki beraz.

* *Doroño* (*Doroñu*) herria. *Annimabus omnium parentum meorum, illas meas casa de Doronno cum omnibus sibi pertinentibus* 1167-1172 urtean, *Martin Duque*, D. M. Leire 428. -*Oño*, -*oñu* amaiera duten beste anitz bezala (kasu, *Betoño*, *Logroño*, *Domeño* delakoak latineko *Betonius*, *Lucrunius*, *Dominius* delakoetatik). Hemengoaren erroan, agian, aipaturiko *Hordonius* berrezar daiteke.

EDESA (DEHESA?) DE BAGAZE-DERRA

Baxauriko saila, Gonz. Salazar 1761 urta.

EGILETA

Baxauriko aldapa *.

EGILUZ

Trebiñualdeko saila, erreg. 10. 1. 90.

ELEJALDIA

Sasetako lurgintza, Lpz. Gereñu 1734 urtea *.

ELIMEDE

Burgetako lurgintza.

ELESPE

Ajarteko saila *.

ELORZA

San Vicentejoko saila, erreg. 180. 32. 215.

ENGARIAS (EN GARAIA?)

Arana eta Sanmartintzarko saila.

ERAKUNA

Baxauriko saila, Gonz. Salazar 1753 urtea.

ERENZA

Argoteko saila *.

ERMITA NTRA. SEÑORA DE BURGONDO

Imiruri eta Otxateko saila.

EROBAS

Ozanako saila..

ERROITURRI

Meanako iturria, Lpz. Gereñu 1691 urta.

ESAUSTIA

Sasetako lurgintza, 1691 urtea.

ESIBARRUA (ISIBARRUA)

Baxauriko saila, Gonz. Salazar 1753 urtea *.

ESKARLUZ

Trebiñualdeko saila *.

* *Egileta* saila. 1257 urtean *Hygueleta*, eta 1294.ean *Iguelet*; toponimoa etor daiteke *igel*- "rana" delakotik donostiar *Igeldo* bezala; azken honek *Ranero* ordaina du gaztelaniaz; -*eta* tokizko atzizkiak.

* *Elejaldia* saila. *Eleja*<*Elexa* (lat. *ecclesiam*) formularen aldaki beranta *x / s* belarizazioaz, bestetako *Lejoste*, *Lejaran*, *Lejaldia* kasuen modura; -*aldia*>*aldea* "lado, paraje".

* *Elespe* saila. *Elespe* "cabe la iglesia". "Itt. yo el dicho Diego Martinez de Alegria hipoteco una heredad en el termino llamado elespe de una lugada...". Arch. H. Prov. Burgos, Hipot. 3384, 305, 1774 urtea.

* *Erenza* saila. *Erenza erein* "sembrar"-en errotik, bestetako *Ereño*, *Ereñozu*, *Ereñaga* bezala; -*za* ugaltasunezko atzizkia.

* *Esibarrua* saila. *Esi*- "seto"; -*barrua* "interior", "acotado" (*barrutia* kasuan bezala).

* *Eskaza* saila. Probableki, *Eskarza* "lugar de arces" delakotik. "Una heredad en termino de Escaza termino propio de este dicho lugar de Urturi...". Arch. H. Prov. Burgos, 3384, 259, 1774 urtea.

ESKARRA

Obekuriko saila, Gonz. Salazar
1730 urtea.

ESKARRALDE EDO LATXI

San Vicentejoko saila, erreg.
138. 23. 149.

ESKARRIKO

Ajarteko saila.

ESKARTEA

Paritzako saila.

ESKARZALABIDE (ESKARZARABI-
DE?)

Dordoñoko saila.

ESKASULO (EZKARZULO; EZKAR-
SOLO?)

Torreko saila.

ESKAZA (EZKARZA?)

Trebiñualdeko saila *.

ESKIBIDI

Saratsuko lurgintza.

ESKIBIL

Saratsuko saila *.

ESKIBILETA

Obekuriko hegia.

ESKINZA

Albaitako saila, erreg. 54. 7.
76.

ESKIITURRI

Armentiako saila, erreg. 233.
54. 208.

ESKIRRARAN (EZKIRRARAN)

Trebiñualdeko saila *.

ESKORTEA

Paritzako saila *.

ESKRUBEA

Sasetako lurgintza, Lpz. Gere-
ñu 1734 urtea.

ESKUBILLA (ESKUDILLA)

Baxauriko saila, Gonz. Salazar
1753 urtea.

ESKURLUZ

Trebiñualdeko saila *.

ESKUZA

Argoteko saila, erreg. 47. 6.
90 *.

* *Eskibil* (*Ezkibel*) saila. Lehen elementuan egon daiteke *aitz<iz* (sinkopatua) "roca" adieraziz (*Aizpea / Izpea* (Gares Maf.). (*A*)*izkarai / Ezkarai* kasuen modura) *kibil*, *gibel* delako asimilazio beheranzkoa du "tras, detrás" espresatuz. Beste bidea *Ezki-bel* "tilo oscuro" litzateke, baina ez da hain probablea.

* *Eskirrarán* saila. *Ezkarraran* "valle de arces"-en aldakia da, antza, goranzko asimilazioaz, beste *Ezkirrarán* kontuan izanik.

* *Eskortea* saila. *Eskortea* "redil para ovejas", "corral en el monte" *es(i)*- "seto" eta -*korta* "cortijo, cuadra"- lat. *cohortem*-en eratorri erromaniko batetik.

* *Eskurluz* saila. *Ezkur*- "bellota", "árbol" (arkalkoa); -*luz(e)* "largo". "Ittn otra en escurruz de siete zelemines de sembradura surcana a pieza de Josef Mendoza y Magdalena de Garay". Arch. H. Prov. Burgos, Hipot. 3384, 264, 1775 urtea

* *Eskuza* saila. *Ezkur*- "bellota", "árbol" delakotik, seguraski, konposakeran *dar-darkaria* erori zalola (baina, Azkue-ren hiztegiko B *ezku* "tilo" (*ezki*-ren aldakia) ere kontuan izatekoa da); -*za* ugaltasunezko atzikia.

- ESKUZAGOIKO
Torreko saila.
- ESKUZIBIA (Ezkizabea?)
Sasetako saila.
- ESMERARAN
Mesantza eta Fuidloko lurgintza.
- ESPIKURRA
Sasetako saila.
- ESPOTONA (ESPOTORA)
Lañuko saila.
- ESTABIDE
Taravero eta San Andresko saila.
- ESTEBIA
Sanmartintzarko saila, erreg. 108. 15. 46.
- ESTEKORANA
Obekuriko arroa *.
- ESTOBAS
Taravero eta Sanmartintzarko saila.
- ESTOBIZA
Marauriko saila.
- ESTURZARA
Pedruzoko mendia.
- EZTUZARRA
Paritzako saila, erreg. 236. 55. 156.
- ESTUZURRA
Uzkioko saila.
- ESTURRARAN
Azkartzako saila, erreg. 27. 2. 242.
- ETXABIDE
Dordonizko saila.
- ETXALUZA
Trebñualdeko saila, erreg. 99. 14. 174.
- ETXEDERNA (LA TXIDERNA)
Obekuriko saila, Gonz. Salazar 1711 urtea, erreg. 162. 27. 65.
- ETXINA
Albaitako saila.
- ETXINDE
Taraveroko saila, erreg. 117. 18. 88.
- EXKETURRIA
Baxauriko saila, Gonz. Salazar 1589 urtea.
- EZKERRARAN
Frankuko saila.
- EZKURRA
Argoteko saila.
- FAIDINO
Argantzongo lurgintza, Lpz. Gereñu 1724 urtea.

* Estekorana saila. "Itt. otra en el termino de Estecorana de fanega y media de sembradura surcana á hondonada de Pedro Egullea...". Arch. H. Prov. Burgos, Hipot. 3384, 260, 1775 urtea.

| | |
|--|--|
| FAIDO (FAIDU) Trebñualdeko herria * | (FUENTE) AZARBIA Zurbituko salla. |
| FAIDOBIDE Añastroko salla. | (FUENTE) GIPUZITURRIA Baxauriko salla, Gonz. Salazar 1589 urtea *. |
| FAIDUBIDE Grandivalgo salla. | (FUENTE) LAZITURRI Lañuko salla. |
| FAXART (AXARTE ?) Trebñu konderriko hirigunea, XIII. mendea. | (FUENTE) PATEA Albaitako salla. |
| FRANCO (FRANKU) Trebñu konderriko herria * | (FUENTE) PIKABURUA Baxauriko salla, Gonz. Salazar 1588 urtea. |
| FRANKOBIDE EDO ROBRI Armentiako salla, erreg. 225. 52. 131. | (FUENTE) TURRALDIA (ITURRAL- DIA?) Paritzako salla. |
| FRANKUBIDE (FRANCOBIDE) Frankuko lurgintza. | FUENTEZIRI Panguako salla |
| FRANKUDIA Armentiako salla. | FUIDIO Trebñu konderriko herria * |
| (FUENTE) ARTOLA Sasetako salla. | |

* *Faido (Faidu)* herria. *Alma una rega, Paidu una rega, Mesanza una rega* 1025 urtean, *Balparda*, Vizcaya y sus fueros 1, 388, *Rivo de Ibita XXXV rgs: (...) Alma I rg., Paidu I rg...* 1025 urtean, *Serrano, C.S., Millán* 346. Toponimoaren sustraian *Faedo, Haedo* (robledo) erromanikoa dago, lat. *fagetum*-etik.

* *Franco (Franku)* herria. *Prango et duas regas. Armendihi una rega* 1025 urtean, *Balparda*, Vizcaya y sus fueros 388, *Rivo de Ibita XXXV rgs.: Prango et II rgs., Armendihi I rg.* 1025 urtean, *Serrano, C.S. Millán* 205. *Franco de Suso y Franco de Yuso* 1257. Toponimoaren ildotik *Frankubide, Frankubede* (asimilazio goranzkoaz azken hau), *Frankudia* (*Frankubidia*). Jatorria ertaroan hainbestetan ernaten zen (*Villa*) *Franca*-ren segidakoa da.

* (*Fuente*) *Gipuziturria* Iturria. *Gipuz-* "gipuzcoano", bestetako *Gipuzuri* (Errioxa), *Gipuzarrate* (Asparren) delakoen ildotik; *-iturri* "fuente".

* *Fuidio* herria. *Agellu una rega. Pudio una rega. Barizaha una rega* 1025 urtean, *Balparda*, Vizcaya y sus fueros 1, 388, *Rivo de Ibita XXXV rgs.: (...) Agellu I rg., Pudio I reg....* 1025 urtean, *Serrano, C.S. Millán* 105. *Faidu Paido, Fudio Pudio, Franco Prango* kasuetan euskal fonetikaren ukitua atzeman bide da *f* fonema biezpainkariak ghegoaldeko euskaretan buruturiko duen zailtasuna medio.

- GABADUTXO
Aglu-Axarteko saila.
- GABALZETA
Axarteko saila.
- GABAZA
Obekuriko saila.
- GABILARRA (?)
Trebñũualdeko saila *.
- GAIKOA ETA GOAIKA (GOIKOA?)
Bustuko gainaldea.
- GAIKOA
Añastroko saila, erreg. 88.
205. 41.
- GAIKUA
Ladrera-Ozillako lurgintza.
- GALARDETA
Imiruriko saila.
- GALARGA (GALARRAGA?)
Imiruriko saila *.
- GALARRAGA
Trebñũualdeko saila *.
- GALARRATIA
Trebñũuko saila, erreg. 685.
167. 28.
- GALLIBIDE
Axarteko saila.
- GALLIKE
Golernioko saila, Lpz. Gereñu
1827 urtea.
- GALLIKI
Arrietako lurgintza.
- GALTXURRIKA
Saratsuko lurgintza.
- GALZARRA
Trebñũuko saila, erreg. 99. 14.
166 *.
- GALZILATXE
Saratsuko saila.
- GAMARRA
Marauri eta Baxauriko saila *.
- GAMARRABIDEA
Meanako saila.

* *Galarga* saila. **Galãrr(a)ga* hipotetiko baten sinkopatik (azentu erromanikoaren eraginez postonikoa itzali bide dela); *galar* AN, L, BN, Sal "lugar de leños muertos en el árbol mismo". Beste eskualdetako *Galarreta*, *Gallarta*, *Galarza* kasuak kontuan izanik. *Gallarta* (eta ondorengo *Gallarrarate* kasuan) hegoaldeko euskararen bustidura da nabarmen.

* *Galarraga* saila. "Itt... otra en termino de Galarraga de media fanega a surco de la Capellania que goza D. Zipriano de Laño...". Arch. H. Prov. Burgos, Hipot. 3384, 319, 1779 urtea.

* *Galbarin* despoblaturia. "En el Condado de Treviño, a dos tiros de bala del actual lugar de San Martin de Galbarin, aseguran que se levantó la aldea de Galbarin, que fué despoblada por una epidemia". Lpz. Gereñu, op. c. 550.

* *Galzarra* saila. *Galtzar* "seno, flanco" anatomkotik jasoriko hitza, balna hemengoak *galzar* / *galzarra* "calzada" erromanikoaren iturrira garamatza, egizkiago.

* *Gamarra* saila. "Itt. otra en Gamarra de lugada y media a surco de Baupista de Ochate vezino de Marauri y rebajo (sic)...". Arch. H. Prov. Burgos, Hipot. 3384, 384, 1774 urtea.

- GANBIDE
Faiduko saila.
- GARAIA
Franku eta Armentiako lur-
gintza, erreg. 122. 19. 154.
- GARAI O EDO ZURBIDE
Azkartzako saila, erreg. 32. 9.
161.
- GARAIUSTE (GARAIOSTE?)
Moscatoroko lurgintza.
- GARAMUÑOIA
Dordonizko gainaldea.
- GARANDURI
Doroñuko saila.
- GARANZUIETA
Sasetako saila.
- GARAPE
Agiluko saila, erreg. 84. 11. 8.
- GARAPENO
Argantzongo lurgintza, Lpz.
Gereñu 1724 urtea.
- GARAPIA
Samianoko uhaldea.
- GARIPITOSTIA (GARAPETOSTEA)
Pedruzoko saila, erreg. 81.
12. 74.
- GARBEA
Albaitako saila, erreg. 32. 3.
9.
- GARDUIETAS
Agilu-Axarteko saila.
- GARDUNCHAL
Agiluko saila *.
- GARDUNZA
Albainako lurgintza, erreg.
169. 29. 230 *.
- GARDUZA
Imiruriko saila *.
- GARIPOTXAS
Zurbituko lurgintza.
- GAROÑAS
Morgasko saila.
- GARRAPETOSTIA
Pedruzoko lurgintza.
- GARRAPIA
Argoteko lurgintza.
- GARRAPILOSTIA
Armentiako saila.

* *Gardunchal* saila. Lat. *carduum*-etik gaztelaniarra den tokizen hau, "lugar pobla-
do de cardos o gardinchas" espresatuz; euskal *Garduza*, *Gardunza* tokizena -eta
gardabera, *gardugera* terminoak- ildo berekoak dira, noski.

* *Gardunza* saila. *Gardunza* "lugar de cardos". "Primeramente una heredad en
termino de Gardunza a surco de Domingo Alonso y del cabildo". Arch. H. Prov.
Burgos, Hipot. 3384, 235, 1772 urtea.

* *Garduza* saila. *Garduza* "lugar de cardos" lat. *carduum* eta -za ugaltasunezko
atzizkitik. "Ilt. otra en termino de Garduza Jurisdizion de dicho lugar de Imiruri de
unaYugada larga a surco de Andres de Sasetta vezino de dicho lugar y arroyo". Arch.
H. Prov. Burgos, Hipot. 3384, 317, 1774 urtea.

- GARRAZAL**
Sanmartintzarko lurgintza.
- GARRIZABAL**
Argoteko lurgintza, erreg. 47.
6. 54.
- GARROPIL**
Morazako lurgintza.
- GARRUNSOL**
Argoteko salla.
- GARRUZABAL**
Argoteko salla.
- GARZABAL**
Imiruri-Otxateko salla.
- GARZIZUNZU**
Otxate-San Vicentejoko salla.
- GASTOBI**
Argoteko lurgintza *.
- GATEA**
Albaitako salla.
- * *Gastobi* salla. *Gatz*- "sal", -obi "hoyo" lat. *foveam*-etik, LEEE, 107.
- * *Gauzeta* salla. "Yo el dicho Juan Martinez de Alangua fiador hipoteco otra heredad en el termino de Gauzeta del referido lugar de Ajarte...". Arch. H. Prov. Burgos, Hipot. 3348, 304, 1774 urtea.
- * *Gillor* salla. *Agian*, (*E*)*egillor* "ladera seca", "refugio de cortijo cubierto" delakoaren hondarra da, beste *Turria* (*I*)*turria*, *Lorza* (*E*)*lorza* toponimoen modura lehen bokalaren itzalketaz (baina probableagoa da *agillorri* "majuelo" landarearen sin-kopa izatea, honetan azken osagaia **elorri* "espino" izan daitekeela -*angilluri*, *abillurri* beste botanikoetan bezala-).
- * *Gindalde* salla. *Gindalde* "paraje del guindo".
- * *Goba* lurgintza. *Goba* lat. *covam*-en hurrenkera etimologikotik, haserako ozen-dura beste *Bikuralde*, *Gurutze*, *Gortabe* kasuetan bezala ematen dela.
- * *Gobelaurra* salla. "Iten do dizen Gobelaurra Jurisdizion de Imiruri cauida de quatro zelemines lintera á piezas de el Mayorazgo que goza Maria Saenz vezina de Arechavaleta...". Arch. H. Prov. Burgos, Hipot. 3384, 320, XVIII. mendea.
- GAUZAZETA**
Ajarteko salla *.
- GAZTAPAN**
Añastroko salla.
- GERUKA**
Golerniko salla.
- GILOR (EGILLOR?)**
Caricedoko lurgintza *.
- GINDALDE**
Baxauriko lurgintza, erreg.
122. 19. 10 *.
- GINDETA**
Billa Toberako salla, erreg.
117. 18. 62.
- GOBA**
Lañuko lurgintza.
- GOBELA**
Imiruri-Otxateko salla.
- GOBELAURRA**
Sasetako salla *.

GOBELOSTE

Imiruri-Otxateko lurgintza,
138. 23. 8*.

GOGATE (OTXATE)

Trebiñu konderriko herria,
1025 urtea.

GOIKOA

Ozillako lurgintza, Lpz. Gereñu
1718 urtea.

GOIZEN

Marauriko saila*.

GOLERNIO

Trebiñu konderriko herria*.

GOLLAZA

Agilu-Axarteko saila.

GORRITOSTE

Agiluko saila.

GORRITXOSTE

Agilu eta Axarteko saila.

GORTABA

Arrietako saila.

GORTABE

Arrietako saila*.

GORZETA

Araikoko saila.

GRAMASOLO

Billa Toberako saila.

GRANADO

Trebiñualdeko despopulatua*.

GRANDIVAL (GRANDIBAL)

Trebiñu konderriko herria*.

GUABILA

Sanmartintzarko lurgintza,
Lpz. Gereñu 1623 urta.

* *Gobeloste* saila. "Ilt. Otra heredad en termino de Goueloste de laour de media yugada y otra de herederos de Martin Saenz vezino que fue del dicho lugar de Imiruri...". Arch. H. Prov. Burgos, Hipot. 3384, 317, 1774 urtea.

* *Goizen* saila. "Y la otra el anuziado Pedro de Albaina en termino de Goizen bajo de la senda de Artamadura...". Arch. H. Prov. Burgos, Hipot. 3384, 285, 1774 urtea.

* *Golernio* herria. *Golernio* 1257 urtean, *Golernio* 1325 urtean (*E. Enciso*, Catálogo 75-79). Beharbada, hemengoa euskal erro batzuei atxiki ohi zaien *-io* amaieraz dago, hots, *Inxurdio*, *Zamudio*, *Elorrio* delakoaz. Cfr. *O. de Apraiz*, *E. Knörr* "De la toponimia euskariana en Alava", B.I.Sancho El Sabio XXII (1978), 286-304. Aiarako toponimian, bereziki, aipatu amaierak (erromanikoa dela jatorrian) indar berezia du.

* *Gortabe* saila. *Gorta*- "cortijo", "cuadra", lat. *cohortem*-etik eratorri erromaniko baten zehar euskarara iritsia. Beherago, herskari ahoskabeaz, *Kortabe*.

* *Granado* despopulatua. "... En el Condado de Treviño, tenemos una ermita con esta dedicación, digna en todos los pormenores de ser recordada, ya que se trata de un templo románico que conserva en toda su pureza mucho de su estilo primitivo, y que, además, su titular es Nuestra Señora del "*Granao*"...". Lpz. Gereñu, op.c. 451.

* *Grandival* herria. Bigarren osagaia *-val* "valle" da, eta lehenengoa *grande*. *Grandival* 1257 urtean Kalagurriko zerrendan (*Hergueta*), *Grandeval* 1586 urtean (Cfr. Lpz. Gereñu, Toponimia Alavesa).

- GUALZABALZA
Agiluko saila.
- GUARDAMENDI
Tربیћуко gainaldea *.
- GAURDETURABE
Sanmartintzarko lurgintza,
Lpz. Gereņu 1645 urtea.
- GUARIZPE
Zurbituko saila.
- GUARTABE
Arrietako lurgintza.
- GUAZABALZA
Agiluko saila.
- GUGIZARRETA
Baxauriko saila.
- GUMIZARZAR
Tربیћуко saila *.
- GUNGUDI (GUNGURRI)
Saratsuko saila.
- GUNGURRI
Saratsuko saila.
- GURALETXE
Saratsuko lurgintza.
- GURANSAR
Imiruriko saila.
- GURBA
Torreko saila.
- GURRANDIZ
Tربیћуко konderriko aintzin he-
rria, XIII. mendea *.
- GURITXOSTE
Agiluko saila, erreg. 85. 12.
240.
- GURRUSTIZA
Agilu-Axarteko saila *.
- GURRUZKARRATE
Samartintzarko lurgintza, Lpz.
Gereņu 1676 urtea *.
- GURUGU
Morgasko gainaldea.
- GURZABALA
Billa Toberako saila.
- GUZIALDE
Argantzón-Villanueva de Oca-
ko saila.

* *Guardamendi* saila. Tokizen hibridoá, *Guardia* gaztelaniarra -gure *Zala*, *Zaias*-en ordaina da-, gehi -mendi "monte" osagala.

* *Gumizarzar* saila. "Itt. Hipoteco una heredad en Gumizarzar, de una Yugada...". Arch. H. Prov. Burgos, Hipot 3384, 314, 1784 urtea.

* *Gurrandiz* despoblaturá. "Solamente hemos encontrado este nombre entre las aldeas que formaban parte del arciprestazgo de Treviño, constituía el Obispado de Calahorra, en el siglo XIII". Lpz. Gereņu, op.c. 552.

* *Gurrutziza* saila. **Gorostiza* "acebedo" tokizenaren aldakia itxidura bokallkoaz eta dardarkariaren erreduplikazioaz.

* *Gurruzkarrate* saila. **Guru(ze)koarrate* batetik, ausaz, dardarkariaren erreduplikazioaz "portillo de la cruz" adierazten duela. Osagal bera *Gorceta* (**Gu(zeta)*), *Gu(zaba)la*, *Gu(zialde)* (**Gu(ru)zealde*), *Korozia*, *Kroziga* kasuetan (*u* < *o* aldaera erromanikoaz, batzuetan).

| | |
|--------------------------------|-------------------------------|
| GUZIKOA | (HOYO) BASANKELO |
| Añastroko saila. | Golernioko saila. |
| HARABEL | (HOYO) LOBIARAN |
| Billa Toberako saila. | Billa Toberako saila. |
| HASARTE (AJARTE) | (HOYO) LORONKO |
| Tربیڻو konderriko herria, | Villanueva de Toberako saila. |
| 1025 urtea. | (HOYO) MURRI |
| HERETXALDE | Arrietako saila. |
| Ajarteko saila *. | (HOYO) SARRAATE |
| HERRAIN | Billa Toberako saila. |
| Saratsuko saila *. | (HOYO) SUSUMEO |
| HOBEKORI (OBEKURI) | Agiluko saila. |
| Tربیڻو konderriko herria, | (HOYO) UNARAN |
| 1025 urtea. | Agiluko saila. |
| HORMABE | IBAIA |
| Otxate-San Vicentjoko saila *. | Sasetako saila *. |
| HORMATXA | IBAIATE |
| Kutxuko saila, erreg. 154. 26. | Marauriko lurgintza. |
| 150. | IBARGEÑA |
| | Tربیڻualdeko lurgintza. |

* *Heretxalde* saila. "Itt. la mitad de la heredad en Herechalde de una Yugada a surco de la otra mitad y regajo que baja de la Cuesta del Prado". Arch. H. Prov. Hipot. 3384, 308, 1885 urtea.

* *Herrain* saila. *Herrain* gazt. *Herrán*-etik euskaraz sudurkari aitzinean ohikoa den diptongoa duela. *Herrán* "pieza de cereales, de forraje...". "Otra en la misma Jurisdiccion u termino de Herrain, de quatro celemines a surco del vinculo de...". Arch. H. Prov. Burgos, Hipot. 3384, 315, 1785 urtea.

* *Hormabe* saila. *Horma*-*forma* erromanikotik "pared, muro" adierazpenez; gora-go, berriz, *Holmatxo* r<l disimilazio ezagunaz; -*be* "cabe, debajo". *Hormaza*, bestalde, lat. *formacea*-ren eratorria da (gaztelaniaren esparrutik hartua). Kasu honetan -za amaiera ez litzateke ugaltasunezko atzizki euskalduna, lat. -*ceus* /- *cea* atzizkiaren ondorioa baino.

* *Ibaia* saila. *Ibaia* "río". Ildo berekoa da *Ibaiate* "portillo del río". Oraindik *Ibete*, *Ibatate*, *Balas* ("Ibalas") (Morgas) kasuak *ibai*-ren erroitik. -*Ate* "portillo", "garganta o estrechadura de un valle", da, Arabako beste *Zarate*, *Otxate*, *Ebisate*, *Mafarrate*, *Gurruzkarate*, *Gipuzarrate* tokizenetan bezala.

IBARRA

Argote eta Albaitako saila eta zubia, erreg. 85. 12. 36 *.

IBARRAMENDI

Imiruriko saila *.

IBARRAPITURRI (IBARRAPEITURRI)

Argoteko saila.

IBARRATE

Ogetako saila.

IBARRTXURRI

Albaitako saila.

IBATATE

Dordonizko Iturria.

IBIA

Baxauriko saila, erreg. 787. 184. 171.

IBILLALDI

Axarteko saila.

IBILLANDI

Axarteko saila.

IBIRIRI

Pedruzoko saila, erreg. 85. 12. 76.

IDILORRI

Pedruzoko saila, erreg. 44. 5. 21.

IDUARAN

Agilu-Axarteko saila.

IEGOARAN

Uzkioko saila.

IELANDA

Marauriko lurigntza.

IGARRA

Grandivalgo lurigntza.

IGUARAN

Agiluko saila.

IKARRARAN

Torreko saila.

IKARTXEGI

Pedruzoko saila.

IKERA

Añastroko saila, 1703 rutea.

IMIRURI

Trebiñu konderriko herria *.

* *Ibarra zubia. Ibarra "vega". "... Hipoteco una heredad en termino del dicho lugar de Albaina en donde dizen la puente de Ibarra..."*. Arch. H. Prov. Burgos, Hipot. 3384, 241, 1775 urtea.

* *Ibarramendi saila. Ibarra "vega"; -mendi "monte"*.

* *Imiruri herria. Imiruri toponimoak berekin du -uri "poblado" osagala, beste Nunuri, Obekuri, Marauri, Baxauri kasuek bezala. Ymiruri 1257 urtean (Hergueta), Hymiruri 1325 urtean (E. Enciso, Catálogo 75-79), Sancho Yuannes de Ymiruri 1299 urtean (Catálogo, 70-71). Lehen osagalan, agian, Mafarroako Imirizaldu-n bezala-Eme(te)rius antroponimoa egon daiteke, Frantziako Aymery, Emery delakoetan modura. Jakina denez, -uri elementua anitzetan ematen da Errioxaldeko onomastika nagusian, hots, Ollauri, Otxanduri, Ziuri, Gipuzuri, Maharruri gisakoetan, osagai horrekin aspaldiko villa-k (edo fundus delakoak) adierazten direla. Trebiñualdeko toponimia tipian badira Larrauri, Rotauri, Returi, Pikauri modukoak.*

- INIKOTURRIA
Añastroko lurgintza.
- INKABERAS
Sasetako saila.
- INSAUSTIA
Sasetako saila.
- INTURRARAN
Dordonizko sakana eta erreka.
- INTXORTA
Trebiñuko saila *.
- INTXUERTA
Trebiñuko lurgintza, Lpz. Gereñu 1706 urtea.
- IRIBIRI
Pedruzoko saila.
- IRUBURO
Agiluko saila *.
- IRURA
Trebiñualdeko saila.
- ISABE
Axarteko saila, erreg. 10. 1. 173.
- ISABETIA
Sasetako lurgintza, Lpz. Gereñu 1666 urtea.
- ISABIA
Sasetako lurgintza, Lpz. Gereñu 1691 urtea.
- ISARRUA
Baxauriko saila, Gonz. Salazar 1753 urtea.
- ISASI
Imiruri-Otxateko lurgintza.
- ISASIA
Imiruri eta Marauriko saila, erreg. 944. 215. 203 *.
- ISASIBARRIA
Sasetako lurgintza, Lpz. Gereñu 1734 urtea.
- ISASAKANA
Baxauriko mulnoa, Gonz. Salazar 1589 urtea.
- ISAstra
Aranako saila.
- ISAUSTIA (INSAUSTIA?)
Trebiñualdeko saila.
- ISIBARRUA
Baxauriko saila.
- ISOSTE
Argote eta Axarteko saila, erreg. 933. 213. 76 *.

* *Intxorta* saila. *Intxorta* "noceda" *Intxaurr(e)ta* batetik, baina *Inxuerta* aldakia ere bada, eta, antza, gaztelaniar -ue diptongoaren eraginez.

* *Iruburo* saila. "Primeramente hipoteco una heredad en el termino de Iruburo de dicho lugar de Agullo de tres Yugadas de laur...". Arch. H. Prov. Burgos, Hipot. 3384, 297, 1774 urtea.

* *Isasia* saila. *Isasi* etimologikoki "retamal"/*Isas(t)l* batetik, baina Zigoitiako eskualdean "jaro" ere adierazten du. Antzeko semantika dute Gipuzkoan eta Nafarroan idazki zaharretan *Las Isasias* delakoek.

* *Isoste* saila. "Ilt. Hipoteco otra heredad en termino de Isoste de laur de lugada y media a surco de dicho Juan Martinez y Ignacio de Alzola...". Arch. H. Prov. Burgos, Hipot. 3384, 305, 1775 urtea.

- ISOSTI
Axarteko lurgintza.
- ISPE
Ozanako sala.
- ISTURZULA
Uzkioko saila
- ISUNZA
Marauriko lurgintza.
- ISUSA
Uzkioko saila, erreg. 47. 6.
205.
- ITURBIDE
Obekuriko saila, erreg. 47.
202. 66 *.
- ITURRARAN
Ajarteko saila *.
- ITURRATE
Ogetako saila.
- ITURRIAGARA
Sasetako lurgintza, Lpz. Gere-
ñu 1734 urtea.
- ITURRIARAN
Axarteko saila.
- ITURRIDAGRADO (?)
Pedruzoko saila.
- ITURRITXU
Agilu-Axarteko saila.
- ITURRUBEA
Sanmartintzarko saila.
- ITXABIA
Dordonizko saila.
- ITXARIA
Dordonizko saila, erreg. 154.
26. 53.
- ITXARTXEGI
Armentiako saila.
- ITXARTXIKI
Pedruzoko saila.
- ITXARTXIRI
Pedruzoko saila.
- IUZABALZA (JUANZABALZA?)
Agiluko saila.
- IZKIERRARAN
Frankuko lurgintza.
- JAUMBIDEA
Obekuriko saila, Gonz. Salazar
1637 urtea.
- JIRITA
Villanueva de Ocako lurgintza,
Lpz. Gereñu 1713 urtea.

* *Iturbide* saila. *Itur-* "fuente"; *-bide* "camino". *Iturri*-ren ildotik hidronimo asko da, *iturri* horrek, maiz, lehen bokala galtzen duela (*Turriaran*, *Turriberde*, *Turriaga* kasuetan legez). Hemengoaren segidakoak dira *Iturrubea*, *Iturritxu*, *Iturralde*, *Iturrraran*; eta bigarren osagal bezala *Latxiturri* (*La Atxiturri* "fuente de la roca"?), *Zamanturri*, *Santiturri*, *Ibarrapiturri* ("Ibarrapeturri"), *Lapiturri*, *Inikoturria*, *Tallaiturri* (talla lat. *dac(u)llam*-etik, baina *dalla* erormanikoaren zehar), *Pikiturri* kasuetan.

* *Iturrraran* saila. *Iturrraran* "valle de la fuente". "... Hipoteco el seguro de este dicho censo y sus rditos una heredad en termino de Iturrraran de media quarta de lugada...". Arch. H. Prov. Burgos, Hipot. 3384, 305, 1775 urtea.

| | |
|--|--|
| JUANZABALZA | KALLARRATE |
| Agiluko salla *. | Ladrera-Ozillako salla. |
| JUARAN | KANOKA |
| Frankuko lurgintza. | Baxauriko salla. |
| JUAZDEAZMENDI | KANPAISALA |
| Lpz. Gereñu 1706 urtea. | Trebiñualdeko salla. |
| JUBIDEA | KANPALANDEA |
| Obekuriko salla, erreg. 897. 202. 66. | Sasetako salla. |
| JUBIRDEA (JAUNBIDEA, JAURBI- DEA?) | KANPOLATXI |
| Obekuriko hegla. | San Vicentejoko salla. |
| JURAGATE | KANTIKARRATE |
| Doroñuko salla. | Sanmartintzarko soroa, 1676 urtea. |
| JUSTRAN | KAPANALDEA |
| San Martin Galvaringo salla, erreg. 200. 38. 227. | Sasetako lurgintza, Lpz. Gere- ñu 1684 urtea *. |
| KAGAZULETA | KAPANOSTE |
| Sasetako salla. | Ogetako salla *. |
| KALLA | KAPARRAN (KAPARRARAN?) |
| Ladrera-Ozillako arroa. | Armentiako lurgintza, erreg. 233. 54. 184. |
| KALARRATE | KAPARRARAN |
| Ozillako lurgintza. | Trebiñualdeko salla *. |

* *Juanzabalza* lurgintza. *Juan* izen berezi ezaguna beste *Juan Uzkiario*, *Marianar Maritxalda* modura; *-zabalza* "lugar ancho", baina hemen izen berezi bati atxikitako deitura baten iturrikoa izan daiteke.

* *Kapanaldea* salla. *Kapana-* "cabaña", "choza de viña" lat. *capannam*-etik; *-aldea* "lado, paraje". *Kanpalandea* eta *Canpalandia* hemengoaren trakesturak dira, herri-etimologia sasizkoak gazt. *campana*-ren ildo hartu duela.

* *Kapanoste* salla. *Kapanoste* "tras la cabaña". "Itt. otra heredad en el termino de Capanoste...". Arch. H. Prov. Burgos, Hipot. 3384, 1774 urtea.

* *Kaparraran* lurgintza. *Kapar-* B, S "zarza, cambrón"; *-aran* "valle". Konderriko toponimian ohikoa da. Hona adibide zenbait *-aran* elementuaz: *Malutarana*, *Kintuaran*, *Amarriaran*, *Salmurarran*, *Uriarran*, *Izkierraran*.

- KAPATARANA**
Baxauriko saila.
- KAPITURRI**
Argoteko saila.
- KARAMUZA**
Agilu-Axarteko saila.
- KARANDURI**
Doroñuko saila, erreg. 178.
31. 8.
- KARASTA**
Doroñuko saila.
- KARKARZALDAPETE**
Baxauriko saila, Gonz. Salazar
1647 urtea.
- KAROBIA**
Pedruzoko saila, erreg. 63. 8.
123 *.
- KARRANTXA**
Argantzongo lurgintza, Lpz.
Gereñu 1724 urtea.
- KARRANTXIA**
Arrietako saila.
- KARRAZAXETA (CARA SASETA)**
Morgasko saila.
- KARRIONSO**
Arrietako saila.
- KARRIZABALA**
Añastroko saila.
- KASKAJUA**
Pedruzoko lurgintza, Lpz. Ge-
reñu 1706 urtea, erreg. 199.
37. 8 *.
- KATARRATIA**
Lañuko saila eta mendia.
- KATASARRA (KATAZARRA)**
Lañuko lurgintza, erreg. 10. 1.
15.
- KATRUBIDIA**
Lañuko saila.
- KATURBIDEA**
Lañuko saila.
- KATXANI**
Argantzongo saila.
- KAUMBIDE**
Lañuko saila.
- KAUZEMENDI**
Ogetako saila.
- KAZANETA**
Armentiako saila.
- KAZARRO**
Zurbituko saila.
- KAZUBIA**
Azkartzako saila.
- KAZULETA**
Agilu-Axarteko sakana.

* *Karobia* saila. *Kare-* "cal" lat. *calem*-etik; *-obia* "hoyo, agujero" lat. *foveam*-etik. "Cantera" adierazten duen *Arrubia*-k ere osagal bera du.

* *Kaskajua* lurgintza. Gaztelaniako *cascajo*-tik, baina euskal mugizkiak. Bada *kaskallu/ kaskallu* formula zaharragoa ere gurean, Iruñeako (Naf.) *kaskallueta* kasua bezala, hitzaren jatorrian lat. **quassicare* dagoela. J. Corominas, Breve Dic. Etimológico, 137.

- KEREJALDE**
Axarteko saila *.
- KINDETA**
Morazako saila.
- KINTUARARAN**
Imiruriko mendia.
- KOIUSTE**
Moskatorko lurgintza.
- KOKUMENDI (LAKUMENDI?)**
Argoteko gainaldea.
- KOMENDI**
Caricedoko saila *.
- KOMIPARALDE**
Sanmartintzarko lurgintza,
XVIII. mendea.
- KONPARALDE**
Sanmartintzarko saila.
- KORKO**
Ogetako saila.
- KORKOBIA**
Albaitako saila.
- KORKOITIA**
- Albaitako saila, erreg. 54. 7. 46.
- KOROZIA**
Albaitako saila, erreg. 63. 8. 149 *.
- KORTABE**
Arrietako saila.
- KORTALARRA**
Agiluko lurgintza, Lpz. Gereñu 1706 urtea *.
- KORTAZELO**
San Martin de Grandivalgo saila.
- KORTUARIA**
Golernioko lurgintza, Lpz. Gereñu 1706 urtea.
- KOSTABE (KORTABE?)**
Arrietako saila.
- KOSTIBUTXI**
Arrietako saila.
- KOSTUIA**
Ozanako lurgintza.

* *Kerejalde* saila. *Kerejalde* "cerezal" s / z j prozeduraz. "Itt. una heredad, y solo la mitad en el termino de Querejalde de una lugada a surco de la otra mitad y regajo que baja de la Cuesta del Prado". Arch. H. Prov. Burgos, Hipot. 3384, 307, 1785.

* *Komendi* saila. (La) *kumendi*-ren laburdura -lehen silaba artikulatu erromanikotzat sasibidez hartu bide dela-. *Alkumendi*, *Lakumende*, *Kumendi*, eta abar hemengoaren aldaerak dira. Lehen elementua *laku*- "laguna" lat. *lacum*-etik izan daiteke, bestetako *Lakurretundo* (Gibiyo, Araba), *Lakuzubia* (*Kuzubia*) kontuan izanik. Cfr. *M. Nieves Sánchez*, op.c. 253-254.

* *Korozia* saila. *Korozia* "la cruz" anaptixia cr taldean eta bokalismo erromanikoa agitu dela. "Itt. otra heredad que llaman Corozia...". Arch. H. Prov. Burgos, Hipot. 3344, 238, 1774 urtea.

* *Kortalarra* saila. *Korta*- "cuadra, establo", "corral" lat. *cohortem*-en lido erromanikotik; *-larra* "dehesa, pastizal". Hemengoaren segidatik *Kortabe*, *Kortibutxi*, *Gortabe*.

KOSTUZA

Dordonizko saila.

KOZULIA

Arrietako saila.

KRISTARAN

Albaitako saila, erreg. 54. 7.
120.

KRISTIANBARRO

Agilu-Axarteko saila.

KROZEGA

Billa Toberako saila *.

KRUZABALA

Paritzako gainaldea.

KRUZEMENDI

Ogetako lurgintza.

KRUZIMENDIALDE

Ogetako saila *.

KRUZIA

Albaitako saila, erreg. 261.
65. 170.

KRUIZIAGA

Tربیũualdeko sakana.

KRUIZIAN

Ogetako saila *.

KRUIZIBIDIA

Paritzako lurgintza, erreg.
196. 36. 99.

KRUIZIMENDI

Marauriko saila.

KRUIZIMENDIALDE

Ogetako lurgintza, Lpz. Gere-
ñu 1722 urtea. *.

KRUIZIMENDIOSTE

Ogetako saila *.

KRUIZIZABALA

Sasetako lurgintza, Lpz. Gere-
ñu 1734 urtea.

KUEZABALZA ETA KUENZABALZA

Agilu-Axarteko saila.

* *Krozega* mendia. *Kruziaga* "lugar de cruces"-en aldaera beranta $u < o$ irekieraz, eta -aga ugaltasunezko atzizkiak. *Kroziga*, *Krozita*, *Krozia* delakoek bokalismo berant bera islatzen dute (eta, inolaz ez, euskal *gorosti* "acebo" erroaren ildoak). *Kurzea* kasuan lat. *crucem*-en metatesia ematen da. Bestalde, lehen bokalismoari eusten diote *Kruzimendi*, *Kruziaran*, *Kruzizabala* kasuek. Errioxan, gaztelaniaren bokalismoaz, *Korozia*, *Krozobirio*, *Krozia*, *Kroziba*, *Kroziga* gisakoak agitzen dira, lat. *crucem*-etik denak, *croce* erromanikoaren zehar. Cfr. M. Lecuona, "Notas toponímicas de la Rioja: el nombre de la Cruz en la toponimia riojana", Berceo VIII, 245-253.

* *Kruziaran* saila. *Kruziaran* "valle de la cruz". "Iten otra en la misma jurisdizion y termino de cruciaran de cavida de media fanega lintera á camino para Marauri y sierras". Arch. H. Prov. Burgos, Hipot. 3384, 275, 1772 urtea.

* *Kruzimendialde* saila. *Kruzimendialde* "paraje de la cruz del monte". "Itt. otra heredad en termino que dizen cruci mendialde de media Yugada...". Arch. H. Prov. Burgos, Hipot. 3384, 278, 1775 urtea.

* *Kruzimendioste* saila. *Kruzimendi*- "monte de la cruz"; -oste "detrás". "Itt. io el dicho Domingo hipoteco una heredad en termino de crucimendioste...". Arch. H. Prov. Burgos, Hipot. 3484, 275, 1772 urtea.

KUKUBIA

Arrietako saila, erreg. 211.
45. 32.

KUKULI

Arrietako lurgintza, Lpz. Gere-
ñu 1706 urtea.

KUKULIA

Arrietako lurgintza, Lpz. Gere-
ñu 1827 urtea.

KUKUMENDI

Argoteko saila.

KULANTXA

Trebiñualdeko saila.

KURALDE

Grandivalgo saila.

KURIZABALA

Sasetako saila.

KURRIBUTXI

Albaitako saila, erreg. 54. 7.
182.

KURZEA

Obekuriko lurgintza.

KUTXU (CUCHO)

Trebiñu konderriko herria.

KUTXILAGUA

Añastroko lurgintza.

KUZABAL

Agiluko sala.

KUZARRETA

Baxauriko saila, Gonz. Salazar
1753 urtea.

KUZILANTXE

San Martin de Galvaringo sai-
la.

KUZILIA

Arrietako lurgintza, Lpz. Gere-
ñu 1693 urtea.

KUZKARRA

Saratsuko lurgintza.

KUZUBIA

Azkartzako lurgintza, Lpz. Ge-
reñu 1676 urtea.

LA ERRUA, LERRUA (LA RUA?)

Baxauriko saila, Gonz. Salazar
1753 urtea.

LA ESKARRA

Obekuriko saila, Gonz. Sala-
zar 1613 urtea.

LA ISPE

Ozanako lurgintza.

LA JUARBIDEA

Obekuriko saila, Gonz. Salazar
1730 urtea.

LA LARIA

Obekuriko saila, Gonz. Salazar
1741 urta.

LA OKISTIA

Obekuriko saila, Gonz. Salazar
1802 urta.

LA ORKIZA

Obekuriko saila.

LA PERDUZPE

Azkartzako saila.

LA PITURRI

Argoteko saila.

LA RAIN DE LERRUA

Baxauriko saila.

- LA REIN
Tربیñualdeko salla *.
- LA RINZA (LARRINZA, *LARRAIN-
ZA?)
Armenttiako salla.
- LA SEGARRA
San Vicentejoko salla.
- LA URTIANA
Obekuriko salla.
- LABERDINA
Dordoñuko muinoa.
- LABETE
Ogetako salla *.
- LADABANA
Sasetako salla.
- LADRERA
Tربیñualdeko herria *.
- LADERA GORZETA
Golernioko salla.
- LADREA
Tربیñu konderriko herria.
- LAGARBE
Frankuko salla, erreg. 143.
25. 171.
- LAGUARBIDIA (LAGUARDIABI-
DEA?)
Obekuriko salla, Gonz. Salazar
1694 urtea.
- LAGUNA DE URNOZTEGIETALA-
GUA
Baxauriko salla, Gonz. Salazar
1589 urtea.
- LAGUNBRIA
Golernioko lurgintza.
- LAGUNRRABIDIA (LAGUARDIABI-
DEA?)
Obekuriko salla, Gonz. Salazar
1712 urtea *.

* *La Rein* gainaldea. *Rein* Araban, gehienetan, ez da euskal *Larrain* / *Larrein* "era" delakoaren ildokoa, lat. *farraginem*-en iturria duen *La Herrén* / *La Herrán* terminoa baino, "el verde de avena, cebada, trigo, centeno y otras semillas que se da al ganado" espresatuz (Diccionario General Etimológico, II, 1145, Seix, Barcelona); bada *herrenal* "terreno que regularmente es cercado y en que se siembra el herrén" (Diccionario Enciclopédico Hispano-Americano X, 242, Montaner 1920); orobat, bada *rain* "pieza o heredad inmediata a la casa", "huerto cercano a la casa" (*Lpz. Gereñu*). *Larrinbe*, *Larrinza* (*La Rinza* sasi intepretapenez), *Larrinbia* delakoak, aldiz, euskal *larrain*-en hurrenkeratik datoz. Bestalde, *Perran*, *Parran*, *Perranburu*, *Perraran* delakoak, eraberean, *herrán* / *herrén* erromanikoaren ildokoak dira, f<p bilakaera fonetikoaz (euskarazko beste lat. *ficum piku*, lat. *fagum pago* mailebu latindarren ildotik).

* *Labete* salla. *Labe*- "horno" delakotik, antza. "Itt. otra en Labete de una lugada a surco de heredad de Theresa de oqueta...". Arch. H. Prov. Burgos, Hipot. 3348, 277, 1774 urtea.

* *Ladrera* herria. *Ladrera* 1275 urtean. Badira *Ladrero* (Gaztela), *Latre* (Aragoia), *Javierrelatre* (Aragoia) gisako izenak penintsulan, eta *aladro*, *aladrero* terminoak ere bai, denak lat. *aratraria*-tik. Cfr. M. Nieves Sánchez, op.c. 189-190.

* *Lagunrrabidia* salla. "Itt. Hipoteco lo el dicho Felipe de Eguileta otro en do dizen Lagunrrabidia de Zinco zelemines de sembradura...". Arch. H. Prov. Burgos, Hipot 3384, 267, 1772 urtea. Agian, **Lagunbidia* "camino de la laguna"-tik dator.

LAGURRIA

Caricedoko saila.

LAIRETA

Ozanako saila.

LEJARTE

Argoteko saila, erreg. 301.
39. 20.

LAKARAMDURI

Dordoñuko lurgintza.

LAKUA

Saratsuko lurgintza.

LAKULUN (LAKUILUN?)

Lañuko saila.

LAKUMENDA

Caricedoko saila.

LAKUNARAN

Mesantzako saila.

LAKUTXA

San Martin Galvaringo lurgintza.

LAKUTXARAN

Baxauriko lurgintza.

LAKUZUBIA

Azkartzako lurgintza, Lpz. Gereñu 1693 urtea *.

LAMARRIARAN

Doroñuko lurgintza, Lpz. Gereñu 1665 urtea.

LAMOJABE

Burgetako lurgintza.

LANA

Sasetako lurgintza, Lpz. Gereñu 1665 urtea.

LANBARIBE (LANBARRIBE?)

Azkartzako lurgintza, Lpz. Gereñu 1676 urtea.

LANBARRI

San Martin Galvaringo saila *.

LANBARRIS

San Martin Galvaringo lurgintza.

LANDABARRE (LANDABARRI?)

Ladrera-Ozillako saila *.

LANDABERDIA

Sasetako saila.

* *Lakuzubia* lurgintza. Laku- "laguna" lat. *lacum*-etik; -*zubia* "puente" -hitz honen oinarrian *zu(r)*- "madera" eta -*bi* "dos" osagaiak daudela-. *Lakutxaran*, *Lakutxa* (hemen -*txa* txikidurazkoa), *Lakulun* (*Lakuilun?*), *Lakua*, *Kumendi* / *Komendi* (**Lakumendi*) erro berekoak dira, gorago adierazi dugunez.

* *Lanbarri* saila. *Lanbarri* "artiga, tierra recién roturada", "tierra noval" euskal *lan*- "trabajo, cultivo" eta -*barri* "nuevo" elementuetatik.

* *Landabarre* saila. *Landa*- "campo", "pieza de terreno"; -*barre* (*barri*) "nuevo". Ollabari *Ollabarre* kasuan bezala, hemen ere *i*<*e* bilakaera erromanizantea euskarak Araban gaztelaniar bokalismoaren esparrutik jasoriko eragina nabarmen utziz. Irekiera bokaliko bera *bide* / *bede*, *betxi* / *betxe* (*beiti*), *buru* / *buro* kasuetan. Beherago *Langorri* / *Langurria* "terreno rojo o seco" bestetako *Lugorri* eta / *Ligorri*-ren hurbiletik. *Landa* hitzetik berriz hurrengo lekukoak ertaroan: *Pedro Ruiz de Landa* 1262 urtean, *In termino qui dicitur Behengo Landa* 1177 urtean, *Garchot de Landa Arteco* 1366 urtean, *Unam vineam in Landazual* 1196 urtean. Cfr. Términos vascos, 311.

- LANDABIA
Taraveroko saila.
- LANDABIDE
Marauriko saila, erreg. 207.
41. 32.
- LANDALUZ
Samianoko lurgintza.
- LANDALUZIA
Paritzako saila.
- LANDARABIDI
Marauriko saila *.
- LANDARAZO
Albaitako saila, erreg. 70. 9.
114 *.
- LANDARAZU
Albaitako saila.
- LANDARBIDE
Marauriko lurgintza.
- LANDAURA
Bustuko lurgintza.
- LANDAZARRO
Tربیñualdeko saila, erreg.
200. 38. 185.
- LANDEZUELA
- Azkartzako lurgintza, Lpz. Ge-
reñu 1637 urtea.
- LANGARBIDE
Lañuko saila.
- LANGORRI
Agilu-Axarteko gainaldea eta
sakana.
- LANGU (LAÑO)
Tربیñu konderriko herria,
1025 urtea.
- LANGURENA
Baxauriko saila.
- LANGURRIA
Tربیñualdeko saila, erreg. 1.
1. 260.
- LANGURROA
Tربیñualdeko saila, erreg. 1.
1. 260.
- LANPA
Doroñuko saila.
- LANTEGI
Tربیñualdeko saila *.
- LANUTO
Imiruri-Otxateko saila.

* *Landarabidi* saila. *Landara-* "al campo"; *-bidi* "camino" asimilazio bokalikoa beheranzkoaz. "Ilt. otra heredad en termino llamado landarabidi de una lugada a surco de heredad...". Arch. H. Prov. Burgos, Hipot. 3384, 284, 1774 urtea.

* *Landarazo* saila. Beherago *Landarazu*. Hegoaldeko toponimian *-zu* atzizkiak *o-ranzko* (*-zo, so, jo* formuletan) bilakaera jasan du (*Artazu / Artaso, Artajo*, eta *Urkizu / Urkiso / Urkijo* delakoetakoa). Hemengo tokizenean lehen elementua *landa* "campo", "terreno" ezaguna da *Landaluz(e)*, *La Andaluzia* (**Landaluzia*), *Landezuela* (kasu honetan *-uela* atzizki erromanikoez), *Landabide* kasuen modura.

* *Lantegi* saila. *Lantegi / llantegi* "vivero arbolado; porción de bosque bastante poblado" (Lpz. Gereñu), "concesión para cortar árboles. (*Iribarren*, Vocabulario Navarro), *lan-* "trabajo" eta *-tegi* tokizko atzizkitik.

| | |
|--|--|
| LANZARTE Agiluko saila. | LARPIARTE Argoteko saila. |
| LANZERRATE Ozanako lurgintza. | KARRABEL Ogetako saila. |
| LAÑO (LAÑU) Trobiñu konderriko herria * | LARRA Albaitako saila. |
| LAÑOSOLO Albaitako saila. | LARRAIN Saratsuko saila *. |
| LAPITURRI Ogetako lurgintza *. | LARRAKIETA Azkartzako saila, Lpz. Gereñu 1723 urtea. |
| LA PUEBLA DE ARGANZON Trobiñu konderriko herria. | LARRALDE Marauri eta Saratsuko lurgintza *. |
| LAREA (LARREA?) Sasetako lurgintza, Lpz. Gereñu 1666 urtea. | LARRANBE Marauriko saila, ereg. 139. 24. 244. |
| LAREIN (LA REIN?) Baxauriko lurgintza. | LARRANETA Morgasko saila, ereg. 113. 16. 70. |
| LARIDABIDE Marauriko saila. | |

* *Laño (Lañu) herria. Langu da XI mendeko formula, ng taldeak bustidura espre-satzen duela beste Abendangu (Avendaño), Erdongana (Erdoñana), Lekingana (Leciñana) kasuetan bezala. Bergilgona una rega, Langu una rega 1025 urtean, Balparda, Vizcaya y sus fueros I, 388, Rivo de Ibita XXXV rgs. : ... Bergilgona I rg., Langu I rg. 1025 urtean, Serrano, C.S.Millán 105, Layno 1257 urtean (Hergueta). Bere iturrian lat. planum egon bide da pl taldeak soilketa jasaten duela l-ra euskarazko pluma < luma, plantare < landare kasuetan bezala -eta II bustidura gaztelaniaz (llano) (bigarren silabara igaro delarik Laño kasuan)-. Hala ere, antroponimo lantidar baten lldoa (*Flavino / Flavino izenetik, adibidez) ez da baztertzekoa hemen. Ikus F. Fita, "El vascuence alavés anterior al siglo XIV", BRAH III, 230.*

* *Lapiturri saila. "Itt. otra heredad en el termino llamado Lapiturri de dos lugadas a surco de Francisco Marquinez vecino de ...". Arch. H. Prov. Burgos, Hipot. 3384, 277, 1775 urtea.*

* *Larrain saila. Larrain "era". Otra en termino que dizen Larrain de Cavida de media Yugada lindero a tierras de dicho Manuel de Estavillo y de Pedro de Albaina". Arch. H. Prov. Burgos, Hipot. 3384, 290, 1772 urtea.*

* *Larralde saila. Larralde "paraje de la dehesa". "Otra heredad a la seguridad de dicho censo en termino de Larralde de yugada y media...". Arch. H. Prov. Burgos, Hipot. 3384, 291, 1774 urtea.*

- LARRARTE
San Vicentejoko lurgintza,
erreg. 133. 21. 5.
- LARRASA
Baxauriko saila *.
- LARRASAGA
San Vicentejoko lurgintza,
erreg. 133. 21. 5.
- LARRASKELU
Azkartzako lurgintza, Lpz. Ge-
reñu 1723 urtea.
- LARRASTE (LARROSTE?)
San Vicentejoko saila, erreg.
2. 2. 223.
- LARRATE
Otxate-San Vicentejoko saila.
- LARRATXE
Agiluko saila.
- LARRATXI
Agilu-Axarteko saila.
- LARRATXOA
Azkartzako lurgintza, Lpz. Ge-
reñu 1696 urtea.
- LARRATXU
Agiluko saila.
- LARRATXUA
Azkartzako lurgintza, Lpz. Ge-
reñu 1676 urtea.
- LARRAURI
Baxauriko mendi-sabela, Gonz
Salazar 1873 urtea.
- LARRAUSTI (LARRAOSTE?)
Bustuko saila.
- LARRAUSTRI (LARRAUSTI)
Bustuko saila.
- LARREIN
Imiruri-Otxateko saila.
- LARREKETA
Azkartzako lurgintza, Lpz. Ge-
reñu 1723 urtea.
- LARREKIETA
Trebiñualdeko saila *.
- LARRELUZ
Maururiko saila.
- LARRENETA
Morgasko saila., erreg. 113.
16. 70.
- LARRENIGA
Arrietako saila.
- LARRETUR
Maururiko saila.
- LARRIKUARAN
Agilu-Axarteko saila.

* *Larrasa* saila. Agian, euskarazko *larratz* "terreno baldío" delakoa da. "Itten lo el dicho regidor hipoteco una pieza en termino de la Larrasa de una fanega de sembradura surco por la parte del bochorno a Manuel de Egulleta...". Arch. H. Prov. Burgos, Hipot. 3384, 267, 1772 urtea. Beherago *Larrasaga*.

* *Larreakieta* saila. *Larreaki-* AN, BN "tierra cubierta de matroral, brezo", L "pato, dehesa", *larre-* gehi *-ki* atzizkitik. Sara-n (Lapurdi) *Larreakia* toponimoa ohikoa da. Bere segidakoak dira, orobat, Konderrian *Larreluz(e)* "dehesa larga", *Larratxi* (probableki, *Larregutxi* "dehesa menor"), *Larratxe* (kasu honetan *bitxi*-ren irekiera bokallikoa), *Larralde*, *Larrarte* "entre pastos".

- LARRINBE
Marauriko lurgintza *.
- LARRINBIA
Paritzako saila, erreg. 196.
36. 111.
- LARRINZA
Armentiako lurgintza.
- LARRISKO
Baxauriko saila *.
- LARRUNBE
Marauriko saila, erreg. 202.
40. 161 *.
- LARRUNBIA
Albaitako saila.
- LARRUNDIA
Laño eta Imiruriko saila, erreg.
133. 21. 232.
- LARRUNZA
Albaitako saila.
- LASA
Albaitako saila, erreg. 203.
42. 11.
- LASEKUZUBEA
Sasetako lurgintza, Lpz. Gere-
ñu 1734 urtea.
- LASKARRA (LA ASKARRA)
Baxauriko saila, Gonz. Salazar
1753 urtea.
- LASKARRO (LA ASKARRO)
Baxauriko saila, Gonz. Salazar
1753 urtea.
- LASKUZUBEA
Sasetako saila.
- LASTARANA
Sasetako lurgintza, Lpz. Gere-
ñu 1691 urtea.
- LASURA
Golernioko lurgintza
- LATAGUA
Sasetako saila.
- LATXARRUA
Trebñu konderriko saila,
Gonz. Salazar 1637 urtea.
- LATXEKE
San Martin Galvaringo mul-
noa.
- LATXI
San Vicentejoko saila, erreg.
2. 2. 239.

* *Larrinbe* saila. *Larrinbe* "cabe la era". "Itt. otra en termino de Larrimbe de quatro zelemines a surco de heredad de la Jurisdizion de dicho lugar y otra del Caulido". Arch. H. Prov. Burgos, Hipot. 3384, 284, 1774 urtea.

* *Larrisko* saila. "Itten otra pieza en el termino de larrisko de media fanega surco por el bochorno Manuel Martinez del Campo y por el regañon pieza de Cabildo de dicho lugar". Arch. H. Prov. Burgos, Hipot. 3348, 268, 1772 urtea.

* *Larrunbe* lurgintza. Nafarroako Gulia ibarrean bada *Larunbe* deituriko herrixka. Bere elementuetan *larre-* "dehesa", *-une* "trecho, espacio" gehi *-be* "cabe, debajo" bide daude. Iparraldeko *La Rhun* (*Larrun*) oronimo ezagunean, eta Nafarroako Larraun ibar-izenean, osagai berak. Ertaroko izendegietan hurrengoak *larre-tik*: *Don Pere Andreu de Larrasoyna* 1309 urtean, *En Larrabeçua* 1475 urtean, *Fernando Sanchez de Larrea* 1490 urtean. Cfr. Términos vascos, 316.

- LATXITURRI**
Uzkioko lurgintza.
- LAUSA**
Sasetako saila.
- LAZAGURRIA**
Doroñuko saila.
- LAZIAGA**
Caricedoko saila, erreg. 794.
125. 234.
- LAZITURRI**
Baxauri eta Lañuko iturria.
- LAZPIARTE**
Argoteko lurgintza.
- LAZURRABLE (?)**
Obekuriko saila.
- LEAZAS**
Frankuko saila, erreg. 248.
59. 17.
- LEGALDIA**
Sasetako saila.
- LEGARDA**
Marauri eta Saratsuko saila.
- LEGARZA**
Trobiñualdeko saila *.
- LEGAZARBE**
Saratsuko lurgintza.
- LEGAZARTE (LEGARZARTE?)**
Saratsuko saila *.
- LEGERAN**
Golernioko mendia.
- LEGOSTE**
Marauriko saila.
- LEJALDIA**
Sasetako saila *.
- LEJARAN**
Bustuko saila.
- LEJERAN (LEJARAN)**
Golernioko lurgintza.
- LEJOSTE**
Argote, Ogeta eta Marauriko
saila, erreg. 201. 39. 20 *.
- LESPIA**
San Vicentejoko saila, erreg.
138. 23. 140.

* *Legarza* saila. *Legar-* B, BN, G, L "grava, gujja, piedrecilla menuda"; -za ugaltasunezko atizkia. Orobat, bada *Legarzabe* (*Lezagarbe* bere metatesia dela).

* *Legazarte* saila. Probableki, **Legazarte* batetik "entre gravas" adieraziz. "Iten otra heredad en dicho termino de Legazarte lauor de media Yugada larga...". Arch. H. Prov. Burgos, Hipot. 3384, 289, 17772 urtea.

* *Lejaldia* saila. (*E*)*lejaldia* "paraje de la iglesia", eta bere ildotik *Lejoste* "tras la iglesia", *Lejaran* (*Lejeran* asimilazio beheranzkoa eta s < j belarizaziozko prozeduraz), *Lexaigi* (**Elexaegi?*) (1482 urtean). *Lejoste* dela eta, esan beharrekoa da -oste latinismoa mendebaldeko eukararen esparrukoa dela, batez ere (nahiz toki berean -*gibel* zaharragoaren adierazpenak dauden Arabako *Ezkibel*, *Gibeleta*, *Gibelondo*, kasuetan).

* *Lejoste* saila. *Lejoste* (*E*)*lejoste*-tik "tras la iglesia" esanahiaz. "Itt. una heredad en termino... do dizen Lejoste de una lugada a surco de Juan de Albaina y el camino". Arch. H. Prov. Burgos, Hipot. 3384, 277, 1775 urtea.

LESPIKA

San Vicente joko saila, erreg.
138. 23. 140.

LETXARRA

Ladrera-Ozillako lurgingtza.

LETXAZAR (LA ETXAZAR?)

Mesanzako saila.

LEZANA

Trebiñu konderriko despoblataua *.

LEZETA

Baxauriko saila, Gonz. Salazar
1589 urta.

LEZETABAZTERRA

Baxauriko saila, Gonz. Salazar
1589 urtea *.

LIGORRIA

Ogetako saila *.

LIGURIA (LIGORRIA, LUGORRIA)

Otxate-San Vicente joko saila.

LILORRI

San Martin Galvaringo saila.

LINTORTE (LINTOSTE?)

Ladrera-Ozillako saila.

LIETURRI

Azkartzako saila.

LITITURRI

Azkartzako saila.

LITOKIA

Paritzako saila, erreg. 54. 7.
220.

LITXASO

Marauriko sakana.

(LLANO) ARTAZA

Zurbituko saila.

(LLANO) USABEL

Zurbituko saila.

LOBEIAR

Albaitako saila.

LOBIARAN

Billa Toberako saila.

LOIARRANA

Baxauriko saila, Lpz. Gereñu
1770 urta.

LOKUARAN

Obekuriko saila *.

* *Lezana* despoblataua. *Lezana* 1257 urtean (Hergueta), Bazen *Letezana* formula 816 urtean. Agian, **Laetitia* antroponimo latinotik dator, ohiko asibilazio erromani-koaz ty taldean, Verbentiana < Verbinzana kasuan bezala.

* *Lezetabazterra* saila. *Lezeta*- "lugar de simas"; -*bazterra* "orilla, rincón". *La Leze*, *Leziaga* / *Laziaga* lido beretik.

* *Ligorria* saila. *Lugorri* "tierra roja, tierra seca". "Itt. así mismo hipotecamos otra heredad en termino llamado Ligorria de dos lugadas...". Arch. H. Prov. Burgos, Hipot. 3384, 273, 1774 urtea.

* *Lokuaran* saila. Agian, **Lakuaran* da "valle del lago" adierazpenaz. "Itt. otra en el termino de Loquaran de fanega y media de sembradura teniente á pieza de Juan de Arlucea...". Arch. H. Prov. Burgos, Hipot. 3384, 263, 1775 urtea.

- (LOMA) ISASKANA
Baxauriko saila, Gonz. Salazar
1589 urtea.
- LONPEGI (LOPEGI?)
Arrietako lurgintza, Lpz.Gere-
ñu 1693 urtea.
- LONUTO
Argote-Imiruriko saila.
- LOPEGI
Arrietako lurgintza, Lpz.Gere-
ñu 1827 urtea *.
- LORDO
Meanako aldapa, 1482 urtea.
- LORDUIA (ELORDUIA?)
Paritzako lurgintza, 236. 55.
192 *.
- LORUNA
Imiruri-Otxateko lurgintza.
- LORZA (ELORZA?)
Imiruriko saila, erreg. 63. 8.
56.
- LORZURIA
Baxauriko saila, Gonz. Salazar
1753 urtea.
- LUBIARAN
Billa Toberako saila.
- LUNBA
Ladrera-Ocillako saila.
- LUNBIA
Lañuko lurgintza.
- LUPIARAN
Obekuriko saila, Gonz. Salazar
1730 urtea.
- LURATE
Mesantzako saila.
- LURPEARAN
Obekuriko saila, Gonz. Salazar
1691 urtea *.
- LURTIENA
Obekuriko saila, Gonz. Salazar
1730 urtea.
- LUTXARTO
Trebñualdeko saila eta iturria.
- LLORRI (ELLORRI?)
Torreko saila.

* *Lopegi* saila. *Lopegi* "lugar o casa de Lope", izen bereziaren sustraian lat. *lupus* dagoela -gure otso (*Otsanda, Otxoa, Otxokoa, Otxandorena*) delakoaren nolabaiteko ordaina dena.

* *Lorduia* saila. *(E)*lorduia* "espinal" ezaguna da; lehen bokalaren itzalketaz beste *Lorza* *(E)*lorza*, *Lorzuria* / *Lozuria* toponimoetan bezala. Euskal tokizenek lehen silaba galtze horretan gerta daiteke gaztelaniak bigarrenko silaban, maiz, duen azkartze fonikoaren ondorioa. Hemengo *(E)*lorduia*-k, bestalde, *Orduya, La Arduya, Arduya* gisako trakesturak jasan ditu Trebñualdean.

* *Lurpearan* saila. *Lurpe*- "cabe la tierra, subterráneo"; -*aran* "valle". Nafarroan bada *lupeko* "arraclán cebollero" hitza. *Lopiaran, Lubiarian, Lupiaran* kasuetan ere -*aran* osagaia ematen da.

Supermanen itzalaren mehatxupean: 1979

(jarraipena)

Fertxu IZQUIERDO

1979 urteko zine-kritikak dagokienez ere ez da urte makala. *Anaitasuna* aldizkarian zinemaren inguruko artikulua gehiago aurkitzen dugu aurten, gutxienez zazpi dira aldizkari honetan topatu ditugunak. Eta *Zeruko Argian*, berriz, bere sinadurak egilearen identitatea egiaztatzen duten bederatzi zine-kritika aurkitu ditugu.

Kontua da, urte honetan, *Zeruko Argian* hasiera ematen zaiola *Zinekologoaren bulegoa* izena duen sekzio berri bati eta, hasiera batean, sekzio horren artikulua sinatu gabe agertzen badira ere, urte horretako martxoaren 4ko aldizkaritik aurrera, sekzio horren bukaeran Joseba Sarrionandiaren sinadura hasten da agertzen. Eta sekzioaren gaia, zinema da (nahiz eta batzuetan ere beste gaiak jorratu). Honek pentsarazi digu sinatu gabeko artikulua horiek ere (hamarreko bat baino gutxiago) Sarrionandiak egindakoak direla baina, ezin izan dugunez ziurtatu eta, beraz, ziurtasun oso-osorik ez dugunez, lan honetaz aparte uztea erabaki dugu.

Aurreko atalean egin dugun moduan, aldizkari bien artikulua galka antolatu ditugu eta, gure iritziz, interesa gutxiokoak direnak edo gaiak errepikatzen dituztenak edo ez dugu komentatu edo gainera komentatu dugu, baina, betiere, aurkitu ditugun artikulua guztien erreferentzi laburra kontsultatu daiteke *artikuluaren zerrenda* eranskinetan.

1. Galaxien inperialismotik hegan egiten duen inperialismora

Orain arte ikusi dugun moduan amerikarren inperialismoa legitimatzen duten filmak hartzen du hizpide Joseba Sarrionandiak. Horrela egin zuen 1977an *Galaxietako gerlarekin* eta horrela egiten du orain *Supermanekin*.

Garaiako zinemagintzaren historiako filmik garestiena dela aipatzen du "menpekotasun eta integrazio ideolojiko" xede duen produktu ekonomikoa izanik.

Mitoen artean kokatzen du Superman, grekoek Herkules edo germaniarrek Parsifal duten bezala, amerikarrek kapitalismoaren supermitoa eraiki dute *Supermanen* inguruan.

Baina, zinemara hegan egin aurretik komiki munduaren pertsonaia zela gogorarazten digu eta, krisi ekonomikoko egoerekin lotzen du *Supermanen* sorrera. Hots, 1929ko krak eta krisialdiaren ondoren eta 30 hamarkadako langabezia eta delinkuentziaren igoeraren ondoren sortu zela dio. Superheroi gairik ez zela da eta gaiztoen aurka eta "american way of life"aren alde borrokatzen duela gogorarazten digu idazleak. *Supermanen* inguruan egin diren ikerketen ondorioz, Sarrionandiaren ustez argi geratzen dena zera da: Superman, Clark Kent eta Luisa Lanek osatzen duten hirukia sexu harreman beteezin baten aztarna dela. Sarrionandiak gogora ekartzen duen beste ezaugarri bat da Superman fisikoki oso indartsua bada ere intelektualki huts egiten duela eta intelijentzia gaiztoen atributua dela. Munduaren salbatzailearen beste kontraesan bat azpimarratzen du iurretarrak zeren eta "Supermanen ekintzak ziutatean bertan izaten dira, eta propietate pribatua defendatzeko normalean".

Superman ondoren sortu diren antzeko superheroiak ere "amerikar bizimodu eta ordenaren alde" sortu direla esaten du.

2. Zinema, gerra eta antikomunismoa

Hollywoodek egindako zinema eta Vietnamgo gerraren arteko harremanak aztertzen ditu Sarrionandiak *Anaitasuna* aldizkarian argitaratutako beste artikulu batean. Artikulu horretan Hollywood-eko bilakaera kritikatu egiten du "han lan egiten zuten hainbat idazleek utzi dute estudianteko barne ustelduraren testimonioa". Eta ustelduraz

gain, Hollywood "american way of life"-k eta amerikar gizarte inperialistak beharrezkoa zuen kobertura eta konplizitate ideologiko bat eskaintzen zuela" dio. Inperialismoari kobertura ematea leporatzen dio, beraz, eta Superman-en adibidea ekartzen du gogora.

Vietnamgo gerra ere aipatzen du Sarrionandiak, batez ere, gerra honek amerikar zineman izan duen eragina. Horretarako zenbait filmen aipamena egiten du. Vietnamgo gerraren gaineko film edo dokumental antibelizista ugari egin ziren, baina, une horretan, Hollywood-ek "produzitu zituen hainbat filme propaganda eta kontribuzio ideologiko gisa" salatzen du Sarrionandiak. Eta honen adibidezat Ray Kellog-en *Green Berets* aipatzen du. Gerra horren aldeko zenbait filmen aipamenarekin batera, gerraren kontrako beste film batzuen aipamena ere egiten du, Dalton Trumbo-ren *Johny cogió su fusil* bezalakoak.

Baina gizarte amerikarra Vietnamgo gerraz nekatzen hasi zenean eta krisia sortu zenean, Hollywood-ek taktikaz aldatu zuen, idazle bizkaitarraren iritziz, eta heroiak izatetik antiheroiak izatera pasa ziren filmetako protagonistak. Dena dela, Hollywood-en ideologiaren atzean inperialismoa ezkutatzen duela uste du iurretarrak, bai hasierako film horietan, baita hurrengoetan ere.

Eta artikulu honekin lotuta aurkitzen dugu Francis Ford Coppola-ren *Apocalypse now* filmari eskaintzen diona. Joseph Conrad idazle polakoaren *Ilunpeetako bihotza* nobelan oinarritzen da Coppola-ren pelikula. Odisea izugarri bat bezala aurkezten digu filma Sarrionandiak eta "Vietnamgo gerlaren ikuspegi dramatiko batekin batera eromenari eta heriotzari kantu bat sortzen baita, ilunpetako kolore eta eztagen artean". Arreta deitu digu, bederen, artikuluari ematen dion amaiera. Izan ere, Hollywood-i eskainitako aurreko artikulu horretan horrelako hitzekin bukatzen zuen: "Esan nahi dut, Hollywood-ek Vietnamgo gerlaz mintzatzerakoan bere USA-ren defentsa organikoa zeharka egiten duela, hondamendiaren eta damuaren kontzientzia kolektiboaz ballaturik, eta pazifismoaz ere demagogikoki ballaturik. Hollywood-ek taktika hau jarraitu egingo duela dirudi luzaroan. Bada beste superproduktzio bat arrakasta handiz Cannes-en estrenatu berria, *Apocalypse Now* deritza eta Francis Ford Coppola da zuzendaria. 25 miloi dolar gastatu dituzte jadanik filme hontan". Eta zer da arreta deitu diguna? Ba, aurrekoa ikusi ondoren horrelako hitzak aurkitzen ditugula *Apocalypse Now* filmari eskainitako artikuluan: "Filme on eta

atsegin baten aurrean gara, eta hauxe da garrantzitsuena zineman, azken finean eskuindarra ala ezkertiarra deneko espekulazioetatik aparte, atsegina izatea eta esperientzia zinematografiko berriak eskaintzen dizkigula. Agian, Apocalypse Now filmeak historia eginen du zinemagintzan, zeren eta hain zuzen, Hollywood berpiztutik sorturik, azken urteotako filme ikusgarrieneraiko bat baita bere preziosismo formalaren aldetik, nahiz bidaia psikologiko eta dramatikoaren aldetik". Agian, Bertolucci edo Fellini-rengan (besteak beste) ikusten zuen anbiguotasuna sumatu daiteke baita ere Sarrionandiarengan.

3. Herrien zinema inperfektuaren alde

Hollywoodek egiten duen zinemaz haratago herriek egiten dutena ere badagoela ongi badaki Sarrionandiak. Zentzu horretan, aipatzen du Julio Garcia Espinosa, zinegile kubatarraren "zinema inperfektu baten aldeko manifestua". Kasu honetan ez du, zuzenean, zine-kritikarik egiten baina herri pobreek egiten duten zinemaren aldeko agertzen zaigu.

Zentzu berean estaturik gabeko herri batean egiten den zinema, Okzitanian hain zuzen ere, du hizpide beste artikulua batean. Okzitanianako idazle eta TECIMEOC zinegile-koordinadorako ordezkaria den Pèire Pessamèssa-ri egiten dio elkarrizketa eta Okzitanian egiten den zinemaren inguruan mintzatzen dira, baita Okzitalia beraz ere.

4. Lepoan hozka egiten duen zinema

Banpiroen kondairen inguruan sortu diren filmei eskaintzen die artikulua zabal bat Sarrionandiak. Literatura eta ahozko tradizioarekin lotura handia duen artikulua da zeren eta kondaira herrikoietan kokatzen du banpiroen irudiaren sorrera. Mitoa, folklorea, erotismoa, fantasia eta misterioa dira, besteak beste, Sarrionandiaren artikuluan banpiroen istorioekin lotzen diren elementuak.

Kondaira hauen inguruan historia pixka bat egin ondoren literaturara egiten du salto eta literatura erromantikoan, batez ere, aurkitzen du iurretarrak banpiroen letaginetatik erortzen diren odol tanten arrastoa. "Funtsean, banpirismo modernoaren erromantizismoaren produktua dela" esaten digu eta, hori frogatzeko asmoz J. W. Goethe, P.

B. Shelley, F. Byron, Mary Wollstonecraft, Claire Clairmont edota John Polidori idazleak aipatzen ditu. Dena den, guzti hauen gainetik Joseph Sheridan Le Fanu idazle irlandarraren *Karmile* nobelaren garrantzia azpimarratzen du edota Bram Stocker-en *Drakula*. Arterail dagokionez, ordea, Philip Burne-Jones margolariaren *The vampire* koadroa aipatzen du, baita koadro horretan inspiratutako Rudjard Kipling-en poema bat ere.

Horrela, banpiroen kronikak literaturaren atautetik atera ziren eta gogoz egin zuten hozka zinemaren lepoan. Zinemaren historian banpiroen lehen irudia emakumeak direla azaltzen du eta hauek erotismoarekin lotura estua dutela dio, horrela aipatzen du XX Mendearen hasierako Alice Hollister, Betty Nansen edo Theda Bara bezalako "banpiresa erotikoa eta izugarriak" edota Musidora "ederra eta ikaragarria".

Zuzendari eta filmen artean F.W.Murnau, alemaniar zinegile espresionistaren *Nosferatu* aipatzen du, Bram Stoker-en nobela pantailara eramanik banpiroaren arketipoa hedatu zuelako. Murnauk erabilitako estetika espresionista eta baliabide abangoardisten aipamen berezia egiten du, baita "errealismo eta fantasia izugarritzko giroa sortzen duela heriotzari buruzko eta maitasunari buruzko gogoetak isladatzeko". Tom Browning-en *Drakula*, (Bela Lugosi aktorearekin) edo Terence Fisher-ek (Christopher Lee eta Peter Cushing-en parte hartzearekin) egin zituztenak ere aipatu egiten ditu, besteak beste.

Ibilbide hau bukatzeko Werner Herzog zuzendari alemaniarren aipamena ere egiten du eta honekiko miresmena agertzen du: "haren zinema beti izan da bisionario eta metafisikoa". Eta haren filmografiaren inguruko zenbait datu emateko aprobeztatzen du. Herzog-en *Nosferatuari* buruz "erromantizismoa eta espresionismoaren arteko giro magikoaz" osatuta dagoela dio. Mitoa, fantasmak, eszenifikazio gotikoa, itsasontzi fantasmaren ikuspegia... dira Sarrionandiak azpimarratzen dituen ezaugarriak, gerora ere, zenbait idazlanetan erabiliko duen giroaren antzera.

5. Zinema alemaniarra

Sarrionandiaren kritiketan maiz agertzen zaizkigun izenak zuzendari alemaniarrenak dira. Batzuk Alemaniako Zinema Berria izeneko mugimenduan kokaturik, eta beste batzuk gerogokoak.

Win Wenders-en *Amerikar laguna* filmaren haritik alemaniar zinema berriaren inguruko hausnarketa txiki bat egiteko aprobeztatzen du. Aldez aurretik ohartarazten gaitu mugimendu hori ez zela izan gauza homogeen bat baina bai fenomeno sozio-zinematografiko inportantea izan zela. 1962ko Oberhausen-go agiriaren inguruan ("Zinema zaharra hilda dago. Berrian sinesten dugu") eratu zen alemaniar zinema berria eta bertan, zinegileen kezka politiko eta estetikoak azaldu ziren. Gerora, zinema horren eboluzioak monopolio amerikanoaren menpe egotera eraman badu

R.W. Fassbinder, Werner Herzog eta Win Wenders salbatzen direla esaten du: "badute halako arnas berezi gogor eta marjinal bat". Horren ondoren Wenders-en biografia eta filmografiaren datuak ematen dizkigu, *Amerikar laguna* filmaren zatiak tartekatzen dituen bitartean. Film honek, beste askotan aurkitu dugun bezala, nobela batean du oinarria, Patrice Highsmith serie beltzeko alemaniar nobelagilearen *Ripley's Game* nobelan, hain zuzen ere. Eta Sarrionandiak filmak duen kutsu literarioa azpimarratzen du, "elkarrizketa eta esara poetiko eta zehatzez bete".

Bestela ere, musika egokia eta fotografia hunkigarria direla esaten du eta kamara mugimenduek "espresionismoa oroitarazten dutela" azaltzen du. Kutsu urbanoa ere ikusten du. Eta omenaldiz betetako filma dela azaltzen du "Dennis Hooper, Nicholas Ray eta Samuel Fuller agertzen dira, optikazko gailluak, fotografia zaharrak, Bertolucciren *Last Tango in Paris*-i erreferentziak..."

Beste zine mota batzuekin alderatuz, zinema beltz aleman berri baten aurrean gaudela uste du idazleak.

Rainer Werner Fassbinder da Sarrionandiak zinegile alemaniarren artean azpimarratzen duen horietako bat. Horregatik Fassbinderren bizitzaren gaineko artikulu bat egiten du eta zuzendari honen biografiaren inguruko zenbait datu eskaintzen dizkigu. Oberhausen-go agiriarekin lotzen zaio maiz, baina, Sarrionandiak azaltzen duen moduan, hau ez da posiblea zeren eta agiri horren agerpena 1962 urtekoa da eta Fassbinderrek egin zuen lehenengo filma 1969koa da. Egiten duen zinemaren ezaugarrietako bat da aktore berberak erabiltzea, horregatik funtzionamendua "antzerki taldearen irudikoa da zinemakoena baino areago". Melodramak egiten dituela esaten digu eta melodrama hauen ezaugarri nagusiak, Sarrionandiaren ustez, honako hauek dira: "1) Espazio hondatueta eta estuetan bila-

katzen da akzioa. 2) Denbora iraunkorra da: hastapena, bilakaera eta amaiera betierekoa. 3) Errealismoz eta espresionismoz azaltzen da narrazioa, eta nolabaiteko distantziamentu zere. 4) Oinazetan bizi dira pertsonala guztiak, grinatsu eta etsituak, bakardaderik hotzean, harremanak oro torturazkoak direlarik, hau da, pertsonaiak aldiberean fantasmak eta biktimak bailliren. 5) Eszenifikazioa eta akto-reen lana arras teatrala da, eta 6) Amaiera beti da tragikoa, heriotza heltzen da, beti amoltsua, oro hondatu deneko irteera gabeziari bukaerako puntua imintzera". Fassinberrek lortzen duen giro tragikoa da Sarrionandiak miresten duena, bazterreko pertsonaien tragedia, alegia: "Nehork eztu egungo zineman R.W. Fassbinderrek baino hobeto atzeman trageriaren sekretoak, nehork eztu harek baino argiago azaldu giza hondamendiaren berria. Haren trabestiz aharrak, mozkorti maiteminduak, geltokietako suizidak, haren merkatariak, malkoak, eta legeak, egungo gizarteko galbae tragikoak atzemanak dira".

6. Zinemaren izen propioak (II)

Chaplin-en bide beretik dator Buster Keaton Sarrionandiaren le-
roetara. Eta Chaplin-en kasuan egiten duen moduan Keaton-en
haurtzaroko gorabeherak kontatzen digu. Badirudi bi komiko hauen
haurtzaro horretan bilatzen duen doinu nostalgikoa topo egiten due-
la, miseria eta farandularen munduak irudikatzen duten mundu nos-
talgiko-poetikoa eta magiaz beterikoa, alegia. Bai, Keaton ere, bi-
zitzan eta pantailan Sarrionandiarengan interesa piztea lortzen duen
horietako pertsonal bat da. Eta, Sarrionandiaren eskutik Keaton-en
biografiaren ibilbidea zeharkatzen dugunean filmak topatzeaz gain,
beste aktore komikoekin ere topo egiten dugu: Roscoe Arbuckle,
Fatty potoloarekin, Mack Sennet, Charles Chaplin, Stan Laurel, Oliver
Hardy, Harold Lloyd, Lary Semon, Harry Langdon edota Marx
anaiekin.

Zine mutuaren barnean, Keaton "zinema komikoaren goretara
heltzen dela, fantasiaz eta teknikaz" esaten du idazleak. "Gag" sor-
tzaile trebea eta komiko aparta dela iritzi dio eta pantailan agertzen
zenean "aldaezina, ikaragabea, aztergaitza eta burugogorra, grina
misteriotsu batek helburu fixoetarantz bultzatua" agertzen dela azpi-
marratzen du idazleak. Bestela ere, zinegile bezala kanpoaldeak bar-

nealdeak baino gehiago maite dituela edota lehen planoak baino gehiago plano orokorrak maite dituela dio.

Zinema sonoroaren hedapena kalte egin zion Keaton-en lanari eta dekadentzia progresio batean murgiltzen da, alkoholari eta jokoari emana eta nahiko ahantzia.

Dena dela, gerora, Sarrionandiak dioen moduan, pelikula interesgarri baten protagonista izango da, Samuel Beckette Parisko idazle irlandarraren *Film* izeneko pelikulan, hain zuzen ere.

Artikuluaren amaieran Chaplin eta Keaton-en arteko umoreak desberdintzen ditu Sarrionandiak "Chaplin sentimentalismo literarioz kutsatua da eta mezu sozialez. Keaton, aldiz, indibiduo aldagaitza eta idela fixoetako da bere ezdeustasunean (...) Maiz surrealista ere bada". Begiekin ikusten ziren filmak (zine mutua, alegia) goraipatzen du iurretarrak J.W. Goetheren hitzak erabiliz: "Begiaz ezagutu dut nik mundua" eta Sarrionandiak gehitzen du: "eta filme zaharrek ere hauxe erakusten digute, begiradaz atzeman daitekeela sentimendua, keinu batean ere". Beraz, ondoren poeta izango zena, poesia ikusiko zuen, agian, film hauen irudietan.

1979 urte honetan, berriro ere, baina *Anaitasuna* aldizkarian Sarrionandiak Charlot-i eskaintzen dizkio lerro batzuk, aurreko atalean aipatu dugun hari beretik tiraka.

Anaitasuna aldizkarian ere izen propioa duen lagun zahar batekin topo egiten dugu, Federico Fellini-rekin, hain zuzen. Bi artikulu eskaintzen dizkio aldizkari honetan urte horretan. Eta, aurreko kasuetan bezala (Keaton, Chaplin...) Fellini-ren aipamenean ere haurtzaroaren garrantzia azpimarratzen du Sarrionandiak, "bere haurtzaroa beti izan da presente Federico Fellini-ren zineman". Gainera, Chaplin-ekin lotzen du Sarrionandiak Fellini, bien filmetan miseriaren erromantizismoa agertzen delako.

Zuzendari italiarraren biografiaren datuak eskaintzen dizkigu eta, ondoren, Fellini-ren filmografia aztertzeari ekiten dio. Neorrealismotik abiatzen da Fellini-ren lana, neorrealismo erromantikoa bihurtuko dena ondoren, postneorrealismoaren garaletara iristeraino. Estilo fellianoa ere aipatzen du Sarrionandiak, beranduago baita "berreraiketa historikoa"ren erabilera ere. "Irudimena, subjektibitatea eta barrokismoa gehien desarrollatu dituena dimentsio guztietan Federico Fellini izan da zinemagintza modernoan". Sarrionandiaren zenbait narrazioetan ere "berreraiketa historikoa" aurkituko dugu beranduago.

Aipamen laburra egiten badu ere, Miklós Jancsó, zuzendari hungariarrari lerro batzuk ere eskaintzen dizkio *Anaitasunan*, *Vizi private*, *publiche virtute* filmaren harira. Jancsó sortaldeko zinemagintza berriaren aitzindarietariko bat dela dio eta bere zinemagintzak, sozialismoaren barnean "estilo berezi eta propio bat duela" aldarrikatzen du Sarrionandiak. Zuzendari honen beste filmak errealdismo historikoa-rekin lotzen ditu "zeinetan zinemagintza errealista sozialista historiko politiko bat hasten baita lantzen estilo arras berezi batez". Teknikoki plano-sekuentziaren erabilera azpimarratzen du idazle bizkaitarrak eta, "teatroan bezala denbora erreala eta denbora zinematografiako" hurbiltzen dituela iritzi dio. Eta errealdismo sozialista edota zinema politikoarekin lotura izateaz gain, erotismoarekin ere lotura baduela aipatzen du.

Letra larriz aipatzen dituen horietako beste izen propio bat Nicholas Ray zinegile amerikarrarena da. Ray-ren biografia zeharkatzen dituzten bidezidorretara eramanez ondoren haren filmografia eta generoak aztertzeraz eramaten gaitu Sarrionandiak. Nobela beltz baten adaptazio zinematografikoan kokatzen da Ray-ren hasiera zinemaren munduan. Edwar Anderson-en nobela batean adaptazioa da, hain zuzen, *They live by night*. Zinema eta literatura elkartzen diren bidegurutzeraz eramanez gaitu berriro ere Sarrionandiak, nobela beltza norabidea jartzen duen puntura, hain zuzen ere.

Johnny Guitar filmarekin western generoaren kutsua duen pelikula baten aurrean gaude, "kutsu erromantiko sakon bat duena, homosexualitatea eta heroearen bakartadeari buruzko ezaugarriekin". Berriro ere doinu erromantikoa eta gizartearen bazterretan bizi diren pertsonalak. Western generoa lantzen jarraitzen du *The True Story of Jesse James* bezalako pelikuletan. Gangsterrak eta musika ere agertzen zaizkigu Ray-ren filmetan. Azkenik, Ray-ren heriotza dela eta Sarrionandiak oroigarri gisa idazten dizkio hitz batzuk: "Ez diot epitaflorik jarriko, lasai. Baina imajinatu egin nahi nuke bere azken keinua: begiko partxea beti batetik bestera aldatzen ikusten dut".

7. Nobela beltza

Nobela beltza norabidea seinalatzen zuen puntuan egon gara lehen Nicholas Ray-rekin eta, orain, itzuli gara Raymond Chandler-rekin hitzordua genuelako. Bidegurutze honetan, beraz, Sarrionan-

diak nobela beltzaren sorreraren berri ematen digu. Horrela ere, Chandler Raymond "serie beltzeko nobelagilerik interesgarrienetariko bat" dela ziurtatzen digu idazleak. Raymond-ek idatzitako *The Big Sleep*-ek literaturatik zinemara jauzi egin zuen eta Raymond bera izan zen adaptazio honen egileetariko bat.

John Huston-en *The maltese falcon* filmean kokatzen du Sarrionandiak zinema beltzaren susperraldia eta, ondoren "serie beltzean anbiguitate morala eta gizartearen deskonposizioa azaltzen da, eta Humphrey Bogart izanen da USAko konformismo eta idealizazioaren kontrako prototipoa". Azkeneko azalpen honek Sarrionandiak zinema beltzaz duen interesa ulertzeko gakoak eman ditzake.

Kontuan hartzekoa da baita ere nobela beltzaren "aita"ri egiten dion aipamena, Dashiell Hammet-i, alegia, eta idazle honen lanak genero honen garapenean eta zine adaptazioetan suposatuta zuen.

8. Western

Western, duen epopeia kutsuagatik interesatzen zailo, akaso, Sarrionandiari. Western-ekin lotutako literatura eta zinema aztertzen du *Zeruko Argian* argitaratutako artikulu batean. Indioen kontra Ipar Amerikan egindakoa "suntsidura eta lehen kolonizazioa" gisa definitu ondoren, gizarte berriaren oinarriak finkatzeko epopeia bat gertatu zela uste du Sarrionandiak, "kantariak laudatu zuten" epopeia eta "ahoz aho mundu gogor eta xarmant baten mitoa hedatzen zutela". Gero, mitoaren oinarriak jarri zituzten idazleak aipatzen ditu: Owen Wister, Emerson Hough eta Andy Adams, besteak beste. Baina hasierako idazle horien artean bat da, bereziki, Sarrionandiak miresten duena: Francis Bret Harte. Harte-k ere epopeia horren partaide izan zela azaltzen digu idazle honen biografiaren inguruko zenbait datu ematen dizkigunean. Epopeia horren munduan gustukoak dituen pertsonaiak aurkitzen ditu Sarrionandiak: bidelapur biolentoak eta abentura bilatzaileak, utopia bilatzaileak akaso. Beraz, Harte, "western delakoaren irudia finkatu zuenetariko idazle bat" izan zen, Sarrionandiaren ustez, "sekula ahanzi ezin diren imajinak sortzen dakielako". Eta melodrama erromantikoen artisaua dela pentsatzen du iurretarrak "satira eta hizlauaren maisu, eta westerngo epika narrazio labur eta xarmangarritan daki antzematen". Narrazio laburrak, erro-

mantizismo kutsua, lurralde prometatuaren bilaketa eta bazterreko pertsonaiak osagai goxoegiak dira Sarrionandiarentzako. Baina, ezin dugu ahaztu printzipioz zinemaz ari garela eta horregatik aipatzen du artikulu honetan Harte-ren lana. Harte hil eta urte bat beranduago egin zelako western saileko lehen filma, Edwin S. Porter-en *The Great Trai Roberry*. Eta handik aurrera garatuko zen western saileko zinema eta literatura, genero honen aitak utzitako erentziari esker.

Lanaren lehenengo parte honi oharra. (Ondorio gisa)

Joseba Sarrionandiaren zine-kritiken azterketa orokor bat egin dugu lan honetan.

Azterketa honi esker, orain, uste dugu, Joseba Sarrionandiari interesatzen zitzaion zinema zein zen (eta zergatik zen hori) jakiteko bidea eskaini dugula. Era berean, zinema horrek Sarrionandiaren ondorengo lan literarioetan izan zuen eraginaren zenbait gako eman ditugulakoan gaude.

Esker bereziak eman behar dizkiot lan honetan gidatu ninduen irakasle eta lagunari, Jon Kortazarri.

Esker anitz, baita ere, Sancho el Sabio Fundazioko langileei, materiala biltzen nuen bitartean nirekin izan zuten pazientziagatik.

I ERANSKINA ARTIKULUEN ZERRENDA

Zerrenda hau egiteko unean zenbait kriterio jarraitu behar izan dut. Hiru aldizkari desberdinetan topatu ditudan artikuluak dira: *Anaitasuna*, *Pott banda* eta *Zeruko Argia*, 1977 urtetik 1980 urtera bitartean argitaratuak. Zinemaz gain, Sarrionandiak beste gai ugariaren inguruan idazten zuen aipaturiko aldizkari hauetan (arte, politika...), baina gure lana egiteko eta material honi guztiari muga bat jartzeko hemen aipatuko ditugu soilik zinemarekin zerikusirik dituzten artikulak. Horregatik, esaterako, ez dira agertuko zerrenda honetan *Ibai-*

zabal aldizkarian eginiko artikulua, bertan ez baitut topatu zinemaren munduarekin lotura duen artikulurik.

Aldizkarika eta kronologikoki antolatuta daude, urtez urte, argitaratu ziren moduan. Zerrendan ikusiko duzue, lehenik, artikulua baikoitzaren izenburua eta, ondoren, aipatzen duen filma (edo filmak), dokumentala, aktorea edo zinemaldia, besteak beste. Dena dela, artikulua bat filme bati (edo aktore bati) eskainita baldin badago, zerrenda honetan ez dira agertuko artikulua berean aipatzen diren beste filmak, bereziki garrantzitsuak ez baldin badira, bederen. Horretarako, artikuluen filmografia guzti-guztia ezagutu ahal izateko filmen zerrenda egin baitut.

Era berean, aipatzeko zerbait berezia egonez gero (literaturarekin edo politikarekin duen harremana, esaterako) aipatu egiten dut filmaren izenburuaren ondoren.

1977- ZERUKO ARGIA

1. "Katharina blum-en ohore galdua"

- Scholondorff, Volker –Trotta, Margarethe Von / *Catarina Boum-en ohore galdua*. Heinrich Böll-en nobela batean oinarrituriko filma. Andreas Baader-Ulrike Meinhofen-en arazoaren inguruan omen du oinarria.

2. "Nazismoaren erorketa eta zinema politikoa"

Nazien erorketaren inguruan zenbait filma aipatzen ditu artikulua honetan.

- Chaplin, Charles / *El gran dictador*.
- Visconti, Luchino / *La Caduta Degli Dei (La caída de los dioses. Jainkoen erorketa)*
- Losey, Joseph / *El otro señor Klein. Beste Klein jauna*.
- Cavan, Lilliana / *Portiere di Notte (El portero de noche. Gaueko atezaina)*
- Brass, Tino / *Salon Kitty*.

3. "Trotski-ren erahilketa"

- Losey, Joseph / *Assassination of Trotsky*. Trotski, trotskismo eta iraultzaren inguruko hausnarketak.

4. "Hilketa soziala"

- Motaldo, Giuliano / *Sacco e Vanzetti*. Anarkismoarekin lotura. Ipamerikaren sistemaren kritika, Sacco eta Vanzettiren istolo tragikoaz baliatuz. Klase gatatzarekin lotuta.

5. "Festibal postfrankista"

Donostiako zine jaialdiaren inguruko kronika. Bertan lehiaketan parte hartzen duten filma desberdinen azterketa kritikoa egiten du:

- Loncraine, Richard / *Full Circe*.
- Pita, Dan / *Tanasse Scatio*.
- Mercero, Antonio / *La guerra de papa*. / Miguel Deliberen *El príncipe destronado* nobelan oinarritua.
- Heyneman, Lauren / *La Question* / Henri Allegen *Nuik argitale-txean*, 1958an, Aljeriako gerraren inguruan argitaratutako testimonioetan oinarritua.

Beste sailletako filmen azterketa ere egiten du:

- Koople, Barbara / *Harlan Country USA*. / Langile borrokari buruzko dokumentala.
- Bertolucci, Bernardo / *Novecento*.

Oraindik ikusi ez dituen filmen alpainena:

- Fellini, Federico / *Casanova*.
- Borowezyk, Walerian / *Contes inmoraux*.
- Oshima, Hiromi / *Ai no korida (El imperio de los sentidos)*
- Eceiza, Antxon / *Mina, viento de libertad*.
- Pasolini, Paolo / *Teorema, Porcile, il decameron, i racconti di canterbury, salo o le 120 giornade di sodoma*.
- Buñuel, Luis / *Viridiana*.

Euskal zinema jaialdian:

- Nuñez, Iñaki / *Los bolcheviques se ríen*.

- Nuñez, Iñaki / *Estado de excepción*.
- Ruiz Balerdi, R. / *La cazadora inconsciente*.
- Heinink, J.B. / *Ikurriñaz filmea*.
- Merikaetxebarria, A. / *Euskal Santutegi Sakona*.
- Sistiaga, J.A. / *Ere erara Baleibu icik subua arauaren*.

6. "Oshima: zentzumenen inperioa"

- Oshima, Hiromi / *Ai no korida* (*Zentzumenen inperioa. L'empire des sens*). Japoniako zuzendari honi eskainitako artikulua. Erotismoarekin lotuta.

7. "Galaxietako gerla inperialista"

- George Lucas / *Star Wars* (*Galaxietako gerla*). Zientza fikzioaren inguruko hausnarketa.

Artikulan aipatzen dituen beste filmak dira:

- Kubrick, Stanley / *2001: una odisea del espacio*.
- Truffaut, Francois / *Fahrenheit 451*.

Era berean, *Star wars*-en etekinak beste filma batek lortutako etekinekin konparatzen ditu :

- Spielberg, Steven / *Tiburón*.

8. "Pasolini, azaroan hil zuten"

Paolo Pasoliniren hilketaren inguruko artikulua. Zenbait filmen azterketa txikia ere egiten du:

- Accatone.
- *Mamma Roma*.
- *Il Vangelo Secondo Matteo*.
- *Uccellagi e Ucellini*.
- *Edipo Re*.
- *Medea*.
- *Teorema*.
- *Porcile*.
- BIZIAREN TRIOLOGIA: *Il Decameron* / *I Raconti di Canterbury* /

Il fiore Della mille e una notte (Erdi aroko ipun herrikoi en egokitzapena).

— *Salo o le 120 giornate di Sodoma*.

9. "Eisenstein-Jancsö"

— Eisenstein, Sergei / *Potemkin* akorazatua.

— Jancsö, Miklós / *Szegenylegenyek* (*Los desesperados. Etsituak*)

Potemkin akorazatuaren harira naziek egindako film bat ere aipatzen du:

— Anton, Kart / *Panzerkreuser Sebastopol* (*Sebastopol akorazatua*).

1978. ZERUKO ARGIA

10. "Hilketa politiko bat (z)"

— Costa Gravas / *Z*.

— Vassili Vassilikos idazlearen *Z* nobelan oinarritua. Gregorio Lambrakis, Greziako ezkertiar diputatua, erailketaren inguruan.

Zinema politikoaren hausnarketa. Horretarako, zuzendariaren beste filmak ere aipatzen ditu:

— *Confesion*.

— *Estado de sitio*.

— *Sección especial*.

11. "Erratzaile baten nekrologia"

Charles Chaplin-en heriotzaren ingurukoa. Komikoaren biografia eta filmografia txiki bat aipatzen du. Oroigarri gisa.

12. "Casanova bat eta testimonio bi"

— Fellini, Federico / *Casanova*.

Casanova pertsonal historikoaren inguruko azalpenak ematen ditu. Eta pertsonal honen inguruan egin diren beste film bat ere aipatzen du:

- Comencini, Luigi / *Infanzia, vocazione e prime esperienze di Giacomo Casanova, Veneziano*.

13. "Actas de Marusia / Emmanuelle ssss..."

- Littin, Miguel / *Actas de Marusia*. (Langile borrokarekin eta errealismo sozialistarekin lotuta).
- Jaeckin, Just / *Emmanuelle*.
- Ciaboetti, Franci / *Emmanuelle II*. (Erotismoarekin lotuak biak).

14. "L'affiche rouge"

- Cassenti, Frank / *Affiche Rouge (Poster gorria)*.

Partisano eta faxismoaren aurkako erresistentziaren inguruko filma. Soinu bandaren alpamen berezia egiten du. Cuarteto Cedron-ek egindako soinu banda, hain zuzen ere. Poesiarekin lotura.

15. "Il sorriso del grande tentatore / Paperezko tigreak"

- Damiani, Damiano / *Il sorriso del grande tentatore*.

Zine politikoa. Buñelekin lotzen du.

- Coloma, Luis / *Tigres de papel (Paperezko tigreak)*.

Zine politikoa, baina kalitate gutxikoa.

16. "Padre padrone"

- Taviani, Vittorio eta Taviani, Paolo / *Padre Padrone*.

Tavianirren beste lanak ere aipatu egiten ditu:

- *I sovversivi*.

- *Sotto il segno dello scorpione*.

- *San Michele aveva un gallo*. (Tolstoiren lan batean oinarritua).

- *Allonssanfan* (1974).

17. "Eisenstein-en urria"

- Eisenstein, Sergel / *Oktiabr (Urria)*.

Sobietar iraultza eta zinemaren arteko harremanen hausnarketa kritikoa egiten du. Zuzendari beraren *Iban Terriblea* filmaren aipamena ere egiten du.

18. "Pedagogiaz"

Zinema eta pedagogiaren arteko harremanak aztertzen du, *Cuadernos de pedagogia* (38 zkia) aldizkariaren artikulua baten harira.

19. "Zineaz lau ohar"

Zinemaren ideologia eta zentzuraren inguruko iritzi artikulua, *Last tango in Paris* filmaren harira. Bernardo Bertolucci-ren biografia eta filmografiaren gainean errepaso txikia egiten du. Bertolucciren pelikulen izenburuak filmen zerrendan aurkitu ditzakegunez ez ditugu hemen aipatuko, hurrengo bi hauek izan ezik:

-*La strategia del ragno*. (Borges-en kontuakizun batean oinarrituriko pelikula fantastiko politikoa).

-*Il conformista* (Alberto Moravia-ren eleberri batean oinarritua).

20. "McCarthy eta Woody Allen"

McCarthyismoaren inguruko artikulua. Ameriketako Estatu Batuetan gertatutako "komunisten ehizaren ingurukoa". Honen inguruko filma bat aipatu egiten du:

— Ritt, Martin / *The Front*.

21. "More: gehiago"

— Schroeder, Barbet / *More*.

Gizarte modernoak sortzen dituen hondakinen ingurukoa.

22. "Gorki-Pudovkin"

— Pudovkin, Sievolod / *La Madre* (Gorkiren nobelan oinarriturik).

Zine eta literatura sobietarraz mintzatzen da artikulua honetan. Zuzendari eta film desberdinen aipamenak egiten ditu:

— Gardin, Vladimir. Zuzendaria eta lehen zinegile boltxebike.

— Kulechov, Lev Vladimirovic.

— Vertov, Dziga. Zinema-begiaren bultzatzailea

— Yukevic, Sergei.

— Kozintrev, Grigori.

— Traugerb, Leon.

— Eisenstein, Sergei.

— Dovjenko, Alexander. Zuzendari ukrainiarra.

— Pudovkin, Vsievobod Iliarionovic.

23. "Pontecorvo algeriar iraultzaren alde"

— Pontecorvo, Gillo / *La batalla de Argel*

Zinema politikoaren inguruan hitz egiten du eta zenbait egile aipatzen ditu: Costra Gravas, Godard, Ives Boisset... (Frantziar), Norbert Buberger, Joris Ivens... (AEBetan), P. Guzman, M. Littin, Gettino/Solanas, Sanjines... (Hegoamerikan), Petri, Loy, Risi, Damiani, Montalde, Rossi... (Italian).

Pontecorvoren *Operación Ogro* eta *Queimada* filmen alpamena ere egiten du.

24. "Partner: Bertolucciren eskizofrenia"

— Bertolucci, Bernardo / *Partner*. (Dostoievkiy-ren nobela batean libreaki inspiraturik).

Zuzendari beraren beste pelikulekin konparatu egiten du eta, era berean, filmaren irakurketa politikoa egiten du garaiko gizartearen egoera kontuan hartuz.

25. "La Cecilia: utopia"

— Comolli, Jean Louis / *La Cecilia*.

Anarkismoaren apologia egiten duen filma.

26. "La religieuse"

— Rivette, Jacques / *La religieuse* edo, bestela ere : *Suzanne Simonin, la religieuse de Diderot*.

Rivetteren beste lanak "Nouvelle vague" izeneko mugimendua-rekin lotuta badaude ere, *La religieuse*, film klasizista bat da. Denis Diderot filosofo frantziarraren lan batean oinarrituriko filma da.

"Nouvelle vague" mugimendua-rekin lotzen diren film pare bat aipatzen du :

— *La'amour fou*.

— *Celine et Julie vont en bateau*.

Artikulu berean laburki beste film batzuen alpamena egiten du:

- Kennedy, Neil / *Sebastiane*.
- Borowczyk, Walerian / *Contes inmoraux*.
- Jaeckin, Just / *Historia de O*.

27. "Viridiana (Buñuel)"

- Buñel, Luis / *Viridiana*.

Viridianaren garrantzia eta sinbolojaren inguruko hausnarketa.

28. "Desioaren objeto ilun hori"

- Buñuel, Luis, / *Cet obscur objet du desir* (*Desioaren objeto ilun hori*)

Pierre Louys nobelagilearen *La femme et le pantin* nobela post-sinbolistan oinarriturik. Nobela horren harira (erotismoari dagokionez batez ere) zenbait filma ere aipatzen:

- De Barence, Jacques / *La muñeca y el pelele*.
- Sternberg, Josef von / *The Devil is a woman* (Marlene Dietrich protagonista izan zena).
- Buñuel, Luis / *El ángel exterminador*.

29. "B. Bertolucci (Novecento-ra arte)"

Zinegile honen bizitzari eta filmel buruzko errepasso egiten du:

- *Accatone* (Pasininiren laguntzaille gisa).
- *La Commare secca*.
- *Prima della rivoluzione*.
- *Petrolioaren bidea* (dokumentala laburra).
- *Etorkizun infinitoa* (laburmetrai underground).
- *Hiltzoria* (baliabide teatrale film).
- *Partner* (Dostoievsky-ren *Doblea* nobelan oinarriturik, erotasunen poeten aipamena eta Godard-en eragina).
- *La strategia del Ragno* (Jorge Luis Borges-en *Tema del traidor y del héroe* (*Ficciones*) narrazio laburrean oinarritzen da).
- *Il conformista* (Alberto Moraviaren nobela batean oinarriturik).
- *Last tango in Paris*.

Karl Marx, S. Freud eta W. Reich-en eragin politiko-filosofikoa

aztertzen du Sarrionandiak. Zinemagintza mailan Pasolini, Godard eta Visconti-rekin lotzen du. Eta 50eko mugimendu existenzialistaren kutsua duela ere dio, Sartre, Camus eta Paveseren eragina.

30. "Novecento (Ugazaba, laborari eta faxistak)

— Bernardo Bertolucci / *Novecento*.

Bertolucci-ren zinemaren eboluzioaren azterketa eta *Novecento*-ren esanahia eta garrantziaren azterketa sakona.

31. "Zinemaldi aldakor bat?"

Donostiako zinemaldiaren gaineko iritzi artikulu kritikoa. Emakumeek eginiko zinea aipatzen du: Marta Meszaros, Chantal Akerman, Liliana Cavani. Euskal zinemaren presentzia urria aipatzen du:

— Azkona anaiak / *El mayorazgo de Basterretxe* (1928, lehen euskal filma luzea) Pierre Lhanderen nobela batean inspiraturik.

Zinemaldiaren beste filma batzuei buruzko komentario laburra ere egiten du:

— Thulin, Ingrid - Josepesson, Erland - Nykvist, Suen / *En Och en*.

— Mira, Carlos / *La portentosa vida del padre Vicente*.

— Makavejev, Dusan / *Sweet movie* (Filma politikoa, "poema erotiko-politiko bat" dela dio. Zuzendari yugoslavo da, antis-talinista).

— Letto, Marco / *La Villegiatura*.

— Ashby, Hal / *Coming home*.

32. "Festibala filmetan"

Donostiako zinemaldiaren zenbait filmen azaleko azterketa:

— Altman, Robert / *A wedding (Eztei egun bat)*.

— Cavani, Liliana / *I cannibali (Gizajaleak)*.

— Deville, Michel / *Dossier 51* (Gillen Perraulten nobela batean oinarritutako filma).

— Holland, Michel - Kedzierski, Pawel - Domaradzki, Jerzy / *Zdjecia probne*.

- Dreyer, Carl Theodor / *Ordet*.
- Rodríguez, Francisco / *Jaque a la dama*.
- Browning, Ted / *Freaks*.
- Buñuel, Luis / *Las hurdes*. *Tierra sin pan* (Dokumentala).
- Welles, Orson / *Macbeth* (Shakespeare-ren lanean oinarriturik).
- Camino, Jaime / *La vieja memoria* (Gerra zibilaren inguruko dokumentala).
- Cortes, Luis / *Marian* (Nafarroan kokatutako istorioa).

33. "Ikusleak egiten du zinema"

- Solás, Humberto / *Lucia*.

Iraultzaren ondoko kubatar pelikulari garrantzitsuenetariko bat.

- Rossi, Francisco / *Uomini contro*. (Filme politiko antibelizista).
- Duras, Margueritte / *India song* (*Hiroshima mon amour* filmaren gidolaria da Duras. Idazlea eta nobelagilea da: Nouveau Roman mugimenduaren ingurukoa. Godard (*Made in USA*) eta Resnais-ekin (*Hiroshima mon amour*) lotuta.

34. "Al di la del bene e del male"

- Cavani, Liliana / *Al di la del bene e del male* (*Más allá del bien y del mal*)

Nietzscheren bizitzaren inguruko filmari buruzko artikulua. Stefan Zweig idazlearen alpamena.

35. "Il fiore delle mille e una notti"

Paolo Pasoliniren inguruko artikulua. Pasoliniren filmografiaren azaleko azterketa.

36. "Sugearen arraultza"

- Bergman, Ingmar / *Sugearen arraultza*. Nazismoaren hastepen ingurukoa.

37. "Balet grotesko bat"

- Brass, Tino / *Salon Kitty*. Nazismoaren inguruan girotutako zinema porno-komertzial espektakularra.

Artikulu berean beste filme baten alpamena ere egiten du:

- Kershner, Irvin / *Eyes of Laura Mars* (*Begiak. Ojos*).

1978. ANAITASUNA

38. "Pretty baby"

- Malle, Louis / *Pretty baby* (*La pequeña*). Al Rose-ren liburu baten eragina, E.J. Bellocq-en argazkien eragina, jazz musika-ren inguruko giroa eta Jelly Roll Morton pianistaren eragina.

1979. ZERUKO ARGIA

39. "It's a bird... it's a plain... it's superman!"

- Donner, Richard / *Superman*. Philip Wylie-ren "Gladiator" nobelan inspiraturik / American way of lie-ri kritika.

40. "Zinema imperfecto baten alde"

Julio García Espinosa, zinegile kubatarraren alpamena: "por un cine imperfecto". Zinema eta ideologiaren arteko harremana aztertzen du.

41. "Der amerikanische freund"

Alemaniar zinema berreiaren inguruko artikulua. 1962ko Oberhausen-go agiriaren alpamena eta egile batzuei buruzko iritzia: Alexander Kluge, Werner Herzog, Rainer W. Fassbinder, Hans Jürgen Syberberg, Volker Schlöndorff, Jean-Marie Straub, Win Wenders...

Batez ere, Win Wenders-en filmografiaren gaineko errepaso egi-ten du:

- *Schauplaetze* (*Lekuak*). (Laburmetraia).
- *Same placer shorts again* (Laburmetraia).
- *Sylver city revisited* (Laburmetraia).
- *Alabama 2000 lightyears* (Laburmetraia).

- *Amerikanische LP's* (Laburmetraia).
- *Summer in the city. Dedicated to the kinks* (Luzemetraia).
- *Die angst des tormanns beim elfmeter* (Porteroaren beldura penaltiarekin aitazinean). Peter Handke nobelistaren obra batean oinarriturik.
- *Der Scharlachrote Buchstabe*. (Letra eskarlata). Hawthorne-ren nobela bat adaptatuz egina.
- *Alice in den Stadten* (Alizia ziutateetan).
- *Falsche Bewegung* (Higidura faltsoa).
- *Der Amerikanische Freund* (Amerikar laguna). Patrice Highsmith serie beltzeko alemaniar nobelagilearen lan batean oinarritzen da: *Ripley's Game*. (Nobelagile horrek 16 nobela zituen argitaratuak une horretan eta Alfred Hitchcock-ek bere lehenengo nobela eraman zuen zinemara, *Arotzak tren batean* izenekoa).
- *Hammet*. Nobelagile honen ingurukoa.
- *Der Stand der dinge* [azkeneko bi hauek ari zen prestatzen Sarrionandiak artikulua idatzi zuenean]

42. "Harlan Country USA"

- Koople, Barbara / Harlan County USA.

Dokumentala politiko honen inguruko artikulua eta hausnarketa.

43. "Volem vivre al pais!!"

Okzitaniako idazle eta TECIMEOC zinegile koordinadorako ordezkaria den Père Pessamèssarekin eginiko elkarrizketa bat. Okzitaniako zinemaren inguruan. Alpatzen dituen lanak dira:

- Flecher, Jean / *La sartan*. Komedia kostunbrista.
- Elkarlana / *Ouvrières de Fournon*. Dokumentala militantea.
- Gayraud, Michel / *La bouse ou la vie*. Bandido baten istorioa
- Moline, Henri / *L'Aubre vièlh*. Herriska bati buruzko dokumentala.

Okzitaniako beste zinemagile batzuen aipamena ere egiten du: Flèchet, Moline, Gayraud.

44. "Buster Keaton, komiko irrirea"

Joseph Frank Keaton, Buster Keaton-en bizitzari buruzko artikulua.

Zine zuzendarien aipamena: Edward Francis Cline, Malcom St. Clair. Eta garai horietan grabatu ziren filme batzuen aipamena ere egiten du:

- Stroheim, Erich von / *Greed*.
- Cruze, James / *The covered wagon*.
- De Mille, Cecil B. / *The ten commandments*.

Baita Buster Keaton-ek egindako batzuk ere :

- *The Three Aes*.

1923tik 1929ra arte Keatonen arrakastaldia da:

- *Our Hospitality*.
- *Sherlock Jr*.
- *The navigator*.
- *Seven Chances*.
- *Go west*.
- *Battling Butler*.
- *The general*.
- *College*.
- *Steamboat bill Jr*.
- *The Cameraman*.
- *Spite Marriage*. (Bere azken filma mutua).

Keatonek parte hartzen duen beste pelikula bat ere aipatu egiten du:

FILM, Saumuel Beckett Irlandarraren film bat da eta bertan Keaton protagonista da.

45. "Banpiroa. Gure baitatik zinema berrira arte"

Banpiroei buruzko zinea. Zenbait filma aztertzen du:

- Feuillade, Louis / *Les Vampires* (Seriala). Musidora protagonista zena.
- Murnau, F.W. / *Nosferatu cine Symphonie des Grauens*

(Bram Stoker-en nobelaren banpiroaren arketipoa pantallara eramanezuena).

- Dreyer, Carl Theodor / *Vampyr ou l'étrange aventure de David Grey* (Joseph Sheridan Le Fanu-ren obran inspiratua).
- Browning, Tom / *Drácula* (1931) / Bela Lugosirekin.
- Fisher, Terence / *The curse of Frankenstein*.
- Fisher, Terence / *Horror of Dracula*.
- Fisher, Terence / *The Mummy*.
- Werner Herzog / *Nosferatu*. Murnau-ren *Nosferaturen* remakea.

Nosferatu filmaren harira ere Werner Herzog-en beste filmak ere alpatzen ditu.

46. "Francis Bret Harte. Western story"

- Porter, Edwin S. / *The Great Trail Robbery*. Western sallekoko lehen filma.

47. "Rainer Werner Fassbinder. Trageriaren sekretua"

Fassbinder-en inguruko artikulua egiten du eta zinegile honen zenbait filma alpatzen ditu:

- Fassbinder, Rainer Werner / *El matrimoni de Mari Braun*.
- Fassbinder, Rainer Werner / *Liebe ist kalter als der Tod (Maitasuna heriotza baino hotzagoa da)*.

1979. ANAITASUNA

48. "Zinema autorea denean. Federico Fellini"

Federico Felliniren biografia eta filmografiaren inguruko artikulua.

49. "Il Casanova di Federico Fellini"

Film honen inguruko artikulua. Honekin lotuta beste film pare baten alpamena egiten du:

- Comencini, Luigi / *Infancia, vocazione e prime esperienze di Giacomo Casanova, veneziano*.
- Campanile, Pasquale Festa / *Il ritorno di Casanova*.

50. "Lau filme... (Charlot, Jabberwocky, Miklos Jancso, Raymond Chandler)"

- Chaplin, Charles / *The gold rush* (*La quimera del oro*). Charlot pertsonaiaren inguruan hausnarketa egiten du.
- Jancsó, Miklós / *Vizi privati, pubbliche virtute*. Zinegilearen beste filmak ere alpatzen ditu eta zinemagintza errealista sozialistarekin lotzen du.
- Gilliam, Terry / *The Jabberwocky*. Lewis Carroll-en ipuin batean inspiraturik dago.
- Huston, John / *The maltese falcon*.

Azken film honen harira beste film batzuen alpamena ere egiten ditu:

- Hawks, Howard / *The big sleep*.
- Winner, Michel / *Detective privado*. Chandler-en nobela batean inspiraturik biak. Chandler-en nobelagintzarekin duten lotura. Nobela beltzarekin lotura.

51. "Hollywood eta Vietnam gerra baten ondoren"

Gerraren inguruan Hollywoodek egindako zenbait filmen alpamena egiten du:

- Kellog, Ray / *Green Berets* (*Boinas verdes*).
- Kazan, Elia / *The visitors*.
- Davidson, Gordon / *Cattonsville's trial*.
- Trumbo, Dalton / *Johnny cogió su fusil*.
- Lumet, Sidney / *Dog's day afternoon* (*Tarde de perros*).
- Reisz, Kerek / *Who'll stop the rain* (*Mercenarios del infierno*).
- Scorsese, Martin / *Taxi driver*.
- Ashby, Hal / *Coming home* (*El regreso*).
- Cimino, Michael / *Dree hunter* (*El cazador*).
- Coppola, Francis Ford / *Apocalypse now*.
- Post, Ted / *Go tell the Spartans*.

Gai honen inguruko dokumentalak:

- De Antonio, Emile / *Vietnam in the year of the pig*.

— Elkarlana / *Winter soldier*.

— Davis, Peter / *Hearts and minds*.

Zenbait idazleen alpamena: Graham Greene, Raymond Chandler, Scott Fitzgerald, Daniel Berrigan.

52. "Hil da adiskide amerikanoa"

Nicholas Ray zinemagilearen inguruko artikulua. Zinegile honen biografia eta filmografiaren inguruko errepaso laburra egiten du.

53. "Donostiako XVII zinemaldia salbatu egin da"

Zinemaldiaren inguruko artikulua kritikoa egiten du eta bertan ikusitako zenbait pelikula (eta hauekin lotutako beste batzuk ere) alpatzen ditu:

— Coppola, Francis Ford / *Apocalypse now*. Joseph Conrad idazle polakoaren *Ilunpeetako bihotza* izeneko nobelan inspiraturik.

— Tavani, Vittorio – Tavani, Paolo / *Il prato*.

— Bertolucci, Bernardo / *Hilargia*.

— Clémeti, Pierre / *New Old*.

— *Una emozione in più*.

— *Elurreko gatza*.

— Mnouchkine, Ariane / *Mouliere*.

— Jancsó, Miklós / *Salmo Gorria*. Epika sozialistarekin lotuta

— Uribe, Imanol / *El proceso de Burgos*.

— Uribe, Imanol / *Off*. Laburmetraia.

— Uribe, Imanol / *Ez*. Laburmetraia.

— Allen, Woody / *Manhattan*.

— Allen, Woody / *Annie hall*.

— Allen, Woody / *Interiors*.

— Casals, Felipe / *El año de la peste*. Daniel Defoe-ren nobela batean inspiraturik.

— Casals, Felipe / *Canoa*.

— Sjöman, Vilgot / *Jar ar nyfiken-gul bla*. Zine erotikoaren hastapenetan kokatzen du.

- Tarkovsky, Andrei / *Andrei Rublev*.
- Thorsten, Jons Jorgen / *Egun lasaia Clichy-n*. Henry Miller-en nobela batean oinarriturik.
- Buñuel, Luis / *Belle de jour*.
- Rocha, Clauber / *Cabezas cortadas*.
- Jancso, Miklos / *La pacifiste*.
- Duran, Ciro / *Gamin*.

54. "Apocalypse now"

Filma eta zuzendariaren inguruko artikulua. Coppolaren beste film batzuk ere aipatzen ditu:

- *The goodfather*.
- *The conversation*.
- *The Brotherhood of the grape*. Jon Fante-ren nobela baten adaptazioa.

1980. POTT BANDA

55. "Fatty ahantzia genuen potoloa"

Roscoe Arbuckle, *Fatty*, komikoaren inguruko artikulua.

II ERANSKINA FILMEN ZERRENDA

Filmen zerrenda hau egiteko kriterioa Joseba Sarrionandiak artikuluetan aipatzen dituen film, laburmetral, luzemetral edota dokumentala guztiak aipatzea izan da.

Horrela, mota guztietako filmak agertzen dira zerrenda honetan, hobeagoak, txarragoak, garrantzi handikoak, garrantzi gutxikoak, eza-gunagoak, ezezagunagoak... Batzuei artikulua oso bat (edo bat baino gehiago) eskaini zaie, beste batzuei ordea lerroren bat, besterik ez, baina guztien aipamena egitea interesgarria zela iruditu zitzaidan. Alfabetikoki antolatuta daude, zuzendarien abizenaren arabera. Fil-

men izenburuak artikuluetan agertzen diren moduan agertzen dira ere zerrenda hauetan, batzuetan bertsio originalean, beste batzuetan, berriz, gaztelaniara edo euskarara itzuliak.

- Allen, Woody / *Annie hall*.
- Allen, Woody / *Interiors*.
- Allen, Woody / *Manhattan*.
- Altman, Robert / *A wedding (Eztei egun bat)*
- Altman, Robert / *Brewster McCloud*.
- Altman, Robert / *Buffalo Bill and the indians*.
- Altman, Robert / *Images*.
- Altman, Robert / *M.A.S.H.*
- Altman, Robert / *Nashville*.
- Altman, Robert / *The long goodbye*.
- Altman, Robert / *That Cold day in the park*.
- Antón, Kart / *Sebastopol akorazatua*.
- Ashby, Hal / *Coming home (El regreso)*.
- Azkona anakak / *El mayorazgo de Basterretxe*.
- Beckett, Samuel / *FILM*.
- Bergman, Ingmar / *Sugearen arraultza*.
- Bergman, Ingmar / *Udazkeneko sonata*.
- Bertolucci, Bernardo / *Etorkizun infinitoa*.
- Bertolucci, Bernardo / *Hilargia*.
- Bertolucci, Bernardo / *Hiltzoria*.
- Bertolucci, Bernardo / *Il conformista, 1972*.
- Bertolucci, Bernardo / *La commare seca, 1962*.
- Bertolucci, Bernardo / *La strategia del ragno, 1970*.
- Bertolucci, Bernardo / *Last tango in Paris, 1972*.
- Bertolucci, Bernardo / *Novecento, 1976*.
- Bertolucci, Bernardo / *Partner, 1968*
- Bertolucci, Bernardo / *Petrolioaren bidea*.
- Bertolucci, Bernardo / *Prima della rivoluzione, 1964*.
- Bertolucci, Bernardo / *Accatone*.

- Borowczyk, Walerian / *Contes inmoraux*.
- Brass, Tino / *Il capo al mondo*, 1963.
- Brass, Tino / *L'urlo*, 1968.
- Brass, Tino / *Nero su bianco*, 1977.
- Brass, Tino / *Salon Kitty*, 1975.
- Brass, Tino / *Yankee*, 1966.
- Browning, Ted / *Freaks*.
- Browning, Tom / *Drácula*, 1931.
- Buñel, Luis / *Cet obscur objet du desir (Desioaren objeto ilun hori)*.
- Buñel, Luis / *Simon del desierto*.
- Buñel, Luis / *Tierra sin pan*.
- Buñel, Luis / *Via láctea*.
- Buñel, Luis / *Viridiana*, 1961.
- Buñuel, Luis / *Belle de jour*.
- Buñuel, Luis / *El ángel exterminador*.
- Camino, Jaime / *La vieja memoria*.
- Casals, Felipe / *Canoa*.
- Casals, Felipe / *El año de la peste*.
- Cassenti, Frank / *Affiche Rouge (Poster gorria)*.
- Cavani, Lilliana / *Al di là del male (Más allá del bien y del mal)*.
- Cavani, Lilliana / *I cannibali (Gizajaleak)*.
- Cavani, Lilliana / *On eta txarra baino haruntzago*.
- Cavani, Lilliana / *Portiere di Notte (El portero de noche. Gaueko atezaina)*.
- Chaplin, Charles / *City Lights*.
- Chaplin, Charles / *El gran dictador*.
- Chaplin, Charles / *Limeligh*.
- Chaplin, Charles / *Modern times*.
- Chaplin, Charles / *The gold rush (La quimera del oro)*, 1923.
- Chaplin, Charles / *The Kina*.
- Chaplin, Charles / *The vagabond*.

- Chaplin, Charles / *The World Rush*.
- Ciaboetti, Franci / *Emmanuelle II*.
- Cimino, Michael / *Dree hunter (El cazador)*.
- Clementi, Pierre / *New old*.
- Coloma, Luis / *Tigres de papel (Paperezko tigreak)*.
- Comencini, Luigi / *Infancia, vocazione e prime esperienze di Giacomo Casanova, veneziano*.
- Comolli, Jean Louis / *La Cecilia*.
- Coppola, Francis Ford / *Apocalypse now*.
- Coppola, Francis Ford / *The Brotherhood of the grape*.
- Coppola, Francis Ford / *The conversation*.
- Coppola, Francis Ford / *The goodfather*.
- Cortes, Luis / *Clown*.
- Cortes, Luis / *Marian*.
- Cortes, Luis / *Un tal Luis Costa*.
- Cruze, James / *The covered wagon*.
- Damiani, Damiano / *Il sorriso del grande tentatore*.
- Davidson, Gordon / *Cattonsville's trial*.
- Davis, Peter / *Hearts and minds, 1975*.
- De Antonio, Emile / *Vietnam in the year of the pig*.
- De Bareoncelli, Jacques / *La muñeca y el pelele, 1929*.
- De Mille, Cecil B. / *The ten commandments*.
- Deville, Michel / *Dossier 51*.
- Donner, Richard / *Superman*.
- Dovjenko, Alexander / *Lurra, 1930*.
- Dovjenko, Alexander / *Zvnigora (Arsenala), 1929*.
- Dreyer, Carl Theodor / *Ordet*.
- Dreyer, Carl Theodor / *Vampyr ou l'étrange aventure de David Grey, 1930*.
- Duran, Ciro / *Gamin*.
- Duras, Margueritte / *India song*.
- Eceiza, Antxon / *Mina, viento de libertad*.

- Eisenstein, Sergei / *Iban Terriblea*.
- Eisenstein, Sergei / *Potemkin akorazatua*, 1925.
- Eisenstein, Sergei / *Urria (Octubre)*, 1927.
- Elkarlana / *Ouvrières de Fournon*, 1978.
- Elkarlana / *Winter soldier*, 1971.
- Fassbinder, Rainer Werner / *El matrimoni de Mari Braun*.
- Fassbinder, Rainer Werner / *Liebe ist kalter als der Tod (Maitasuna heriotza baino hotzagoa da)*.
- Fellini, Federico / *Amacord*, 1974.
- Fellini, Federico / *Casanova*, 1977.
- Fellini, Federico / *Giulietta degli spiriti*, 1965.
- Fellini, Federico / *I clown*, 1971.
- Fellini, Federico / *I vitelloni*, 1953.
- Fellini, Federico / *Il bidone*, 1955.
- Fellini, Federico / *L'strada*, 1954.
- Fellini, Federico / *La dolce vita*, 1959.
- Fellini, Federico / *Le notti de Cabiria*, 1957.
- Fellini, Federico / *Lo sceicco bianco*, 1952.
- Fellini, Federico / *Luci del varietà*, 1954.
- Fellini, Federico / *Otto e mezo*, 1963.
- Fellini, Federico / *Roma*, 1972.
- Fellini, Federico / *Satyricon*, 1969.
- Festa Campanile, Pasquale / *Il ritorno di Casanova*.
- Feuillade, Louis / *Les Vampires*, (Seriala), 1915.
- Fisher, Terence / *Horror of Dracula*, 1958.
- Fisher, Terence / *The curse of Frankenstein*, 1957.
- Fisher, Terence / *The Mummy*, 1959.
- Flecher, Jean / *La sartan*, 1964.
- Gayraud, Michel / *La bouse ou la vie*, 1973.
- Gilliam, Terry / *The Jabberwocky*.
- Godard, Jean-Luc / *Made in USA*.

- Gravas, Costa / *Confesion*, 1970.
- Gravas, Costa / *Estado de sitio*, 1972.
- Gravas, Costa / *Hilketa politiko bat (2)*, 1968.
- Gravas, Costa / *Sección especial*, 1975.
- Hawks, Howard / *The big sleep*, 1946
- Heinink, J.B. / *Ikurriñaz filmea*.
- Herzog, Werner / *Agirre der Zorn Gottes*, 1972.
- Herzog, Werner / *Auch zwerge haben klein angefangen*, 1970.
- Herzog, Werner / *Fata Morgana*, 1970.
- Herzog, Werner / *Herz aus glas (kristalezko bihotza)*, 1976.
- Herzog, Werner / *Jeder fur sich und Gott Gegen Alle*, 1975.
- Herzog, Werner / *Lebenszeichen*, 1967.
- Herzog, Werner / *Stroszek*, 1977.
- Herzog, Werner / *Woyzeck*, 1978.
- Herzog, Werner / *Mosferatu*, 1978.
- Heyneman, Lauren / *La Question*.
- Hitchcock, Alfred / *Arotzak tren batean*.
- Holland, Agnieszka - Kedzierski, Pawel – Domaradzki, Jerzy / *Zdjecia probne*.
- Huston, John / *The maltese falcon*, 1941.
- Jaeckin, Just / *Emmanuelle*.
- Jaeckin, Just / *Historia de O*.
- Jancsó, Miklós / *Agnus Dei*, 1971.
- Jancsó, Miklós / *Etsituak*, 1967.
- Jancsó, Miklós / *Gorriak eta zuriak*, 1968.
- Jancsó, Miklós / *Haize ditziratsuak*, 1968.
- Jancsó, Miklós / *Isiltasuna eta oihua*, 1967.
- Jancsó, Miklós / *La pacifiste*.
- Jancsó, Miklós / *Meguko Sirokoa*, 1969.
- Jancsó, Miklós / *Salmo Gorria*, 1971.
- Jancsó, Miklós / *Szegenylegenyek (Los desesperados, Etsituak)*, 1965.

- Jancsó, Miklós / *Vici privati, publiche virtute*, 1976.
- Kazan, Elia / *The visitors*.
- Keaton, Buster / *Battling Butler*.
- Keaton, Buster / *College*.
- Keaton, Buster / *Go west*.
- Keaton, Buster / *Our Hospitality*.
- Keaton, Buster / *Seven Chances*.
- Keaton, Buster / *Sherlock Jr.*
- Keaton, Buster / *Spite Marriage*.
- Keaton, Buster / *Steamboat bill Jr.*
- Keaton, Buster / *The Cameraman*.
- Keaton, Buster / *The general*.
- Keaton, Buster / *The navigator*.
- Keaton, Buster / *The Three Acs*.
- Kellog, Ray / *Green Berets (Boinas verdes)*.
- Kennedy, Neil / *Sebastiane*.
- Kershner, Irvin / *Eyes of Laura Mars (Begiak. Ojos)*.
- Koople, Barbara / *Harlan Country USA*.
- Kubrick, Stanley / *2001: una odisea del espacio*.
- Lattuada, Alberto / *Senza pietà*, 1947.
- Letto, Marco / *La Villegiatura*.
- Littin, Miguel / *Actas de Marusia*.
- Loncraine, Richard / *Full Circe*.
- Losey, Joseph / *Assassination of Trotsky*.
- Losey, Joseph / *El otro señor Klein*.
- Lucas, George / *Star Wars (Galaxietako gerla)*.
- Lumet, Sidney / *Dog's day afternoon (Tarde de perros)*.
- Makavejev, Dusan / *Sweet movie*.
- Malle, Louis / *Pret baby (La pequeña)*.
- Mercero, Antonio / *La guerra de papa*.
- Merikaetxebarria, Antton / *Euskal Santutegi Sakona*.

- Mira, Carlos / *La portentosa vida del padre Vicente*.
- Mnouchkine, Ariane / *Mouliere*.
- Moline, Henri / *L'Aubre vielh*, 1978.
- Motaldo, Giuliano / *Sacco e Vanzetti*.
- Murnau, Friedrich Wilhelm / *Mosferatu cine Symphonie des Grauens*, 1922.
- Nuñez, Iñaki / *Estado de excepción*.
- Nuñez, Iñaki / *Los bolcheviques se rien*.
- Oshima, Hiromi / *L'empire des sens. (El imperio de los sentidos. Zentzumenen inperioa)*.
- Oshima, Hiromi / *Natsu no imoto (Udako arreba)*
- Pasolini, Paolo / *Accatone*, 1961.
- Pasolini, Paolo / *Bizitzaren triolojia: Il decameron*, 1971. *I racconti di Canterbury*, 1972. *Il fiore delle mille e una notti*, 1974.
- Pasolini, Paolo / *Edipo Re*, 1966.
- Pasolini, Paolo / *Il Vangelo Secondo Matteo*, 1964.
- Pasolini, Paolo / *Mamma Roma*, 1962.
- Pasolini, Paolo / *Medea*, 1969.
- Pasolini, Paolo / *Porcile*, 1969.
- Pasolini, Paolo / *Salo o le 120 giornate di sodoma*, 1975.
- Pasolini, Paolo / *Teorema*, 1968.
- Pasolini, Paolo / *Uccellagi e Ucellini*, 1966.
- Pita, Dan / *Tanasse Scatio*.
- Pontecorvo, Gillo / *La batalla de Argel*.
- Pontecorvo, Gillo / *Operación Ogro*.
- Pontecorvo, Gillo / *Queimada*.
- Porter, Edwin S. / *The Great Trai Roberry*, 1903.
- Post, Ted / *Go tell the spartans*, 1978.
- Pudovkin, Sievolod / *La Madre*.
- Pudovkin, Vsievolod Iliarionovic / *Koniest Sankt-Petesburga (San Petesburgoren akabera)*, 1927.
- Pudovkin, Vsievolod Iliarionovic / *Mat' (Ama)*, 1926.

- Pudovkin, Vsievobod Illarionovic / *Potomok Chingis Khana (Ekaitza Asian)*, 1928.
- Ray, Nicholas / *A woman's secret*, 1948.
- Ray, Nicholas / *Bigger than life*, 1956.
- Ray, Nicholas / *Bitter Victory*, 1957.
- Ray, Nicholas / *Born to be bad*, 1950.
- Ray, Nicholas / *Days at Peking*, 1963.
- Ray, Nicholas / *Flying Leathernecks*, 1951.
- Ray, Nicholas / *Hil da adiskide amerikanoa*,
- Ray, Nicholas / *Hot blood*, 1955.
- Ray, Nicholas / *In a lonely place*, 1949.
- Ray, Nicholas / *Johnny guitar*, 1953.
- Ray, Nicholas / *King of kings*, 1961.
- Ray, Nicholas / *Knock on any door*, 1948.
- Ray, Nicholas / *Macao*, 1951.
- Ray, Nicholas / *On dangerous ground*, 1950.
- Ray, Nicholas / *Party girl*, 1958.
- Ray, Nicholas / *Rebel without a cause*, 1955.
- Ray, Nicholas / *Run for cover*, 1954.
- Ray, Nicholas / *The lusty men*, 1952.
- Ray, Nicholas / *The savage innocents*, 1960.
- Ray, Nicholas / *The true story of Jesse James*, 1956.
- Ray, Nicholas / *Wind across the everglades*, 1958.
- Ray, Nicholas / *They live by night*.
- Reisz, Kerek / *Who'll stop the rain (Mercenarios del inferno)*.
- Resnais, Alain / *Hiroshima mon amour*.
- Ritt, Martín / *The Front*.
- Rivette, Jacques / *Celine et Julie vont en bateau*, 1970.
- Rivette, Jacques / *La religieuse*, (edo Suzanne Simonin, *la religieuse de Diderot*), 1936.
- Rivette, Jacques / *La'amour fou*, 1968.
- Rocha, Clauber / *Cabezas cortadas*.
- Rodríguez, Francisco / *Gusanos de seda*.

- Rodríguez, Francisco / *Jaque a la dama*.
- Rodríguez, Francisco / *La casa grande*.
- Rossellini, Roberto / *Paisà*, 1946.
- Rossellini, Roberto / *Roma città aperta*.
- Rossi, Francesco / *Cadaveres excelentes*.
- Rossi, Francesco / *Le Mani Sulla Città*.
- Rossi, Francesco / *Salvatore Giuliano*.
- Rossi, Francisco / *Uomini contro*.
- Ruiz Balerdi, R. / *La cazadora inconsciente*.
- Scholondorff, Volker – Trotta, Margarethe von / *Catarina Boum-en ohore galdua*.
- Scholondorff, Volker / *Konbach-eko pobreen berehalako igokundea*.
- Scholondorff, Volker / *Lasto sua*.
- Scholondorff, Volker / *Töles gaztea*.
- Schroeder, Barbet / *More*.
- Scorsese, Martin / *Taxi driver*.
- Sistiaga, Jose Antonio / *Ere erara Baleibu icik subua arauaren*.
- Sjöman, Vilgot / *Jar ar nyfiken-gul bla*.
- Solás, Humberto / *Lucia*.
- Solás, Humberto / *Manuela*.
- Spielberg, Steven / *Tiburón*.
- Sternberg, Josef von / *The Devil is a woman*, 1935.
- Stroheim, Erich von / *Greed*.
- Tarkovsky, Andrei / *Andrei Rublev*.
- Tavani, Vittorio – Tavani, Paolo / *Il prato*.
- Taviani, Vittorio – Taviani, Paolo / *Allonssanfan*, 1974.
- Taviani, Vittorio – Taviani, Paolo / *I soversivi*, 1969.
- Taviani, Vittorio – Taviani, Paolo / *Padre Padrone*, 1977.
- Taviani, Vittorio – Taviani, Paolo / *San Michele aveva un gallo*, 1971.
- Taviani, Vittorio – Taviani, Paolo / *Sotto il segno dello scorpione*, 1969.

- Thorsten, Jons Jorgen / *Egun lasaiak Clichy-n.*
- Thulin, Ingrid - Josephson, Erland – Nykvist, Suen / *En Och en.*
- Truffaut, Francois / *Fahrenheit 451.*
- Trumbo, Dalton / *Johnny cogió su fusil*
- Uribe, Imanol / *El proceso de Burgos.*
- Uribe, Imanol / *Ez, 1977.*
- Uribe, Imanol / *Off, 1976.*
- Visconti, Luchino / *La Caduta Degli Dei (La caída de los dioses. Jainkoen erorketa)*
- Welles, Orson / *Macbeth.*
- Wenders, Win / *Alabama 2000 lightyears.*
- Wenders, Win / *Alice in den Stadten (Ailizia ziutateetan), 1973.*
- Wenders, Win / *Amerikanische LP's.*
- Wenders, Win / *Der Amerikanische Freund, 1976.*
- Wenders, Win / *Der Scharlachrote Buchstabe, (Letra escarlata) 1972.*
- Wenders, Win / *Die angst des tormanns beim elfmeter (Porteroaren beldurra penaltyaren aitzinean), 1971.*
- Wenders, Win / *Falsche Bewegung (higidura faltsoa), 1974.*
- Wenders, Win / *Hammet.*
- Wenders, Win / *Im lauf der zeit (Denboraren auraueran), 1975.*
- Wenders, Win / *Lightning over water.*
- Wenders, Win / *Same placer shorts again, 1967.*
- Wenders, Win / *Schauplaetze (Lekuak), 1966.*
- Wenders, Win / *Summer in the city. Dedicated to the kinks.*
- Wenders, Win / *Sylver city revisited, 1968.*
- Wenders, Win / *The janitor.*
- Wenders, Win / *Wet dreams.*
- Winner, Michel / *Detective privado.*

Aforismoak

Asier AGIRRE

Biziaren laburpena: laburra den pena.

Mobiolarik gabeko film laburra da bizitza.

Heriotza sendagaitza da baina bizitzaren gaitz guztiak sendatzen ditu.

Bake-urtea izan zen: gorrotoak ez zuen uztarik eman.

Bi gerren arteko zubia da bakea.

Igande eta jaiegunak dira, Historiaren egutegian, bake-egunak.

Mundua jokoz kanpo dago: eraso defentsaren aurretik dago beti.

Iraken eta Afganistanen filmatzen dira western modernoak.

Ez al da esker txarrekoa beti eskerrak ematen ibili beharra?

Gure aiton-amonak: Teozentristak.

Gure gurasoak: Antropozentristak.

Gaurko gazteok: Egozentristak.

Artzainak elebidun eta Ertzainak elebakar diren herri batean
bizi naiz.

Herriak aukeratutako aristokrata gutxi batzuek
agintzen dute demokrazian.

Euro-haize, Ero-haize.

Jada, eurotan ordaintzen dugu guztia. Zergatik kobratzen dugu
oraindik pezetatan?

Prezioek daramaten abiada ikusita, edonork esango luke
jaisten ari direla.

Prezioak jada ez dira behetik gora igotzen, goitik gorago baizik.

Goseak borrokatzen ditu animaliak. Borroka gosen piztiak.

Gose badira, arriskutsu izan daitezke animaliak.

Gizakiok, ordea, beti gose.

Munduan goseak bizi da gehiengo lotsagarri bat eta
gutxiengo lotsagabe batek du errua.

Sua eta ura belaunetik behera. Eta politika?

Politikariak musulari petoak dira: handiagoa gezurra,
orduak eta sinesgarriagoa egiten dute.

Hauteskunde garaian kuku. Hauteskunde ostean mutu.

Esadak nora bozkatzeko duan eta erantzungo diat nor haizen.

Zertarako hainbeste ikuspegi? Ezin dugu elkar ikusi.

–Zer izan nahi duzu handitan?

–Euskal Herriko enbaxadore.

-Non?

-Katalunian.

Oso oinarri sendoa zuen bien arteko adiskidetasunak: etsai berbera.

Kontuz zaunkarik egiten ez duen lagunarekin!

Lagun usteko etsaiak ezagutu ditut bizitzan. Etsai usteko lagunik, oraindik, bat bera ere ez.

Tabakoa bizio tontoa dela esaten dute:
tonto-tonto baina hil egiten du.

Zenbat gizon azkar bizio tontoen mende!

Tabakoaren poltsikoan bizi da erretzailea.

Ultimatuma eman dit poltsikoak: "Edo erretzeari uzten diok,
edo ez haiz hil bukaerara iritsiko".

Hizketaldi bat luzatu nahi al duzu? Esan triste zaudela.

Ezin-eramana: hurkoari erruak baina
norberagan erroak.

Hobbesen ustez, gizona jalotzez zalo otso gizonari.

Rousseauren iritziz, gizarteak) otsotzen du.

Pentsaera bi baina pentsamendu bat, ezbairik gabe.

Askok zeukaten muturreko pentsaera. Hiruzpalau, ordea,
muturreraino eramateko prest.

Osasun galdua: garagar ale bat itsasoaren erraietan.

Txaketa aldatzen dutenek modakoa janzten dute ia beti.

Orain irakasleek egiten dute negar eskola-egunak lristean.

Laguna guraso paperean bezain lekuz kanpo
gurasoa lagun paperean.

Parranda erotikoenak autoan bukatzen dira.
Parranda tragikoenak ere bai.

Zerbait ahazteko edan eta... gainerako guztia ahaztu.

Ametsarekin mozkortzen denak biharamunarekin bizi behar.

Hilezkortasunaren aurka nago: ez ote da bidezkoagoa zoriontsuek
noizbait hil beharra, zoritxarrekoek beti bizi beharra baino?

Baserrri onak fabrika gertu.

Pinua hedatu da euskararen pagadian.

Euskara bihotzean + espainola buruan = euskañola mihian.

Burua: bihotzetik mihira bidean bizi den zentsuratzaillea.

Lagunartean, aurrerakoi. Bakardadean, mamuen morroi.

Madrilgo epaileek penaltia adierazten digute beti.

Zaborrontzia erretzeagatik, txartel gorria.

Torturatzeagatik, horia ere ez.

Entzutegi nazionala sor dago.

Montesquieu eta hiru botereak: guztiok batekin eta bata guztiokin!

Espainiako Selektzioa: egunkarietan otso eta zelaian uso.

Atzera begiratzen duenak arrisku handiagoa du estropezu egiteko.

Ez da oroitzapenetatik bizi behar. Batzuetan, aitzitik,
beroiak dira biziaren euskarri.

Guztiok gara eskuzabalak; hartzeko bada, jakina.

Bi bihotz bateragarri ez direlarik, ez dago balio duen poemarik.

Eskubide askatasuna hitzetik hortzera
eta askatasun eskubideari hortzak erakutsi?

Eman herriari hitzal Baina herritarrari kendu gabe!

Arazoiaren zati bat daukat baina nahikoa da
beste zatia duena erasotzeko.

Demokraziarik ez badago, nolatan ezagutzen dituzu bere mugak?

Euskal Arkimedesek: non dago Konstituzioa mugitzeko kokagunea?

Ez dago dudarik: Parmenides izan zen lehen konstituzionalista,
ez Heraklito.

Egunen batean konstituzionalista izatea, horra abertzalearen ametsa.

Doktoretza zeukan eskubideetan baina
graduaturik ere ez betebeharretan.

Euskaltegitik liberatu nahi zuen lanera bueltatzeko.

Batzuei mingarriago zale gure herriaren euskaldunizazioa,
gure herriaren balkanizazioa baino.

Administrazioa: "Inoliz ez gaur egin bihar egin dezakezuna."

Itsu-itsuan ari naiz irakurtzen batxilergoan ikusi ezin nituen liburuak.

Zertarako inbertitu giza baloreetan? Gero eta gutxiago kotizatzen dira.

Bi seme ezberdin zeuzkan, berdin maitagarriak: bata odolekoa eta Euskalki izena zuen; bestea adoptatua eta Batua zuen izena.

Zentzu gutxien dagoen lekuan, hantxe du aforismoak zentzu gehien.

Eta mozkor pasiboaren eskubideak?

Lurra arazoz beteta eta agintariek llargian burua.

Petrolio-putzuak non, odol-putzuak han.

Nola dakizu, dastatu aurretik, ez naizela zure gustukoa?

Espainiako diktadura: 1939-1976.

Espainiako trantsizioa: 1976- ?

Ezagutzen dut, ehun urte pasatxo baditu ere, testamenturik egin nahi ez duen alderdi bat.

Euskal nazionalismoaren argazkia: aitona zaharra,
emazte dibortziatua ondoan; ezkerrera go,
seme ez-legitimoa, ustekabeko bilobarekin.

Ez zaitudala gorrotatzen, hori da nigan gehien gorrotatzen duzuna.

Batzuetan, ez dago ikustea bezalakorik sinesmena galtzeko.

Pentsa zein sekta arriskutsua zen! Gizonagan sinesten zuten.

Zer balio du idazle arrakastatsuak, pertsona frakasatua baldin bada?

Irudi bat gehiago da mila hitz baino.
Emakumeentzat izan ezik, jakina.

Ez dago irudimena berdinduko duen irudirik.

Gorrotoa, bere txarrean, lotsagabea da. Inbidia bere buruaz lotsatzen da.

Estutu dezagun ahalik eta jende gehien, modu horretan zabalduko dugu gatazka.

Gaizkien nagoenean idazten dut ondoen.

Jada, inork ez du konpromisorik nahi konpromisoarekin.

Epala ematen zalon aldera erortzen da Justizia.

Kontraesanik eza, hori da akaso kontraesanik handiena.

Serbiako esaera zaharra: gerta bekit esaten didazuna, gerta bekizu opa didazuna.

Gehiago dira iragan-minez bizi direnak, iraganera itzuli nahi dutenak baino.

Estatuen handinahiari bost axola herrien izan-nahia.

-Zein da lanaren alde txarra?

-Denbora kentzen duela.

-Eta alde ona?

-Denbora kentzen duela.

Ekonomia jaunak, egun, hika hitz egiten dio Politika jaunari.

Lehoiak putreel, hiltzeaz zela: "Ba al zenekiten lur hartzen?"

Zer da zibismoa? Etikaganako begirunea edo legeenganako izua?

Zerk izutzen ote du emakumea gizon izu batek adina?

Nik ere asmatuko nuke ezereza partitzen.

Ez izorratzea, horixe da laguntzea egungo gizartean.

Aztiago ibilli agintariaren psikologiarekin, haren ideologiarekin baino.

Herri xelebrea gurea: nazio bat, bi estatu, hiru administrazio
eta lau katu.

Martxa honetan, aiton-amonek abalaturako etxebizitzak
ordainduko dituzte bilobek.

Emakumeak ekartzen du gizona mundura, eta, gero ere,
berak eramaten du sarritan paradisura edo infernura.

Zu ikusi orduko, urduri jartzen naiz. Zu ikusi arte, berriz,
ez nago lasai.

Auskalo zein den bakearen prezio politikoa baina ziur
gatazkarena baino merkeagoa dela.

Axota ere baloneta bezain zorrotza izan daiteke,
erabiltzen jakinez gero.

Dohatsuak: "Ni naiz ni eta nire zirkunstantziak."

Dohakabeak: "Ni naiz nire zirkunstantziak eta ni."

Laburra da gero bizitza! Hamargarren solairutik salto egin
eta erreparatzeko denbora ematen omen du.

Inspirazioa kapritxosa hutsa da: etengabe gonbidatzen dudan arren,
nahi duenean bakarrik etortzen da.

Zertxobait ausartagoa sentitzen zen bere koldarkeria onartu zuenetik.

Arazoak bi multzotan sailkatzen dira:
norberarenak eta konponbidea dutenak.

Belaunaldiz belaunaldi erreplikatzen den inuxentada da jaiotza.

Nola arraio kabitzen dira hain arazo handiak hain buru txikian?

Bizitzari begiratu eta ezikusia egiten dizunean, zer egin behar da?

Igerilari aparta izan behar da hondoratzen ari denari laguntzeko.

Galdera bat daukat filologoentzat:

ziur al zaudete lagundu aditzaren erroa lagun izena dela?

Gizon onaren eta kontzientzia txarraren arteko nahasketa da
koktel psikologikorik arriskutsuena.

Nork epaitu behar ditu inoiz legerik urratzen ez duten gaizkileak?

Abiadura Handiko Harremani esker zuzenean joan zaitezke
sexuraino, maitasunean geratu gabe.

Ondo dago gatazka konpontzeko mahai batean esertzea baina
baldintza batekin: irtenbidea adostu arte bazkaririk ez!

Modan jarri dira euskaltzale ez-praktikanteak.

Politikari bat erretratatu beharko banu, bi aho eta belarri bat
margotuko nizkioke.

Zer dela-eta izu hori? Mehatxatu baino ez zaituzte egin.

Kontaiozu arazo bat behar ez denari eta segituan izango dituzu bi.

Egin kontu zure ametsak gainerakoen amesgaizto bihur ez daltezen.

Nork bere belaunaldiarekin dituenak, horiek dira talkarik gogorrenak.

Fundamenturik gabeko fundamentalista asko dabil bazterretan.

Nola zutitu herria belauniko bizi denik aitortzen ez badu?

Denborak urtzen du sufrimendua baina sufrimenduak ere badaki denbora izozten.

Barraskiloaren antzera dabil gaurko gaztea: arrastaka, etxebizitzaren zama bizkarrean.

Zenbat eta platera gehiago hutsik, orduan eta patera gehiago gainezka.

Arrazoa pesimistari dagokio baina zoriontasuna optimistarena da.

Tristeia da politikatik gorrotora jauzi egitea baina askoz ere tristeagoa da alderantzizkoa.

Bin Laden non dagoen? Begiratu al duzue Bushen etxeko sotoan?

Ez dago bakardadea baino lagun leialagorik: sekula ez ditu adarrak jartzen.

Morroiak gehiago estimatzen du bakardadea, nagusiak baino.

Nik ez zaitut zu konbentzituko eta zuk ni ere ez, on egingo digu biei horretaz konbentzitzeak.

Erauntsia jasan ezik, ez dago ortzadarrrik.

Husten zuenean, orduantxe ikusten zuen botila erdi beteta.

Beste taupada bat baino ez nintzen haren bihotzean.

Joakin Arostegi

Mikel ATXAGA

Itzal handia genien gurasoei, maisuei, apaizei eta zaharrei. Horrelakoa zen gu hazi ginen gizarte hura. Hori aski ez dela, diktaduran eta nazionalkatolizismoan haziak eta heziak gintuzun. Ez genekien askatasuna zer zen. Itxiak eta itsuak munduratu gintuzten. Mundua salbatzera bidali, jakina. Mundua jatera, mundua arrastoan sartzera, esango nuke.

Zorionez, maisu eta lagun on batekin egiten dut topo, Don Joakin Arostegirekin, Arroako bikarioarekin. Ni baino 18 urte zaharra goa zen. Eta 44 urte besterik ez zituen gizon gordinari "zaharra" deitzen genion, inguratzen gintzaizkionak mukizu batzuk baikinen. Mukizu haiek gehienak joanak dira mundu honetatik eta gure "zaharra" oraindik bizi da, beti bezain argi, zentzudun, umoretsu, bihotz handiko eta iritzi zabaleko.

Gu ume mukizuak. Don Joakin Arostegi, berriz, eskarmentu handiko gizona zen. Guk ez bezala ezagutu zuen Errepublika, askatasun aldian. Bazekien zer ziren alderdi politikoak, sindikatuak, mitinak, manifestaldiak, huelgak, eztabaidak, borrokak, hauteskundeak eta abar. Irakiten zegoen Errepublika garai hura bizi izan zuen gazetetan. Pairatuak zituen gerraren ondorioak ere. Gerrari ihesi, iparraldean egin zen apaiz. Baina berehalaxe etorri zitzaion zein baino zein okerragoa zen bideetako bati heldu beharra: Hitlerren mende geratu ala Francoren atzaparretara itzuli. Santanderko Islares herrian bete behar izan zuen bost urteko penitentzia.

Eskarmentu handiko gizon ireki horrekin egin genuen topo. Iparraldeko apaiz eta kristauak hego aldekoak bezain elizkoiak ziren, jakina. Eta ez zuten kristaua abertzaleak gorriekin eta Elizaren etsal-

ekin nola elkartu zitezkeen konprenitzen. Baina lagunak egiteko ez ezik, frantsesa ikasteko aukera ere eman zion txango hark. Don Joakinek ez zion utzi Frantziako aldizkariak irakurtzeari. Batez ere, *Te-moignage Chretien* zuen maitea. Eta bazekien Frantziako Elizak ez zuela gobernuarekin Espainiakoak zuen murrontzarik eta hango gotzainek beste iritzi eta jokabide batzuk hartzen zituztela.

Arostegi hiztun eta kontalari aparta da. Seminarioko antzezlaririk onena bere garaian. Eta sermolarik bikaina, jakina. Eta idazle herrikol eta irudimen handikoa. El Diaegunkarian hasi zen apaizgai zela "Zai-zuri" izengoitiz. Urte askoan ez zuen euskaraz idazteko aukera handirik izan, jakina. Eta Zeruko Argia astekarian eman genion aukera hori. Ordainik gabeko aukera, jakina. Doan eta musu truk egin ohi zen lana. Arostegirekin batera Amuntsa, Dionisioa Amundarain genuen erlijio gairako. Amatiñok kultura inguruko berriak eman ohi zizkigun. Joxe Alkizak, baserri mundukoak. Joxe Azurmendik eta Txillardegik, pentsamenduaren ingurukoak. Gurutz Ansolak ekonomiaz ziharduen. Anton Iburgurenak, langileei buruzko legeriaz. Txomin Izagirre, Leo Etxeberria, Mikel Ugalde, Donato Unanue, herrietako berriemal-leak. Garai hartako bolondres zerrenda luzea egin nezake. Baina horretarako orduko astekari hura arakatu beharko nuke, oroimenak ez baititu guztiak gogoan izaten.

Joan XXIIIak Elizaren leihoak zabaldu nahian Kontzilioa egitea erabaki zuen Aita Santu aukeratu eta berehala. Zahar usain handia zeukan Elizak. Egurastu beharra zegoen. *Aggiornamento* zen bere hitza. Gorbatxonena perestroika zen bezala. Ohitura, iritzi, jokabide eta molde asko auzitan jarri ziren. Bestalde, Franco ere zahartzen ari zen. Eta Euskal Herria alde guztietako haizeek astintzen zuten.

Joakin Arostegik ere giro horretan idazten ditu bere lanak. Berak ere egurastu nahi luke Eliza hori. Zabaldu nahi dizkio leihoak hazi garbia barrura dadin. Arazoak, zalantzak, galderak, eztabaidak, bizi-bizi zeuden garaian idatziak dira, 70-80 inguru horretan. "Elizaren leihoak zabaltzen" ipini diogu liburuari izena. Horretan salatu zela uste dut Joakin Arostegi. Bere idazlanetan nabarmen azaltzen da asmo hori, behintzat. Idatzitakoaren erdirik ere ez dugu argitaratzen hemen. Neurri honetako beste pare bat ere egin daitezke orduko idazlanekin. Baina orduko kezkek, borrokak, arazoak, asmoak eta itxarobideak islatuko dituen bat nahi genuen osatu. Ez dakit onenak aukeratu dizkiodan. Ez nuen beti asmatuko. Barkatuko ahal zait.

Frankismoak ezarri zuen zentsura gogorraren garaian argitaratuak dira. Eta isunaren beldurrez zuzendaria argitaratzea ausartu ez zen lanarekin hasten da liburu hau, hain zuzen. Joakin Arostegik ere badaki nolako galbahea dagoen. Horregatik ekartzen ditu hemen goen antzekoak diren kanpoko kontuak. Irakurri ahala ohartzen da irakurlea idazlearen asmoaz.

Irakurleak erraz eta atseginez irakurriko dituela uste dut. Arostegik eguneko gaiak aukeratzen eta euskara errazean adierazten badaki. Irakurgarriagoa gerta dadin elkarrizketa-tankeran borobiltzen ditu, gainera. Horretarako asmatu zuen On Kosme pertsonai xelebrea. Adinean aurrera doanak garai bizi eta itxaropentsu haiek gogoratuko ditu. Joan XXIIIak zabaldu zituen leiho haiek Joan Paulo IIak nola itxi dituen ikusiko du. Gaurko gazteak ulertu ere ez ditu egingo orduko kezka eta borroka batzuk. Orduan ere ez ziren guztiak kezkatiak eta borrokariak. Baina nabarmena zen kezkatien eta borrokarien bizitasuna eta ardura. Beste izaera, bizimodu eta jarrerak nabarmentzen dira gaurko gazterian. Hala ere, interesgarri gertatuko zaie orduko giroaren berri jakitea.

On egin.

Politika egiten duten apaizak¹

Gaur egunean, gure inguruko jende talde batzuen artean, apaiz asko politika egile direla salatzea modan dago: ebanjelioaren erakustaila izan beharrean, marxismo eta komunismoaren aldeko politikari aurrelariak ditugu. Apaiz hauei berak diotenez, Kristo bera ere marxismoaren igarile-profeta bategin digute; demagogiaz hitzaldietarako darabilzkite pulpituak; erlijio erakusketa giza bizitzarako (humanismo baterako) baizik ez da; pastoral ordezterrorismoa darabilkite beren batzarretan. Mortzuk diren salbatzaile hauek? Burges handiak, kapitalisten buru direnak, ordena gauza guzaien gainetik gorde nahi dutenak, agintari direnen alde jokatzeko eguneroko periodikoek, klerikalismoz leporaino kutsatuta dauden kristau-taldea eta elizako agintari nagusi batzuek. Beren itsumena apaiz ehiza egiteraino iritsi dira: bat Hego Ameriketako herrietan eta baita Espainian ere; eta hori

1 Zeruko Argiaren zuzendaria ez zen ausartu argitaratzen.

dela eta apaiz asko beren herrietatik erbesteratu dituzte eta beste asko urteetarako kartzela tristan sartu. Espainian "konkordatuaren kartzela", apaizentzat bakarrik, 1968garren urtean irekia izan zen.

Hau guzia horrela izateko, zer gertatu da gure artean? Inolaz uka ezinezko gauza hau da: beren barruak ala aginduta, kristauari dagozkion erantzukizun eta konpromisoagatik, apaiz askok biziki 'parte hartu dutela bai gizarte arazo borrokan eta baita Espainiako politika, kezketan ere, beren buruak, ebanjelioaren aginduz, behartsuen alde jartzenituztelarik. Beren herriaren eta langileen eskubideen alde keimentsu jokatu dute, gaitzetsiz eta kondenatuz hitz eta egitez zuzenak ez ziren lan-sari, jornal kaskarrak, barne muintan nazioko kapitalismoak daraman gaiztakeria, ikasketetan guztiak berdinak ez izatea, eliz ofizialak politikariek daukan uztarri estua, ikastetxe nagusietan poliziak sartzea, giza eskubide nagusiei (elkarteak, huelgak, bakezko manifestazioak, langileak aukeratutako sindikatu libreak egiteko askatasuna) egin ohi zaien zapalketa latza egiaztatu eta salatu dute, bai, daukagun egitura gogorra; poliziak kaleetan egin dituzten heriotzak, kaleko manifestazio baketsuak bere baitan poliziak itotzea, baitu eta atxilotu komisarietan gogor hartzea politiko presoak damatan bizitza tristea eta hitz hutseko zuzentasuna egiteko sumarisimo epaiketa militarrek.

Gertakizun hauen aurrean, hona hemen gure pentsaera.

1.- Ezin ukatu apaiz batzuek bete-betean herriko politikan sartu direla. Nahi edo ez aitortu beharrean gara. Era berean ordea uka ezinezko gauza da Espainiakogerla hasi zenetik gaur arteraino 1939garrengo gerlairabazlearen erregimen politikari bete-betean eutsi diola eta biziki erregimen horren alde jokatu duela. Hori ere politika egitea izan da. Eliza ofiziala horren jokabide hori kaltegarri edo ongarrri da, ez goaz epaitzera. Bakar-bakarrik adierazi nahi dugu erregimenaren alde bete-betean elizak jokatzeko, ondorio izugarriak ekarri dituela eta gaur eguneko apaizak bakarrik ez direla izan politikari. Lehen ere izan zirela alegia. Horixe, bata bestera gaur gauzak gertatzen dira: lehen eliza erregimen horren alde eta erregimen horren erantzule etaetsal.

2.- Egia da Eliza ez dela politika egiteko sortu. Egia da, baita Elizaren jokabide eta erakutsiak zerikusit handia dutela ere politika eta gizarte arazoekin, eta erakutsi eta jokabide horiek indar eta presio handia egiten diola politikari. Batez ere Elizak politikarekin zerikusit

handia Espainian dauka; katoliko deitura baitu Espainiako gobernamenduak; horregatik Espainiako legedi guziak Elizaren erakutsietan argitu eta babestuak behar dute izan. Elizaren erakutsiekin bat datozen legeak egitera behartua dago Espainiako Estatuak; konpromiso horietan Estatuak jarraitzen ote duen zalantzan gaude, ordea. Horregatik harritu egingo al gara gaur eguneko apaizak egiten dituzten salaketa eta erantzunekin, beren ustetan, Elizaren erakutsien oinarriekin bat ez badatoz Estatuaren lege eta jokabideak? Goi mailako Eliz agintariak, apaizak bezain aske eta libre balira, eta bat-batera Estatuarekin puskatu nahi ez duten uztarririk gabe aurkituko balira, politika egile bezala salatutakoak ez ote lirateke izango Gotzainak berberak, oraindik orain salatuak izan direnen antzera, nahiz batera, nahiz taldeka onartu ez dutenean sindikatuko aurre-legea?

3.- Barregarri da benetan gotzain batzuen politikari bezala salatzea apez batzuk, Kortasetako diputatudiren bitartean Espainiako gotzain batzuk. Kortasetako diputatu izatea, ez ote da politika handienetakoa egitea? Eta politika aldetik garrantzi izugarriko gauzaez ote da jakitea Gotzain horiek Franco berberak izendatzen dituela diputatarako? Sindikatuen aurre-disputak nahiko argi erakutsi digute zenbateraino sartzan diren politikan gure gotzain prokuradoreak. Sindikatu legedia aurrea disputan jarri zenetik, Cantero gotzainaren hitzaldia eta Guerra Camposen irakurgaila izan dira politika ekintza handienak. Egia diogula, ongi egiaztatu dizkigute eguneroko periodikoek. Bi Gotzain hauen jokabidea poz handiz eta lotsa gutxiz haizatu eta zabaldu zituzten. Gai honi buruz 1968garren urtean Gotzainen Batzar Nagusia mintzo zen eta herrialde batzuetako gotzainak ere beren pentsaera agertu zuten Sindikatuak zirela eta ez zirela; periodiko gehienak ordea mutu, huskeria bat esan edo etsai agertu ziren.

4.- Politika egile beti izan dira apaizak Espainian; apaizak egiten duten politika Gobernamenduaren aldekoa bada, ez gotzain eta ez erabateko kristauak kezkatuko dira. Horregatik zion Jaime Causo Pinedok Vida Nueva aldizkarian: ez dut ezer konprenitzen; Elizak ez duela politikarik egin behar entzundakoan, galdetuko dut: zer politika galarazten du Elizak? Zurea, zuk egiten duzuna ala besteena?

5.- Behar bada ohartxo hau egingo zait: sotanakiko apaiz kontserbadoreak, kristauki jokatzan dutela Estatu-legeak obedituz eta nahiz politika nahiz gizarte arazo orotan Erregimenaren jokabideak onartuz; batekoz beste egiten dutela parrokiako apaiz aurrela-

riek: gogor ekin Erregimenaren aurka eta elkarrekin bizi al izateko Erregimenak eraturako lege batzuek ere hautsi eta oinperatu.

6.– Eta zergatik ez horrela jokatu? Demokrazi askatasunari dagozkion agiri agiriko eskubidea da horrela jokatzea. Inor ez dago, gainera, bere baitan zuzen ez diren legeak onartzera behartua; ez eta ere gizonari dagokion eskubideren bat hausten duen legea. Hau ez da politika egitea; hau gizon librea izatea da; hau kristau izatea baizik ez da.

7.– Hau politika egitea bada, zuzen ez dena zuzentzat harturik beti isilik daudenak politika egile handiagoak dira; politikari handiagoak kortesetan eta Estatuako beste instituziotan parte hartzen dutenak; politikari handiagoa “uztarri eta geziak” beren bularretan ezartzen dituztenak; Montejurrara joateko txapel gorritz janzten direnak. Apaiz aurrelariak politika egile badira, besteok ere politika egiten dute. Honetan datza desberdintasuna: batzuek agintaritza eskuan dutenen alde dagitela beren politika eta besteak berriz oposizio alde-tik daramatela politika ekintza.

Ene! Hau buruko mina

- Baina, baina egia ote? Sorbonako ikasle lagun jator Kintxong ote zaitut?
- Bai Toribio, aspaldiko lagun zaharra. Zatoz nire besoetara.
- Baina, Kintxong, zu Euskal Herrian? Ez al zaitugu gehiago Txunkingo Errepublikako Lehendakari eta Presidentea? Ostikoz erbestera-tu ote zaituzte?
- Bai zara... Txunkingoko buru nauzu gaur ere. Sendagileak esan zidaten Asia utzita, Europara etortzeko eta Euskal Herria aukeratu dut; European adiskide kutunenak euskaldunak baititut...
- Esker mila, Kintxong. Osasunez nolabait beraz?
- Txunking, gure herri laztanak askatasuna jaso zuenetik, bere Gobernuaren Buru izanik, nahaste-borraste eta buruko min handiak izan ditut eta orain gauzak pixka bat moldatu direnean, beharrezkoa zaidala atseden gozo bat hartzea eta Euskal Herrira etorri nauzu.

- Bejondeizula, Kintxong. Eta zure Gobernuan buruhauste handiena, zerk eman dizu?
- Gure hizkuntz zaharra salbatzeak, Toribio. Frantses kolonia zen gure herria orain dela bost urtera arte. Gure hizkuntza, aurretika-koengatik jasotako, –txunkunesa– dugu. Azken urteetan hil zorian zegoen; frantses hizkuntzak itotzen zuen gurea; zokoratua zegoen, gaixoa; ume eta gazteak galdu zuten –txunkunesa–, Txunkingo gure hizkuntz maitea. Frantsesa zen hizkuntz ofiziala. herriaren zerbitzari izateko ez zen beharrezkoa txunkunesa. Aski zen frantsesa. Frantses hutsean mintzatzen ziren Bankuko enplegatuak, herriko sekretarioak, sendagile, abokatu, estazioetako buru eta txartel zulatzaileak. Publiko zerbitzariak beharrezkoa zuten frantses hizkuntza; gurea jakin beharrik ez.
- Txunkingoko semeak behintzat beren hizkuntz zaharra maiteko zuten noski?
- Ez, zoritxarrez. Gure hizkuntza ez zela ogibide, ez zuela eguneroko ogia irabazteko balio. Gure hizkuntzarekin ezin zitekeela urrutira joan. Eta herri handiak gure hizkuntza galdu zuten eta baserri tokietan bakarrik mintzatzen zen.
- Materialismoa dugu izan ere nagusi. Espiritu gauzak lurra jota daude. Diru eta ondasunak lehen mailako... Jakite hutsagatik gaur egunean pauso gutxi eman ohi dira. Gure artean ere prantses eta ingeles hizkuntzak gaztediak ikasten ditu. Zergatik ordea? Beren edertasunagatik? Bai zara... Guztiz egokiak baitira eguneroko ogia irabazteko. Erromantikoen giroa galdu zen aspal-ditxo gure artean.
- Ez duzu hori guzia. Gure hizkuntzak izan dituen etsai gogorrenak, honantz atzeritik etorritako fraide eta batez ere mojatxoak izan dira. Kristoren erlijioa gure artera ekartzera etorri ziren eta beren kolegioetan gure hizkuntzan mintzatzen zirenak zigortu egiten zizuten.
- Ene Jesus! Ezta sinestekoa.
- Haurrei, gurasoengandik jasotako hizkuntza mespretxatu behar zutela erakutsi zieten eskoletan. Basati hizkuntza zela. kultura zuen inortxok ez zuela baserritarren hizkuntz hori maite. Babarrunak jan nahi bazituzten frantsesa beharko zutela. Gure hizkuntza, zaharra, baldarra, basatia, kultura gabea zen eta behindik hiltzen

- uztea zen onena... Eta Txunkingoko seme askok lotsaturik zokoratu zuten beren hizkuntza.
- Eta gaur, nola doa zuen hizkuntza? Berpiztu duzue...?
 - Bai horixe. Erromantiko arrazoiak alde batera utzita, urdail arrazoiak, ogi arrazoiak, babarrun arrazoiak, arrazoi praktikoak izan dira onenak gure hizkuntza salbatzeko... Alegia Txunkingon, urdaila asetzeko, eguneroko ogia irabazteko, babarrunak jateko, hitz batean, gure artean bizi al izateko, txunkingodarren hizkuntza beharrezkoa dela. Eta horretarako neurri zorrotzak hartu.
 - Zer neurri dituzue horiek?
 - Frantses hutsean erakustea galarazi eskolan maisu eta maistrei. Frantsesaren parean jarri gure hizkuntz eskoletan, Gure hizkuntzaren jabe ez zirenak ezin zitezkeen gure eskoletan irakasle izan.
 - Eta zure aginduak bete al ziren?
 - Ez beti: Batez ere mojatxoak berean jarrai zuten frantses hutsean. Eta orduan nik... zapla, berrogei mojatxo eta hamar fraide gure lur mugatik kanpora bota nituen.
 - Gogorra zara. Ez zara nonbait kristau katolikoa.
 - Bai horixe eta benetakoa gainera.
 - Eta ez zinen Elizaren zigor beldur?
 - Berehalaxe Aita Santuaren ordezkariari berri eman nion: Ene Jau-na, zoritxarrez neurri zorrotza hartu dut misiolari batzuekin. Gure herritik kanpora bota ditut. Ez misiolari zirelako, gure hizkuntza eta kulturaren etsai zirelako baizik. Betorkigu Kristoren erlijioa, baina hizkuntza eta kultura zanpatu gabe.
 - Eta Aita Santuaren Ordezkoaren erantzuna...?
 - Guztiz zuzen jokatu nuela esan zidan. Elizaren erakutsi barruan jokatu nuela... Pacem in Terrisek agintzen zuen bezala jokatu nuela. Eta itun on bat egin behar genuela Elizak eta Txunkingoko Errepublikak.
 - Horren erraz konponketa? Hainbat misiolari zure herrietatik botata, gehiagoko haserrerik ez? Harritzekoa da.
 - Agintaritzako makila eskuan baduzu ez tira hain zailak konponketa horiek.
 - Beste neurririk hartu zenuen zuen hizkuntza salbatzeko?

- Bai. Herri zerbitzari guztiak bi urte barruan txunkifnez mintzatzera behartu genituen. Tarte horretan ikasten ez bazuten, beren bizibidea beste nonbait edo beste zerbaitetan atxiki beharko zuten.
- Eta zer gertatu zen...?
- Laster ikasi zutela gure hizkuntza herriko sekretario, enplegatu, sendagile, abokatu eta politikoei. Eta gaur publiko zerbitzari guztiak frantsesez eta gure hizkuntzan mintzaten dira eta horrela salbatu dugu Txunkingo gure hizkuntza maitea.

Bat batera esnatu naiz... Goizeko laurak... Hau buruko mina... Amets luzea gaurko nire hau. Hartu ditzadan hiru aspirina... burua lehertu behar zait... Ezin lorik egin ordea. Atzoko Diario Vasco periodikoa eskuetan hartu dut eta irakurtzen hasi: Seis preguntas acerca del vascuence: 1) Entiende Vd. que el vascuence se halla en trance de próxima desaparición? 2) Estima que existen medios eficaces para evitarlo y prolongar su existencia, como lengua viva durante un largo periodo de tiempo? 3) Cuales serian a su juicio las medidas mas positivas y adecuadas para lograrlo? (1964-XI-22).

Brasilen gotzain bat kartzelan

Brasilgo Errepublikak handian millitarrak dituzu agintari; indarrez lortu zuten Agintaritza. Brasilgo lurraldea txit aberatsa duzu, baina bertako bizilagun gehienak gosete eta miseri izugarrian bizi dira. Lurren aberastasuna bakar batzuen eskuetan; miseri eta bizi ezina beste gainontzeoetan.

Militar Agintariek gaur eguneko egiturei heldu nahi die. Ez dute lan handirik egiten zuzengabekeria eta injustizia horiek kentzeko... Herri xehean, bitartean, sortu dira aldaketa sakonak egin behar direla diotenak; asmo horrekin, batzuek gogorrean ere bai, lan eta lan dagite. Brasilgo Eliza estu eta larri bizi diren azpikoen alde jarri da. Odol isurtzerik gabe, gogorkeriarik gabe, ahaleginak egin behar ditudala eta, biziki jokatuaz, egiturak aldatu eta zuzentasuna jartzeko Brasilgo lurraldeetan, diote. Eliz agintarien inguruan katoliko asko bildu dira. Eten gabe lanean behar dute miseria kendu eta zuzentasuna jartzeko asmotan.

Bakean aldaketak nahi dituzten horien aurka gogorki altxa dira militar agintariak: horien kolkorako, azpilanean dihardute, iraultzaile

eta estatuaren etsai dira. Gaurko egunean erasoaldi, pertsekuzio beldurgarriaren azpian bizi dira katoliko asko. Apaiz bat, Helder Kamararen laguntzaile handienetakoa, duzue. Espetxeak, kartzelak, kristau katolikoz betetzen ari dira. Horien artean apaiz eta erlijioso asko dituzu.

Badute bai, kopeta eta kemena agintari horiek. Oraindik orain obispo bat kartzelako ilunpera jaurtiki dute. Bere izena: Valdir Calheiros. Bere eliz barrutiko hamasei apezekin espetxeratua izan da. Volta Redonda deritza Barrutiak.

Gotzain eta apaiz horien gaiztakeria? Herriaren aurrean gizonki eta kementsu salaketa handi bat egin dute: Volta Bedondako eliztar batzuek oinazetu eta torturatu dituztela poliziakoek. Atxilotuen aitormena jasotzeko tratu beldurgarria eman dietela poliziakoek.

Gertakizun honek hots handia atera du mundu zabalean. –Calheiros, Volta Bedondako gotzainarekin bat eginek gaude gu Brasilgo gotzainok–. Erabaki hau Conferencia Episcopal deritzon Batzar Nagusian hartu dute Brasilgo gotzainek. Beren erabaki honen berri Brasilgo prentsa osoari eman zaie. Agiri horretan hogeita hamabitik, hogeita bederatzik gotzainek eman dute beren sinadura. Batzuek aurrelari Eliz jokoan besteak atzelari, guztiak batera ordea oraingo jokabidean. Kopa leporaino bete da eta aski dugu, dirudi adierazi nahi izan dutela Brasilgo gotzainek.

Brasilgo Hierarki osoa Agintariari aurpegi ematen... Kementsu zuzenbide eta Justiziaren alde... Salaketa biziki eginaz poliziaren gogorkeriaren aurka. Eliza zapalduen alde. Eliza menperatuekin bat eginik. (1970-I-11).

Gora Kurdistan askatuta

Hogei milioi inguruko herria da Kurdistan. Mendi mendian dago. Goiko aldetik, ezker-eskuinez Turkia eta Iranek mugatzen dute. Azpian du bere etsai gogorra: Irak.

–Kurdistan bakarra da gure aberria–. Ondo dakite kurduak. Badi-tuzte beren hizkuntza, nortasun berezi, beren lege-bizitza eta ohiturak. Hitz batean kurduen aberria: Kurdistan Herri behartsua, baina abertzale sutsua. Behartsu, baina aske izan nahi duen herria; bere Gobernamentuaren menpean, mendi-mendian bizi dira Kurduak.

Herri errukarria Kurdistan. Beti borroka bizian bere herriaren askatasunari eusteko kurdutarrak. Kurdistango mendiak, beren seme-alaben odolarekin gorritutako mendi sakratuak. Lehen ere Turkia lotsagabeak menperatu nahi izan zuen Kurdistan. Hiru gizaldi gerla bizian. Azkenik, Turkistan garalle. Mutilak dira gero kurduak beren mendietan askatasuna zaintzeko.

Gaur ere ez dago bakean Kurdistango Aberria. Irak-eko nazioak bere mende hartu nahi luke. Mila bederatziehun eta hirurogeita batgarren urteaz gero, Irak-eko ejertzittoa urtean behin edo bitan urreratzen da Turkistango mendi-inguruetara. Zenbat heriotza. Israel eta Arabiarren arteko gerratean baino gehiago izan dira hildakoak kurduen eta Irakarren artean. Kurdutarrak herri bakar baten jabe dira: Kala-Diza deritza. Hemezortzi mila bizi laguneko herria. Goseak, premi handietan bizi dira, baina kementsu nahiz gizon eta emakumezko beren herria zaintzeko.

Emakumeak teilatu gainetan herria zaintzen edo hemen eta han banatuta antiaereoak beren eskuetan erabiltzen irakarren hegazkinari lurra joarazteko.

Azkeneko urtean ikaragarritzko egurra jaso dute Irakarrek. Aldez aurretik jakinik zeuden Kurdutarrak Ejertzittoa indar handiz borrokara zetorrela. Bazekiten nondik jo behar zuten. Haiek erabili behar zuten bideari begira gorde zituzten hemen eta han berebiziko kainoi pila. Kurdutarren Artilleriak Irakarren eraso aldia txikitu eta porrokatu zuten. Kurdutarren eskuetara iritsi ziren hainbat arma eder eta prisionero. Beste jende-talde handia gorputz lur gainean. Ahal izan zutenak, ahal zuten bezala urrundu ziren Kurdistango lurraldeetatik.

Kurdistango semeek gorroto bizia diete Irakarrei. Izan ere hauek, herri baten jabe egiterakoan, hango emakume, haur eta zaharrei ere bizia kentzen baitie. Abuztuaren hogeian, gerlaren txinparta artetik ihes eginda, zahar, emakume eta haur batzuek kobazulo batean aterpe hartu zuten; guzira hogeita hamazazpi. Irakeko soldadu bihotzgabeak guziak barruan bizirik erre zituzten. Abuztuaren hamaseian, Sorya izeneko herrian, Kurdutarren aldeko zirela eta, laurogeita hamamika gizon tiroka garbituak izan ziren. Lepa-hezurretaraino ikara sartuko zitzaielakoan Kurdutarrei? Toki onean. Irakiarren jokabidea zenbat eta gogorrago eta gaiztoago, orduan eta Kurdutarren aberri min eta askatasun zaletasunean beroago eta sutsuago.

–Aurtengo negua gure zorigaitzen amaia–. Aurtengo neguan gu irabazle, gu txapeldun? oihu egin du Kala Diza herriaren eustaille defensoriak... Bitartean jatekoa urrijende artean... sendagairik ez... penizilinarik gabe. Baina etorkizunari buruz, Kurdutarren sinesmen eta uste osoak paregabeak dira. –Gizalditan borrokatuko da gure herria, beharrezko bazaigu, esan du Barzanik, hirurogeita bost urteko Buruzagi Nagusiak. Baina sekulan bere oinik ez du jarriko gure lurretan Irakeko soldaduak; Hiru gizalditan turkiarrak turkiar egin nahi izan gintuen. Oker jo zien kukuak; ez dut ikusten nolatan arabiarrek arabiar bihurtu ahal izango gaituzten–. (1970-I-25).

Gizontxo hura, bai gizon tristea

Gorputz motzekoa, baina lodikote xamarra, aurpegi biribilekoa, kolore hilak, burusoila, betaurrekoak sudur gainean.

Ongi ezagutzen zuen nire adiskideak. Bere berri bai oparo eman ere.

- Belgikarra duzu gizon hori, esan zidan nire lagunak. Bernart deritza. Azken urteetan, udara garaian, Zarauzko kaia du bere atsedan leku. Beti bakarti, hondartza ertzean, Kantauri itsasoarekin ito nahi nonbait bere barruko kezka beltzak.
- Barruko kezkak?
- Herri baten zapaltzaile handi bat izana da. Kongo, askatasuna Iritsi arte, Belgikaren kolonia zen. Lurralde hartan probintzia bateko gobernadore izana da. Agintari zital eta gogorra. Belgika nazioaren batasuna gorde behar zelata, eginahalak egin zituen gogorkeria bizian, bere mendean zeukan herriaren nortasun, ohitura, hizkuntza eta herri maitasuna itotzeko.
- Zer egin zuen bada?
- Herri baten nortasuna bere hizkuntza berezian dagoela-eta, frantsez hutsean haurrak eskolatu behar zirela agindu zuen. –Bizi bedi gure hizkuntza frantsesaren ondoan–, oihu egin zuten probintzia hartako gizon abertzale bulartsu batzuek; eta beren kontura, beren dirutik, Gobernamenduari ezer kosta gabe, beren ikastolak jasotzen hasi ziren. Beren hizkuntzaren bitartez, frantses eta gaineratiko ikasketak jasoko zituzten probintzia hartako haurrak.

- Eta...Bernart Jauntxoaren jokabidea...?
- Gogor ekin zion ikastola horien aurka... Irekitzeko baimena batzuetan ukatu... lehen zeuden besteak itxiarazi... Ez zen asper-
tu herri-ikastolak galarazten.
- Barrua behar zuen era horretan herri baten nortasuna gala-
razteko...
- Horretan gelditu izan balitz gure jauntxoa... olerkari-kantariak sor-
tu ziren Kongoko probintzia hartan... herriz herri bertsotan, eta
beren hizkuntzan, beren herriaren arnasa kantatzen zuten... Be-
ren herriaren eskubideak, nortasun eta hizkuntza zuten beren
kantu goxoetan... Herri-kantari haiek ziren herri-esperantza...
- Eta...?
- Ahaleginak egin zituen isilarazten. Onentxoenei kantatzeko esku-
bidea kendu zien. Kantu-poza ere kendu egin zion berea ez zen
herriari. Baomen ziren baita ere gure bertsolarien antzeko gizon
kantariak; herri galak beren kantuetan erabiltzen zituztenak, bes-
teak baino herrikoagoak zirenak... horiei ere ez zien bakean utzi...
Batzuei kantatzen galarazi eta guziei agindu, alde aurretik behar
zuela jakin gure jauntxoak, zer gai erabili behar zituzten beren
kantuetan.
- Zenbat bidegabekeria. Eta herritarrak bitartean isilik...?
- Noizbehinka, bake bakean, altxa ohi ziren protesta bizian injusti-
ziaren aurka... Hemengo edo hango plazetan bildu ohi ziren, bai-
na laster zituzten makilaka beren atzetik poliziakoak. Ondoren
tristeak gero: espetxeratuak, zigortuak, epai zorrotzak, erbestera-
tuak...
- Eta erlijioaren izenean hitzik ez apaizak...?
- Bertako apaizak beren herriarekin bat eginik omen ziren... hauen
arteko batzuek, baita agirian ere giza-eskubideen alde oihu egin
eta zuzengabekerien aurka...
- Etaez zuenatzera egin Bernart jaunak?
- Atzera...? Ez horixe; taldetxo bat kartzelara, beste batzuk erbeste-
ra, horietako bat edo beste ere makilatua izan omen zen.
- Eta... nola bukatu zitzalon agintaritza...?
- Hainbestearinoko gogorkeriaz aspertu egin zen Belgikako Gober-

namendua; agintaritza kendu eta Europara erakarri zuen. Azken agurra ez zitzaion guztiz alaia izan: lerre jarloz bere inguruan zituenak bizkar eman zitoten eta bertako semeak alaiki esaten zuten: joan da gure herriaren zapaltzailea, baina bizi da oraindik gure herria. (1970-II-8).

Kainoi saltzaileen kontzientzia

Nik dakidanez, Nazioko Gobernamentuak ez dira droga-narkotiko saltzaile. Droga-merkatari bihurtuko balira Gobernamentuak, dirutza handiaren jabe litezke. Baina beren herriak laster lur joko luke. Droga-narkotiko horiek gisa-bizitza pozoitu eta usteltzen dute. Gaztea, gaztetan zahartuta, bere espiritu kementsua ahulduta, gizar-tearen onerako alperrik galduta.

Nazio guztiek droga saltzaileen aurka neurri zorrotzenetakoa hartzen dituzte. Mundu osoan polizia parte hartzen dute droga merkatariak harrapatzeko. Kontzientzia zuzen eta zorrotzekoak dira lurreko Gobernamentu guziak gai honetan. Arrazoi handiaz gainera, jakinik zer ondorio beldurgarriak dakartzkion herriari droga-narkotiko madarikatu horiek.

Eta kainoiak? Bonbak? Armamentuak? Ez ote dira herrientzat kaltegarri? Herri bakoitzak bere burua zaintzeko armamentuaren jabe izan behar duela? Eduki bitza behar-beharrezkoak. Baina politikagatik, edo okerrago dena diru irabazte hutsagatik nazio batek besteari armak saldu liezazkioke? "Gure politika, munduari begiratuta, lurrean egiazko demokrazia eta bake zuzena jartzea da" diote Ipar Amerikarrek. Bitartean arma-merkatari handiena Ipar Amerika da. "Bakea eta bakea" munduan nahi dugu, diote errusiarrek, eta bitartean hortzetaraino armatuta eurak, eta beti prest beste nazioen atzaparretan armak uzteko. Ingalaterrako azokan aurkitu ditu Nigeriak Biafrako semeak hiltzeko armak. Arma haiek zapaldu dute Biafra; baina bihotz handikoa da Ingalaterra; diru haiek guziak ez ditu nahi beretzat; zerbait gorde du Biafrarentzat ere. Nigeriari saldutako harmamendua-
ren irabazietatik sendagal eta janariak erosi ditu Biafrarentzat. Eta Frantziak? Agirian Nigeriari saldu dizkio armamentuak, isilean Biafrari. Bi herriak elkar hil zitezela; bitartean Frantzia diruketa ederraren jabe egingo zen. Eta Txekoeslobakia? Lisboatik Nigeria eta Biafraraino zubi

bat egokituta zeukaten txekiarrek. Behin baino gehiagotan gertatu ohi zen: bi abioi bata bestearen ondoan txekiarren armaz beteta; Abioi bat Biafrarako, bestea Nigeriarako.

Eta nik galdetzen dut: herrietako kalterik nahi ez dutelako, droga-narkotiko merkatarik ezin daitezke izan Nazioetako Gobernamen-
duak; eta kainoi saltzaile bai? Politika arrazoi bide delarik, herri batek bestearen aurka gerla egiteko, Gobernamentu batek zilegi du kainoi eta armamentuak saltzea? Eta diru irabazte hutsagatik? Herri batzuen heriotza eta odol isurtzeaz aberastu beste herri bat? Non dago kontzientzia?

Errukarriak droga saltzaileak, poliziaren eskuetan erortzen badira. Eta arma saltzaileak? Horiek ez, gizona, horiek beren herrietako Go-
bernamentu baimenarekin beldurgarritzko negozioak egiten dituzte. Arma trafikari horien izenak ezagunak dira munduan. Tet Samuel Cum-mings, berrogeita hiru urtetako amerikar gizona. Monakon daukabere armak saltzeko etxea; bostehun milioi dauka frankotan bere tratuetarako. Warton, amerikarra hau ere, Txekoeslobakiako armak Nigeria eta Biafrari saltzeko bitarteko ibili dena. Pierr Loretz, frantsesa, hiru urtetan milioi asko irabazitakoa dolarretan. Bost mila dolar kostatzen zen kainoia, berrogeita hamar ordaintzen zizkioten Biafrarrek. Izen handiena arma merkatarik bezala Thorpe ingelesak dauka. Belgikan dauka armak egiteko lantegia. Lotsa galdutako gizona benetan Thorpe hau. Oraindik orain Belgikako Telebistatik hitz egin du. Nazkagarriak berak esandako gauza batzuk:

Kainoi saltzaile bat besterik ez nauzue. Mundua mundu denez gero, zerbait hiltzeko eskuetan armak behar dituztenak beti daukazu. Segurutzat jotzen dut. Ongien ordainduko dituzten eskuetan uzten ditut nire armak. Nire erosle onak Afrikako beltzak dira; giza-gaixoak ez baitute armak egiteko industriarik. Ingalaterrako Goberna-
mentuaren baimenarekin, Ingalaterrari on deritzen herri saltzen dizkiet nire armak; Belgikako Gobernuak beste herri batzuei armak saltzea nahi duela? Honen baimenarekin beste batzuei saltzen dizkiet. Ni saltzaile bat naiz. Ez politikoa. Horrela jokatzeko kontzientziarik baote dudana? Eta zer da kontzientzia? Ni merkatarik bat naiz, azokara diru egitera noa, gainontzean hor konpon.

—Ondoan zeukan galdera-egileak diotso: —Gerla berri bat sortzen bada poztu egingo zara noski?

- Irribarre gaiztoenarekin erantzuten du:
- Ez, gizona. Nik erreboluzio bat egin behar banu koronelak erosiko nituzke kainoien ordeaz. Horiek garestiegiak dira; koronelak askoz merkeagoak dituzu.
- Zu, zerri nazkagarri bat al zara?
- A hori? Zuk zerorrek erabaki zer naizen.

Joan zen hilean Temoignage Chretien-etik hartu ditut hemen dakarzkizudan datuak.

Bukatzeko: Arma saltzaileak, Zer kontzientzia dute? Arma saltzeko baimena ematen duten Gobernamentuak zer kontzientzia dute? Diru irabazte hutsagatik arma-merkatari diren Gobernamentuak, zer kontzientzia dute?

Bakea behar dugula? Toki onean zagok. (1970-II-22).

Holandako apaizak (Olea bertsogileari eskutitz agiria)

Olea, bertsoaribikainari, agur:

Bertsozale ohi gara euskaldun asko. Bertso egile punta-punta-koa zaitugu, Olea; nire irakurgai astun honek baino irakurle gehiago izango ditu zure bertso sail apainak. Bai atseginak belarrirako Holandako apaizak direla-eta, oraindik orain Zeruko Argian moldatu dituzunak. Bertsozale ona zarelako, zure irakurleen artean erantzukizun handia daukazula iruditzen zait. Zoritxarrez, Holandako Eliza Batzar Nagusian gertatukoaren berri oso ez jakinik dira gure artean nahiz baserritar eta nahiz kaletar gehienak. Gai honi buruz zure bertsoetan hartu duten janaria baizik ez dute askok izango. Zure bertsoak irakurri ondoren, iritzi kaxkarra izango dute Holandako apaizez zure irakurleek. —Apaizak ere ezkondu nahirik omen dauzkagu gaixoak?... —Gorputza ezin errenditurik ote dabilta guziak? Gero, ezkontza latza dela, ez dela gaitz guzien sendagai adierazten diezu, Olea, ezkontzeko amorratzen dauden Holandako apaizak: —Ezkondu arren bizitza ez da arrosa kolorekoa?, —Andreak ere badaki ezetz esaten? eta abar.

Olea maitea, Holandako apaiz arazoa ez da zuk jartzen duzun bezain gauza sinplea. Apaiz arazo hau gaur egunean mundu guzian agertzen dena da. Holandako Eliza Batzar Nagusian ez ziren apaizak

bakarrik bildu, han ziren Alfrino Kardinala eta Holandako Gotzainak, han baita hainbat eta hainbat kristau soil ere, gizon eta emakume.

Holandako Batzarrean hartutako erabaki nagusienak hauexek izan ziren: –Apaiz egin behar zutenak eurak erabaki ahal zezaketela ezkongee edo ezkonduak izan... Lehen apaiz izan eta gero ezkonduak, izan zezatela eskubide apaiz lanetan jarduteko... Gizon ezkonduak ere apaiz egin ahal izan zitezkeela?.

Batzarrak hartutako erabakieioniritzia eman zieten Alfrino kardinalak eta Holandako gotzainek. Baina arazo hau Eliza osoari dagokiona izanik, Aita Santu eta Elizako gotzainekin batera jokatu behar zela eta asmo horrekin Alfrino Kardinala Aita Santuagana joango zela, esan zuten Holandako gotzainek.

Bertso batean diozun bezala, Olea, –Aita Santuak epaia eman du argia izan dezaten–. Oraingoz, lehenean gelditu dira gauzak: ezkongee bakarrik izango dira apaiz. Aztertu eta ikustekoa izango dela, esan du baita ere Aita Santuak, ezkonduak gizonak apaiztu litezkeen ala ez.

Zer iruditzen zaidan Aita Santuaren jokabide hau? Elizan lehen buru da eta bere esanetara behartuak gaude. Ez dut zalantzan jartzen bere agintaritza eta bere erabakiak ontzat artzen ditut. Agintaritza ordea era askotara erabil liteke; gaur eguneko girorako atseginago izango zitzaidan Holandako kardinalari eta gotzainei Aita Santuak entzun ondoren, bere erabakiak hartu izan balitu. Noizko dugu bada elkarrizketa? Orobat gaur eguneko munduak errazago konprenituko zituen Aita Santuaren erabaki horiek, aurretik Sinodo batean gotzainekin patxadan arazoak aztertu ondoren, hartutakoak izan balira. Gaur egunean, gure familietan, gurasoen jauntxokeriari utikan esaten diogu. Agindu, bai, agindu, gurasoek egin behar dute etxean, eurena data azken hitza; aurretik ordea semeekin elkarrizketa gozo egitea bai gauza bikain eta txalogarria; agindu hori semeak bereganatu eta beretu dutelarik, errazago beteko baitute. Orobat Elizan ere; Eliza osoari dagozkion arazoetan azken hitza Aita Santuarena izanik ere, oso interesgarri deritzot bai Gotzain eta bai Jaungoikoaren herriaren iritziak ongi jaso eta aztertzea.

Zer iruditzen zaidan Holandako kristau-talde batek, beren kardinal eta gotzainekin batuta erabili duen jokabideaz...? Bidezkoa eta guztiz zuzena iruditzen zait.

Seme batek, nahi eta ustekabeen, okerrean, eskubide du Aitari bere iritzi eta pentsaerak agertzeko. Okerrean dagon semeari ere entzuteko prest egon behar du aitak. Holandako kristau talde horrek Elizaren onerako, asmo onenarekin, erabaki batzuk hartu ditu. Elizan alda litekeen zerbait agertu nahi izan diote Aita Santuari. Hori egiteko eskubidea, nork ukatuko die? Dogmaren kontrako ezertxo ez diote agertu Aita Santuari. Jesukristok ezkongeak eta ezkonduak zituen taldean. Hamaikagarren gizaldiraino ezkongeak eta ezkonduak nahasian ziren apaiz Kristoren Elizan. Ezkongeak bakarrik apaiz izatea, gaur eguneko Elizaren legeria da, ez dogma. Aita Santu eta beste askoren iritziz gaur egunean ere Elizaren diziplina horrek horrela jarraitu behar du. Holandako gotzain eta kristau talde baten pentsaera beste erabatekoa da; beren ustetan Elizaren onerako aldatu beharreko diziplina da. Oker baleude ere, beren barneetan zuzen iruditzen zaiena, Aita Santuari agertzeko eskubidea ukatu behar ote diegu? Gure solnekoak urratu, gaitzetsi eta kondenatu egin behar ote dugu Holandako kristau talde hau?

Nik ongi konprenitzen dut herrialde askotako gotzain eta kristau herriaren kezka eta larria: askok diotenez, eta bertsolariak tartean sartzen ditudala, ene Olea, apaizak bapo, bapo, lepondo ederrarekin, ongien, bizi dira. Gaur egunean ordea itxuraz, ez du inork ondo bizi nahi; edo oso gutxik, behintzat. Gaur egunean jendeari atseginago zaio gaizki bizizea. Ezkontza bizi latz eta gogorra izan arren, zuk diozun bezala, Olea maitea, apaiz bizi bapo bapoa alde batera utzi eta gehienak ezkondu egiten dira. Hitz batean: apaizetarako bokazioak urritu egin dira, seminarioak gero eta hustuago eta hemendik urte batzuetara, gauzak horrela jarraitzen badute, Elizan ez da izango nahiko apaiz. Oraingoz, gure artean apaiz premia handirik ez da sumatzen... Hemendik hogeit urtera? Gure apaizgalak ere apaiztu gabe gelditzen baitira gehienetan. Gerora guk sentituko dugun apaiz premia gaur sumatzen dute Holandan.

Gaurko legeriarekin, mirariren bat sortu ezik, hemendik urte batzuetara ez da gehiago apaizik izango Holandan. Holandan gertatzen ari dena, mundu guzian gertatuko da. Gaurko diziplinari eusteagatik, apaizik gabe gelditu behar ote du Elizak? Gaurko apaiz diziplina ez da nahi eta nahi ezhartu beharrezkoa; apaizak berriz, Eliza Eliz den bitartean, beharrezkoak dira. Gaurko diziplinarekin apaiz gabe

gelditez geroz, zer egin behar dute Holandako apezpikuek? Zer Ameriketakoek eta mundu guzikoek?

Elizaren onerako, apaiz ezkongea dira onenak, esan ohi da. Ez noa pentsaera hori eztabaidan jartzera. Hala bedi? Elizan, horrelako apaiz bikainak, nahiko neurrian sortuko ez balira? Onenak ez daukagunean, ahal dugunarekin etsi beharrean ez ote gara aurkituko? Diziplina bati eustearren Jaungoikoaren herria ezin daiteke utzi apaizik gabe, sakramenturik gabe, Jaungoikoaren hitzik gabe.

Olea maltea, badakit zure bertsoak seriozki ez nituela hartu behar. Holandako apaizak aitzaki hartuta, irribarre gozo bat sorrarazi nahi izan duzu zure irakurleetan... Aitzaki horrekin, bertsolariari hain atsegina izan ohi zalon ironia gozoa darabilzu zure irakurleen poz eta zorionenerako. Bai ongi iritsi ere. Zorionak damaizkitzut eta jarrai bide horretatik euskara eta Euskal Herriaren onerako. Ni ere bizitzan aurrea noalarik, malezian pixka bat sartuta nago eta banekien hasierako "Olea bertsogileari eskutitz agiria" rekin irakurle gehiago izango nituela, Mila esker, Olea, gaia eta irakurleak eman dizkidazulako. Luza bosteko hori. (1970-III-8).

2006ko euskal literatura¹

Ibon EGAÑA, Jon KORTAZAR, Iratxe RETOLAZA

Erregularitasuna, oreka, berritasuna

Denbora tarte jakin batean argitaraturiko literaturaren interpreta-zio orokorra egitera jotzen denean, irakurketak herstekeo arriskua dago, intuizio eta zehaztapen orokorregietara jotzeko arriskua. Halako ikuspegi orokor honen mugak onarturik ere, 2006. urtean argitaratu-riko euskal literaturaren maparen bide batzuk zedarritzen saiatuko gara, mapa anitz horretako zenbait bide zirriborrazteko baino ez. Duela gutxiko literaturari begiratzearen miopiaz jakitun, askotariko lanak bide zenbaitetan kokatzearen herrentasunaz jakitun.

2006. urtean argitaraturiko literaturari begiratzerakoan, ez zaigu iruditzen gertakari literario mugarririk egon denik. Argitaraturiko liburu-ruen artean oreka da nabari, baina oso liburu gutxi gailendu dira nabarmenki, eta gainera, ez da egon haustura estetiko eta poetiko-rik, ez behintzat haustura poetiko eta estetiko erabakigarririk. Bestalde, idazle kanonikoen argitaraturiko lanetan ere, ez da egon merezi-mendu berezirik jaso duen lanik, ez da egon idazle horien ibilbidean gailurtzat hartu den lanik. Dena den, lazko sorkuntzari dagokionez, honako ekarpen hauek dira aipatzekoak: idazle berrien agerpena, gaiaren berritzea, idazle ezagunek kalitatezko lanak argitaratu izana, eta saiakeraren sendotzea. Gailur gutxi, baina, oreka eta estetika aniztasuna azken aldiko euskal sorkuntzan.

Bestalde, 2006. urtearen ezaugarri nabarmenenetakoa izan da literatur itzulpenaren gorakada eta kalitatea. Euskal literatur sistema

1 Lan hau GIU 06/65 Ikerketa proiektuari esker egin da.

sendotu eta indartu ahala, nobela genero bezala indarra hartuz joan da, eta merkatuko beste generoei lekua kenduz, halako moldez non irakurleek, hala diote editoreek, nobelak eskatzen baitituzte nagusiki; alabaina, nobelaren argitalpena ez da, kopuruez ari garela, beste genero batzuen (ipuina, esaterako) baino askoz handiagoa (*Bazka* aldizkarian jasotako datuen arabera², 2006ko literatur ekoizpenen %36,49 izan ziren nobelak eta %32,43 ipuin liburuak). Nobela gose den irakurlego berri horri begira, zenbait argitaletxek itzulpenera jo dute (nahiz era oraindik minoritarioan), obra garaikideak eta literatur fenomeno gaurkoak itzultzeraz. Lehen ere gisa horretako ahaleginak egin badira ere, egia da nagusiki klasikotzat jotako literatur lanak itzultzea izan dela orain arteko itzulpen politika euskal literatur sisteman. Testuinguru honetan, nabarmentzekoa da Paul Auster-en *Brooklyn follies*en itzulpena, estreinakoz itzuli baita mundu mailako ospea duen idazle baten lana euskarara gaztelaniaz edo katalanez argitaratu den sasoi berean, edo egile beraren *Kristalezko hiria* nobelaren komikirako egokitzapenaren itzulpena (Txalaparta). Halaber, europar literaturaren izen aipatuenerarik diren Amélie Nothomb eta Antonio Tabbuchiren lanak euskaratu izanak ere itzulpenaren goraldiaren eta balizko normalizazio baten adierazpen lirateke. Horrez gain, nabarmentzekoa da gaztelerez oraindik argitaratzeke dauden (eta beraz literatur sistema espainiarraren onespenerik ez duten) hainbat lan euskarara ekarri direla 2006an, Michael Morpurgo ingelesaren *Peaceful soldadua*, Lydia Flem frantziarraren *Izua* edo Oh Jung-hi korearraren *Txoria* kasu (hirurak Alberdania etxean). Europar hizkuntzetan izentxoak egin duten liburuak, gaztelaniaren galbaheirik gabe, euskarara ekartzea izan da kasu honetan politika eta apustua, eta atzerriko narratiba garaikidea euskaraz normaltasunez irakurtzeko lehen urratsetakoak direla esan liteke. Beste hitzez esanda, euskal literatur sistema eta merkatua espainiarretik aparte, autonomiaz jokatzeko ahaleginak.

Edonola ere, zalantzarik gabe, euskaraz sortutako poesia, eta batez ere narratiba dira oraindik ere gaurko euskal sistemaren oinarriak. Horregatik, sarrerako ohar orokor hauen ondotik, genero horiez biez arduratuko gara bereziki, arlo bietan izan diren ekarpen interesgarriak biltzen saiatuz.

2 Ikus <http://www.bazka.info> aldizkariako datutegia.

2006an argitaratutako euskal narratiba

a) Orainari begira

Azkenaldiko euskal literaturak oraina eta bere kontraesan eta anibalentziak hartu ditu gogoetagai, eta aipagarria da idazleek egin duten ahalegina gure orinaldi hurbilekoena ulertzeko eta harra-patzeko, orinaldiaren interpretaziorako gakoak eskaintzeko. Presenterako hurbiltze eta interpretatze ahalegin hau, generoen ezaugarriengatik ziurrenik, narratiban eta salogintzan da nabarmena, eta azken genero honek –ez hain zentrala gure sisteman– eman du ale aipagarriarik arlo sozio-politikoan 2006an, nabarmentzekoak direlarik Joseba Zulaikaren *ETAren hautsa*, Joxe Azurmendiren *Espainiaren arimaz*, Xabier Agirrereren *Tolerantziaren gaineko disertazioa*, Xabier Arregiren *Herria, hiria, nazioa* edo Joseba Azkarragaren *Mendebaldearen mintzo mindua*. Maiz aktualitate eta errealitate sozio-politiko zehatzetik abiatuz, bestetan kontzeptu teorikoak abiapuntu hartuta (hiria, tolerantzia), saio hauek badakarte argirik sakontasun handiko gatazka eta eztabaldetara, dela nazioa eta nazionalismoak, dela (post)modernitatea, dela mendebaldeko zibilizazioa.

2006an ikusi zuten argia, halaber, literatur kritika eta teoriaren inguruko lan garrantzitsu zenbaitek, beren ekarpenen berritasunagatik aipagarri. Manu López Gaseniren *Literaturak umeei begiratu zienean* edo Joseba Gabilondoren *Nazioaren hondarrak. Euskal literatura garaikidearen historia postnazional baterako hastapenak* artikulu bilduma heterodoxoa dira horren lekuko. Horrez gain, euskararen inguruko hausnarketari eskaini zaizkio hainbat gogoeta lan; hizkuntza politikaz eta hizkuntzaren biziraupenaz hausnartzeko helburuz batzuk (hara hor Luis Haranburu Altunaren *Euskararen doluminak*), euskararen adierazkortasunean eta ahalmen espresiboetan sakontzeko helburuz besteak (arnas ludiko nabariz egindako David Anauten *Txokotik zabalera* eta Iñaki Arranzen *Hitza azti*).

Nabarmentzekoa izan da, beraz, salogintzak orinaldiari begiratzeko izan duen ausardia, eskaini duen ikuspegi aniztasuna eta hainbat saio-lanen balio literarioa. Badirudi azkenaldian genero honen sustapenerako antolatutako beka deialdi eta sariketek izan dutela eraginik salogintzaren loraldian, kopuruzkoa soilik ez den goranzko joeran.

Harreman imperfektuak

Orainari begiratzen dioten lanen artean, badira giza harremanak irudikatzeke asmoari lotzen zaizkion lanak, eta batez ere giza harremanetan erroturiko inkomunikazioaz mintzo direnak, edo behinik behin elkar ulertzeko zailtasunaz jarduten dutenak. Xabier Etxaniz Rojok (Donostia, 1971) *Nork bere ozeanoa* izenburupean bilduriko narrazio laburretan bikoteen arteko komunikazio-arazoak kontatzen dira, gehien-gehientsuenetan bikote heterosexualen artekoak. Etxaniz Rojok ez du sakontzen giza harreman hauek gertatzen direneko espazio eta denboran, eta halako deslokalizatze horrek, dirudienez, ezin ulertu horiek are ikusgarriagoak egin nahi ditu, eta batez ere giza harremanetan gertatu ohi diren ezin ulertu horiek orokortzeko gogoia ere iradokitzen da. Antzeko bideari eutsi dio Patxi Iturregik *Dioramak* (Laudio, 1952) bilduman, izan ere, narrazio labur hauetan guztietan testuinguru geografiko eta kulturala aldakorra eta anitza da, eta hartara, kontatzen diren istorio horiei nolabaiteko "izaera" unibertuala eman nahi zaie, baina, aldi berean, irakurlearengan noraeza sentiarazteko gogorik bada izan.

Beste alde batetik, Laura Mintegik andre-gizonen arteko komunikazio eta ulermen arazoak jorratzen ditu *Ecce homo* nobelan, eta horretarako, nobelan zehar maskulinoa eta femeninoa deskribatu eta zehaztu egiten da, eta bi ardatz horien arteko elkarriketan mamitu da nobela. Andre eta gizonen arteko inkomunikazio hori nobelako gai nagusia izan arren, gatazka sozialari ere bide eman dio, eta are gehiago, gatazka sozial horretan kokatu du gizon eta emakumezkoen arteko komunikazio falta. Gatazka sozial hori, Urdaibaiko natur parkean eraiki nahi den zubi baten inguruan harilkatu da.

Giza harremanak jorratu dituzten liburuen artean, aipatzekoak dira bi nobelagile berriren lanak, haien lehen nobelarekin berrikuntza tematikoa etorri da, euskal literaturan ezohikoak ziren giza harremanak jorratu dituztelako. Karmele Jaiok (Gasteiz, 1970) ama-alaba arteko harremana jorratu du bere lehen nobelan, *Amaren eskuak* nobelan. Nobela honetan 35 urteko kazetari batek amarekin duen harremana kontatzen digu, ama gaixotu denetik harekin duen harremana du kontagai, inkomunikaziotik abiaturikoa eta komunikaziorantzko bidea egingo duena. Nobela hau irakurleen artean izandako harrera beroari esker nabarmendu da, ziur asko, hartzailleak eskatzen duen berrikuntza tematiko horri ere erantzun diolako.

Irati Jimenez (Mundaka, 1977) dugu bigarren nobelagile berria, berrikuntza tematikoa ere ekarri duena *Bat, bi, Manchester* nobela laburrean. Manchesterren kokaturiko nobela honetan pisu berean bizi diren bi euskaldunen arteko harremana kontatzen da. Horietariko bat, narratzailea, homosexuala da eta bere pisukidearekin maitemintzen da, itsu-itsuki maitemintzen da, baina, pisukidea heterosexuala da. Estereotipoetatik hurbilxe bada ere, jorraturiko gaia nahikoa berria eta gutxi ibilia da euskal literaturan. Gainera, berrikuntza tematikoa ez ezik, nobela honek ere berrikuntza formala eta estetikoa landu ditu, idazle berri honen dohainen erakusle.

Hiriak

Topo narratibo bezala, hausnarketa literarioaren erdigune gisa, edo hainbat narrazioen arteko batasun-hari bezala hiriak protagonismo aipagarria bereganatu du azken labealdiko euskal narratiban, eta baita beste genero zenbaitetan ere (salogintza, Iván Igartuaren eta Juan Ramón Makusoren poema liburuak edo Ana Urkizaren *Mire hiriko poemak* haurrentzako bilduma, kasu).

Reno hiria hartzen du, esaterako, ardatz espazial bezala Javi Cillerok (Bilbo, 1961) bere bigarren narrazio bilduma haren inguruan osatzeko. Narrazio autonomoak dira Cillerorenak eta hari finak dituzte elkarren lokarri (pertsonaiak, motiboak, eszena errepikatuak...); guztiek dute batzen, halaber, milurteko berriaren etorrera dela eta halako estrainiamendu, ilusio, esperantza eta eszeptizismo kutsu bat, zerbait aldatzera doalako aurrentipena. Mende aldaketak eta Renok, basamortu erdian eraikiriko hiriak osatzen dute, beraz, marko espazial eta tenporala halako mikrokosmos bat osatzeko, non gizon eta emakume garaikideen kezka, desira, gabezia, ezin eta ziurgabetasunak islatzen baititu egileak. Gaurko Iparramerikako ipuingileen zordun den poetika eta estilo batetik idazten du Cillerok, lengoai zinematografikoak blaitutako hizkuntzaz, jolas eginaz eta eginaraziz errealitatearen eta fikzioaren arteko muga gero eta lausoagoekin, autentikoaren eta simulakroaren arteko banalerro nabarrarekin. Reno aitzakia da, beraz, gaurko gizaki mendebaldarraren anbiguak eta arakatzeak.

Bestelako hiri baten inguruan bilbatuak dira, bestalde, Xabier Montolaren (Gasteiz 1955) azken narrazio liburuko ipuinak ere; geografikoa bainoago kontzeptuala eta teorikoa den hiri baten inguruan:

euskal hiriaren jiran, alegia. Izan ere, Montoiaren narrazioak eta bildumaren planteamendua nolabait Bernardo Atxagak formulatutako euskal hiri kontzeptuari fikzio itxuran emandako erantzuna dira. Atxagak parametro utopikoetan planteatutako hiri ereduaren aurrean (hiritartasun eskubideetan oinarritutako espazio bat), ifrentzua erakusten dute Montoiaren kontakizunek, Euskal Herri erreala, alegia; distopiatik utopiatik baino hurbilago dagoen Euskal Hiri, alegia. Euskal gizarteko ahotsen aniztasuna biltzea helburu duen egitasmotan anbiziotsua da gasteiztarrarena, hainbat espazio eta gizarte maila testuratzen dituena, guztietan ere nabarmen azaltzen direlarik *hiri* horretako balore nagusiak, guztiak ere hiritartasun utopiko batetik urrunekoak: traizioa, hipokrisia, saldukeria...

Espazio ez espreski urbanoetan kokatuta egonagatik, Jon Alonso salogile eta nobelagilearen estreinako narrazio bildumak, *Erretzailleen eremuak*, badu loturarik Montoiaren liburuarekin; komunean baltituzte hainbat motibo eta kezka: literatur eta kultur inguruetakoa hipokrisia edo eta aldaketa handiek (sozial, ideologiko edo teknologikoek) azpian harrapatutako hiritarrek duintasunagatik egindako borroka dira bi bildumek partekatzen dituzten gaietakoak. Narratiba laburraren hainbat tradiziotara jotz, Alonsoren narrazioek tematika sozio-politikoaren lantzen duten ipuinak (utopien krisia eta bere ondorioak azpimarratuz), nahiz barruranzko begiradadunak, intimoagoak nahiz gogoeta metaliterarioa bideratzen dutenak bildu ditu, ipuin bakoitzari beharrezkoa zaion perspektiba narratiboa, ahotsa eta giroa emanaz.

Alonsoren lanean bezala Montoia edo Cillerorenean, garrantzi berezia hartzen du proiektu handien eta azalpen oro-biltzaileen krisiaren gaineko gogoetak, eta horrek gizartearen nahiz banakoarengan eragiten dituen kontraesanak arakatzera zuzentzen du idazleak lupa.

Migrazioak

Orain eta hemen gertatzen denaz aritzean, gaurko gizartearen kontraesan eta gatazkez aritzean (dela euskal gizartea, dela europar edo mendebaldarra) nahitaezkoa da migrazio mugimenduez eta beren herrialdeak utzitako pertsonen aritzea ere, eta, hala, mundu garaiakideko migrazioak euskal narrazioaren gogoeta gai bihurtuz doaz apurka. Pablo Sastrearen (Madril 1958) *Enpleguaren arbolak* Mixaren gorabehera eta pasadizoak kontatzen ditu: gipuzkoar herri koxkor batean bizitzen jarritako etorkin errusiarra da bera, gutxi-asko era

behartuan insertzio laboreko programa batean ari dena. Literaturan maiz nagusitzen den immigrantearekiko jarrera biktimista edo karitatezkoa baztertuta, Sastrek pertsonaia konplexua sortu du, gertukoa eta sinesgarria, eta zalantzan hartzen ditu, lanerako pertsonaiak duen motibazio faltarekin, gizarte kapitalistak lanari ematen dion nagusitasun erabatekoa. Obra korala da Sastrerena, tragedia txikiez tonu minorretan mintzo dena, eta gaurko zibilizazioaren norabideaz hainbat galdera eginarazten dituena.

Gaurko gizarte europarrak etorkin legez kanpokoel ezartzen dien patu krudelaren salaketa jasotzen du oso modu ageriko (eta hein batean panfletarioan) Paddy Rekaldek (Bilbo 1964) *Ragga ragga dator gaua* nobelan. Bertan, etorkin baten heriotza euskal preso politiko batenarekin parekatzen da, biak ere ahula heriotzera kondenatzen duen gizarte eredu jakin baten biktimizatut aurkeztuz.

Immigrazioez dihardu halaber, Ixiar Rozasen (Lasarte 1972) *Ne-gutegia* eleberriak, baina ikuspegi historikoago eta paneuropar batekin. Dede eta Emik Berlinetik eta Bartzelonatik Gorgonara (Livornoko kostako irla batera) egiten dituzten bidaiak abiapuntu hartuta, nobelak koordenada tenporal eta espazialetan atzera-aurrera egiten du jolas, eta galtzailleen istorio txiki eta zatikatuen bidez, XX. mendeko Europaren gaineko begirada poetikoa eskaintzen du, bazterrean utzi gabe gaur egungo gatazka eta problematikak, hala nola, globalizazioaren ondorioak, hiri handietako bakardadea, deserrotze sentimendua... Begirada poetikoak eta poesiatik hurbil dagoen prosa poetikoak ematen diote batasuna istorio txiki eta zatikatuez osatutako nobela honi.

Informazioaren gizartea

Oraina harrapatzeko saio hauetan, migrazioen inguruko eta espazio urbanoen inguruko narrazioez gain, 2006ko euskal literaturan egon dira gaurkotasun handiko beste espazio bat hausnarketara eraman duten lanak ere: espazio mediatikoa, hain zuzen ere. Patxi Zubizarretaren (Ordizia, 1964) *Txantxa*. *Quick* nobelak eta Nora Arbelbideren (Uhartea Garazi, 1980) Goizeko zazpiak nobelak informazio-gizartearen oinarri diren espazio mediatikoez mintzo dira. Bi nobela hauetan, informazioak mediatizaturiko gizartea birsortzeko, alegia, medio audobisualek eta espazio zibernetikoak mediatizaturiko gizartea birsortzeko, berebiziko garrantzia hartzen dute baliabide tipo-

grafikoek eta berrikuntza formalak. Bi nobela hauetan, beraz, hitzaren izaera bisuala nobelaren ardatzetariko bat da.

Alde batetik, Zubizarretaren nobela hirigune arrunt bateko egunerokotasunera eginiko hurbilketa da. Hurbilketa honetan ugariak dira komunikabideen inguruko hausnarketak, eta baita segurtasun sistema eta zaintza-sistemen inguruko hausnarketak ere. Hartara, aurrez aurre jartzen dira komunikazio-bide posible horiek guztiak eta gaur egungo gizon-emakumeek bizi dituzten inkomunikazio egoerak. Gaur egungo gizartearen segurtasun eza, harridura eta ezbaiak adierazteko egileak baliabide estitistiko eta formal anitz erabiltzen ditu (fragmentazioa, eskuizkribuen erreprodukzioa, grabazioen transkribapena –zalantza, zuzenketa eta guzti–).

Beste alde batetik, Nora Arbelbideren estreinako nobelak, *Goi-zeko zazpiak*-ek, informazio gizartearen ikuskera parodikoa eskaintzen du. Parodia hori mamitzeko, arrakasta duen musika talde baten bahiketa kontatzen da, disketxe batek merkatuaren legera sorturiko musika taldea. Bahiketa hau bi norabidetarantz zuzenduriko diskurtso parodikoa harilkatzeko anekdota baino ez da; batetik, ikerketa-kazetaritzaren ikuskera parodikoa eskaintzen du; bestetik, intrigazko generoa ere parodiatu egiten du (alegia, mass mediatan arrakasta handiena duen generoaren parodia egiten du).

Intrigazko genero hori gaur egungo kultur adierazpide gehiengotan arrakasta handikoa bada ere, 2006ko euskal literaturan gutxi jorraturiko generoa da. Baina, bada alpatu beharreko ekarpena, batez ere serie-hiltzailearen irudia euskal literaturara ekarri duelako, eta bide horretatik, nahikoa trama berritzailea osatu duelako. Alberto Ladrón Aranaren (Iruñea, 1972) *Arotzaren eskuak* nobelaz ari gara. Nobela honetan suspensea eta intrigari neurria hartzen zale egungo gertakariak eta gertakari historikoak elkarlotzen dituen trama osatuz, thriller historikoaren ildotik. Intriga eta gertakari historikoak lotzeko, Bigarren Mundu Gerratean gertaturiko zenbait gertaera ikertu beharrean egongo den gazte bat aurkezten digu.

Nobela honetan, beraz, orainaldian kokaturiko begiradak iraganen kokaturiko gertakariak ikertzen ditu, orainalditik iraganera jauzika ibiliz, orainetik iraganen haztaka ibiliz. Dena dela, thriller historikoari dagozkion ezaugarriak kontuan harturik, iraganetik eginiko ibilbide hori nahikoa azalekoa da, intrigarako aitzakia baino ez da, ez du gertakari historikoetan sakontzeko asmorik.

Iraganetik eginiko ibilbide azkar honetaz gain, 2006ko sorkuntzan egon da iraganean iltzaturiko begirada sakonagorik, asmo sendoagorik.

b. Iraganari begira

Begirada historikoa

2006. urtean historiari begiratzen dioten bi nobela aipagarrienak XVI. mendean kokatzen dira. Kuriosoa da bi nobela historiko hauetan tarte historiko hau jorratu izana, izan ere, euskal nobela historikoak sarriago ekin dio irakurketa politikoari loturiko gertakariak jorratzeari (esate baterako, 36ko gerra, gerra karlistak edota trantsizio garaia), irakurketa literario-historikoari loturiko gertakariak jorratzeari baino. Bi nobela hauetan begirada historikoak euskal literatura idatzian garrantzia handikoa izan zen garaira garamatza, XVI. mendera; alegia, euskaraz idatziriko lehen liburua inprimatu zeneko garaira garamatzate bi nobelek, Bernard Etxepareren *Linguae Vasconum Primitiae* (1545) liburua argitaratu zeneko garaira. Ildo horretatik, Bernard Etxepare idazlea da Joxan Oizen (Donostia, 1969) *Beñat Dardo* nobelan fikziora bihurtzen den pertsonaia, idazle horren irudia berrituz eta berrirakurritz. Horretarako, Etxepareren ibilerak dira kontagai, kartzelan poemak idazten hasi zenetik liburua argitaratu zuenera arte. Ibilbide horretan, aipagarria da idazle honek borroeroarekin duen harremana, nobelaren lehen aldean oso ondo mamitu dena, baina nobelaren amaiera aldean ahulxeago ibilli dena.

Borroeroaren pertsonaia ere aipagarria da Aingeru Epaltzaren (Iruñea, 1960) *Mailuaren odola* nobelan. Hemen ere Etxepare idazlea eta bere obra aipatu egiten dira, baina protagonismoa batik bat euskal literaturaren historiako beste idazle batzuek hartzen dute: Joanes Leizarraga, eta batez ere Pedro Axular, nobelaren pasarte batzuetako idazle ere badena. Nolanahi ere, Epaltzaren nobelak XVI. mendeko Nafarroako Erreinuari begiratzen dio, Borboi eta Albret dinastietako oinordeko sasikoa den Joanes Mailu protagonistaren ikuspuntutik, garaiko gatazka politiko eta erlijiosoak hauspotuz.

Bestalde, 36ko gerrak ere idazleengan interesa sorrarazten du. Interes honi erantzuten dio Xabier eta Martin Etxeberria (Zarautz, 1974) anaiek argitaraturiko *Ez dadila eguzkia sartu* nobelak. Lan

honetan gipuzkoako futbolari baten biografia oinarritzat hartuz, 36ko gerra pil-pilean zegoen hartan euskal selekzioak Europan zehar egini-ko bidaiak kontatzen zaizkigu, izan ere, futbol jokalaria hauek guztiek Europan zehar futboleant aritu ziren, baita hainbat partida irabazi ere, guda-zelaian gerra galdu egiten zen bitartean.

Historiaren eta fikzioaren artean

Non amaitzen da historia eta non hasten literatura? Non dago errealia eta fikzioaren arteko banalerroa? Horiek eta irakurlea maiz asaldatzen duten antzerako beste galdera batzuk daude 2006an argitaratutako bi libururen oinarrian: Jose Enrike Urrutia Capeauren (lurreta 1954) *Ergelen nonbrea* eta Jesus Mari Olaizola *Txillikuren Bizitza eredugarriak*, joera klasikoa eta izaera ludikoa ezaugarri dituztenak biak ere. Schwob edo Borgesen ekarrien bidetik eta asmo ludiko eta umorezko garbiz, Txillikuk elementu erreal eta fikziozkoekin jolasten du, hogeitabost biografia "eredugarri" (ohar bedi ironia) osatu arte; entziklopedia nagusietan ez dauden hogeitabost pertsonaiaren biografia bana eman du Txillikuk, egiazko gertaeretan oinarrituak maiz edonola ere, eta eredugarritzat aurkezten diren pertsonaia eta gertakarien eredugarritasuna ezbaian jartzea helburu hartuta. Urrutia Capeauk, bestalde, historiaren eta literaturaren arteko mugarekin jolas egiten du, denboran zehar bidaia bat proposatuz hainbat istorio-oren bidez (erreal nahiz fikziozko), zeinek komunean baitute ideia orokor bat: pertsonak beren patuaren jabe direla eta jasaten dituzten zorigaitzen arduradun. Egileak bere klasikozaletasuna berresten du beste behin ere, dela tematikoki (Grezia klasikoa hainbat narrazioen kokaleku eta inspirazio-iturri hartuta), dela formalki (XVI. mendeko prosa klasikoan inspiratzen baita bere idazkera).

Memoriaren denbora

Iraganari eginiko begirada hauetan, badira memoriaren denborari erantzuten diotenak ere. Nobelan, Anjel Lertxundik (Orio, 1948) fikziozko memoria aipagarria sortu du *Ihes betea* lanean. Judu baten memoriak osatu ditu nobela honetan, judutar jatorri hori ezezagun zuen gazte hitlerzalearen memoriak, hain zuzen ere. Judutarra dela jakitea, jakina, mugarri izango da haren bizitza eta nortasunaren garapenean, eta Alemaniatik ihes egin beharko du, Italiatik, Frantziatik, eta abarretik ibiltzera beharturik. Pertsonaia honek, hortaz, ihes fisiko

eta psikologikoa abiatzen du, memoriaren eta aitortzaren denboren artean gorpuzturiko ihesa, eta ikuspegi moral konkretuetara lerratzen dena, egilearen ibilbide narratiboaren bidetik. Beraz, nobela honek Anjel Lertxundiren ibilbide literarioan berrikuntza tematikoa badakar ere, jorraturiko ikuspegiari lotu zaio.

Fikziozko memoria hauekin batera, 2006ko urtean memoria pertsonal zenbaiten argitarapena ere aipatzekoa da. Memoria pertsonal hauetan gertaera autobiografikoak kontatzen badira ere, birsortze narratiboak badu pisua. Batetik, Jose Ramon Golkoetxeak, "Ardo-txi"k, *Mentxakaren aitortpena* liburuan 60ko eta 70eko hamarkadetan ETako kide zela bizitakoak kontatzen ditu, bere lekukotzaren berri emanez. Bestetik, Jokin Urainek (Mendaro, 1959) *Errotarria* liburuan kartzelako kronika eta memoria egiten du, preso politikoak hartuz gune eta foko komun gisara, 36ko gerratik gaur egunera arte.

Horiek horrela, 2006. urtean argitaraturiko euskal narratiban denbora eta espazio anitz bisitatu eta birsortu dira.

2006an argitaraturiko euskal poesia

2006. urtean argitaraturiko euskal poesiari begiratzerakoan, azken urteetako poesian ere aipatzekoak diren bi ezaugarri igartzen dira. Lehenik, paradoxikoki, gustua markatuagoa den momentu honetan, urtero-urtero argitaraturiko lanen kopuruak behera egin du –egile bakarreko liburuak kontuan hartuz, eta argitaratu berri direnak kontuan hartuz–, baita argitaraturiko ale-kopuruak ere, eta gainera, irakurleen kopuruak ez du gora egin. Bigarrenik, poeten lanak erakar-garriak egiten dituzten bi ezaugarri aipatu behar dira: alde batetik, oroitzen diren literatura-lanak izan ohi dira –narratibazko lanekin alderatuz, azken hauek azkarrago ahazten direlako, azkarrago arintzen delako haiekiko estimua–; beste alde batetik, sorkuntza poetikoa pertsonalaren eta indibidualaren eremuan mugitzen da, eta hartara, hizkera adierazkorrak sortzeko joerak eta esperimentaziorako joerak gailentzen dira.

Berreskuraturiko poemak

Urtea Koldo Izagirrek (Altza, 1953) musika-taldeentzat eginiko testuen bildumarekin abiatu zen. Izagirreraren azken poesia-liburua

1997. urtean argitaratu zen, eta izagirrearen narrazio-lanak nahikoa erregulariki argitaratu badira ere hamar urte hauetan zehar, isiltasunaren bidea harturik zuen lirikaren esparruan. Hartara, *Teilatuko lizarra* bilduman urte horietan guztietan katurako idatziriko testuak bildu dira, baina, jada poesia liburuetan ezagunak ziren poemak ere bildu dira, poema hauek kantuak eraman izan badira. Liburuaz besteko komunikazio-bideetan hedaturiko testu hauen bildumak, idazketa argiago baterantz hurbiltzea ekarri du, baina betiere idazlearen kezka iturri bertsuei eutsiz (ironiaren ikuskera, alegoria nazionala, hizkuntzaren tradizioa/transgresioa, eta abar).

Katurako eginiko edota katurako erabilitako testuen bilduma dugu Xabier Letek (Oartzun, 1944) argitaraturikoa ere, *Abestiak eta poema kantatuak*. Bilduma honetan poetaren ibilbidearen joera existentzialista gailentzeaz gain, egilearen autopoetikarako zedarrri batzuk ere ezartzen dira, dela egileak idatziriko hitzaurre pertsonalean, dela bildumaren azken partean txertaturiko bi elkarrizketa mamitsuetan.

Poeta biren obra

Emakumearen idazketaren presentzia geroz eta handiagoa da euskal literaturaren eta euskal poesiaren munduan. 2006an Leire Bilbao (Ondarroa, 1978) lehen poema liburua argitaratu du, *Ezkatat*, harrera oso ona izan duena eta identitate femeninoaren ertzak arakatzen dituena. Horrez gain, bere lengoia poetikoak arreta erakarri du itsas giroa metaforizatzen baitu, orain artean gutxi landutako mundua euskal sorkuntzan.

Castillo Suarez (Altsasu, 1976) zazpigarren poema liburua eman du argitara: *Bala hutsak*, bere poetika bereziaren beste erakustaldi bat: poema laburrak, eguneroko pertsonal baten atalak –nahiz ez duen egunerokoaren formarik ez idazketa datarik–, non egunerokotasunarekiko zaletasuna uztartzen den nostalgiaz eta dezepzioz ziprztindutako gogoetarekin. Errealitatearen eta sentiberatasunaren arteko talkak jarraitzen du izaten poema fragmentatuetan adierazitako munduaren oinarri.

Poesia eta hiri

Ivan Igartuak (Gasteiz, 1972), filologia eslaviarrean lizentziaduna, lehen poema liburua argitaratu du, Gabriel Arestiren oihartzun nabarmenak dituena, izan ere, *Harrizko hiri hau* poema liburuaren izenbu-

ruak bilbotarraren poetikan funtsezkoa zen "harri" hitzarekin jolas egiten du. Ivan Igartuaren harrizko hiria materiako hiri da, baina baita hitzezkoa ere. Ez da alferrekoa egilearen filologia eslaviarreko formazioa aipatzea, horrek bere testuartekotasuna harremanetan jartzen baitu literatura erteupar eta errusiarrarekin. Gabriel Aresti eta bere harria bere poesiaren hastapenean badaude, poetarekiko elkarrizketarako aitzakia gisa, ez litzateke ahantzi behar poesia sozialak marko bezala balio duela, Igartuaren eskuek landuta, gaurko Euskal Herriko biolentzia egoeraren salaketa egiteko, "Heriotza eta ideiak" bezalako poemetan.

Hiria marko eta gai bezala darabil Juan Ramon Makusok (Errenteria 1961) *Hiri gorazarre* liburuan, izenburuak anbiguotasun bat gordetzen duela ("hiriari" eta "hiri" egindako gorazarrea, alegia). Bada parekotasunik bilduma honen eta Ivan Igartuaren aurrekoaren artean. Juan Ramon Makusorenean ere Gabriel Arestiren Itzal babes-emallea da, nahiz eta poeta honek gurago duen Aresti sinbolikoa konprometitu eta soziala baino. Poemak zabalak dira, hiriaren gaineko begiradak giza kondizioaren gaineko gogoetara baitarama egilea.

Poesia eta artea

Urtearen amaleran honako poeta hauen lanak eman zituen argitaratu. Gerardo Markuletaren (Oñati, 1962) *Ezjakitasunak* liburua traza argiko poesiak, iradokizunaren poesiak, adierazpide erritmikoaren poesiak osaturik dago.

Koldo Izagirrek, kantu-bildumaren ondoren, *Rimmel* liburuan aita-alaba arteko elkarrizketa trinkoa sortu du. Elkarrizketa alabaren jaiotza-unean abiatu egiten da, eta alabak gurasoekiko dependentzia urratzean itxi. Poemarioaren batasuna ibilbide biografiko bikoitzaren hartu-emanek osatu da: batetik, alabaren ibilbide biografikoa dago; bestetik, ni poetikoaren ibilbide biografikoa, aitarena. Elkarren osagarri, elkarren eragile. Poesia eskuragarriagoa eta argiagoa egin du, adierazpide banguardista eta surrealistez leundurik, eta aldi berean, poesia-lan handi baten gakoak gordetzen dituena: ironia, errebeldia, lengoia poetikoaren erabilera aberatsa, irudian trinkoturiko forma poetikoak, lengoia poetiko anitzen nahasketa (narrazioa –baita kostunbrismoa ere–, fabula, haur poesia, tradiziozko metro eta formen elaborazioa...).

Amaia Iturbideren (Bilbo, 1961) poesia argitaratu gabe egon da

1994. urtetik aurrera. Isiltasun hori hautsiz argitara eman berri du Madrilén, bi hizkuntzatan eginiko edizioan: *Lore mutuak eta tuaren ezkontzak. Flores mudas y las bodas de la saliva*. Iturbidek artea- rekin solasean den poesia egiten du, gauzen interpretazio sakonen bila dabilzan testu sinbolikoak sortzen ditu, errealitatearen ikuspegi berezia sortuz.

Poesiaren ekarpen berri hauek estetika hegemonikorik gabeko panorama uzten dute agerian, baina, halaber, kezka iturri bertsuetatik edaten duten sorkuntza lanak izanik: errealitatearekiko kezka, egunerokotasunarekiko kezka, eta errealitatearen interpretazio pertsonalekiko kezka.

Aipaturiko lanak

Itzulpen lanak

Auster, Paul. *Brooklyngo erokeriak*, Alberdania [Itzultzailea: Oskar Arana]

Auster, Paul. *Kristalezko hiria*, Txalaparta [Itzultzailea: Harkaitz Cano]

Flem, Lydia. *Izua*, Alberdania [Itzultzailea: Joxan Elosegil]

Jung-Hi, Oh. *Txoria*, Alberdania [Itzultzailea: Juan Kruz Igerabide]

Morpurgo, Michael. *Peaceful soldadua*, Alberdania [Itzultzailea: Mirentxu Larrañaga]

Nothomb, Amélie. *Katilinarenak*, Igela [Itzultzailea: Joxan Elosegil]

Tabucchi, Antonio. *Pereirak dioenez*, Igela [Itzultzailea: Fernando Rey]

Saiakera

Agirre, Xabier. *Tolerantziaren gaineko disertazioa*, Pamiela.

Anaut, Dabid. *Txokotik zabalera*, Alberdania.

Arranz, Iñaki. *Hitza azti*, Alberdania.

Arregi, Xabier. *Herria, hiria, nazioa*, Pamiela.

Azkarraga, Joseba. *Mendebaldearen mintzo mindua*, Euskaltzaindia-BBK

Azurmendi, Joxe. *Espainiaren arimaz*, Elkar.

Gabilondo, Joseba. *Nazioaren hondarrak. Euskal literatura garaikidearen historia* postnazional baterako hastapenak, EHU.

Haranburu Altuna, Luis. *Euskararen doluminak*, Elea.

López Gaseni, Manu. *Literaturak umeei begiratu zienean*, Pamiela.

Zulaika, Joseba. *ETAren hautsa*, Alberdania.

Ipuin liburuak

- Alonso, Jon. *Erretzailleen eremua*, Susa.
 Cillero, Javi. *Ero hiria*, Alberdania.
 Etzaniz Rojo, Xabier. *Nork bere ozeanoa*, Erein.
 Iturregi, Patxi. *Dioramak*, Elkar.
 Jiménez, Irati. *Bat, bi, Manchester*, Elkar.
 Montola, Xabier. *Euskal hiria sutan*, Elkar.
 Olaizola, Jesus Mari "Txilliku". *Bizitza eredugarriak*, Elkar.
 Urrutia Capeau, Jose Enrike. *Ergelen nonbrea*, Pamiela.

Nobelak

- Arbelbide, Nora. *Goizeko zazpiak*, Elkar.
 Epaltza, Aingeru. *Malluaren odola*, Elkar.
 Etxeberria, Xabier eta Martin Etxeberria. *Ez dadila eguzkia sartu*, Elkar.
 Jalo, Karmele. *Amaren eskuak*, Elkar.
 Ladrón Arana, Alberto. *Arotzaren eskuak*, Elkar.
 Lertxundi, Anjel. *Ihes betea*, Alberdania.
 Mintegi, Laura. *Ecce homo*, Txalaparta.
 Oiz, Joxean. *Beñat Dardo*, Susa.
 Rekalde, Paddy. *Ragga ragga dator gaua*, Susa.
 Rozas, Ixiar. *Negutegia*, Pamiela.
 Sastre, Pablo. *Enpleguaren arbola*, Susa.
 Zubizarreta, Patxi. *Txantxa. Quick*, Erein.

Memoria eta lekukotasuna

- Goikoetxea, Jose Ramon "Ardotxi". *Mentxakaren aitorpena*, Elkar.
 Urain, Jokin. *Errotarria*, Susa.

Poema

- Bilbao, Leire. *Ezkatak*, Susa.
 Igartua, Iván. *Harrizko hiri hau*, Hiria.
 Iturbide, Amaia. *Lore mutuak eta tuaren ezkontzak. Flores mudas y las bodas de la saliva*, Atenea.
 Izagirre, Koldo. *Teilatuko lizarra*, Susa.
 Lete, Xabier. *Abestiak eta poema kantatuak*, Elkar.

Makuso, Juan Ramon. *Hiri gorazarre*, Elea.
Markuleta, Gerardo. *Ezjakintasunak*, Elkar.
Suárez, Castillo. *Bala hutsak*, Elkar.

libelak

libelak

libelak

libelak

libelak

libelak

libelak

libelak

libelak

libelak

libelak

libelak

libelak

libelak

libelak

libelak

libelak

libelak

libelak

libelak

libelak

libelak

libelak

libelak

libelak

libelak

libelak

Axularren Gero liburuaren bigarren argitalpena lehenaren argitan

Patxi SALABERRI MUÑOA

1.- Gauza jakina da Geroren lehen edizioa, argitalpen gehienak bezalatsu, akatsekin eta gabeziekin atera zela inprimategiko iluntasunetik, eta, ondoren, ohi legez, zuzentzaileei egokitu zitzaieela hala-holako konponketa-lanari ekitea, hizki eta hitz okerrak eskuz zuzenduz edota faltan zituen testu zatiak orri bazterretan idatziz.

Baina jatorrizkoak edo ziruditen zenbait zuzenketatik at, inoiz ez da argiegi egon zein ziren inprintako zuzentzaileak/ek egindakoak eta zein isuri diren beranduagoko irakurtzaileen lumatik.

Eta hau gertatu da, besteren artean, aleen segimendu eta konparazio xumeenak ere burutu ez direlako, lehendabiziko plantxetatik sortutako Gero "bizi" gehienak, gutxi izateaz gainera (zenbat ote?), mundu zabalean sakabanatuta zeudela uste baikenuen. Sakabanatuta eta eskuraezin, hain zuzen.

Aurriritzi hedatu horren ondorioz, hemen inguruan sona gehiegi-rik gabe gordeak genituen aleak ere ez dira luzaroan behar bezala balliatuak izan.

Edozein modutan, eta zenbakien sinbologiak lepotik harrapatuak bagintu bezala, zazpi ale bide dira Euskal Herrian ditugunak. Guk dakigula, bi ale J. Urkixoren funtsetan (Donostiako Koldo Mitxelena Kulturgunean), beste bi (bata, antza denez, zeharo hondatua) Bergarako Lacombe Fundazioan, bosgarrena Euskaltzaindiko Azkue Liburutegi bilbotarrean, seigarrena Gasteizko Legebiltzarreko liburutegian eta azkena, Orreagako liburutegikoa, bertako museoan, ikusgai. Guz-

tiak dira "jola ederrak", baina, erraz egiazta daitekeenez, ez guztiak hein berean aprobetxatuak izateko modukoak.

Bestalde, azken bolada honetan Geroren bigarren edizioa bilakatu da albiste, besteak beste, haren faksimil bat kaleratu berri delako.

Bigarren argitalpena, ezaguna da, ez da lehena bezain bakana eta arraroa, baina, egia esan, hamaika buruhauste sorrarazi dizkie ikerlariei, besteren artean lehendabizikoaren aurrekotzat ere hartu izan balta maiz asko.

Oro har, iritzia onartua da lehen edizioaren imitazio¹ kaskar bat dela Geroren bigarren hau, eta ez bakarrik tipografia aldetik arreta eta sentsibilitate estetiko gutxiagorekin burutua delako². Vinsonek idatzi bezala, "l'édition [...] est d'ailleurs beaucoup plus incorrecte que l'original" (1891: 1984, 87).

Nolanahi ere den, *Geroko Gero* izenburuarekin eta datarik gabe³ kaleratu zen bigarren honek hainbat elementu interesgarri eta gogoan hartu beharreko ditu bere baitan. Eta harrigarri lirudikeen arren, horietako zenbait lehen edizioaren testu-ibilbidea argitzeko balia litezke. Lacombek zioen bezala, "cette seconde édition, beaucoup moins rare que la première, mais précieuse non obstant, fourmille d'errata, encore que par endroits elle soit plus correcte que l'originale. D'où l'on peut inférer que pour une réédition définitive du livre de

1 Lehen edizioari dagozkion testu-zuzenketak zein distortsioak jasotzen dira bertan, hurrengo orrialdeetan ikusiko den legez. Bihoa lehendabiziko erakusgarri gisa 59. kapituluako orri-buruetakoa, izan ere, liburuan barrera ordura arte erabili ez diren tipoak erabiltzen baitira lehen aldiz (letrakera txikia eta etzana) eta, areago, kapituluari dagokion bigarren orrialdean hurrengo orrialde bakoliti bietan agertzen ez den hitza ere jasotzen lehen ediziotik: "gaztigu" (611 or.; hurrengoetan "pena" hitza azaltzen da).

2 Bat gatzotz Vinsonek atal desberdinak aztertzean darabiltzan kalifikatiboekin: "les Italiques de la seconde édition sont moins jolies et plus larges que celles de la première, tandis que le romain est au contraire du même oeil dans les deux éditions. Les lettres ornées des commencements de chapitres sont remplacées dans la réimpression par de grosses et laides capitales ordinaires" (1891: 1984, 87).

3 Zalantza da, halaber, ea, azalean dioten moduan, Bordeleko Millangesenean argitaratua izan zen benetan. Arana Martijak (1994, 45) eta bestek bailetz uste dute. Vinsonek zeharo ukatu zuen posibilitate hori (*idem*).

Daguerre, il faudrait tenir compte des deux" (Lacombe 1956, 366; gurea da letrakera etzana).

2.- Bigarren edizioa lehenaren erreprodukzioa izan zela baieztatu dutenen tradizioa Vinsonengan du jatorria. "Le volume -zioen paristarrak- est la reproduction, page pour page, de la première édition; mais la reproduction n'est pas rigoureusement exacte" (*idem*).

Tradizio berean txertatzen da Villasantek laurogei urte berandua-goa kaleratu iritzia: "orpoz orpo lehenbizikoari segitzen [...] dio (zenbait aldaketa txiki kenduz gero)"⁴ (Villasante 1972, 125).

Handik hogeita hamar urtera, ordea, ausartago agertu dira edizio faksimilaren argitaratzaileak, Vinsonen hainbat baieztapen zalantzan jartzeaz gainera⁵, harenaren "alderantzizko ondorioak ere atera daitetze"-ela baitiote⁶. Eta galdera eta baldintza gisakoen artean -puntu honetara gertozen-, ondoko hau ere luzatzen da: "Silutegi edo inprentako plantxak berak badira, zergatik aldatu beste silutegi batera? Ez ote da zilegi pentsatzea -lehen edizioaren argitarapen-urtea finkatzean bezala-, liburu-atariari sinesturik, bigarren edizioa ere inprenta berean egin zela⁷. *In dubio pro reo* dio atsotitz zaharrak. Dudako kasuan zergatik ez hartu kontuan liburuko argibidea?" (Kalzakorta 2006, xii).

Bistan da argitaratzaile berriek ontzat hartu dutela, "orpoz orpo" egingako ezein edizioaren ezinbesteko baldintza bailitzan, "silutegi edo inprentako plantxak berak" erabili zirela bigarren edizioa inprimatzeko. Alabaina, alerua, kronologikoki azkena izan arren, inolako frogarik gabe luzatu da.

4 Eta "sigue fielmente a la primera edición, pero introduce algunas pequeñas variaciones" (Villasante 1974, 136).

5 Literalki: "Vinsonen esanak arrazoizko egiaztat hartu dira orain arte eta ez dira zalantzatan jarri" (Kalzakorta 2006, xi).

6 Funtsean egiaztat hartu nahi da Vinsonen ukatzen zuen guztia, hots, Millangesenean argitaratu zela, Axular hil eta gutxira argitaratu zela ("XVII. mende erditsuan, 1650 urte inguruan"), haren iloba izan zela emendatzaile-zuzentzailea, etab.

7 Nonbait lerroon idazkeran leundu nahi izan da aurretik bide zegoen "zilegi da pentsatzea" baieztapena "ez ote" bat erantsiz, baina perpausaren amaierako galdera ikurra ahantziz.

Horretan, hots, frogak eskaintzeko ahaleginean, Vinson izan da, guk dakigula, bi edizioen arteko erkañeta-salorik egin duen autore bakarra, eta, "en comparant attentivement les deux volumes" (Vinson 1891: 1984, 87), ez zuen horrelakorik ondorioztatu:

"Dans la première édition [...] beaucoup de ç et n tilde sont remplacés par des e à queue et par des fi partiellement rognés, ce qui ne se représente pas dans la seconde édition; des K pet. cap. tiennent la place de K grandes capitales; la forme de certaines lettres est plus archaïque; on y trouve même (p. 337) l'abréviation *dimmittim9* pour *dimmittimus* (rien de pareil ne s'observe dans la seconde édition); enfin les a, e, i, o, u tilde pour an, en in, on, un, sont infiniment plus fréquents. Ces indices d'un archaïsme relatif son aggravés encore par l'usage constant de I et V pour J et U capitales régulièrement employés dans la seconde édition, ainsi que par la confusion des i et des j, des v et des u bas-de-casse dans la seconde édition; pour celle-ci, on a adopté partout l'orthographe moderne dans les citations latines: *nova, jus, usque, deliciis* par exemple correspondent aux *noua, ius, vsque, delicijs* de la première édition; mais on n'a presque rien changé sous ce rapport au texte basque que l'imprimeur et ses ouvriers ne comprenaient probablement pas" (Vinson 1891: 1984, 88).

Oharkizun laburrak, baina, oro har, egokiak.

Edonola ere, arretaz begiratzen duen bati eskapatzen ez bide zaizkion beste zenbait eskapatu zitzaizkion Vinsoni, zeren eta, izenburu eta lehen orrialdeko egokitzapenak, liburuan barreneko hornidurak eta letra kapitularretan dauden desberdintasun nabarmenak alboraturik, lehen aldiz begiratzen duten begi batzuentzat berdina dirudien estalkiaren azpian ez baita alderik falta, alde nabarmenik, esan nahi baita. Baina luze eramango luke aldaketa eta ñabardura guztiak banan-banan komentatzeak eta aski modu orokor eta ez exhaustiboan azaltzeari ekingo diogu segidan.

3.- Vinsonek ikusi eta Villasantek nabarmendu legez, *Geroko Gero* liburuaren formatua⁸ ez zen lehen edizioan erabilitakoa. Lehe-

8 "En el lenguaje bibliográfico, el formato de un libro del período de la imprenta manual hace referencia al orden de sus formas y al consiguiente plegado de los pliegos impresos, según indicaran la numeración y compaginación de las hojas y la orientación del papel en los alzados" (Gaskell 1998, 100).

narena *in-8* izan zen bitartean, bigarrena *in-12* gisara argitaratu zen, hau da, paper plegu bakoitzetik hamabi orri atereaz eta ez zortzi, 1643koan bezala.

Bestalde, testua paratzeko orduan orriaren tamaina bezain interesgarria da testuaren luze-zabalerak erakusten dituen. Lehendabizikoari dagokionez, eta Villasanteren arabera, lehen edizioaren neurriak 160 mm x 105 mm dira eta bigarrenarenak 155 mm x 95 mm (Villasante 1974, 136).

Orriaren barnean testuari ematen zalon tamainari dagokionez, urtetan Vinson izan da erreferentzia nagusia eta bakarra. Haren arabera, honakoak ziren lehen edizioaren neurriak: "hauteur des pages 130 mm 5 (titres courants compris et signatures non compris); justification 70 mm (86,5 avec les manchettes)" (Vinson 1891: 1984, 85); bigarren edizioarenak, aldiz, "hauteur des pages 130 mm 5 (titres courants compris et signatures non compris); justification 70 mm ou 81 avec les manchettes)" (Vinson 1891: 1984, 87).

Edonork egiazta dezakeen bezala, bigarren edizioan estutu egin zen alboetako alpamenei lehenean eman zitzaien tokia⁹. Bigarren edizioaren orrialdeen tamaina estuagoak agindu zuen, nonbait. Esan gabe doa, horrekin batera, alpamenen erreferentziak ere laburturik utzi zirela hainbat kasutan. Ikus, adibidez, nola aldatu zen lehen edizioan 40. orrialdearen bazterrean, lerro bakarrean zegoen "Prouer.24." erreferentzia, izan ere, bigarren argitalpenean bi lerro-tan eta laburturik eman baitzuten: "Prov./ 24."¹⁰.

Egia da badela, halaber, bestelako kasurik ere. Horrela, hitz laburtuak inoizka lehen edizioan baino luzeago (eta okerrago ere bai) ematen dira bigarrenean. 179. orrialdean dugu adibide argi bat. "August. de/ verbi Do-/ mini serm./ 16. tom. 10." delakoa honela

⁹ Horretan 28. orrialde-bazterreko erreferentziak oso dira adierazgarriak. Modu horretan, "capienda." hitza, lehen edizioan lerro berean ematen dena, bigarrenean bi lerro-tan eskaintzen da: "capien-/ da.". Berdin gertatzen da hurrengoarekin ere, lau lerroko "Chry. tom./ 13. ad po-/ pul. Anthi./ tom.3.", zertxobait aldaturik bada ere, sei lerro-tan ematen baita bigarren argitalpenean: "Crystost/ tom 13/ ad po-/ pul./ Anthi./ tom. 3.".

¹⁰ Beharrezkoa denean baino ez da laburdura-aldaketen kasuistika hori hemen jasoko, gehiegi luzatuko bailitzateke berez luze samarra den lan hau.

eskaintzen da datarik gabeko edizioan: "August./ de verbi/ Domini/ sermon./ 6 tom/ 1 10."

Horra hor, bada, liburua ikuskatzen hastean atzematen diren lehen desberdintasun nabarmenak.

Liburua osatzen duten koadernotxoak zenbatzeko letra-hurrenkera ere desberdina da, zeharo, horretan ere alpatu formatuak aginduta. Ildo horretatik, lehen edizioak A letra daraman koadernotxo erdia baino ez du hasieran, eta Rr koadernotxoarekin amaitzen da. Bigarren edizioa, berriz, koadernotxo oso batekin hasten da baina Dd koadernotxoaren herena (lau orri) besterik ez dauka amaieran¹¹.

4.- Materiaren antolatze-elementuetan ere bada zer esan. Orrialdeztapenez eta kapituluaren ondozkatzeko-zenbaketaz ari gara, hain zuzen.

Paginazioaz den bezainbatean, eta lehen edizioan ez dagoen akats berriren bat edo beste kenduta (350. orrialdeari dagokion zenbakia, esaterako, "450" bezala agertzen da bigarren edizioan) azpimarragarriena honako hau da: bigarren edizioan zuzendu egiten direla lehenengoan errepikatuta dauden 439. eta 440. orrialdeak eta handik aurrera doazen orri-zenbaki guztiak, liburuaren ondozkapena behar bezala emanek. Lehen edizioak, ezaguna denez, liburuaren amaieraraino mantenduko du bi orrialdeko desfase hori.

Bestalde, kapituluaren ondozkatzeko-zenbaketaren atalean ere ez dira akatsak eta zuzenketak falta.

Arrazoiak argi ez badaude ere¹², zuzendu gabe utzi ziren hainbat

11 Hori bera aski izan zitekeen bietatik zein zen aurreragoko edizioa eta zein ondokoa jakiteko, ohikoa baitzen azken orduan (hots, liburuaren testua inprimaturik edo zegoenean) erredaktatzen ziren ataletan (atarikoetan, alegia) burutzea orri-doikuntzak, eta ez azkenekoetan, hitzaurre-eskaintzen luze-laburra, beste guztia ez bezala, ezin baitzen kalibratu erredaktaturik izan arte. Bigarren edizioaren inprimatzalleak, berriz, testu guztiaren tamaina eza-gutzeaz baliatzen dira eta, doikuntza beharrik gabe, erregular eta osorik eskaintzen dute lehen koadernotxoaren orri-deskompentsazioa amaierakorako utzirik.

12 Bestelako zuzenketak ikusirik, egia da ezin jakin daitekeela noraino mantendu nahi izan zuten lehen edizioaren "aurpegia" eta noraino ez ote zen izan presa eta zabarkeriaren fruitu. Edonola ere, lanean barrena ikusiko denez, egiantzekotasun gehiago bide du bigarren hipotesi honek.

kapituluren zenbakiak. 15. kapitulua, esaterako, "CAP. XVII" bezala dago idatzita edizio bietan; 20. kapitulua "CAP. XXIII." bezala; 53. kapitulua "CAP. LVIII" bezala, etab.

Èz da falta, zuzendu beharrean, okerrago ematen denik ere: 49. kapitulua, adibidez, lehen edizioan "CAP. LIX" eran agertzen zena, "CAP. LXI" bezala inprimatu zen bigarrean, etab.

Beste batzuk, berriz, erabat zuzendurik ematen dira: lehen edizioko "CAP. XIV." delako okerra "CAP. XXIV." bezala aurkezten da (303 or.); lehen edizioko "CAP. XVIII." delakoa "CAP. XXVIII" gisa (321 or.); lehen edizioko "CAP. XXXIII." delakoa "CAP. XLIII." gisara ematen da bigarrean (405 or.); leheneko "CAP. XLVII" delakoa "CAP. XLVI" bezala eskaintzen da bigarrean (orrialdeztapen berriztatua: 441 or.), etab.

Jakina, materian barrera nabigatzeko liburu amaieran, paginazio-zenbakirik gabe dagoen "Liburu hunetaco Capituluén contua" izeneko *aurkibidean* ere bada azpimarratzekorik.

Oro har, eta oker ñimiñoren batengatik ez balitz¹³, bigarren edizioa ukiturik egin gabe, hartu zuen lehen argitalpeneko aurkibidea.

Guztiarekin ere, agerikoak izango dira hainbat desberdintasun: aurkibidearen gaineko hornatze-irudia, lehen kapitulari ezarritako letra kapitularra, letra larri zenbait, etab. Gainerakoetan —eta ahal den heinean, jakina—, zehatz-mehatz betetzen da imitazioa: antolamendua, tarteak, hitz zenbait hausteko modua... lehen edizioaren arabera burutzen dira. Lehen kapituluaren orri-erreferentziak, esate baterako, "Folio" hitza darama aurretik edizio bietan.

Areago, XVI. kapituluaren izenburua, liburu barruan aldatua izan zena ("Erremusina *edo limosna* eguiteaz, eta handi sortcen den probetchuaz"), lehen edizioan bezain labur gelditu zen bigarreko aurkibidean ere: "Erremusina eguiteaz, eta handi sortcen den probetchuaz"¹⁴.

Eta orrialde zenbaiten erreferentzia desplazatua zegokion leku-

13 67. kapituluko erreferentzia "BAP. LVII." agertzen da eta bigarren edizioak "CAP. LVII.". Aldi berean, esana dugu gorago ere, "V" bezala irudikatutako bokala "U" bilakatzen du sistematikoki: *LIBVRV* -

14 Ikus daitekeenez, aldaketa bakarra *b* delakoa *v* bilakatzean datza (testuan, aldiz, jatorrizko *ba* mantendu zen).

rantz mugitu bazen ere (367, 370, 405, 439 eta 569 zenbakiak ezkerreko zutabetik eskuinekoa eraman ziren), lehenean zeuden bezala eman ziren bigarren edizioan ere, egokitzapenik gabe, hots, testuan barrena egindako orrialdeztapen-zuzenketez¹⁵ jabetu gabe.

Edizio berriko orrialdeztapenari aurkibidean egokitu zitzaizkion orrialde bakarrak azken hiru kapituluari zegozkienak baino ez ziren izan. Horrela, lehen edizioko 596. orrialdea "598" izatera igaro zen eta aurkibidean paginazio zenbakirik gabe agertuak ziren 59. eta 60. kapituluak (hurrenez hurren 608 eta 613 zenbakiekin joan behar zutenak) edizio berrian "610" eta "615" zenbaki zuzenekin azaldu ziren.

Ez zuzentzeagatik, lehen edizioan gaizki emana zen 558. orrialdea ere ez zen zuzendu. Izatez, 53. kapituluari lehen edizioan zegokion orrialdea 548 zen, eta bigarreanean 550.

Salbuespen azpimarragarria da 44. eta 45. kapituluetan egindakoa, izan ere, lehenari zegokion orrialdea bigarrenari ezarria zitzaion 1643ko argitalpenean, lehenaren tokia hutsik utziz. Bigarren edizioan, aurreko kapitulura pasatu zen bigarreanean zegoena ("412"), eta erantsi egin zen azken honi zegokion berria: "419".

5.- Harrigarriro, Vinson ez bide zen ohartu lehen edizioko "Gomendiozco carta" delakoa beste taxuketa formal batekin kaleratu zela bigarreanean. Hau da, letra-tipoen arazoa gorabehera, lehen edizioak orrialde bakoitza 21 lerrotan moldatzen duen bitartean, bigarrenak 24 lerrotan biltzen du testua. Ondorioz, nekez etor zitezkeen bat lerroak eta hitzak, nahiz eta gutun ospetsua 3.orrialdetik 11.era hedatzen den edizio bietan.

Antzeko arazoa agertzen dute, halaber, "Approbationes" izeneko hiru orrialdeek: bigarren edizioan salbuespena da lehenengo edizioko lerroekin (kopuruan edota lerro bakoitzeko hitzetan) bat egiten duen lerroa.

Ed da berdina, ezta ere, 25. orrialdean hasten den "liburu-hasiera", tipografikoki desberdin lerrokatuta baitaude bost lerroetako hitzak. Eta *ad nauseam* segi genezake deskribapenarekin "plantxa

15 Gogora bedi lehen edizioan erreplikatu egin zirela 439 eta 440 zenbakiak, horrek hurrengo orrialde guztietan ekarri zuen zenbatze-desfasearekin, hau da, aurrerantzeko orrialde guztiak zegokiena baino bi zenbaki gutxiagoko orrialdeztapenarekin adierazita geratu ziren.

berak" erabili ez zirela erakusteko, zeren ia ez baita orri bat bera ere non hitz guztiek disposizio berdina erakusten duten edizio biotan¹⁶. Baina ez da hori hemen argitu nahi genuena, testuari dagokiona baizik.

Halaber, paristar hizkuntzalaria ez zen ohartu Etxauzen aitzakia-rekin burututako gutunean agertzen ziren *in* gehienak (agian *oraiño*, *baiña*, *egundaiños*, *leiñutic* gisakoak eredutzat harturik) bigarrenean *iñ* bilakatu zirela sistematikoki: *eciñ*, *eguiñ*, *guztiarequiñ*, *obrequiñ*, *aiatciñeco*, *batequiñ*, *guiristiño*, *icenaarquiñ*, *ciñenean*, *dohaiñ*, *arraçoñez*, *haiñ*, *harequiñ*, *atsequiñ*, *handiarequiñ*, *garaciarequiñ*, *arartecotasunarequiñ*, etab.

Bustidura markatuaren fenomenoa interesgarria litzateke (non-bait kostalderantz eramango baikintuzke gutun honen "egokitzailea" bilatzeko orduan¹⁷), ez balego lerro beretan Vinsonek ere jaso ez zuen beste aldaki bat¹⁸ orohar behe-nafarreraren esparrurantz bide garamatzana. *Escal herrian* (5 or.), *eskaldunen* (hirutan: bi aldiz 5. orrialdean eta behin 9.ean) eta *escaraz* (9 or.) hitzez ari gara.

Ez dakigu Vinson garbi ohartu ote zen askoz sistematizazio guxtiagorekin aritu zela bigarren edizioaren zuzentzaile-emendatzailea eta, maiz asko, hitz batean egiten ziren *zuzenketak* ez zirela gero burutzen hurrengo lerroan bertan agertzen zen hitz berberean. Horregatik, bitxi egiten dira alpatu azken *berrikuntza* horiek, are bitxiago

16 Aliritzian harturik, 192. orrialdea aski adibide garbia da *contrefaçõn* delakoaren kontu honetaz jabetzeko. Burutik hasita azken lerroraino lehen edizioaren itxura mantendu nahi izan bada ere, argi dago beste tipografo batek egin duela liburuaren konposaketa berria. Antzekoa esan liteke, beste adibide zeharo desberdin batez baliatzeko, 297. orrialdeaz: bigarren ahapaldiak dozena bat bokal ditu ondoko sudurkari apiko albeolarra tildez markaturik; bigarren edizioak "n" kontsonantez ordeztu ditu guztiak.

17 "Egokitzaile" horrenak izan litezke, era berean, gutunaz kanpoko pasarte zenbaitetan atzematen diren berrikuntzak ere. Esate baterako, lehen edizioan eskuz erantsi zen *emateagatic* hitza (142 or.), bigarren edizioan *emateagatic* bezala testurazazi zen. Ezin jakin, bestalde, "emendatze" gisara doazen *entrada* hitza (351 or.) eta beste hainbat ere (*limosna* -219 or.-, *heregiari* -351 or.-, etab.) luma-gizon berari bizkarreratu beharko litzazkiokeen.

18 Nabarmendu zuena Eloy E. Placer izan zen, Chicagoko Newberry Liburutegiko aleak erkatzean. L.L. Bonaparterenak izandako aleen azterketa egitean, honela idatzi zuen: "Algunas palabras tienen grafia diferente: 345

gogoan hartzen bada hurrengo orrialdeetan ez direla mantentzen: *euscaraz* (16 or.), *euscaraco*, *euscal herrian*, *eulcaldun* –sic– (17 or.), *euscarac* (18 eta 19 or.), *euscara*, *euscaldunec* (19 or.), etab. aurkituko ditu irakurleak lerro batzuk aurrerago, "Gomendiozko gutuna" delakotik at, hain zuzen¹⁹.

Gainerakoaz (alegia, "Iracurçailleari" izeneko hitzaurreaz eta liburuaren gorputzaz) den bezainbatean, bigarren edizioak lehen edizioa du ispilu eta hartan dagoena jaso nahi du eskuarki, ahal duen heinean tipografikoki ere berdin jokatzuz. Horren traza nabarmenena lerro-kopurua mantentzea (30 lerro orrialdeko) eta lerroen eta hitzen banaketa ahalik ongien gordetzea da. Halere, orri-bazterretako erreferentziak (bibliografikoak zein lexikoak) eredu estuago batean emanak datoz, eta, gorago adierazi bezala, horretan datza, bisualki, aldearik nabarmenena, estuagoak eta lerro gehiagokoak baitira erreferentziak oro har²⁰. Traza nabarmen dira, orobat, azentuaturiko hitzak, bigarren edizioak ahalegin handia egiten du testuko azentuak ez galtzen (*umètara* -10 or.-, *berèc* -29 or.-, etab.).

Nolanahi ere, lehen edizioak eta bigarrenak badute desberdintasunik. Asko eta handiak, gainera, bai berrikuntzen arlokoak²¹, bai zuzenketenekoak²² eta bai akats berrienekoak. Honen ondoren horrietako garrantzitsuenak²³.

19 Gutunaren "egokitzaillea"-ren eginkizuna ez zen, bistan da, bestelako orrialdetara igaro.

20 Trinkotze-premia horrek, inoiz, zuzentzailleak oso gogoko ez dituen bokal "txapel"-dunen erabilerara bultzatuko du. Hori gertatzen da *in margine* jarritako "Adagium" luzearekin, motzago geratzen baita bigarren edizioan ipini bezala, hots *Adagiù* (49 or.).

21 Ez ditugu berrikuntzat hartuko pleguetatik sortu koadernotxoeren konpaginaziorako, berauen amaiera-orrialde bikolletako testuaren azken letroko hitz(ar)en azpian jarri behar izaten ziren hurrengo koadernotxoaren lehen orrialdeko hasiera hitzak eta hizkiak, hala nola *barccatcen* (144 or.), *tuçu* (168 or.), *decatceco* (192 or.), *cenarequin* (288 or.), *tendu* (552 or.), etab. Koadernotxoeren tamaina desberdinak, dena den, ez du aldiari aldiko kointzidentziarik eragozten: *Bere* (216 or.), *arguia* (600 or.)...

22 Bigarren edizioan zuzendurik testuratuak izan ziren lehen edizioako ale zenbaitetan eskuz zuzendutako akatsak. Esan liteke ia guztiak jaso zirela, sistematikoki jaso ere, argitaratzeaz dagoen lan batean erakutsi den bezala (Salaberri: "Axularren *Gero* liburuaren lehen edizioa. Aleak, aldeak eta zuzenketak"). Ez dira, bada, hemen erreplikatu.

6.- Aurrekoa aurkezturik, bigarren edizioan bakarrik aurkitzen diren testu aldaketak (zuzenketak zein emendailuak) azaltzen har gintezke ondoren.

Orain arte adierazitakoaren ildotik, lehen edizioko formatuan dauden ahapaldien markoak eta neurriak ahalik gehien zainduz burutu dira berrikuntzatzat har daitezkeen testu aldaketok²⁴.

Guztiarekin, erantsi behar da, lehen edizioan ez inprimaturik ez eta eskuz islaturik ere ez daudenez, zaila dela jakitea ea hartarako espresuki prestatuak izan ziren, edizio hura argitaratu ondoren egi-leak faltan atzeman ote zituen edota bigarren edizioa aurrera ateratzeaz arduratu z(ir)enak asmatuak diren.

Ikus ditzagun, bizpahiru ataletan sailkaturik, liburuaren azalean bertan iragarriak izan ziren zuzentze-emendatzeetatik garrantzitsue-nak bederen²⁵.

Zalantzarik gabe, *testu-emendailuak* edo *gehiketak* dira liburuak dituen ikusgarrienak²⁶:

46 or., 20-21 lerroak:

baratcen da

baratcen eta *guelditcen* da

²³ Akats direla berresteko Urkixo B, Newberryko alea, Lacomberena, Orreagakoa eta Eusko Legebiltzarrekoa ditugu, eskuzko zuzenketarik gabe baltaude.

²⁴ Lehen ediziotik bigarreneara igarotzean burututako aldaketak letrakera etzanez emango dira hemen. Zati eta hitz horiek, bistan da, edo ez dira lehen edizioan aurkitzen edota, daudenean, beste modu batez emanda agertzen dira.

²⁵ Ikus daitezkeen bezala, zuzenketa hauel ere ez zale falta Hegoaldeko hizkeren oihartzunik.

²⁶ Edizio bietako testuak, hemen bezala, aurrez aurre -ezker-eskuin, esan nahi baita-ematen direnetan, orri-zenbakiak lehen edizioari dagozkionak izango dira (gogora bedi lehen edizioko 439-440 orrialdeak errepikaturik daudela eta handik aurrerakoak, bigarren edizioan, bi zenbaki goragotik da-biltzala; horrela lehen edizioko 511 or. bigarrenean 513 or. izango da). Gainerako erreferentzietan, bigarren edizioko orri-zenbakiak erabiliko dira. Lerro-zenbakiei dagokienez, testuko lerro zehatzak baino ez dira gogoan hartuko; ondorioz, orri-buruan dauden izenburuak eta testuen arteko lerro-markak ez dira lerrotzat hartuko.

| | |
|---|--|
| 219 or., 1 lerroa, kapituluaren izenburua ²⁷ : | |
| Erremusina eguiteaz | Erremusina edo <i>limosna</i> eguiteaz |
| 291 or., 1 lerroaren parean: | |
| Roma 12. | Ad Roma 12. |
| 292 or., 4 lerroa ²⁸ : | |
| buiracan direnec dirauteiño | buiracan edo <i>buruan</i> direnec dirauteiño |
| 299 or., 1-2 lerroak: | |
| eduqui baitçuen etchean, conseillaria | eduqui baitçuen etchean, <i>bere</i> <i>conseillaritçat</i> |
| 351 or., 8 lerroa (2. ed.: 8-9 lerroak): | |
| galdu cituen. | galdu cituen, <i>Lutherren heregiari</i> <i>entrada emanic.</i> |
| 386 or., 1-2 lerroak: | |
| Seguitu ago, nahi ago, usatu ago barren ago; asse ago, gosse ago: | Seguitu ago, <i>eta</i> nahi ago, usatuago, <i>eta</i> barren ago asse ago, <i>eta</i> gosseago ²⁹ |
| 427 or., 23 lerroa: | |
| ibentcen baitu beccatorea. | ibentcen baitu beccatorea <i>nahi</i> <i>gabez bethea.</i> |
| 480 or. (2. ed.: 482 or.), 6 lerroa: | |
| solhasean, lan edanean, locoan | solhasean, lan edanean, <i>dantçetan</i> , locoan |
| 504 or. (2. ed.: 506 or.), 7-8 lerroak: | |
| locari bati, arnegari bati, edale bati, edo halaco bertce iende thailloy | locari bati, arnegari bati, edale bati, <i>dantçari bati</i> , edo halaco bertce iende thailloy |

²⁷ Vinsonek jakinarazitako aldaketa (1891:1984, 87).

²⁸ Vinsonek jakinarazitako aldaketa (*idem*).

²⁹ Zuzentzaileak ez du juntagailua tartekatzeko premia hori ikusi honako perpaus honetan: "Ceren barren ago hobe ago, eta goço ago edireiten baita" (493 or.).

535-536 or. (2. ed.: 537-538 or.):

Bi ahapaldiri (535. orrialdeko bigarrenaren hasieran eta 536.eko azkenarenean, hurrenez hurren), lehen edizioan falta zaien ondozkatze-zenbakia erantsi zaie bigarren edizioan, hots, "1." eta "2." zenbakiak.

591 or. (2. ed.: 593 or.), 3-4 lerroak:

| | |
|--------------------------------|---------------------------------------|
| Han avariciosa, diruz betheric | Han avariciosa, diruz betheric |
| cegoena, necesitate handian, | cegoena edo egon nahiçuena |
| munduco beharric | necessitate handian, munduco beharric |

599 or. (2. ed.: 601 or.), 6 lerroa³⁰:

| | |
|-------------------|--------------------|
| art-vrratce gabea | argui-urratcegabea |
|-------------------|--------------------|

616 or. (2. ed.: 618 or.), 4 lerroa:

| | |
|--------------------------------|---|
| hec penitenciaric: iragan çaye | hec penitenciaric nahiago balutere: iragan çaye |
|--------------------------------|---|

Bistan da lehen edizioko hainbat hitz (eta balio semantikoa duten hainbat hizki ere) ordeztuak edota aldatuak izan direla bigarren edizioan, hala nola:

57 or., 28 lerroa:

| | |
|--|--|
| baitcloen erran cioen bertce ³¹ | baitcloen erratentioëla bertce ³² |
|--|--|

246 or., 5 lerroa:

| | |
|----------------------------------|----------------|
| Ha cenbat trentena ³³ | Ha cenbat Meça |
|----------------------------------|----------------|

258 or., 25 lerroa:

| | |
|-----------------------|-----------------------|
| Noeren semetatic bata | Noeren ilhoba Chanaan |
| madaricatua | madaricatua |

489 or., (2. ed.: 491 or.), 12-14 lerroak:

| | |
|--------------------------|--------------------------|
| Ëztu gauçaric, amorioac, | Ëzta gauçaric, amorioac, |
| hez, hautz, | hez, hauts, |
| balaca, eta errenda | balaca, eta errenda |
| ezteçaqueyenic | ezteçaqueyenic |

³⁰ Vinsonek jakinarazitako aldaketa (1891:1984, 87).

³¹ Letrakera etzanez lehen edizioan testutik at eskuz zuzendutakoa.

³² Letrakera etzanez bigarren edizioan egindako aldaketa.

³³ Gaztelerazko treintena, treintenario eta novena, novenario izenekoen eredura taxutua.

536 or., (2. ed.: 538 or.), 4-6 lerroak:

cofesatceac emaiten
duela garacia. Baiña
ecin erranditeque,
berretcen duela. Bada

cofesatceac emaiten
dioela garacia.
Baiña ecin erranditeque,
berretcen

ordea erran diteque
berretcen duela, eta
erran ere ongui,
eta egulazqui³⁴.

dioela. Bada ordea erran diteque
berretcen *dioela*, eta erran ongui,
eta egulazqui³⁵.

Ezin falta zitekeen testu kenketa eta,aldi berean, hitz-emen-datzea egiten dituen pasarterik ere. Honako hauek genituzke nabarmenenetakoak, ziurrenik:

232, 27-30 eta 233, 1:

Bada gauça frogatua da, putçu
hetaric uric ez athera agatic ere,
eztela erraitecoric, ura handitcen
ago; eta ez athera agatic ere,
ongui atheratcera, ttipitcêago.

Bada gauça frogatua da, putçu
hetaric uric ez athera agatic ere,
eztela, ura handitcen
ago; eta ez athera agatic ere,
atheratcera, eztipitcenago³⁶.

503 or. (2. ed.: 505 or.), 11-12 lerroak:

Nola gaixtoec, munduco
atseguinetan,
ian edanean,
iocoan, eta bertce placeretan

Nola gaixtoec, munduco
atseguinetan, *dantcetan*,
ian edanean,
eta bertce placeretan

7.- Ezaugarri aniztasuna dela eta, "bestelakoen" multzo handian sar litezke ondoren aipatuko diren zuzenketak eta egokitzapenak.

Alde batetik, eta sistematikoeгиak eta hain bereziak ez diren

³⁴ Lehen ediziokoa den zati honetan letrakera etzanez emandakoak testuaren alboan eskuz egindako zuzenketa direla adierazten du.

³⁵ Bigarren edizioari dagozkion berrikuntzak letrakera etzanez aurkeztu dira.

³⁶ Zuzentzaileak berdin irakurri ditu lehen eta bigarren "ez athera agatic ere" eta, ondorioz, ez du esaldia ongi ulertu. Egoki ulertu izan balu, "tipitcenago"-ri ez ziokkeen ezezko partikularik jarriko, koma bereizlerik gabe bada ere, bigarren "athera agatic ere" delakoaren aurrean jarrita baitago. Izatez, "eta ez, athera agatic ere, ongui atheratcera, ttipitcenago" irakurri behar da.

arren, asko eta esanguratsuak ditugu lexikoaren esparruan burututako "doikuntzak". Lehen edizioiko "animalia"-ren orde³⁷, esaterako, *animalia* "zuzendua" agertzen da bigarrenean hainbat lekutan (35, 36, eta 470 or.). Baina hori esan bezain laster, erantsi behar da jatorrizko argitalpenaren *animalia* ere erabiliko dela beste hainbat tokitan (24, 180 eta 182 or.), irizpide bateratu baten falta gero eta nabarmenago egiten delarik.

Zuzendu edo egin ziren, era berean, "ichiri" eta "ichiritu" hitzak (51 or.). Haien orde, *dichiri* eta *dichiritu* hitzak eskaintzen ditu bigarren argitalpenak (205. orrialdean agertzen den *dichidaturic./digidaturic* hitzaren ildotik, hain zuzen ere).

Ohi bezala, egokitzapenak testua irakurri edo zuzendu egiten zuten haien ulermen-maillaren arabera burutu ziren hainbatetan. Horrela, "hez-gaitzenac" hitz konposatu semantikoki argia arbuatuz, munstruo moduko bat sortu zuen bigarren edizioak, zegokion per-pausa zeharo desitxuraturuz: "Diren gauçaric gogorrenac, molde gaitzenac eta ez-gaitzenenac ere, hezten, beratcen, moldatcen eta escuetaratceintu amorioac" (491 or.).

Zuzenketa arloan askoz ere garrantzi gehiagokoa da, zalantzarik gabe, *princeps* edizioiko testuari eskuz egindako zuzenketa gehienak bigarren edizioak zehatz-mehatz jaso zituela gogoratu eta berrestea. Nolanahi ere, gorago adierazi legez, aurki kaleratuko den beste lan monografiko batean kontsulta daiteke haien guztien zerrenda exhaustiboa³⁸.

Bestalde, "egokitzapen" ortografikoak dira ustezko zuzenketa multzo handiena osatzen dutenak, ondoren ikusiko den bezala. Azpimarra dezagun, zerrendatxoa azaldu aurretik, zuzenketa ez direla inolaz ere sistematikoki burutzen eta, sarri askotan, anabasatsuegi suertatzen direla hitz berberari ematen zaizkion "formulazioak"³⁹.

³⁷ Gogora bedi Geroren lehen edizioan *animalia* forma ere agertzen dela (24 eta 469 or., esaterako).

³⁸ Ikus Salaberri: "Axularren Gero liburuaren bigarren argitalpena lehenaren argitan".

³⁹ Ildo honetako ortografi anabasa, esaterako, lehen edizioaren 584 orrialdean ikus daiteke garbiri (586 or., bigarren edizioan). 1643ko "hotz", "hotza", "hotzen", "hotzetic", "hotzera"... bateratuak *hotz*, *hotça*, *hotcen*, *hotcetic*, *hotcera* bilakatu dira bigarren argitalpenean.

Exhaustibotasun-xederik gabe bada ere, hona hemen ortografi egokitzapen nabarmenenak⁴⁰:

Zapporeic lehen edizioko "çapporeric"-en ordezt (20 or.), baina gero *çapporea* (215 or. eta 411 or.) eta *çapporearen* (415 or.); *çorrotz* "zorrotz"-en ordezt (29 or.); *hei* "hey"-ren ordezt (44 or.) baina gero *hey* (28 or., 82 or.); *venturaz* "venturas"-en ordezt (71 or.); *cenbatenaz*, *hetçaz* "cenbatenas" eta "hetças"-en ordezt (79 or.); *hautsten* "hautzten"-en ordezt (92 or.), *hats beherapen* "hatz beherapen"-en ordezt (107 or.), *itsasoari* "itzasoari"-ren ordezt (114 or.; halere, gero, 197 orrialdean, *itçasoan* "itzasoan"-en ordezt), *gaiñeco* "gaigñeco"-ren ordezt (114 or.), *hers* "hertz"-en ordezt (114 or.), *escuen* "ezkuen"-en ordezt (162 or.), *etsai* "etzai"-ren ordezt (174 or.), *aberats* "aberatz"-en ordezt (221 or.; nahiz eta *aberatz*, 75, 229, 232 or., etab.); zuzen dago, halere, edizio bietako 233 or. eta bestetan), *huts* "hutz"-ren ordezt (269 or., 299 or., etab.), *gaitz esten* "gaitz ezten"-en ordezt (272 or.), *anhitcec* "anhitzec"-en ordezt (289 or.; *anhitcetan* "anhitcetan"-en ordezt -611 or.-, etab.), *çocco* "zocco"-ren ordezt (300 or.; berdin: 435 or., 502 or. -birritan- eta 542 or.; *coccoan*, 38 or.), *errazqui* "erraxqui"-ren ordezt (310 or., 323 or., 412, 520 or., etab.); *errazten* "erraxten"-en ordezt -493 or.-; baina *errachean* -56, 57 or.-, *erraxago* -84 or., *erraçenic* "erraxenic"-en ordezt -78 or., etab.), *gorputcic* "gorputzic"-en ordezt (319 or.; *gorputça* "gorputza"-ren ordezt -588 or.), *gaitcerizcoac* "gaitzerizcoac"-en ordezt (321 or.; orri berean *gaitz etsi*, *gaitzets*), *deus* "deuz"-en ordezt (323 or.), *ecetz* "ez etz"-en ordezt (324 or.), *gaitcetsi*. "gaitzetsi"-ren ordezt (338 or.; baina gero -389 or.- *gaitz etsi*), *Ezti-Berascatic* "Ezti-Berazcatic"-en ordezt (356 or.), *çopac* "zopac"-en ordezt (372 or.), *gaitcean* "gaitzean"-en ordezt (433 or.), *gaitcic* "gaitzic"-en ordezt (449 or.), *bekhatutan* "beccatutan"-en ordezt (452 or., nahiz eta gero *beccatu* -469 or., etab.), *lapitçaren* "lapitzaren"-en ordezt (458 or.), *muda* "mutha"-ren ordezt (458 or., baina gero *muthatceric*, 602 or.), *poçointsua*, *poçoin* "pozointsua", "pozoin"-en ordezt (458, 459 or.), *biotça* "bihotza"-ren ordezt (533 or.), *dituçun* "ditutçun"-en ordezt, *içotz* "izotz"-en ordezt (585 or.), "hotz", "hotza", "hotzen", "hotzera"-ren ordezt *hotz*, *hotça*, *hotcen*, *hotcera* (586 or.), *hartaracotçat* "hartaracotzat"-en ordezt (586 or.).

40 Lehen hurbilpen batean bederen, aski arazotsua da ortografi zuzenketen eta akats izan daitezkeen artean zehatz bereiztea. Behin-behineko lehen urrats gisa har bedi, beraz, hemengoa.

gustua "guztua"-ren ordez (588 or.), *çaina* "zaina"-ren ordez (594 or.), *gastigu* "gazitgu"-ren ordez (610 or.), *hitcetan* "hitzetan"-en ordez (619 or.), *seculacotçat* "seculacotzat"-en ordez (619 or.)

Ikus daitekeenez, lehen edizioan agertzen den irizpideari malgugi iritzirik edo, bateratu eta finkatu nahiak eraman zuen bigarrenaren zuzentzailea honako atal honetako hainbat ortografi "egokitza-pen" egitera. Halaz ere, 1643ko argitalpeneko *eçabiltçala*, *hartçaz*, *çaitçaque*, *esperantçaric* (622 or.), *iratçar* (623 or.), *bihotza* bezalako-en bateratzerako hautatu zen formulak (-tz, tce, tci eta tça, tço, tçu) konpondu zitzakeenak baino buruhauste gehiago zekartzan gero. Lehen edizioak zuen grafia aniztasun bertsua, beraz.

Arrazoi batengatik edo besterengatik okertzat hartu izan ziren lehen edizioko hitz zenbait ere zuzendu nahi izan zituen bigarrenak. Ondoko zerrendak horietako zuzenketa esanguratsuenak jasotzen ditu⁴¹.

Sanctum Joannem de Luz "Sanctum loannem delus"-en ordez (13 or.); *Decembris* "Deeembris"-en ordez (14 or.); *tom.*, hankaz gora zegoen "m" hizkia zuzenduz (42 or., alb.); *erraiten duela* "erraitend duela"-ren ordez (83 or.), *çarela* "çarele"-ren ordez (83 or.), *Sainduhunec* "sainduonec"-en ordez (85 or.), *baratz* "barath"-en ordez (91 or.), *hunelatan* "hunelaten"-en ordez (110 or.); *vntçiric* "ventçiric"-en ordez (131-132 or.), *laungoicoac* "laungoicac"-en ordez (135 or.), *sorbalden* "sorbaldcen"-en ordez (136 or.), *derauzquitçut* "derauzquitçnt"-en ordez (139 or.) *laincoaren* "lainoaren"-en ordez (139 or.), *erori* "errori"-ren ordez (140 or.), *hausten* "bausten"-en ordez (140 or.), *ethorquizuna* "ethorqnizuna"-ren ordez (154 or.), *laincoac* "laincac"-ren ordez (159 or.), *penitencia* "penitentcia"-ren ordez (183 or., buruan), *laincoac* "leaincoa"-ren ordez (184 or.), *hargatic* "hargatin"-en ordez (233 or.), *eta* "eto"-ren ordez (237 or.), *alaba* "alada"-ren ordez (260 or.), *liçatequeyela* "liçatequyela"-ren ordez (267 or.), *erregue* "erreque"-ren ordez (324 or.), *laburzqui* "laburzqui"-ren ordez (325 or.), *Patriarcha* "Pariarcha"-ren ordez (328 or.), *behar* "hebar"-en ordez (335 or.; 419. orrikoa

41 Puntuaziari buruzko ukitzeak eta zuzenketa ere ematen dira maiz asko, batzuk ondo jarriak ("Emaçu beraz, ama, sendo çarela eztiaguicuten erançute" -239 or.-, koma biak bigarren edizioaren zuzentzaileenak dira, lehenak ez baitarama horrelakorik; berdin gertatzen da ondoko esaldian ere: "Eznuen irabaci, ezta arraçoïn goça deçadan" -597 or.-), bestetzuk ez horrenbeste.

zuzendu gabe garatu zen), *haraguiaren* "haraguiarem"-en ordez (384 or.), *lurraren* "lurrararen"-en ordez (394 or.), *guti ago* "guti aga"-ren ordez (413 or.), *usaintzaturic* "usaintzuric"-en ordez (414 or.), *urrinzaturic* "urrintztaturic"-en ordez (414 or.), *halaber* "halaher"-en ordez (441 or.), *gaixto* "goixto"-ren ordez (448 or.), *erraiten* "erraiten"-en ordez (448 or.), *ongui* "ongni"-ren ordez (453 or.), *penos* "penoz"-en ordez (482 or.), *irabaci* "irababaci"-ren ordez (495 or.), *laungoicoac* "launguiçoac"-en ordez (574 or.), *guztiz* "gutitz"-en ordez (576 or.), *dateque* "dateq"-en ordez (597 or.), *hausnaur* "hasnaur"-en ordez (600 or.), *ESPERANTÇARIC* "ELPERANTÇARIC"-en ordez (607 or.), *bitartean* "bitartean"-ren ordez (607 or.), *urricalmendua* "urricalmendua"-ren ordez (608 or.), *Gregorioc* "Grehorioc"-en ordez (613 or.), *mehatchuac* "mehatchnac"-en ordez (617 or.), *MISERICORDIARIC* "MISERICORDIHRIC"-en ordez (623 or.), etab.

Aipatu zuzenketok, dena den, "ondokorik" ere izan ohi zuten, behin baino gehiagotan gaizki utzi baitzen zuzendutakoaren alboko hizkiren bat: "atzeguin"-en ordez *atseguiu* (89 or.), "çorrotzic, eta bortitzic"-en ordez *çorrotcit, eta bortitcic* (602 or.), "hotza, motza"-ren ordez *hotçat, motça* (608 or.), etab.

8.- *Akatsen atala* zabala baino zabalagoa da bigarren edizioan. Atal hau da, zalantzarik gabe, edizioaren zabarkeriaren irudia ongien islatzen duena⁴². Batetik, eta espero zitekeenaren aurka, lehen edizioan zeuden akats asko zuzendu gabe mantentzen direlako bigarrenean. Eta bestetik, aurreko horiek nahiko ez bailiran, erruz areagotu egiten direlako era guztietako okerrak, ortografikoak eta tipografikoak barne. Ondoren, bada, hiruzpalau ataletan emanik, akatsik alpaga-rirenak edo direnak azalduko ditugu⁴³.

42 Topikoetara jo gabe, esanguratsua da erabat hirugarren kapituluaren orri-buruetan gertatzen dena. Kapitulu labur horretako lau orrialdeen buruan errepikatu beharko litzateke kapituluaren tituluaren mulin trinkotua, orrialde bakoitietan "iragaiten çaicula dembora" agertu behar zelarik. Kontua da aditz nagusia orrialde guztietan agertzen dela desberdin idatzita: *Iragaitem* (47 or.), *Iraga ten* (49 or.), *lcagaitem* (51 or.) eta *Iragaiten* (53 or.).

43 Akatsen zerrenda hauetatik at utzi dira lehen edizioako "miscricordiaz" (139 or.) bezalakoak, nonbait tipoen edota tintaren arazoengatik gaizki inprimaturik geratu zirenak. Akatsak akats, horietako gehienak ondo agertzen dira gero bigarren edizioan.

a) Lehen ediziotik bigarrenera zuzen-zuzen igaro diren testu-akatsak⁴⁴:

çatçaizquidela (11 or.); *hutz* (55 or., *baina huts*, 8 or.), *asquen*, *uzte* (59 or.), *gaits* (67 or.), *ezcuetan* (68 or.), *aberatz* (75, 229, 586 or...., *nahiz eta aberats*, 221, 599 or....), *haudiarequin* (84 or.), *ahalçeçaqueyens* (85 or.), *gaixtatatasunetic* (90 or.), *ecetz* (101 or.), *ezcua* (132 or.), *adizquideric* (139 or.), *miretzteco* (140 or.), *azco* (161 or.; akatsa errepikatzen da, *nahiz eta eskuz zuzendutako alboko hitza ondo jarrita utzi*), *arratz*(hiru aldiz, 169 or.; halere, orrialde berean, *arrats* ere bai), *çahatceac* (170 or.), *seguratçaric* (179 or.), *moltal* (254 or.), *dey* (262 or.), *sinhetz aracitceco* (262 or.; berdintsu 266 or., 397 or., etab.), *saindoac* (263 or.), *eztheuz* (295 or.), *ihardetz* (297 or.), *adisque* (301 or.), *hosserretuac* (310 or.), *omorio* (356 or.), *CAITEZ* (357 orriko buruan), *on-bebar* (385 or.), *ihez* (399 eta 401 or.), *batçut* (470 or.), *comporatcen* (473 or.), *gorpuztça* (515 or.), *Virriçalquiçun* (517 or.), *erdiets* (518 or., *nahiz eta erdiets* 11, 77, 84, 98 or., etab.), *hautz* (519 or.), *appurac* (522 or.), *leyelac* (540 or.), *anhantz* (571 or.), *uzte* (578 or.), *carrasc-hotz* (587 or.), *khiratz* (590 or., *nahiz eta khirats* -380, 415 or., etab.), *iccarra* (591 or.), *EZPERANTÇARIC* (599 or.), *sus* (601 or.), *ilquitquo* (616 or.)

b) Bigarren edizioan burututako akats berriak. Aldez aurretik pentsatzekoa zen moduan, akatsak "korrejitzeko" eta testua "emen-datzeko" asmoa zuen bigarren edizioan ez da falta lehen argitalpe-nean zuzen zegoenaren okertze larririk. Nabarmenak dira, esate baterako, lehen edizioan zeuden testu zatien "ukitze" argiak (bokal eta hitzen aldaketak, ezabaketak eta eransketak), behin baino gehiagotan perpausen eta hitzen esanahia zeharo aldatu edo trakestu egiten dutenak. Ildo honetakoak, hain zuzen:

14 or., 7 lerroa:

Rectore de Sara

Rectore de *Sacra*

⁴⁴ Era guztietako akatsak aurki daitezke atal honetan. Nabarmena da, esaterako, XVIII. kapituluaren egindako hanka-sartzea, XV. kapituluko orrialde bakoitiel zegokien orri-burua ("BECCATUTAN EGON GOGO DUENAZ") ezarri baitzen bertan (248 or.). Bigarren edizioak hitzez hitz errepikatu zuen akatsa. Berdin esan liteke edizio bietan "157" zenbakiarekin markatuta dagoen 257. orrialdea dela eta.

| | |
|---|--|
| 28 or., alb. lajo. ⁴⁵ | lao. ⁴⁶ |
| 93 or., 30 lerroa: <i>idequitcen du eta</i> | Ø ⁴⁷ |
| 112 or., 23 lerroa: <i>sentitcecoa baita</i> | <i>sentitcoa</i> |
| 304, 24 lerroa: laincoac permititu baitcerauê, eta bere ardiac | laincoac permittitu baitcerauen, bere ardiac... |
| 314 or., 21 lerroa: guiristinoc, <i>gorputz</i> bat garela, eta | guiristinoc, bat garela, eta |
| 356 or., 18 lerroa: eguitea | eguiteare |
| 455 or. (2. ed.: 457 or.), 13 lerroa: eta sinhetsi behar da | sinhetsi behar da |
| 503 or. (2. ed.: 505 or.), orriburua: AGO DELA IFERNUCO BAIÑN. | DELA IFERNUCOA BAINO. |
| 538 or. (2. ed.: 538 or.), 6 lerroa: eta erran ere ongul, eta egulazqui eta erran ongul, eta egulazqui | |

Baina ez ziren horiek oharkabeen burututako akats bakarrak izan. Askoz ere multzo handiagoa osatzen dute plantxetaratutako

45 Gaietik eskuz zuzendua, Inprimatutakoan "lajo" agertzen baitzen.

46 Orri bazterreko hitz mota honen esanahia iluna geratu bide zitzairen gehienetan inprimatzaile berriei. Ikus, adibidez, 198 or.: lehen edizioko "lajoac." delakoa bigarrenean "lajoac." bilakatu zen. Berdintsu suertatu zen 230. orrialdekoarekin ere, lehen edizioko "Igilquy-/ ena" bigarren edizioan "Idilqui./ ena." bihurtu baitzuten. Egia esan, lehen edizioak ere izan zuen era horretako arazorik, esate baterako, 422. orrialdean. Han, "chuchen"-en orde testuaren alboan jarri behar zen "jugen" delakoa (horrela iragarria baitzegoen "Iracurtçailleari" zuzendutako hitzaurrean, 18. orrialdean) "Sugen." bezala kaleratu zen lehen edizioan; bigarrenak, "Suguen." idatziz, kiribildu baino ez zuen egin kontua.

47 Bitxia da testu kenketaren ondoko akatsa, aurreko hitzean geratzen dena, *Ahoai* bezala geratzen baita "ahoa *idequitcen du eta*," perpausari okerturiko hizkiez adierazitakoa ezabatzean.

akats txikiek. Bistan da testu zati zenbait, plantxetara berriro eramateko errazak edo ziruditelako, ez latinez ez euskaraz ez zekiten tipografoen ardurapean utzi zirela⁴⁸ EZTUGULO (64 or.); DIREQVEYELA (112 or.); MISERICOR eta... era hartan inprimatu zirela gero!

Arlo honetan maila apalekotzat utz litezke honelakoak-eta direnak:

- Txistukarien errepresentazio grafikoaren esparruan sortutako nahasketak eta akatsak: *ayerus* "ayeruz"-en ordez (15 or.), *ex* "ez"-en ordez (19 or.), *extén* "eztèn"-en ordez (35 or.), *gutças* "gutçaz"-en ordez (55 or.), *escarniatsea* "escarniatcea"-ren ordez (150 or.), *extugu* "eztugu"-ren ordez (231 or.), *expailuquete* "ezpailuquete"-ren ordez (258 or.), *amuruztu* "amurus-tu"-ren ordez (350 or.; *amuruz* 491 or., baina, jarraian, *amurus*), *expaninduen* "ezpaninduen"-en ordez (364 or.), *bihots* "bihotz"-en ordez (356 or.), *anhits etan* "anhitz etan"-en ordez (368 or.), *aixpa* "aizpa"-ren ordez (380 or.), *onhetz* "onhets"-en ordez (380 or.), *fruitus* "fruituz"-en ordez (385 or.), *ihez* "ihes"-en ordez (385 or.), *borrocatus* "borrocatur"-en ordez (401 or.), *hasten* "hazten"-en ordez (409 or.), *balzamos* "balsamos"-en ordez (414 or.; baina hurrengo orrialdean *balsamo*), *espaitu* "ezpaitu"-ren ordez (433 or.), *basterrean* "bazterrean"-en ordez (460 or.), *dantsariac* "dantçariac"-en ordez (490 or., nahiz eta *dantçari* -258 or.- eta *dantçaric* -355 or.), *pagamenduas* "pagamenduaz"-en ordez (509 or.), *hartças* "hartçaz"-en ordez (517 or.), etab.
- Hizkiak ordeztean sortu akatsak: *basicen* "hasicen"-en ordez (6 or.), *laurequi* "lauregui"-ren ordez (7 or.), *ab* "ad"-en ordez (13 or.), *ezpaimintcen*, *mintcen* "ezpainintcen" eta "nintcen"-en ordez (15 or.), *eulcaldun* "euscaldun"-en ordez (17 or.), *erregu* "entregu"-ren ordez (19 or.), *ceure* "ceurc"-en ordez (20 or.), *exraiten* "erraiten"-en ordez (26 or.), *arnancuratcera* "arrencur-ratcera"-ren ordez (26 or.), *nore gure...* "norc gure..."-ren

48 Ez zuten erakusten euskara zekitenik orri-buruetakako errotilu akastunak akats handiagorekin uzten zituzten tipografo haiek. Esana dugu jadanik nola lehen edizioko ICAGAITEN ("iragaiten" behar zuena) ICAGAITEM bezala lgaro zen bigarrenera (51 or.). Ildo berekoak dira lehen edizioko EZTVGVLV ("eztugula") -

ordez, (29 or.), *estaculuac*, *itculpideac* "estacuruac" eta "itçurpideac"-en ordez (51 or.), *egnin* "eguin"-en ordez (60 or.), *Plant.* "Plaut."-en ordez (97 or., bazterrean), *patientciac* "patientciac"-en ordez (112 or.), *atropa* "arropa"-ren ordez (183 or.), *Çaratcean* "Çahartcean"-en ordez (192 or., buruan), *concientcea* "concientcia"-ren ordez (192 or.), *ençu* "euçu"-ren ordez (birritan, 230 or.), *mehatchuzcoec* "mehatchuzcoac"-en ordez (258 or.), *ezhansiatuco ago* "ezantsiatuco ago"-ren ordez (270 or.), *habe* "gabe"-ren ordez (313 or.), *iney* "oñey"-ren ordez (315 or.), *burhun* "buthun"-en ordez (318 or.), *hehar* "behar"-en ordez (336 or.), *ionbone* "iondone"-ren ordez (337 or.), *barrancorrena* "barrencorrena"-ren ordez (340 or.), *amazte* "emazte"-ren ordez (351 or.), *gueriat* "guerlati"-ren ordez (352 or.), *cerauela* "cerauena"-ren ordez (353 or.), *elccarriquin* "elccarrequin"-en ordez (354 or.), *Amhrosioc* "Ambrosioc"-en ordez (363 or.), *partiba* "partida"-ren ordez (373 or.), *Çeren* "Ceren"-en ordez (403 or.), *hurrau* "hurran"-en ordez (410 or.), "errearaci" "erra araci"-ren ordez (410 or.), *gatçat* "gatçac"-en ordez (419 or.), *babe* "gabe"-ren ordez (421 or.), *haina* "baiña"-ren ordez (425 or.), *esçuen* "escuen"-en ordez (432 or.), *guela* "çuela"-ren ordez (434 or.), *muda* "mutha"-ren ordez (458 or.), *erramenduça* "erranenduçu"-ren ordez (495 or.; halaber, *erramenduçu* -536 or.), *naicea* "nainen"-en ordez (501 or.), *gaixtasun* "gaitztasun"-en ordez (505 or.; baina: *gaixtatasuna* "gaixtatasuna"-ren ordez -517 or.), *aippuatu* "aipgatu"-ren ordez (510 or.), *aracinotan* "oracinotan"-en ordez (519 or.), *omorantearen* "amorantearen"-en ordez (519 or.), *eto* "eta"-ren ordez (540 or.), *baltitçaquetçu* "baititçaquetçu"-ren ordez (567 or.), *danu* "damu"-ren ordez (571 or.), *mithil* "muthil"-en ordez (584 or.), *paitu* "baitu"-ren ordez (584 or.), *ero* "ere"-ren ordez (589 or.), *gulura* "gulara"-ren ordez (593 or.), etab.

- Hizkiak areagotzeagatik sortutako akatsak: *guibelatçaille* "guibelatçaille"-ren⁴⁹ ordez (8 or.), *Euscarratic* ("euscarratic"-en ordez; 15 or.), *gueldi aratcitceco* "gueldi aratcitceco"-ren ordez (16

49 Zuzendurik ematen da hemen lehen edizioako *guibelatçaille* hitzaren ç akastuna.

or.) *halabert* "halaber"-en ordez (17 or.), *demborant* "dembo-
 ran"-en ordez (37 or.), *maintço* "mintzo"-ren ordez (39 or.),
eztella "eztela"-ren ordez (71 or.), *off.* "ff."-ren ordez (79 or.,
 alb.), *haurz* "haur"-en ordez (84 or.), *boratharic* "bortcharic"-en
 ordez (114 or.), *ezcetz* "ezetz"-en ordez (119 or.), *gouer-
 thatcen* "guerthatcen"-en ordez (246 or.), *bethore egun*
 "bethor egun"-en ordez (269 or.), *hasserretcetceac* "hasse-
 rretceac"-en ordez (275 or.), *iharduququitcea* "iharduquitcea"-
 ren ordez (319 or.), *solhasturic* "solhasturi"-ren ordez, (327
 or.), *eguiteare* "eguitea"-ren ordez (356 or.), *baitara* "baita"-ren
 ordez (400 or.), *orgarren* "orgaren"-en ordez (429-430 or.),
sentencia "sentencia"-ren ordez (435 or., balna hurrengo le-
 rroan *sentencia*), *norc* "nor"-en ordez (477 or.), *hatran çaleac*
 "arrançaleac"-en ordez (490 or.), *dabillalac* "dabillala"-ren or-
 dez (502 or.), *sabellarena* "sabelarena"-ren ordez (505 or.), *du-
 tuen* "duten"-en ordez (508 or.), *presunac* "presuna"-ren or-
 dez (515 or.), *nahiz* "naiz"-en ordez (536 or.), *mahiz* "maiz"-en
 ordez (543 or.; lerro berean *maiz*), *iccarra* "iccara"-ren ordez
 (575 or.), *derautcatela* "deraucatela"-ren ordez (591 or.),
oiñhazceztatua "oiñhazceztatua"-ren ordez (592 or.), *eddirenen*
 "edirenen"-en ordez (611 or.), *etab.*

— Hizkiak kentzeagatik sorturiko akatsak: *llduric* "vilduric"-en or-
 dez (7 or.), *iragani* "iraganic"-en ordez (7 or.), *Leheni* "Lehe-
 nic"-en ordez (62-63 or.), *ibitceaz* "ibiltceaz"-en ordez (96 or.),
bercela "bertcela"-ren ordez (152 or.), *lona* "loana"-ren ordez
 (154 or.), *Tren.* "Thren."-en ordez (162 or., bazt.), *eduquicoitu*
 ("eduquicoitut"-en ordez, 194 or.), *probeto* "probetto"-ren or-
 dez (229 or.), *çunetic* "çuenetic"-en ordez (229 or.), *hamare-
 quin* "hamarrequin"-en ordez (248 or.) *içatçu* "itçatçu"-ren or-
 dez (261 or.), *eran* "erran"-en ordez (262 or.), *cere* "ceren"-en
 ordez (282 or.), *eçuen* "etçuen"-en ordez (313 or.), *baccari*
 "baccaric"-en ordez (335 or.), *çorac* "çoroac"-en ordez (343
 or.), *legutic* "legueric"-en ordez (351 or.), *berez* "bereaz"-en
 ordez (359 or.), *galgariac* "galgarriac"-en ordez (361 or.),
gaiçala "gaitçala"-ren ordez (366 or.; akatsik gabe lerro be-
 rean), *conta* "contra"-ren ordez (369 or.), *egotia* "egotcia"-ren
 ordez (382 or.), *baccarri* "baccarric"-en ordez (403 or.), *legarri*
 "legarric"-en ordez (425 or.), *alacoric* "halacoric"-en ordez

(447 or.), *hiztariac* "ihiztariac"-en ordez (490 or.), *çaporatcen* "çapporatcen"-en ordez (503 or.), *alegriantçatic* "alegriantçatic"-en ordez (503 or.; orri berean: *alegriantça* laupabost aldiz), *bareneco* "barreneco"-en ordez (505 or.), *emen* "hemen"-en ordez (505, 620or.), *araitasuna* "araitasuna"-ren ordez (508 or.), *ceur* "ceurc"-en ordez (516 or.), *sequeretua* "sequeretuac"-en ordez (540 or.), *amoria* "amorioa"-ren ordez (557 or.), *besartcen* "besarcatcen"-en ordez (562 or.), *bihi* "bihia"-ren ordez⁵⁰ (574 or.), *car-hotz* "carrasc-hotz"-en ordez (587 or.), e "ez"-en ordez (587 or.), *iguitu* "higuitu"-ren ordez (603 or.; lerro batzuk beherago, berriz, *higuitu*), etab.

- Hizkiak lekuz aldatuta emateagatik burututako akatsak: *guhertatu* "guerthatu"-ren ordez (436 or.), *deunean* "dueneã"-en ordez (443 or.), etab.

9.– Lan honen mugak erraz gairidituko lituzkeen akats eta zuzenketen azterketak hainbat puntu interesgarri uzten ditu agerian. Inorentzako lerketa-gonbit izan daitezkeela eta, hona hemen horietako batzuk laburturik, artikuluaeren konklusio gisara:

- Bigarren edizioa, zinez, lehenaren ondoren etorri zen, hots, 1643koaz gerotik⁵¹. Beraz, hainbat liburutegi-katalogotan 1642ko dataekin edo lehenagoko batekin erreferentziatuta dauden arren, edizio hau beranduagokoa da. Erantsi beharrik ez da "bigarren edizio" gisa agertzen dena bigarren edizioa dela egiaztatzeko adibideak nonahi aurki ditzakeela irakurleak. Esate baterako, "geher" hitz laburtua ("chehero" beste grafia batekin), bigarren edizioaren egileek ez zuten ulertu eta "Genes" bezala interpretatu eta jarri zuten (111 or., orri-bazterrean). Antzeko zerbait gertatzen da "Erragean." hitzarekin (56 or., bazterrean). Lehen edizioan zegokion tokian kokaturik bazen ere ("errachean" hitza dagoen lerroaren alturan, *in margine*,

50 Gaizki egindako interpretazio baten ondorioa da honako akats hau, bigarren edizioaren zuzentzaileak izenondotzat ("bihi onac") hartu baitu lehen edizioan aposizio hutsa zena: "bihia (,) onac, ". Garbi ikusten da hori paralelismoaren efektua bilatzen duen hurrengo esaldian: "eta lastoa, gaixtoac (,) ifemuco labean".

51 Jakina, horrek ez du kentzen 1643kotzat dugun argitalpenaren zenbait pleguren inprimatze lanak aurreko urtean hasiak eta burutuak izatea.

testuko hitza grafia desberdinez idatzi zitekeela erakusteko), bigarren edizioan bi lerro gorago jarri zen eta "Errag." bakarrik ipiniz⁵².

- Lehen edizioarekin erkaturik, bigarrena orain arte pentsatu dena baino askoz ere desberdinagoa da. Gorago aurkezturiko frogak eta adibideak ez dute zalantzetarako tokirik uzten. Desberdintasunak tipografiaren arlo guztietan ematen dira: tituluak, formatuak, konposizioak, inposizioak, irudietan eta, oro har, moldiztegi batean dauden bestelako ataletan ere.
- Gutxi diren arren, desberdintasun testualak (emendailuak, batik bat) bereziago egiten dute edizioa.
- Lehen edizioari eskuz erantsi zitzaizkion ohar eta zuzenketa gehienak testuratu zituen bigarrenak. Eta era sistematikoan testuratu, gainera.
- Lehenaren eskuzko zuzenketa horiek bigarreanean agertzeko argitaratzaileek erakutsi zuten arretak kontraste handia egiten du gero liburua isurtzen diren akats ortografiko eta tipografiko ezin anitzagorekin.
- Bigarren edizioak, lehen edizioaren eskuz egindako zuzenketa jasotzeaz batera, lehenaren antzematen ez ziren hainbat hitz eta esaldi ditu testuratuak. Horrekin batera, lehenengoan ez zeuden akatsak ere kopuru handia osatzen dute, edizioari ikuspegi berria emanez.
- Edonola ere, bigarren edizioak lehena "bezalakoa" izan nahi du. Beraz, desberdintasun handiekin bada ere, antza eta "itxura" gorde nahi izan du eskuarki.
- Gogoratu behar da, halaber, "silutegi berak" erabili zirela aldarrikatzen dutenek ahanzi egiten dutela eskuzko inprimategiaren garaian (XVIII. mendera arte, beraz) ez zirela gordetzen edizio batean baliatutako plantzak, editoreel kostu ikaragarri handia ekartzeaz gainera, horrek blokeatu egiten baitzuen *sine die* horretarako prestatu tipoen erabilera⁵³.

52 Beste batzuekin ere gertatu zen hori: "Chedea" zeraman lehenaren parean egon behar zuen "Gedea." hitza edizio bietan ezarri zen bi lerro gorago. Edizio berria egin zuenak ez zuen ulertu zertara zetorren hura eta ez zela, agerian da, akatsaz ohartu.

- Presaka egindako edizioa da, ez da zalantzarik. Azken orduan zuzentzaileen eskuetatik pasatu gabekoa, gainera.
- Prebentzio guztiak gutxi ohi diren arren, Geroren bigarren edizioa ongi asko izan daiteke XVII. mendearen amaierakoa⁵⁴.
- Liburuaren argitalpen-lanetan izan zen euskaldun jendearen lana "Gomendiozco carta" "konpontzera" mugatu zen. Ez dirudi askoz gehiago egin zutenik⁵⁵. Edonola ere, esanguratsuak izan daitezke antzematen edo zaizkion hizkera-zantzuak: Urkixoren ale garrantzitsuenean⁵⁶ akastzat hartzen den *esaita* eredu⁵⁷ (17 or.) liburuan zehar agertzen diren *-an* amaierako aditz guz-

53 "Los impresores de la imprenta manual no podían permitirse el lujo de tener muchos tipos en la composición durante mucho tiempo. Por término medio, se necesitaban alrededor de 50 kg. de tipos en cajas para componer un pliego, así que lo que Moxon llamaba una *gran* fuente de pica (450 kg, incluyendo una cantidad considerable de itálica) no daba para más de ocho pliegos de cualquier libro que se estuviese imprimiendo. Así pues, por regla general la composición de libros largos se tenía que distribuir para volver a utilizar la letra en cuanto el pliego estuviese impreso. Se dieron casos en que a Plantin, que, no lo olvidemos, poseía más tipos que la mayoría de los impresores, le resultaba más fácil interrumpir la impresión de un libro largo, distribuir y utilizar los tipos para un trabajo más urgente, y volver a componer lo que se había distribuido para continuar con el libro largo" (Gaskell 1998, 140).

54 Xurioren *Imitacionearen* ohar bibliografikoan tartekatu zuenaren arabera, beranduagokoa iruditu zitzaion Vinsoni *Gueroco guero* delakoaren inprimaldia, Xuriorenaren garaiakoa hain zuzen: "Le papier et les caractères ressemblent beaucoup à ceux de la «deuxième édition» d'Axular" (Vinson 1891: 1984, 161). Ezaguna den bezala, M. Xurioren *Imitacionea* hura Borden argitaratu zen, Guillaume Boudé-Boé inprimatzailearenean, 1720an.

55 Dena den, euskalduna izan zen ikusia dugun 491. orrialdeko "hezgaitzenac" *ez-gaitzenenac* bilakatu zuen eskua ere.

56 Gorago esan bezala, Donostiako Koldo Mitxelena Kulturgunean gordetzen da ale hau (signatura: J.U. 3376 CF 85). Urkixoren *ex-libris* delakoaren ondoan, jabeak honako erreferentzia ezarri zion aleari: ". J. de U. 1". Alerik ezagunena da, berau erabili baitzen 1988ko faksimil gisako argitaraldia burutzeko.

57 Axularrek, hizkuntz molde desberdinen arazoa argitzeko, *erraita* delakotik ahalik urrunen egon zitekeen forma bat agertu nahi izan zuen pasarte horretan. Urkixoren ale ezagunean eskuz zuzenduta dago (*esatea* bihurtuta, alegia), baina askoz beranduagoko zuzenketa dateke.

tiak bezala emana dago (*iragaiten, emaiten, izaiten, erraiten, joaiten, jasaiten, atzemaiten...*). Bigarren edizioak hertsiki segitzen dio horretan lehen edizioari, salbuespen bakan batzuekin: tartekaturiko pasarte batean (142 or.) *emateagatic* erantsi du edizioaren zuzentzaile-emendatzaileak; eta akatsa ez dela berresten digu ondoko honek: testu-zuzenketa txiki bat behar zuen pasarte batean (538 or.), jatorrizko *emaiten* delakoa *ematen* bilakatu zen bigarren edizioan⁵⁸.

- Edizioaz arduratu ziren langileak (*kaxistak* zein bestelakoak) profesional duinak baziren ere⁵⁹, ez zekiten, antza denez, euskaraz, ez eta latin gehiegirik ere. Testuan barrena azaltzen diren hainbat akatsek horren erakusgarri baino ez dirudite.
- Orobat, liburuaren azken zuzenketa egiteko unean, testua gabe, ozenki irakurtzeaz⁶⁰ baliatu bide ziren inprentan, akatsek berriro ere erakusten dutenez⁶¹.

58 Berdin esan liteke testuaren albo batean eskuz zuzendurik dagoen pasarte batean egindakoaz (57 or.): *erran cioen* tartekatzeo adierazten bada ere, bigarren edizioan *erratentioela* (ez "erraiten") eransten du.

59 Esate baterako, erruz zabaltzen diren akats ortografikoekin konparaturik, ia anekdoten kategoriakoak dira gaizki edo alderantziz konposatutako hizkiak.

60 "El corrector prefería que el lector le leyese el original (guri dagokigun kasuan, lehen edizioa zen "originala") en voz alta mientras él seguía la prueba e iba señalando los errores. De este modo podía comprobar que la reproducción del original era correcta sin distraerse con la extravagante ortografía del manuscrito" (Gaskell 1998, 134).

61 "También se podían introducir otros errores en esta fase por culpa de la transmisión verbal del original; si el joven lector leía el original mal, o si el corrector oía mal o no entendía bien al lector, se podía introducir en la prueba como corrección una palabra equivocada, tanto si el cajista desde el principio la tenía bien como si la tenía mal" (Gaskell 1998, 441). Hemen banaka eman diren hitzen azaleko begiradak ere ez du ezkutuzen egoera hori. Bihoaz bi adibide. Lehenengoan (17 or.), "haserretcea" hitzaren konposatze-unean testua ozenki irakurtzen zuenak "bi"-rekin idatzi behar zuela esatean, tipografoak "bi"-rekin idatzi zuen hitza, baina ez bi "r"-rekin, bi s-rekin baizik: *hasseretcea*. Nabarmenagoa da aurreragoko beste adibide bat (505 or.): "*sabelarena* baino, eta *barreneco* bozcarioa" irakurtzean, tipografoari "bi" hizki berdinekin osatzeko adieraziko zitzaion ziurrenik, eta hark "bi"-rekin idatzi zuen, baina ez behar zen hizkia eta ez zegokion tokian, eta esaldia honela geratu zitzaion: "*sabellarena* baino, eta *bareneco* bozcarioa".

Bibliografia

- Arana Martija, J.A., 1994, "Euskal Herriko Inprentaren historia", *Uztaro* 12, 37-53.
- Axular, 1643, *Guero bi partetan partitua eta berecia...*, G. Milanges, Bordele. (Faksimiltzat argitaratua: Euskaltzaindia, Bilbo, 1988. Honen aurretik, bertsio bukatu gabea eta zatika argitaratua aurki daiteke RIEVen⁶²).
- Axular, d./g., *Guero Guero. Bigarren Edicionea corrigetua, eta emendatua* (Eusko Legebiltzarreko Liburutegian dagoen bigarren edizioako alearen faksimila, Bilbo, 2006).
- Gaskell, Ph., 1998, *Nueva introducción a la bibliografía material* (Hitzaurrea eta berrikusketa teknikoak: J. Martínez de Sousa), Gijón.
- Kalzakorta, J., 2006, "Pedro d'Agerre Azpillikueta Axular (1556-1644)" izenburuko aurkezpena, in Axular: *Guero Guero. Bigarren Edicionea corrigetua, eta emendatua* (bigarren edizioaren faksimila), vii-xii.
- Lacombe, G., 1956, "Axular et son livre", *Gure Herria XXVIII*, 365-370.
- Placer, Eloy L., 1968, "Los cuatro Ejemplares del Gero en la Newberry de Chicago", *Boletín del Instituto Americano de Estudios Vascos XIX*, 72. zkia., 23-27.
- Salaberri, P., (argitaratzeko), "Axularren Gero liburuaren lehen edizioa. Aleak, aldeak eta zuzenketak".
- Villasante, L., 1972, *Axular. Mendea. Gizona. Liburua*, Arantzazu.
- Villasante, L., 1974, "Bibliografía Axulariana", *FLV* 16, 135-152.
- Vinson, 1891-1898: 1984, *Bibliographie de la Langue Basque (Volúmenes I y II)*, Donostia (1891eko *Essai d'une Bibliographie de la Langue Basque* eta 1898ko *Complément et Supplément* liburuen edizio bateratua, eta J. Urkixoren oharrez hornitua).

62 RIEV IV (419-472 eta 517-572), V (283-374), VI (5-99, 334-384 eta 441-482), XI (11-42) eta XXIV (73-88).



Egonen da leku bat

ESOHEN
Eratza
nre jai
meab
Euria e
onkor
eta eg
beste
Honela
pasea
fala e
beste

Egonen da leku bat Eguzkitik h
non unetik ez dagoen orduen ir
eta gogoaren kezka denboraren
Egonen da leku bat Eguzkitik h
non gara bateko bihotzak zahar
eta borondate purrek atariagatik

labarrak bestetik ez dira agertzen
geure izatearen amildegi zorrotz eta zaharkietan.
Olatuak behin eta berriz, mila biderretan mila,
etengabe lehertzen dira geure zuri zartakutan
lilitan amestutako larre berdeko b
noiz aurkituko eta sentituko irriban

Sorkuntza

Egonen da leku bat

Pello OTXOTeko

EGONEN DA LEKU BAT

Ekaitzaldiko odel ilunak
nire jaioterriko badiaren mendebaldetik
meatxugarri badatoz pixkanaka.
Euria eta berun koloreko zeruak
ohikoak dira gure herriko paisaian,
eta egoera honek bihotzak estutzen gaitu
bestelako paisaiak ezinezkoak ez direla erabat ahaztuz.
Honelaxe aurrera ekiten diogu egunero
paseatzera ateratzen garen orotan.
Hala ere, geure bihotzaren begiradak
besterik dagoenaren distira du igartzen.

Egonen da leku bat Eguzkitik haratago
non unerik ez dagoen orduen iragaitean
eta gogoaren kezkek denboraren gorazarrean urtzen diren.
Egonen da leku bat Eguzkitik haratago
non garai bateko bihotzak zaharberrituko diren
eta borondate puruek ahaleginik gabe distiratuko duten.

Labarrak besterik ez dira agertzen
geure izatearen amildegi zorrotz eta zaharkituetan.
Olatuak behin eta berriz, mila biderretan mila,
etengabe lehertzen dira geure zauri zartatuetan
tikitan amestutako larre berdeko brisara leuna
noiz aurkituko eta sentitzeko irrikitan.

Bitartean, erdi etsirik, ezin itxaron lasai,
ezin lokartu lasai, ezin maitatu lasai.
Ezin gizaki izan, eta gizaki izan ezinik
horra neure errailetako mina
egun handirarteko itxaronaldia ezin agurtuz.

Egonen da leku bat Eguzkitik haratago
eta haizearen taupadek geure arnasa dute gobernatuko,
eta begiradaren zabalkundeak ez du begien klisketan etenik izango.
Egonen da leku bat Eguzkitik haratago
eta eskuen ahurrak ez ditugu zerurantz goratu beharrik izango
eta esperantzak ez du pausagunerik izango irribarre benetakoan.

EAGONEN DA LEKU BAT

Erkatzaliko odel llinak

nire jatorriko badakiren mendebaldeak

meskugan badatos pikkanaka

Euria eta berun koloreko zeruak

ohinok dira gure hantxo patsalan,

eta egoera horiek dirhotzak estutzen gaitu

bestelako patsiak ezinezkoak ez dira erabat ahaltsu.

Honakak aurrera ekiten diogu egunerio

pasatzeri ataritzen garen orotan

hala ere, geure dirhotzaren begiak

bestek badogaren distira du igarzen.

Egonen da leku bat Eguzkitik haratago

non lurrek ez dagoen orduen iragaitan

eta dogoaren kezak denboraren gortararen uthen diren.

Egonen da leku bat Eguzkitik haratago

non gaiti patsiko dirhotzak zaharberriko diren

eta porondate purrek ahalagirik gabe distiratuko duten.

Laparrak bestek ez dira agertzen

geure izatearen amildegi zoroiz eta zaharhiltzetan

Glasiak berlin eta berts, mila bideretan mila,

erengabe lehortzen dira geure zain zaharhiltzetan

lurrian amestuzko jante berdeko piztsa leun

noiz aurkituko eta sentituko imiltan.

BILA DABILEN ORORENTZAT

Txotxezko habeez eraiki zenuen, maitea
geure maitasunaren tenplua,
zurrunaren indarra gabezia delako
edertasunaren bila dabilen ororentzat.

Haize-arnasaz hitz egiten didazu, maitea
geure harremanaren bermea egiaztatuz,
hitzaren esanahia gezurra delako
egjaren bila dabilen ororentzat.

Euri-zipritzinez garbitzen duzu musua, maitea
bizitzaren hozkirria sentitzeko asmoz,
naturaren ixurkin xaloak lasaigarri baitira
benetako ondarearen bila dabilen ororentzat.

Laztan xumeen keinuak atsegin dituzu, maitea
begiraden distira argiak nabarmentze-unean,
irribarre baketsuen eragile direlako
maitasunaren bila dabilen ororentzat.

OINAZE IXILA

Jendearen oinaze ixila
ez da oihu gartsuetan kanporatzen
ez eta negar malko ugarien
isurtze lanbrotsuan ere.
Jendearen oinaze ixila
begien begirada ezan
egunaren hondarrean suma dalteke,
ezpain hieratiko batzuen dardaran
itzalpeko keinuetan nabari dalteke.
Oinaze ixila pertsonengan
bihotz kraskatuaren isla eta igarle da.

BEGIRADAREN MORANTZA

Izatearen ahurra
Eguzki izpi guztien galdatan
oihartzun orok bateratzen dituen
barrunbearen arrago da.

Itsaso guztien haratago dagoen lurraren erroetan
antzutasuna ganbila da,
borondatearen gogoak altzorik badu,
eta ezerezak ez du labarrik aurkezten.

Ez dago amildegirik
ez dago erorketarik
ez dago zentzugabeko hutsunerik,
deusezaren ertz abailduak baino ez.

Eta argiaren erakarpenean
aurrerantz igortzen dugu irrirtsaren ahalegina,
ezerezaren erpinen helmugarantz,
galdutako ametsen jatorrira.

Laukiak... Zutabeak... Biribilak

Mikelats GORROTO

LAUKIAK (aldeak)

Estoldan jalotako
arratoi nardagarria.

Itsu.
Lohi.

Tabernan orduak
bustitzen dituena.
Zoro.
Gor.

Dendan saldutako
gorputz lizuna.
Zurbil.
Beldur.

Espaloian hildako
andre pobrea.
Itsu. Lohi. Zoro.
Gor. Zurbil. Beldur.

LAUKIAK (erpinak)

Umezurtz
eta, halaber, ama ona eduki.
Ulrike Meinhoff
Indarkeria ahots. Idealak arma.

Kartzelan,
azken agurra,
soka batez.

Azken oihua.

Erraldoiak. Ipotxak. Munstroak.
Mundua bera. Itxuragabe.

Diane Arbus.

Botoia sakatzen duen eskua, errukiorra.
Bere bizitza ezabatu
behar zuen esku bera.

Azken irudia.

Virginia Woolf.

Bizitzaren
une ikusiezinak,
gogoa ferekatzen duten luma samurrak.
Bere buruari
atea ireki.

Azken unea.

Munduko bi aldeak.
Mundua antzerki.

Alfonsina Storni.

Hitzen ibalan murgildu
eta Mar del Platan.

Azken hitza.

ZUTABEAK (1)

(S) ZUTABEAK

Estresa

zer arraioa den
azaltzeko gauza
denik ba ote dago?

Etxean
hautsak jango
zaituelako susmoak
zer adierazi nahi du?

Buru
argi horiek
ez dute jakingo, akaso,
behar dugunean euria jausarazten?

Goizeko zortziak.
Logurak tragatuta.
Besteen moduan. Trenean. Logurak erreta.

Bulegora.
Gasolina eta sua.

Galera eta irria.
Lau horma hezeak,
betiko.

Estresik gabe.
Kezkarik gabe.
Gerorik gabe.
Ezer ere ez.

Itxaropena
hutsik.

ZUTABEAK (2)

(1) ZUTABEAK

Erori

Ezertza

naiz.

zer zaitas den

Zuloan.

azaltzeko gauza
denik da ote dago?

Ilun

Itzuan

dago.

hauetarako jango

Beltz.

hauetarako zuzmoz
zer adieraz nahi du?

Hilotza.

Dun!

Hotz.

ardi hotzek

Ez.

ez dute jakingo, akaso,

Lur

berer dugunean eua jausatez?

usaina.

Goizeko zozziak.

Senidea.

Logurak tragatuta.

Errautsa.

Besteen moduan. Tenear.

Laguntza.

Besten moduan. Tenear.

Esku

Besten moduan. Tenear.

bat.

batko.

Barrurantz.

batko.

Bultzatu

batko.

nau.

batko.

Bakardadea.

batko.

Zulo

batko.

beltzean.

Betiko.

Aurpegi

bat.

Ukitu.

BIRIBILAK (1)

Mikel Laboa.

Betiko.

Txinaurriak Dalírenak eskuetatik ihesean gitarrari eutsita
bertsoz zornatuak.

Bedeinkatu zuten haren burua, buruba, ubeldu haren
eztarriko nota zoliak,

bat, bi, hiru, sorginen xarmadurak betiko gazte, betiko mutil.

Txorien kantu, luma zurien kokoteko babesgarri

eta otserriaren kolpeak bigundu zituen bizkarra,

eserita, jarrita,

gitarrari eutsita.

Bonbardaketen pean, ilunpeko bonbetan, kantu-bonbetan,
kantupetan,

mundura eta betiereko eredu hilezina, hazia galduko da.

Brechten arima haren begietan noraezean.

Tango baten hondarrak atzazaletan esnatuta.

Herriaren ileurdinak listuzko oroitzenetik elikatuta.

Karrakelak, begi-leihoak.

New York, bihotzerre.

Harridurak, Atxaga.

Ez al da egia gazteen poltsiko hutsen handinahikeria?

Errorea? Faltsukeria?

Ez al da ogia artearen bazterkeriaren atarramentua?

Ekaitza? Domina?

Ez al da agian lur honetatik kanpotikoa? Arrotza? Ahots hotza?

Lekeitio. Gorrotoen batzarra. Etsipen, min zaharrak.

Donostia. Odolezko sorrera. Burdina eta nylona. Bal, guri ere bal.

Lotsa.

This is not a (love) song. Bat Hiru. Bigarrena janda, ezabatuta.

Bigarren atzamarra zutik, tinko, indarkeriari so, erronkan.

Airera. Begietara. Arimara. Helduko.

Airean. Begietan. Ariman. Geldituko.

Betiko.

Mikel Laboa.

BIRIBILAK (2)

Amandre dut

geroa

Euria eta trumoa.

Mendi gailurra(k).

Anboto, Oiz, Mugarra.

Zazpina urte.

Aralar, Aizkorri, Murumendi.

Behin, oparia utzi nion

haizpean. Har zezan.

Sei eta sei eta sei. Gezurra ote?

Gezurra da.

Amandreen amandreek esan ziguten moduan

jaso zuten historia. Datozen mendeetan

biziko

dena.

Baina, ez dut nik asmatu. Nire historia. Ene

amandrea, amama, amume.

Aita nuen gorrotoa, mendekua, herio.

Orpoan sortutako mozorroa bezalakoa.

Haragian sartutako labanaren antzekoa.

Bizitzan gortutako etsaiak.

Gorrotoaren semeen semeak.

Higuinaren alaben alabak.

Herraren alden amak.

Ezerezaren amen amena.

Mari Muruko, Mariburute.

Anbotoko Dama, Puiako Maia.

Arpeko Saindua, Aldureko Mari.

Marie Labako, Marije Kobako.

Mariarroka, Mariurra.

Aketegiko Sorgine.

Bideko emazte xuria.

Trumoa eta euria.

Geroa dut

amandre.

Seve Calleja

Haur literaturarekin maitemindutako
idazle eta ikertzaile bikaina



Haur eta gazte literatura

BEYBILAK (2)

Amandre dut
geroa

Curia eta trumola.

Mendi galurra(k).

Arboto, Oiz, Mugarra.

Zazpina urte.

Azalar, Aizkorri, Murumendi.

Behin, operia utzi nion

harpean. Har zezen.

Sei eta sei eta sei. Gezurra oti.

Gezurra da.

Amandreen auzo berek ez zuten modu

jaso zuten hitzona. Dena zuten hitz

bazko

dena.

Baina, ez dut ezer gogoratu. Ene

amandrea, ama, auzoak, urria.

Aia ruen gorotza, leudekua, nerua.

Orpoan sartutako moztirra bazela.

diragien sartutako labnaren ontzeki.

Berrian ez taho etsa.

Gorotzen semeen

hizunaren alaiak, leudek.

Herraren alaiak, leudek.

Ezerezaren amen omena.

Fian Muzho, Marburute.

Arbotoko Dama, Puziko Maita.

Arpeko Saizda, Aizkorriko Mari.

Mane Labako, Marije Kobako.

Manaroka, Marurake.


Ahetegiho Sorgine.

Bideko emate karta.

Trumola eta curia.

Geroz

amandre.



Haur eta gazte literatura

Seve Calleja

Haur Literaturarekin maitemindutako idazle eta ikertzaile bikaina

Iñaki ZUBELDIA

Biografia

Seve Calleja Zamoran jao zen 1953an, baina haurtzarotik Bilbon bizi da. Filosofia eta Letretan lizentziatua da eta Bilboko institutu bateko irakasle. Idazle oparoa eta Haur eta Gazte Literaturako ikertzaile aitzindaria eta kritikoa salatuenetakoa da. Arlo honetako kritika eta didaktikako artikulu eta ikerketa ugari argitaratu ditu egunkari eta aldizkarietan. Bere bizitzaren zatirik handiena literaturari eskaini dio maila pertsonal eta profesionalean eta bere benetako zaletasuna literaturarenganako grina hau gazteei eta umei sentiaraztea eta bi-ziaraztea izan da. Eta ez bakarrik umei eta gazteei, irakasleei eta literaturarekin zerikusia duten estamentu guztiei ere bai. Idazle eta kritikoa bezala lan handia egin badu ere, didaktika mailan egin duena ez da atzean gelditzen, hiru liburu idatzi baititu arlo honetan *Lecturas animadas* (1988), *Todo está en los cuentos* (1992) eta *Ipuien tailerra* (1999). Liburu hauetan irakurketaren ofizioan eta afizioan lehen pausoak emateko aholkuak eta baliabideak eskaintzen ditu eta, gainera, ikasleen artean literatur sorkuntza nola sustatu eta nola bideratu erakusten digu. Hauetz gain, Euskal Haur eta Gazte Literaturaren lehenengo ikerketa sakona eta orokorra ere Seve Callejaren eskutik iritsi zitzaigun, bi liburu hauetan antolatuta: *La literatura Infantil Vasca* (1988) eta *Haur Literatura Euskaraz* (1994). Literatur zaileentzat, irakasleentzat eta espezialistentzat hitzaldi eta ikastaro ugari eman ditu Haur Literaturaz, bai Euskal Herrian, bai Espainia mailan.

Literatur sortzaile bezala hainbat literatur sari garrantzitsu irabazi ditu, hala nola: "Ignacio Aldecoa" saria narratiban, Zarauzko "Lizardi" saria Haur eta Gazte Literaturan, "Pío Baroja" sarian akzesita nobelan, "Gabriel Aresti" saria ipuinean eta "Leer es vivir" erdaraz, Leonen. Bere literatur lanak hainbat hizkuntzatan argitaratu dira: euskaraz, erdaraz, katalanez eta galizieraz... Kritiko, ikertzaile, irakasle eta idazle honen artikuluak aldizkari espezializatu ugarian ikus daitezke: *Re-seña*, *Diálogos*, *CLJ*, *Peonza*... Zurgai literatur aldizkariko erredakzio kontseiluko kide da.

Beste arlo bat ere jorratu du idazle eta ikertzaile saiatu honek: literaturako klasikoen eta hainbat kulturatako ipuin tradizionalen edizio kritikoak. Era honetako lan ugarian gidari eta bultzatzaile lana egin du *Seve Callejak*. Besteak beste, antologia hauek berak prestatuak dira: *Basajaun, el señor del bosque*, *Historias de la piratería*, *Clásicos cuentos de Navidad* eta *Cuentos del tren*. Berak prestatua da baita ere *Romancero y la lírica tradicional*. Beste lan askotan ere parte hartu du, bereziki hainbat herrialdetako ipuin tradizionalen presaketan: *Afrikako ipuinak*, *Errusiako ipuinak (Afanasiév)*, *Hego Amerikako ipuinak*, *Ijitoen ipuinak*... Elkar argitaletxeko *Klasikoen kutxa* sailean ere bera izan da koordinazio lanak egin dituenak.

Bibliografia

- Nire bizikleta eta ni*, Elkar 1992, Haurrentzako ipuina.
- Tximino gixajoa*, Elkar 1983, Haurrentzako ipuina.
- Hain da triste la vie du touriste*, Elkar 1986, Haurrentzako ipuina.
- Bazen behin marinel bat*, Elkar 1986, Haurrentzako ipuina.
- Dado iratxoa*, Elkar 1986, Haurrentzako ipuina.
- Beheko eskola, goiko eskola*, Elkar 1987, Haurrentzako ipuina.
- Anixeren liburua*, Edelvives 1990, Haurrentzako ipuina.
- Pinpilinpauxa gardena*, Edelvives 1990, Haurrentzako ipuina.
- Hamster bi kaiola baten barruan*, Bruño 1991, Haurrentzako ipuina.
- Bakarnek ez du lagunik*, Elkarlanean 1991, Haurrentzako ipuina.
- Herri ibiltari bat: ijitoak*, Gero-Mensajero 1993, Saio etnografikoa.
- Hegoamerikako ipuinak*, Elkarlanean 1993, Ipuin hautatuak (bilduma)
- Ni zu banintz*, Giltza 1994, Haurrentzako ipuina.

- Hiltzen bazara ikusiko duzu, Ibaizabal 1994, Haurrentzako ipuina.
- Hiltzen bazara ikusiko dozu (bizkaieraz), Ibaizabal 1994, Haurrentzako ipuina.
- Bolon-bolon, Ibaizabal 1994, Haurrentzako ipuina.
- Eta Karlota?, Ibaizabal 1994, Haurrentzako ipuina.
- Atxia motxia, Ibaizabal 1994, Haurrentzako ipuina.
- Basoan, Ibaizabal 1994, Haurrentzako ipuina.
- Hau hotzal, Ibaizabal 1994, Haurrentzako ipuina.
- Hartz bihurria, Ibaizabal 1994, Haurrentzako ipuina.
- Esploradore, Ibaizabal 1994, Haurrentzako ipuina.
- Izotzen Herrian, Ibaizabal 1994, Haurrentzako ipuina.
- Hondartzan, Ibaizabal 1994, Haurrentzako ipuina.
- Ester erreginaren barauak, Desclee 1996, Gazte eta helduentzako nobela.
- Etorriko zara nirekin?, Desclee 1996, Haurrentzako ipuina.
- Basajauna eta beste euskal ipuin eta legenda batzuk, Aizkorri 1997, Ipuin tradizionalen bilduma.
- Aitatxo balkoian dago, Desclee 1997, Haurrentzako ipuina.
- Mari Joseri zergatik deitzen diote Joxe Mari, Elkar 1997, Haurrentzako ipuina.
- Pirata jokoa, Elkarlanean 1997, Gazteentzako nobela.
- Aingeru guardakoa, ez izan ganorabakoa, Aizkorri 1998, Gazteentzako nobela.
- Esklabo zoriontsuen uhartea, Desclee 1998, Gazteentzako nobela.
- Kriskitin Erregea, Gero 1998, Gazteentzako nobela.
- Marrastu arkume bat, Desclee 1999, Gazteentzako nobela.
- Pol eta Puy, Elkarlanean 1999, Gazteentzako nobela.
- Musikaren plaza, Gero 1999, Gazteentzako nobela.
- Gutun lapurrak, Desclee 2000, Gazteentzako nobela.
- Potoloa naiz eta zer?, Elkarlanean 2000, Haurrentzako ipuina.
- Ixu, hortzik gabeko marrazoa, Elkarlanean 2000, Gazteentzako nobela. Erein 1984.
- Tximeleta gardena, Desclee 2001, Gazteentzako nobela.
- Sator Jator Jauna, Desclee 2001, Haurrentzako ipuina.
- Deabrua gorputzean, Elkarlanean 2001, Gazteentzako nobela.
- Txakur berde baten istorioa, Aizkorri 2002, Haurrentzako ipuina.
- Ez gara berdinak, baina berdin da, Desclee 2002, Haurrentzako ipuina.

- Nire urtebetetzea zuretzat opari*, Desclee 2002, Gazteentzako kontakizuna.
Zuriñek beltza izan nahi du, Ibaizabal 2002, Haurrentzako ipuina.
Olentzero - Gabonetako ipuinak, Ibaizabal 2002, Gazteentzako kontakizuna.
Aitona ez dakizu ipuinak kontatzen, Desclee 2003, Gazteentzako nobela.
Ipuinen zorroa, Desclee 2004, Gazteentzako nobela.
Azala beltz, zerua urdin, Elkar -Argitaletxe elkartuak 2004, Gazteentzako kontakizuna.
Xerezade, mila gau eta bat gehiago, Desclee 2004, Haurrentzako ipuina.

Ikerketa lana

Haur literatura, Labayru 1993

Haur literatura euskaraz: lehenengo irakurgaietatik 1986ra arte, Labayru 1994

Liburu didaktikoak

Ipuinen tailerra, Labayru 1999

Erdaraz argitaratuak

El mono Chimino, La Galera 1983

Polypuy, Didascalia 1990

Feliz cumpleaños Don Topón, Mensajero 1991

Mi bici y yo, La Galera 1992

Un pueblo trashumante: los gitanos, Mensajero 1993

Los ayunos de la reina Ester, Miraguano 1994 / Edizio berria Arte Activo 2007

El rey sonajero, Gaviota 1994

Si te mueres ya verás a dónde vas, Edelvives 1995

Dado duende, Gaviota 1995

La mariposa transparente, Gaviota 1995

Querido sapo, Edebé 1995

Dos hamsters en una jaula, Bruño 1997

Isu, el tiburón desdentado, Edelvives 1997 (14 argitalpen)

Juego de piratas, Grijalbo Mondadori 1997

¿Por qué a Mari Jose la llaman José Mari?, La Galera 1997

- ¿Me juntas?,* Tágilis 1997
Angel de la guarda, no me des la espalda, Everest 1997
El libro de Anisia, Edelvives 1990
La isla de los esclavos felices, Espasa-Calpe 1998
Basajaun, el señor del bosque, Gaviota 1995
Los bandidos del mar, Espasa-Calpe 1999
Dibújame un cordero, Espasa Calpe 1999
Si yo fuera tú, Edebé 1994
¿Quién va a escribirte a tí?, Espasa-Calpe 2000
Estoy gordito, ¿y qué?, La Galera 2000
Tienes el diablo en el cuerpo, Espasa Calpe 2001
Desde el balcón, Alfaguara 2002
Aquiles y la tortuga, Elea 2004
Rita no quería ser niña, Algar 2005
Hasta aquí nunca llegan los gatos, CCS 2005
Cartas robadas, Pearson-Alhambra 2007
¡Te cambio!, Algar 2007

Kontakizun klasikoen antologiak

- Historias de la piratería,* Miraguano 1998
Los descendientes del Arca. Antología de cuentos ecológicos, Miraguano 1999
Cuentos clásicos de Navidad, Espasa Calpe 2000
Cuentos del tren, Espasa Calpe 2001
Naiyakay: leyendas africanas, Xordica 2004
Los buscadores de tesoros, Juventud 2005
Cuentos y Leyendas de Bilbao, Elea 2006
Cuentos del dinero, Planeta-Oxford 2007

Haurrentzako egokipena

- Marie Shelley: *Frankenstein (Pequeños Universales),* La Galera 2006
R.L. Stevenson: *El planeta del tesoro,* Espasa-Calpe 2002

Liburu didaktikoak

- Lecturas animadas,* Mensajero 1988

- Todo está en los cuentos*, Mensajero 1992
El romancero y la lírica tradicional, Clásicos Edelvives 1998
Antología de lecturas para la ESO, McGraw-Hill 2001
Escritura fácil para la ESO, Espasa-Calpe 2002

Ikerketa lana

- Flores y Blancaflor*, Miraguano 1997
Diccionario de la fábula, Miraguano 1998
Literatura infantil vasca, Mensajero-ICE 1988
Castilla (de Azorín), Espasa-Calpe 2002
Desdichados monstruos, Ediciones de la Torre 2006
Bilbao, remanso de viajeros, Astarloa 2007

Beste hizkuntzetara itzulitako obrak Katalanez

- Estic grassonet*, La Galera 2000
Per qué, a Mari José li diuen José Mari?, La Galera 1997 / Tándem 1997 /
Bromera 1997
La meva bicicleta, La Galera 1992
La mona Ximina, La Galera 1989
Un pueblo trashumante: los gitanos (katalanez), Mensajero 1993

Galizieraz

- Anxo da garda, non me torzas a cara*, Everest Galicia 1998
O dado encantado, Everest Galicia 1997
Por qué a María Xosé lle chaman Xosé Mari?, Galaxia 1997
A miña bici e mais eu, Galaxia 1992
O mono Chimino, Galaxia 1986

Aragoeraz

- El mono Chimino*, Xordica 1986
Por qué a Mari Jose le llaman Jose Mari, Xordica 1997
Soi gordet, ¿e qué?, Xordica 2000

Bablez

- Per que a Ana Casia llámenla Casiano?*, Libros del Pexe 1997

Toi gordin, ¿y qué?, Libros del Peixe 2000

Itzulpenak eta egokipenak

Frantsesetik

Etienne Morin: *El puerto de Roma en el siglo II de nuestra era: Ostia*, Mensajero 1995

Anie eta Michel Pollitzer: *Los santuarios de los constructores de megalitos en Bretaña*, Mensajero 1995

Frederic de la Mott-Fouqué: *Ondina*, Uribitarte 2007

Euskaratik

Joxan Ormazabal: *Rufa y Bruno*, La Galera 2000

Joxan Ormazabal: *Un pájaro sobre el cuerno de un toro*, La Galera 1999

Sariak

Ignacio Aldecoa, 1981, Ipuina erdaraz, 1. saria.

Lizardi, 1985, Haur literatura euskaraz, *Dado iratxoa*, 1. saria.

Pío Baroja (Eusko Jauriaritzaren Literatur Sariak), 1989, Nobela erdaraz, akzesita, *Los ayunos de la reina Ester*.

Gabriel Aresti, 1991, Ipuina erdaraz, akzesita.

Leer es vivir, 1998, Haur literatura erdaraz, 1. saria.

Experiencias escolares, 1987, *Leer un libro*, Santillana, 1. saria.

Sarrera

Seve Calleja Zamoran jaioa da, baina hala ere lasai esan dezakegu bilbotar peto-petoa dela, Bilboko mugida literario guztietan leporarino sartuta dagoelako eta egon delako aspaldidanik eta bertako gizarte bizitzan txertatuta dagoelako. Horrez gain Seve Calleja euskalduna da, bere erroak eta sustraiak ukatu gabe, gure hizkuntza, ohiturak, ipuinak... bere egin dituelako, integrazio ahalegin bikain baten ondoren.

Gutxi izango dira gure artean euskal haur literatura eta, orokorrean, munduko haur literatura Sevek bezain ongi ezagutzen dutenak. Askorentzat maisu eta aitzindari izan da arlo honetan. Hor dugu

adibide gisa *La Literatura Infantil Vasca*, 1988an erdaraz eta 1994an euskaraz, *Haur Literatura euskaraz* izenarekin argitaratu zena, Euskal Herriko Haur Literaturaz egin den lehenengo ikerketa sakon eta bikaina.

Geroztik egin diren euskal haur literaturaren ikerketek hura erabili izan dute oinarri eta itsu-mutil.

Seve Callejaren ibilbidea luzea eta oso oparoa izan da. Bere artikulu, erreseina, ikerketa lan, liburu didaktiko eta kontakizun klasi-koen antologiez gain, Haur eta Gazte Literaturan liburu pilo bat idatzi du Bilboko idazleak. Eta saiatu izan da liburu horiek euskaraz argitaratzen (askotan erdaraz argitaratu aurretik), eta saiatu izan da baita ere euskal haur literatura ezagutzen, aztertzen eta promozionatzen. Egiak batzuetan mingarriak dira, baina esan behar da zenbait euskal idazleren eta kolektiboren aldetik Seve Calleja baztertua izan dela, euskal labelik ez balu bezala eta bere ahalegina euskararekiko (gaur egun euskaraz hitz egiten du) eta euskal haur literaturarekiko ez dela behar bezala baloratua izan. Tartean "zelo" profesionalak ez ote diren egon susmoak ditut nik. Bera izan baita Euskal Haur Literaturaren ikerketan aitzindaria eta inork baino gehiago baitaki haur eta gazte literaturaz... Baina gizatasun eskasa adierazten duten txikieria hauek albo batera utzita, goazen gaurko idazlearen azterketari heltzera.

Gaien aberastasuna

Seve Callejaren liburuetan izugarritzko aberastasuna dago erabiltzen dituen gaien aldetik. Aberastasuna eta aniztasuna. Bere obra hain zabala izanik, idazleak gai asko jorratu ditu. Euskal autoreen artean bera izango da seguru asko "desberdintasunari", diferente izateari, obra eta orrialde gehien eskaini dion autorea. Ikus dezagun gai aldetik egin dugun bere obraren sailkapena. Batzuetan konturatuko zarete obra bera kontzeptu bat baino gehiagotan sartuta dagoela, bi eta hiru kontzeptu ere hartzen baititu batzuetan obra batek:

Fantasia: *Anixiaren liburua, Bazen behin marinel bat, Sator jator jauna, Aingeru goardakoa, ez izan ganorabakoa, Ipuinen zorroa, Dado iratxoa.*

Irudimena: *Ni zu banintz, Mire bizikleta eta ni, Sator jator jauna, Kriskitin erregea, Musikaren plaza, Aitona, ez dakizu ipuinak kon-*

tatzen, Aingeru goardakoa, ez izan ganorabakoa, Ipuinen zorroa, Deabrua gorputzean, Dado iratxoa.

Desberdintasunaren defentsa, begirunea: Mari Joseri zergatik deitzen diote Joxe Mari, Pinpilinpauza gardena / Tximeleta gardena, Kriskitin erregea, Bakarnek ez du lagunik, Etorriko zara nirekin?, Potoloa naiz eta zer?, Ez gara berdinak, baina berdin da, Zuriñek beltza izan nahi du.

Adiskidetasuna: Bazen behin marinel bat, Hain da triste la vie du touriste, Beheko eskola goiko eskola, Tximeleta gardena, Etorriko zara nirekin, Ez gara berdinak, baina berdin da, Zuriñek beltza izan nahi du, Ixu hortzik gabeko marrazoa.

Animaliak lagun: Tximino gixajoa, Hamster bi kalola batean, Sator jator jauna, Ixu hortzik gabeko marrazoa.

Naturarekiko lilura: Etorriko zara nirekin?, Hamster bi kalola batean, Beheko eskola - Goiko eskola.

Misterioa / intriga / abentura: Kriskitin erregea, Musikaren plaza, Gutun lapurrak, Aingeru goardakoa, ez izan ganorabakoa, Deabrua gorputzean, Ester erreginaren barauak, Pirata jokia.

Heriotza: Aitatxo balkoian dago.

Bikotearen banaketa: Txakur berde baten istorioa.

Klasikoetan edo ipuin herrikoietan oinarrituta: Xerezade, Marrantu arkume bat, Nire urtebetetzea opari, Azala beltz zerua urdin, Esklabo zoriontsuen uhartea, Hegoamerikako ipuinak, Basajauna eta beste euskal ipuin eta legenda batzuk.

Kalitate literarioa

Hemen alpatu ditugun obra hauen kalitate literarioa, narrazioaren interesa, indarra, originaltasuna, sentsazio eta sentimendu barnekoak iradokitze ahalmena..., orokorrean, oso altua da. Obra batzuk besteak baino hunkigarriagoak edo ederragoak dira (nire ikuspegi subjektibotik betiere), eta horregatik obra batzuen alpamen berezia egin nahi nuke, nire erreseina partikular laburretan bildu ditudan oharretatik pasarte batzuk hona txertatuz. Obrak irakurri orduko egin nituen erreseinak dira eta horietan jaso nituen inpresioak ere horixe dira inpresio bat-bateko eta espontaneoak. Hala ere, nahiko fidelta-

sunez adierazten dute obra horiek nigan utzi zuten posoa eta sentsazioa.

Liburu oso onak, bikainak:

Tximino gixajoa (8 urtetik aurrera): Liburu polita, hunkigarria, sotila, sentimenduz eta inozentziaz betea, atsegina, ederra...

Beheko eskola Goiko eskola (8 urtetik aurrera): Oso liburu polita, originala, sentimendu noblez betea, hunkigarria, ederra, gomendagarria...

Ez gara berdinak, baina berdin da (8 urtetik aurrera): Liburu zoragarria, goxoa, arrazismoaren kontrako kantu bat. Adiskidetasuna, gizaki guztion arteko analtasuna, humanismoa... zapore gozoz jariatzen duen obra, ederra, bikaina...

Zuriñek beltza izan nahi du (8 urtetik aurrera): Oso ondo idatzitako obra, zoragarria, atsegina, goxoa, sentimenduz betea, humanoa, denon analtasuna modu xumean baina ederrean erakusten duena...

Kriskitin erregea (8-10 urtetik aurrera): Liburu jeniala, superlatiboa, iradokitzailea, liluragarria, sentsazio gozoz eta harriduraz beteta uzten zaituena... Historia hunkigarria, maitasunez, misterioz, edertasunez, poesiaz eta literaturaz blaitua. Misterioz betea dago eta kontakizunaren haria ez duzu sekula garbi ikusten, baina gandu artean bezala jarraitzen duzu istorioa eta misteriotsua izateaz gain, mila interpretaziotarako bidea irekita uzten dizu, beti zerbait harrigarria itxaroz. Chapeau liburu honentzat!

Marratzu arkume bat (10 urtetik aurrera): Obra zoragarria. Printze txikiaren birkreazio jeniala, made in Seve Calleja. Oso polita.

Aingeru goardakoa, ez izan ganorabakoa (10 urtetik aurrera): Liburu zoragarri-zoragarri-zoragarria. Originala, jeniala, polita, iradokorra, sentibera, goxoa, poetikoa...

Ester erreginaren barauak (14 urtetik aurrera): Obra oso indartsua. Hemen kontatzen den historia konplexua, korapilatsua, aberatsa eta aldi berean pixka bat zaila da, lexiko alorrean Hegoamerikako eta juduen arteko hitz eta espresio arrotz asko ageri direlako. Hala ere, barruko istorioa oso potentea eta indar handikoa da. Bestalde, narrazio teknikak nahiko ondo erabilita daude eta zailtasun horien gainetik liburua atsegina egiten da.

Goian aipatutako obra horiek dira nigan zirrara berezia eragin dutenak, baina ondorengo hauek ere liburu oso onen edo bikainen zerrendan sartu nahi nituzke:

Bazen behin marinel bat (8 urtetik aurrera): Liburu berezia, fantasiar eta abentura bitxiz betea. Irakurtzeko erraza eta polita. Gertakizun harrigarriak.

Hain da triste la vie du touriste (8 urtetik aurrera): Liburu polita eta bizia, imajinazioz betea. Umore fina ageri da obran zehar eta adiskidetasuna eta romantizismo pixka bat ere bai.

Pinpilinpauxa gardena / Tximeleta gardena (8 urtetik aurrera): Historia polita, sentiberatasunez betea. Kepa itsua da protagonista eta desberdinaren, diferentearen, apologia bat da liburua. Oso liburu poetikoa da eta literatura letra handitan ageri da testu honetan.

Etorriko zara nirekin? (8 urtetik aurrera): Obra polita. Egunero-ko gauzen apologia bat da, bizitza naturalari kantu bat. Txikitasunaren eta naturan bizitzaren lilura ageri da obra honetan. Egileak kultura eta bizimodu desberdinen artean berdintasuna eta begirunea posible direla jakinarazi nahi digu.

Aitatxo balkoian dago (8 urtetik aurrera): Liburu hunkigarria, ederra. Heriotza oso modu samur eta fantastikoan kontatuta dago.

Sator jator jauna (8 urtetik aurrera): Liburu polita, irudimenez eta fantasiar betea, atsegina, goxoa, ekologikoa, animalien elkarbizitza kantu bat.

Xerezade (8 urtetik aurrera): Oso liburu polita, atsegina eta originala, irakurtzeko gogoia pizten duten horietakoa.

Aitona, ez dakizu ipuinak kontatzen (8 urtetik aurrera): Istorio polita, umoretsua eta sentimenduz betea. Barakaldoko labe garailetan lan egindako gizona lanik gabe geratu da. Labe garaiak herensuge handi batekin konparatzen ditu, egunero jana (minerala) eman behar zaion monstruo batekin. Oso metafora polita lantzen du egileak obra honetan eta aitonaaren kontakizuna oso sentibera bihurtzen da historia osoan zehar.

Nire urtebetetzea opari (10 urtetik aurrera): Liburu polita, sentimenduz eta poesiar betea. Robert Louis Stevensonren gertakizun batean oinarritutakoa, erreferentzia literarioz betea (iratxoak, ipuin

kontalariak, Tusitala...). Oso atsegina egiten da irakurtzeko eta historia ondo josia dago.

Hamster bi kaiola batean (8 urtetik aurrera).

Gutun lapurrak (10 urtetik aurrera).

Deabrua gorputzean (10 urtetik aurrera).

Ixu hortzik gabeko marrazoa (10 urtetik aurrera).

Dado iratxoa (10 urtetik aurrera).

Eta hainbeste liburu onen artean ez ote dago bakarren bat erdipurdikorik?, galdetuko dit irakurle zorrotzak. Eta espero dut Sevek ulertuko duela niri hainbeste libururen artean bakarren bat edo beste ez gustatu izana. Adibidez *Ni zu banintz*, *Mari Joseri zergatik deitzen diote Joxe Mari?* edo *Nire bizikleta eta ni* pixka bat xoxoak iruditu zaizkit niri, ez dut esaten txarrak direnik, baina bai indarrrik gabek. Eta hau esaten dut betiere nire iritzil subjektibotik, agian, umeei liburu horiek ere gustatu egingo baitzaizkie. Baina, nire buruarekin zintzoa izanik, niri ez zaizkidala asko gustatu esan behar dut.

Baina, zer da hiruzpalau liburu ez gustatzea, hainbeste liburu bikain, on eta, batzuetan, jenialen ondoan? Hutsaren hurrengoa. Horregatik, pentsatzen dut irakurleak jakingo duela neurtzen liburu bikainen pisua eta hori izugarria da Seve Callejaren obra osoan. Idazle bikaina da Seve eta garbi erakutsi digu hau hainbeste obra eder eta kalitate handikorekin.

Eta aipamen bat besterik ez dut egingo haur literaturarekin lotutako Seve Callejaren obrei buruz. *Lecturas animadas*, *Todo está en los cuentos* eta *Ipuinen tailerra* liburu didaktikoak eta praktikoak dira bereziki, nahiz eta alderdi teorikoa ere lantzen den material horjetan. Seve Callejak bere esperientzia aberatsa eta bere jakinduria transmititu nahi izan dizkigu obra horietan, literaturarenganako grina eta zaletasuna umeei eta gazteei kutsatzen asma dezagun guk ere. Baliabide eta trikimailu pila bat eskaintzen dizkigu egileak literatura atsegina eta erakargarria egin, bihur dezagun umeentzat eta gazteentzat.

La Literatura Infantil Vasca eta *Haur Literatura euskaraz* ikerketa lan handi baten ondorio dira, erdaraz eta euskaraz emanda. Lan aitzindaria izan zen Euskal Herrian eta geroztik etorri diren haur literaturari buruzko ikerketa lanek eta lan entziklopedikoek iturri horretatik edan dute.

Elkarrizketa

Elkarrizketazaillea: Iñaki Zubeldia (I.Z.)

I.Z.: Noiz eta nola sartu zinen haur eta gazte literaturaren munduan? Zure haurtzaroko oroitzapenek zerikusirik izan al zuten horretan?

S.C.: Haurrentzat eta gazteentzat idaztea, pertsona bat aro horretatik pasatu ondoren eta hizkuntza menderatzen duenean, norberaren haurtzaroa ez ezkutatzea eta lotsarik gabe agerian jartzea da. Pertsonak *matriuskak* bezala hazten gara, hau da, panpina errusiar horiek bezala, bata bestearen barruan kabituz eta, asko hazigatik, barruan daukagun panpina txikia, garai batean izan ginen haurra, galdu gabe. Ez naiz oroitzen noiz hasi nintzen idazten, agian gaztarora iritsitakoan denok idazten ditugun egunkari sekretuarekin eta gutunekin —gaur egun blogak izango lirateke, messenger-ak edo sms-ak—; baina orain idazten eta irakurtzen dut sinesten dudalako literatura magia-joko bat dela: egia ez dena hala dela sinestera joka dezaket, gustatzen ez zaidana aldatzera, ametsak imajinatzerara edota amesgaiztoak uxatzera; “ni zu banintz” jolasean jokatzera, joko literario ezin hobea iruditzen zaidan horretara. Eta inguratzen nauten gehienak ia beti umeak eta gazteak direnez, hau da, seme-alabak edo ikasleak, orduan nire joko literario ia denak haurrentzakoak dira. Ondotxo dakit haur literaturara jokatzeak haien arauak, hizkuntza eta interesak ezagutzea eskatzen duela. Eta hori batzuetan ikasgelan lortzen dela, edo etxeko egongelan edo umeen liburutik kutunenetan. Beste batzuetan, berriz, pentsatzen dut ez dela pertsona heldu batzuek uste duten bezain erraza. Baina ni obra bakoitzean saiatzen naiz.

I.Z.: Zerk eraginda hasi zinen haurrentzat eta gazteentzat idazten?

S.C.: Aitortu beharra daukat nire ikasleak izan direla Haur eta Gazte literatura izenarekin ezagutzen den arlo horretara bultzatu nautenak. Eta baita ere ikasleak direla Peter Pan izaten jarraitzeko nire gogoari eusten diotenak. Ez dakit ondo Peter Pan funsgabeko bat ala fundamentuzko bat. Eta ez dakit ezta ere lehendik banintzen ala ez. Dakidana da Peter Pan hori dela egunerokotasunari barre egiten laguntzen didana. Hizkuntza eta Literatura

irakasteak bultzatuta ere bai, baina uste dut irakurtzetik iristen dela bat idaztera; bi arrazoi horiei erantsi beharko nieke literatur gaiak birsortzeko nire joera edo zaletasuna: *Esklavo zoriotsuen uhartea* bezalako historia bat kontatzea Stevenson-en Jim Hawkins omenduz, edo Saint-Exupèry-ren Printze txikia giltzape-tzea (*Marrastu arkume bat*), nire obra kutunenen bi adibide jar-tzeagatik. Gauza ezaguna da klasikoenganako dudan debozioa horiek gaurko irakurlearengana hurbiltzeko egi-ten dudan ahalegin bakoitzagatik, horretarako gai nagusi bati buruzko kontakizunak bilduz, hala nola, *treneko ipuinak*, *piraten historiak* edo *diruaren ipuinak* duela gutxi argitaratutako ipuin bilduma berria, non sartu baitaitezke munduko autorerik hoberenak. Literaturarako nire lehen bultzadei dagokienez, uste dut tebeok izan zirela eraginkorrenak, Salgariren liburuak eta eskolan inposatutako irakurketak. Baina oroimenik goxoenak, etxean kontatzen zizkidaten ipuinenak dira, gurekin bizi izan zen izeba emagin batenak. Hark poltsa handi batean gordetzen zituen ipuinak, igarkizunak, errezitatzeko testuak... Eredu izan ditudan autoreei buruz, uste dut nire maisu izan diren batzuk ezagutuko nituzkeela, baina neure burua haien diszipulutzat hartzea harropuzkeria handiegia iruditzen zait. Haiengan-dik ikasten saiatzen naiz, klasikoetatik bereziki, eta nahiago dut irakurleek ni kokatzea egoki iruditzen zaien tokian.

I.Z.: Zure obretan oso gai eta estilo desberdinak erabili dituzu. Idatzi aurretik gai konkreturen bat planteatzen duzu, ala historia etortzen zaizu burura bere gai eta konnotazio guztiekin?

S.C.: Egile guztiak ezkututzen dira beren pertsonaien atzean, eta haien trebetasuna erakusten dute kamuflatzeko moduan eta, batez ere, irakurleei sinetsaraztean pertsonaiak haien bezalakoak direla, haien isla. Konplizitate horretan datza gure fantasia literarioen magia. Nik *Aingeru goardakoa* obrako bikietako baten antza dut, eta *Esklavo zoriotsuen uharteko* Antonena. Hobeto ezagutzen nautenek, ia nire historia guztietan aurkitzen naute, dela dortoka baten itxuran, dela tximeleta gardenarenean. Bada, horietako edozer idazterakoan oinarri bezala hartzen dut Bufalinoren ideia, hitza jostailu bat dela, eta barneratzen dut idazten dudan horretan eta ikasgelan irakatsi nahi dudanean. Tendentziak eta gai gogokoenei buruz, nahiago dut

irakurleek eurek deskubritzea —topaketetan jakinarazi izan di-
date inoiz— zein diren gehien erakartzen nautenak: heriotza-
ren presentzia, errealtatetik fantasiarako jauziak eta dohaka-
beenganako begikotasuna.

I.Z.: Zure liburuetan asko errepikatzen den gaia da gizakion arteko
desberdintasuna. Obra batzuetan modu zuzenean jorratzen
duzu gai hori eta beste askotan zeharka. Eta obra horietako
batzuk gailurra jotzen dute, adibidez: *Kriskitin erregea*, *Ez gara
berdinak*, *baina berdin da*, *Zuriñek beltza izan nahi du...* Egoe-
ra bereziren batek bultzatzen zaitu gai horiek lantzerara? Barruan
daramazun kezka edo gogoetaren batek eramaten zaitu gai
horiek aukeratzera?

S.C.: Gaztelatik Euskal Herrira tokiz aldatua izan nintzen umetan eta
hizkuntza eta kultura berri batean txertatua, eta horietan ongi
moldatzen saiatu naiz desberdintasunari diodan begirune guz-
tiarekin. Gazte euskaldunel gaztelania irakasten diet, horregatik
gaur egun bi hizkuntzetan irakurtzen eta idazten dut. Nire es-
perientzia, horrelakoetan izan ohi den bezala, gazi-gozoa da,
zaila baita jakiten besteen begietan non zauden. Eta hori, nahi
ta nahi ez, islatu egiten da idazten dudana lanetan.

I.Z.: Adiskidetasuna da zure obretan ageri den beste balore ga-
rrantzitsu bat. Eta obra bikainak daukazu gai honekin ere, hala
nola: *Bazen behin marinela bat*, *Behoko eskola goiko eskola*,
Tximeleta gardena... Nondik sortzen zaizkizu horren istorio
hunkigarriak eta, aldi berean, hain literarioak?

S.C.: Uste dut oso gutxi direla gai nagusiak —maitasuna, bidaia,
heriotza...—, baina horiek erabiltzeko modu asko daude.
Adiskidetasuna da horietako bat eta paper garrantzitsua jo-
katzen du haurtzarotik helduarora pasatzerakoan, bidaia sociali-
zatzaila da, iniziatikoa, eta ni horrek markatu nau gehien nire
irakurketetan eta nire bizitzan; horregatik ematen diot halako
garrantzia eta salatzen naiz sentimendu sakonak azaltzen, ho-
rrek bihurtzen baitu irakurlearentzat obra bat maitagarri. Eta
horregatik ageri dira aipatzen dituzun liburuetan hainbat eta
hainbat bizipen eta erreferentzia literario: itsas bazterrean lora-
tegi bat egin zuen marinela, Antonio Machadoren poema ba-
tekoa, neska ikasle itxua zeinengan proiektatzen baitut nire
tximeleta gardena...

- I.Z.: Naturarekiko lilura ere ageri da zure obran, eguneroko gauza txikien apologiarekin batera. Eta hemen ere istorio zoragarriak: *Etorriko zara nirekin?, Hamster bi kaiola batean, Beheko eskola goiko eskola...*
- S.C.: Nekazari girotik hirira eman nuen jauziak natura Arkadia zorionsu eta idealizatu bihurtu dit. Eta hor nire maisua Andersen izan da bere haurtzaroko paisaiarekiko eta gauza txikiekiko maitasunarekin. Fantasiari ateak irekitzen dizkiogunean gauzak txikiago bihurtzeko beharra sentitzen dugu, beraiekin jolas-teko, agian hori da. Bestalde, Natura uneoro zaintza eta arreta eskatzen ari zaigu eta, haurtzaroan, liburuak eta zinema dira bere bozgorailu indartsuena. Eta liburuek, tresna didaktiko huts bihurtu gabe ere, edertasunaren, salaketaren, solidaritatearen, maitasunaren... bozgorailu izan behar dute.
- I.Z.: Heriotzaren gaia (*Aitatxo balkoian dago*) modu hunkigarri, samur eta fantastikoan landu duzu. Zaila egin zitzaizun gai hori erabiliz haurrentzat liburu eder hori egitea?
- S.C.: Aitortu beharra daukat bizi izan dudan esperientziarik gogorre-na nire aitaren gaixotasun penagarria eta heriotza izan zela, nik bederatzi urte nituenean. Aldaketa hain izugarria izan zen denontzat, non tabu bihurtu baitzen: gauza horiei buruz ezin zen hitz egin etxean. Horregatik itxaron nuen heldu bihurtu arte, liburuak idatzi arte, horietako batean sartzeko bizitzako gairik traszendenteena. *Aitatxo balkoian dago* itxarote horren ondorio da eta nik aurkitu dudan modua heriotzaren esperientzia nik bizi izandakoan neukan adinekoei hurbiltzeko. Eta,aldi berean, azaldu nahi nuen txikienei eskainitako liburuetan galarazitako gairik ez daukala zertan egonik.
- I.Z.: Beste hainbat gai ere erabili dituzu zure istorioak osatzeko, hala nola, irudimena, fantasia, animaliekiko begirunea, misterioa, intriga, abentura, bikotearen banaketa... Denetan eroso sentitzen zara ala batzuk besteak baino gehiago kostatu zaizkizu.
- S.C.: Sarritan esan ohi da istorioak hortxe daudela, norbaitek harra-patu eta berriro kontatzeko presto, bai gure inguru hurbilean, bai komunikabideetan. Gure barneko zokorik gordeenean azal-tzen bada kimu sekretu bat, hartu eta kontu handiz zaindu

behar dugu. Eta gai honetan ez dago misterio berezirik, salatzea eta denbora eskaintzea baino. Sor dakigukeen zailantza hauxe da: «Beste norbaitek kontatu ote du historia hau lehenago?». Baina kasu horietan ere badaukagu irtenbide egoki bat: «Beno, nire erara kontatzen ahaleginduko naiz». Ez dago gai hoberik edo txarragorik, horiek tratatzeko moduak baino. Eta, honetaz ari garelarik, saihestezinak dira errepikatzen diren gaiak, jada topiko bihurtu direnak (aiton-amonen berezko ontasuna, familiaren eta eskolaren arteko armonia, protagonistaren leialtasuna...) eta modak, zeintzuen eraginez, istorio urbanoak ugaritzen ari baitira, nekazari bizitza guztiz desagertu edota udatiarren babesleku bakarrik bihurtu balitz bezala. Eskolan girotutako istorioak ere ugaritu egin dira, elkarri kopiatuz, ikasgeletan irakurtzeak eskola giroko istorioak irakurtzea esan nahiko balu bezala. Antza denez, desagertu egin dira bat-batean kezka erlijiosoak...; eta sarritan badirudi haur eta gazte irakurleak tontolapiko zoriontsuak direla. Baina gehiegikeria eta hutsune batzuk uste dut ez zaizkiela egileei eta editoreei egotzi behar, bitartekariak eta irakurketaren bultzatzaileei baizik, eskaintzaren eta modaren eraginpean mugitzen baitira, ikasleei eskaini behar litzaiekeen literatur mota ez dutela batere ezagutzen agerian utziz. Argitaratzen den material ugarirekin ikaratzen garenean, sakon-sakonean egiten duguna zera da, argitaratzen den guztia ezagutzea zeinen gutxi interesatzen zaigun disimulatzen ari gara. Denbora faltak edo ikasgelan irakurri behar denaren interes eskasak aurrez prestatutako mezuak erabiltzera garamatza, hau da, irakurketa ebaluatzeke gidak eta fitxak erabiltzera edo egileekin oso modu lotsagarrian inprobisatutako topaketak egitera.

- I.Z.: Nondik datorkizu herri ipuinetarako eta ipuin tradizionaletarako zaletasun hori? Arlo honetan ere hainbat literatur lan eder idatzi dituzu: *Xerezade*, *Marraztu arkume bat*, *Nire urtebetetzea opari*... Zer eskaintzen digute herri ipuinek eta ipuin tradizionalak?
- S.C.: Autore klasikoaren obra, eta hori inspiratzen duen ipuingintza tradizionala, ezagutzera emateko nire gogo hau ziur aski froga bat besterik ez da agerian uzten duena nola salatzen naizen irakasle ofizioa eta idazle ofizioa elkarrekin lotzen. Literatura irakasteak klasikoengana jotzera behartzen zaitu, uste duzula-

ko zuri gaztetan gustatu zitzaizunak balio dezakeela zure ikasleentzat ere. Bestalde, antologiak ballagarri dira dagoenaren zati bat aurkezteko; gainera liburu klasikoek jasan dezakete kutxatxo txikietan gordeta egotea edota erakuslelhoetan distira egitea beste batzuek ezagutu ditzaten. Literaturari dagokionez, eskola-programak oso mugatuak dira eta nerabe batek duen gaitasuna obrak aurkitzeko, oso eskasa da. Ipuin herrikoiak, bestalde, ekintza literarioaren erroetan bertan daude, laburrak dira, eskuragarriak eta oso erabilgarriak ikasgelan. Agian klasi-koen obra ezagutzera emateko eta ipulnekin lan egiteko nire interes horretan deformazio profesionalaren kutsu edo tik antzeko zerbait dago. Eta klasikoak, benetan hala badira, argitaletxeetako azken obra berriak bezain modan egon daitezke. Inork ezin du ukatu gaur egun argitalpen merkatua buffet izugarri baten antzekoa denik: denetik dago eta ugari. Eta hori, guztiz kaltegarria suerta badaiteke ere jatetxeentzat eta tabernarientzat, ez da hainbeste gonbidatuentzat. Buffet horretan, klasi-koen obra, oro har, kalitatezko labela duen elikagai bat da. Beste kontu bat izango da ondo jaten badakigun ala ez. Denetik jaten ikasi eta irakatsi behar da. Badira pentsatzen dutenak bilduma gehiegi daudela, klasikoak berpiztera itzultzeko. Ez al daude kafetegiri eta jatetxe ugari, eta kale berean gainera?

- I.Z.: Bestalde, zeu zara Euskal Haur eta Gazte Literaturako lehenengo ikertzaile serioa. *La literatura Infantil Vasca* argitaratu zenuen 1988an eta *Haur Literatura Euskaraz* 1994an. Zerk eraman zintuen lan hori zeure bizkar gainean hartzera?
- S.C.: Berriro diot literatura —eta hedaduraz, kultura— topaleku izan behar duela. Beste hizkuntzetan idatzitako literatura abegiz hartzen duen hizkuntza batek, berak ere beste hizkuntzetan aukera berdinak eduki behar lituzkeela. Horrela bada, euskal haur eta gazteentzako liburuen argitaratzeak maila eta lorpen batzuk erakusten baditu, inork ez dio ukatuko bere hizkuntza originaleko argitalpenetatik haratago joateko posibilitatea. Gainera, argi dago itzulpenen maila ona dela, baina hedatzeko gogo handiegri honek baditu bere arriskuak, adibidez, itzultitako liburu horiek bakarrik direla ballagarri sinestea. Bere hizkuntzan bakarrik mantentzen den egilea edo beste merkatuetara iristea lortzen ez duena eror daiteke gutxiengo batentzat bakarrik

Idazten duen sentsazioan. Edo ez al da hori sentitzen norberak ikusten duenean bere obra ez dela ageri prentsako iruzkinetan edo liburu salduenen zerrendan? Baina hori literatura marketin-garekin nahastea izango litzateke. Eta, elkarrekin lotuta badaude ere, bi kontzeptu nahiko desberdin dira. Denok dakigu zergatik azaltzen garen honako edo halako aldizkaritan, zergatik saltzen diren gehiago edo gutxiago gure liburuak edota nola lortzen den Ameriketara iristea.

Laurogeiko hamarkadaren erdialdean, haur eta gazte literatura-ren esparruan sartzen hasi nintzenean, nire ingurune hurbilean idazten eta argitaratzen zena ezagutzeko interesak eraman ninduen —Aita Villasanteren aipamen bat zegoen doi-doi liburu katalan batean— euskal literatura-ren panoramika literario bat zabaltzeko ikerketa egitera. Falta zela eta inguruko beste literatura-tan bazegoela ikusten nuen. Euskalduntze prozesua indarrean zegoen, ikastolak eta argitaletxeak jaiotzen ari ziren eta haurrentzako eta gazteentzako liburu berriak eskatzen ziren, ezagutu eta ikertu gabeko aurreko patrimonio baten zordun zirenak eta unibertsitateko ikasle eta irakasle batzuk baziren literatura-ren historiaren zati horretaz interesa zutenak. Ikerketa bidea hasi izanak eta ikerlan hura oraindik irakasle Eskoletan eta liburutegietan erreferentzia gisa erabiltzen dela jakiteak poz handia ematen dit.

I.Z.: Oraindik ere jarraitzen al diozu euskal haur literaturako produkzioaren ibilbideari? Nola ikusten duzu euskaraz argitaratzen den haur eta gazte literatura?

S.C.: Neurritz kanpoko bezala ikusten dut eta, batzuetan, mimetikoa. Baina baita ere ikusten dut egunetik egunera argitalpenez beteriko erakusleiho iradokitzailleagoa daukagula, eta edozein irakurlek aurki dezakeela gustatzen zaiona, egunetik egunera aukera zabalagoa dagoelako. Gaurko egoera duela hiru hamarkadakoarekin alderatzen badugu, non egile aitzindari gutxi batzuek argitaratzen zuten oraindik, ikusten dut jende gogotsu ugari ari dela ahaleginak egiten liburuak argitaratzeko eta irakurtzeko zaletasuna zabaltzeko eta sustatzeko. Horrek argitzen du obra originalen, ilustratzaile berrien eta irakurketaren aldeko programa instituzionalen oparotasuna.

Edozein gairi buruzko historia egiteak eragozpen hauxe dauka:

informazio hori berehala zaharkituta gelditzen dela. Horregatik, lan harekin euskal haur literaturaren ikerkuntzan bide bat irekitzen ari nintzela jakitearekin batera, gelditzen zaidan sententzia hau da: gaurko egoeratik begiratuta desfase bat nabari dudala. Gaur egun, edozein liburu dendatan, eskoletako edozein liburutegitan edota komunikabideetan nabari daiteke euskal haur eta gazte literaturak izan duen hazkundera: egileak, izenburuak, jarduerak, erakusketak... la hiru hamarkadatan boskoiztu egin dira egileen nominak, horietako askok, gainera, aurrekoek ez zuten onarpen eta prestigioa irabazi dutelarik. Durangoko Azokak eskaintzen duen erakusleihu handia, Euskal Idazleen Elkarte, Berbaro, Eskoriatzako eta Gasteizko Irakasle Eskolak, FIRA edota Galtzagorri bera bezalako erakundeek bultzatutako jarduerak... liburuen eta irakurketaren alde egiten denaren neurgailu aproposak dira.

I.Z.: Nola ikusten duzu haur eta gazte literaturari dagokion kritika?

S.C.: Haur literatura Irakasle Eskoletan sartu den arren eta egunetik egunera ikerketa akademiko sakonagoak ageri diren arren, komunikabideetan egiten den haur eta gazteentzako liburuen zabalkundera eta kritika uste dut dela punturik ahulena: batzuetan, baldintzatuta dagoelako, kamarilla txiki batzuek bereganatuta, non sorkuntza, edizioa eta kritika esku emanda doazen; beste batzuetan, komunikabideen gabeziak eta gehiegikeriak geldiaraziko dituzten kritiko kualifikatu eta ausartak gutxi direlako; horrela zaila da galaraztea batzuek gorespen guztiak jostzea eta beste batzuek isiltasuna piratzea. Eta gutxi dira baita ere topagune izan behar luketen espazioak. Obra berrien azalpenak emateko tokiak badira, baina ikusi egin behar da nola egiten duten eta nori ematen dioten lehentasuna sistematikoki... Hala ere, uste dut argitalpenen panorama ezin hobea dela eta kultura eta hezkuntza erakundeek babestuta dagoela, eta gaurko neska-mutilek irakurri egiten dutela, denek berdin irakurtzen ez badute ere eta beti helduok nahi duguna irakurtzen ez badute ere.

I.Z.: Zer eman dizu haur eta gazte literaturak?

S.C.: Uste dut literatura topaleku egiten jakin dudala, eta ez bakarrik irakurtzen ditudan egileekin, ni bezalaxe irakaskuntzaren bi-dezidorretan mugitzen direnekin ere bai, eta sorkuntzan eta

argitalpen munduan dabiltzanekin, non bakoitzak bere bidea ireki nahi izaten baitu. Topaketetan parte hartzea eta irakurketa eta idazketari buruz ikastaroak ematea, liburuen berria irratian eta prentsan ematea, hori dena izan da mundu txiki honetako jendea ezagutzeko aukera eman didana eta ni salatu izan naiz jende hau aldizkari, foro edo argialetxe batera edo bestera hurbilazten. Marka edo erakunde handietan bildutako laguntalde handien atzean, egile eta ilustrazaila hasiberri andana dago erdi galduta dabiltzanak. Jende horrekin hitz egitea gustatzen zait, horientzat uste dut egokiak direla mota horretako topaketa eta kongresuak. Niretzat hala izan dira, horregatik, lagun eta ezagutza asko zor diot literatura berezi honi.

I.Z.: Euskara ikasi zenuen eta orain zure lagunekin euskaraz egiteko gai zara. Zerbait positiborik eman al dizu ahalegin horrek? Onartuago sentitzen al zara?

S.C.: Edozein egilek irrikatzen duena argitaratua izatea da, bereziki bere hizkuntzan, baina baita ere bestenetan, eta, batez ere, zure gertukoenek irakurtzea lortzea; horregatik zure inguruko taldeek idazle bezala onartzea oso gauza atsegina da. Nire lehen obrak euskaraz argitaratu zizkidatenean, nire hizkuntzaren ezagutzak ez zuen ematen hainbat taldetan eskatzen zen kuota ordaintzeko adina. Baina orduan ezagutu nuen Joxan Ormazabal aurrez kuotarik ordaindu behar ez zen topaleku batean, hau da, Elkar arditaletxean. Uste dut hura izan zela ni, uda hartan bertan, buruz behera euskaltegi batean sartzeko arrazoia: nire lagunekin hizkuntza lagunkoian hitz egin nahi nuen, beraien hizkuntzan. Haien lanak irakurri nahi nituen haiek nireak irakurtzea onartzen zuten bezalaxe. Eta gainera baneukan nire lanak non argitaratu. Beste egile batzuk ere ezagutu nituen, ez ziren asko, eta euskal haur literaturan murgiltzeko interesa piztu zitzaidan (oraindik idatzi gabe zegoen). Eta horrela, beka bati esker eta ni baino askoz euskara gehiago zekien lagun bati esker, eta Azkue Liburutegiak eskaini zigun laguntzarekin, bidaiari harrigarri bati ekin nion. Horrelaxe utzi nion atzerritar izatearen sentsazioari eszenatoki berrietan, non ohizkanpoko testigantzak jasotzen baintuen Juan San Martin, Jokin Zaitegi, Daniel Landart, J.A. Arana Martija, Jon Bilbao... eta hainbat eta hainbat jende garrantzitsuren aldetik.

Hori dena, atzerritar bat izan arren; eta oraindik ere bada jende bat hori gogorarazten didana. Niretzat euskara harrera abegit-suko hizkuntza zen. Eta gaur egun oraindik halaxe izaten jarraitzen du, nire liburu asko eta asko erdaraz baino lehenago argitaratzen baitira euskaraz, edo bi hizkuntzetan batera. Agian elkar aurkitzeko topaleku hau nik uste nuen baino gehiago ireki zait.

Arazo desberdina, eta agian sakonagoa, da zein neurritan beste hizkuntzetatik datorrena egokitzen den edo ez euskal literaturara... Baina ur sakon horietan ez naiz sartuko. Ibon Sarasolak, Atxagaren *Obabakoak* obraren erdarazko edizioari egiten zion sarreran, dio euskal kultura zer den azaltzea arazo hutsala dela. Baina, hala ere, Mitxelena-ren esaldi bat zekarren harira, neuk ere azpimarratu nahi nukeena: kulturaren esparruan, zerbait sortzen duen herriak berarentzat eta besteentzat sortzen duela eta, baita ere, besteentzat sortzen ez duenak berarentzat ere ez duela sortzen. Uste dut Mitxelena-ren aurreko aipamenean bezala, ideia honetan ere asko eta asko bat gatzela. Eta horrek mantentzen nau ni euskal ediziotik hain gertu. Eta seguru asko, nire obrak euskaraz idaztera sekula iritsiko ez banintz ere, egia da debozior salatzen naizela nire obrak euskaraz irakurtzen dituztenengana hurbiltzen, haien ahaleginari erantzun bat emateko asmoz. Horregatik, neuk itzulpena eginda, ahalegintzen naiz horien obrak erdaraz irakurriko dituztenengana hurbiltzen. Horregatik sentitzen naiz hain pozik, euskaraz idatzitako obrak erdarara itzultzeko gai naizelako erdal irakurleentzat. Eta nire obrak euskaraz irakurtzen dituztenekin euskaraz hitz egiteko gai naizelako, eta beste egile euskaldunek idazten dutena irakurtzeko gai naizelako. Azken batean, egindako ahaleginak merezi izan du, horregatik nago pozik.

I.Z.: Elkarrizketa honetan, behin baino gehiagotan, aipatu duzu zure irakasle lanbidea. Uste duzu hori abantaila bat dela haur eta gazteentzat literatura egiterakoan? Irakasleek eta gurasoek irakurketa laguntzen dute ala liburutegien, editoreen eta idazleen esku gelditu da eginkizun hori?

S.C.: Gauza jakina da norberak duenetik ematen duela. Guri txertatu zitzaigun liburuenganako birus hura horixe da guk besteel kutsa diezaiekeguna. Sekula ez dugu inor konbentzitutako ira-

kurketaren onurez, aurrez geu ez bagaude konbentzitura. Eta, nire ustez, irakurtzeak beharrezko eta derrigorrezko izan beharrik ez duen arren, egia da gure zerumuga eta ikuspuntua handitzen dituela. Logika honi jarraituz, Machadoren Juan de Mairena-ren irakaspena neureganatu nahi nuke —niretzat erreferente didaktiko bikaina dena—. Eta ez nuke nahi itxurakeria bat izatea, izan ere *Lecturas animadas*, proposamen didaktikoz beteriko nire lehen liburua, nire ikasleei zuzenduta zihoana, haren alpamen batekin hasten baitzen, egunero-egunero nire erreferentzia bezala hartzen saiatzen naizen alpamena: “*De buena gana os digo cuanto me parece que puede ser más fecundo en vuestras almas, juzgando por aquello que, a mi parecer, fue más fecundo en la mía*”. Oraindik ere neure buruari ahots isilean errepikatzen diodan aholkua da hori, nola ikasgelan, hala kalean. Ez dut disimulatzen irakaskuntza liburuarekin lotzeko nire desira, eta irakurketa idazketarekin. Neurri batean, mekanikaria eta gidaria izaten saiatzen naiz. Txirrin-duan ibiltzea gustatzen zaionari Tour-eko gorabeherak jarraitzea gustatzen zaio baita ere eta, gainera, ikusle pasiboek ez duten beste interes batekin jarraitzen du. Honek, noski, arrisku batzuk ditu berarekin, objektibitate falta esaterako edota gehiegizko grina.

Liburu batzuk ere idatzi zituen Michel Ange Marie fraideak, hala noia, besteak beste, *La Farfalle ou la comédienne convertie* (1752), *Angelique ou la religieuse selon le cœur de Dieu* (1766), *La Marquise de los valientes, ou la dame chrétienne, histoire castillane* (1767) eta, batez ere, bederatzi liburukitan argitaratutako *Las Vies des Peres de deserts d'Orient* biduria luzea, lehen aldiz 1764an argitaratua eta gero edizio asko izan zituena.

Idazle oparoa izan zen, ikusten denez, fraide ‘mirama’ honi, eta irakasta handia izan zuten haren lanek *Virginie* berak ere edizio asko izan zituen (1752, 1756, 1763, 1813, 1817...); gaztean ere itaül zuten, *Virginia, o la doncella cristiana pentunadrena*¹.

Liburuaren irakasta ikusiz, ‘eliza gizon batek’ nura euskarara itzultzea erabaki zuen. Eskuzkintzuan itzuli da guregana karpin hori, hobeatzailer batek arretaz idatzia. *Oriana, edo doncella cristiana*. Lehen

¹ *Virginie* aldatzen du liburu haren begarrik ederra, 1620an argitaratua (Mason 663).

'Birjinia': itzulpen-eredu antzua

Jose Antonio MUJICA

0. 1752an argitara eman zuten Avignonen *Virginie, ou la vierge chrétienne. Histoire sicilienne, pour servir de modele aux filles qui aspirent à la perfection* izenburuko liburua, Michel Ange Marin (1697-1767) fraideak idatzia. Lau 'liburuz' osaturiko obra luze samarra da, bi liburukitan banatua. Kontakizun itxuran aurkeztua, 'irakurgai espirituala' eskaintzen die beren etxean bizi diren neska gazte kristauai, aholkuak emanez eta eredutzat har dezaketen neska siziliar baten bizitza kontatuz.

Horren antzeko beste liburu batzuk ere idatzi zituen Michel Ange Marin fraideak, hala nola, besteak beste, *La Farfalla ou la comédienne convertie* (1762), *Angelique ou la religieuse selon le cœur de Dieu* (1766), *La Marquise de los valientes, ou la dame chrétienne. Histoire castillane* (1767) eta, batez ere, bederatzi liburukitan argitaratutako *Les Vies des Pères de déserts d'Orient* bilduma luzea, lehen aldiz 1764an argitaratua eta gero edizio asko izan zituena.

Idazle oparoa izan zen, ikusten denez, fraide 'minimo' hori, eta arrakasta handia izan zuten haren lanek. *Virginie* berak ere edizio asko izan zituen (1752, 1756, 1763, 1813, 1817...). Gaztelaniara ere itzuli zuten, *Virginia, o la doncella cristiana* izenburuarekin¹.

Liburuaren arrakasta ikusiz, 'eliza gizon batek' hura euskarara itzultzea erabaki zuen. Eskuizkribuan iritsi da guregana itzulpen hori, koptiatzaile batek arretaz idatzia. *Birjinia, edo doncella christaba*. Lem-

¹ Vinsonek aipatzen du liburu honen bigarren edizioa, 1823an argitaratua (Vinson 663).

*pizte siciliarra, prestutasun osorat heldu nahi diren nescatchei mol-
detzat balia dakientzat du izenburua*².

Aitortu beharra dago itzulpen horrek ez dituela ikerlarien oni-
ritziak eta bedeinkapenak bereganatu. Huts handitzat daukate hartan
erabiltzen den hiztegi berezia. Vinsonek, esate baterako, «style un
peu prétentieux du traducteur» aipatzen du, «qui invente des mots
de toutes pièces»³. Lafittek zati bat argitaratu zuen bere *Eskualdu-
nen Loretegia*-n, eta honela dio aurkezpenean: «euskara bat arras
bitchia athera du, garbi baino garbiagoa erabili nahiz, eta hitzkuntza
berri andana bat orotan sakatuz»⁴. Villasantek ere hitz berri ugariak
nabarmentzen ditu⁵.

Iritsi zaigun eskuizkribuaren koplatazailleak berak ere testu hura
zegoen zegoenean astuna eta ulertzen zaila zela iritzi zion, itxuraz,
eta irakurketa errazteko orri-alboan hitz berri eta ezezagun ugarien
ordain ezagunak ipintzea erabaki zuen. Asko lagunduko zion horrek
irakurleei, bistan da. Tamalez, ordea, lehen orrietara mugatu zuen
bere lana. Eta testuaren astuntasuna leundu gabe geratu zen handik
aurrera.

Han-hemen dauden hutsak huts, lan txukuna egin zuen ko-
platazailleak. Ez dakigu, dena dela, argitaratzeko xedearekin egin ote
zuen kopia txukun hori, ala bere horretan pertsona jakin batzuen
irakurgai izan zedin⁶.

Eskuizkribu hori argitaratzeko lanak hasiak ditudalarik, iruditu
zait badela hor itzulpen-eredu bat, jarraipenik izan ez duena baina
aztertzea merezi duena. Horixe egiten saiatuko naiz artikulu honetan,
ur sakon-handitan sartu gabe bada ere.

Aurrena, liburuaren testu batzuk emango ditut, adibide edo
lagin labur gisa, paragrafo bakoitzaren ondoan jatorrizko testu fran-
tsesa ipiniz⁷. *Ondoren*, testu horien inguruko iruzkina egingo dut,

2 Lau liburu ditu eskuizkribuak, jatorrizkoa bezala liburuki edo koader-
no bitan banatuak, lehena 1783koa eta bigarrena 1784koa. Pierre Andiaza-
bal jaunak utzitako kopia mikrofilmata erabili dut nik neure lanerako.

3 Vinson 664.

4 Lafitte 126.

5 Villasante 116.

6 Lehen orrian, hain zuzen, *Jeanne Marie Robin* izena ageri da, Haz-
parneko Komentu Zaharrean serora izan zenarena (ik. Charritton 15). Serora
hau kopia horren jabea eta 'irakurlea' izango zen, seguruenara.

egituren itzulpenean eta hitzenean erabilitako irizpideez. Eta, azkenik, ondorioak aipatuko ditut laburki.

Oharra. Testuak ondo ulertzeko, gogoan hartu behar da ortografian urrats batzuk egin zituela itzultzaileak egungo idazkera aldera: idazten du beti, are izenetan ere (*Virginie* → *Birjinia*); (*i*, *y*) idazten du bokal guztien aurrean, baita *-e* eta *-i*-ren aurrean ere (*Birjinia* izena lekuko), ordura arteko *ge* eta *gi* baztertzuz erabilera horretan (*Jesu*, ez *Gesu*); aldaketa hori balliatuz, idazten du bokal guztien aurrean guturala adierazteko, baita *-e* eta *-i*-ren aurrean ere, ez ordura arteko *gue*, *gui* (*gero*, *egin*, *beraz*, ez *guero*, *eguin*); gainerakoetan, ordea, bide zaharretik dabil (*ca*, *ke*, *ki*, *co*, *cu*; (*t*)*za*, (*t*)*ce*, (*t*)*ci*, (*t*)*zo*, (*t*)*zu*...). Gogoan izan behar da, bestalde, *-e*-bakarra idazten duela beti, morfologiak *-ee-* eskatuko lukeenean ere (*adiskidec*, *adiskiden*); eta hitzen topagunean bi bokal gertatzen direnean, aurrena galdu egiten dela (*et-azkenean*, *ber-aldetic*, *nol-ukhan*, *ber-iloba*, *os-osoki*...).

1. Testuak

VIII. BURUA. Birjiniaren et-Errosaliaren berthutezco egintz bakidac, eta hejen lothura garbia.

CHAPITRE VIII. Exercices communs de Virginie et de Rosalie, et leur innocente liaison.

1. Erran dugu Birjinia igande bestetan joaiten ohi cela ber-adiskidearekin bere burrhoen baratce batetarat; baratce hura hiritic aski hurbil cen, handia cen ta murruz hertsia; bacen han mahasti bat, baratcecaritegi bat, alortegi bat, eta horiec guciac egiten zuten landonthasun pulit bat, eta ematen zuen caront bat aski handia. Haren lekhua deitaken ederrenetatic cen; eta oraino atsegingarriago giten zuena cen pinozco ta haitzezco oyhan bat, celnac ematen baitciotzan atseginenezco toki hari mortu baten nahicara guciac. Oyhantto hura cen baratcearen buruan, mendichca baten aldapan; haren ondoan cen harroca handi bat, eta hartan bacen bisetaco cilho bat, bere baitharic egin zuena, ta lanantceac ongi antolatu zuena. Et-azkenean harcilhoaren sailhetsean bacen ur chirripa bat, harrocatic beretic il-

7 Horretarako 1756ko edizio erabili dut. Edizio horren ale bat dago, bi liburukitan emana, *Gipuzkoako Protokoloen Agiritegi Historikoa*-n (Oñati), eta artxibo horren arduradunari esker kontsultatu ahal izan dut neure lanerako.

kitcen cena, eta handi jaustean egiten zuen urjauci bat, ikhuginari hainitz atsegin egiten cioena.

Le jardin des parens de Virginie où nous avons dit qu'elle se retiroit avec son amie aux jours de Fête ou de Dimanche, étoit à peu de distance de la ville, fermé de murailles, d'une étendue vaste, où il y avoit une vigne, un potager, un fruitier, qui formoient une campagne agréable et d'un revenu assez considérable. Sa situation étoit des plus belles, mais ce qui le rendoit plus gracieux, c'étoit un bosquet de pins et de chênes, qui donnoit à ce lieu de plaisance tous les agrémens de la solitude. Ce petit bois étoit au fond du jardin sur le penchant d'une colline terminée par un gran rocher, et dans ce rocher étoit une double caverne que la nature avoit formée et que l'art avoit rendu commode; et en fin à côté de la caverne couloit un ruisseau qui prenoit sa source dans le rocher, d'où en se précipitant, il formoit une cascade dont la vûe étoit réjouie.

2. Bada harcillo hartan ematen ciren bi adiskide jaincotiac gauza ginen harrabotsetic urrun ta gericean, eta han idukitcen cituzten bere mintzaldiac erran dugun egunetan. Lekhuac berenaz eta hejen begiec cekuskiten guciec bere sentsuen menean ezartzen ciotzaten Thebaideco Mortutar donen egontoki aldaratuac; hejen biciac han iracurtcen cituzten jajer handirekin, eta hec ciren hejen solasgei ardurenac.

C'étoit dans cette caverne que les deux pieuses amies éloignées du tumulte des créatures, formoient leurs entretiens aux jours que nous avons dit. La situation du lieu et tout ce qui se présentoit à leurs yeux, leur rendoit comme sensibles les deserts des saints Solitaires de la Thébaïde, dont elles lisoient les vies avec dévotion, et qui faisoient plus souvent les sujets de leurs colloques.

3. Hain aski ciren bata bertcearentzat lekhu aldaratu hartan, non bertce cembait nescatcha ezagutcen zuketenic ethorri balitzaje arthausterat gortheski ta onhesgunezco izpiritu batez hartuco bazuten ere, pairacortasunezco egintz bat baino gehiago egin beharco baltzuten. Bertzalde, bere barrenetan sentitcen zuten barjakinde on baten bozcaria hedatcen cen hejen solasetarac ere, eta giroztatcen cituzten boztasun chahu batez; eta hala hetan edireiten cituzten betan eta mintzaldi izpirital baten ona eta gozaldi onhest baten phausua. Ezagutuco dute hori egintz bakhar huntaric.

Elles se suffisoient si bien l'une à l'autre dans cette solitude, que si quelqu'autre fille de leur connoissance fût venuë les y interrompre, elles l'eussent reçuë avec politesse dans un esprit de charité; mais ce n'eût pas peut-être été sans faire plus d'un acte de patience. D'ailleurs la joye de la bonne conscience qu'elles sentoient intérieurement se répandant sur leurs entretiens, ils étoient assaisonnés d'une innocente gayeté qui leur donnoit tout à la fois et l'utilité d'une conférence spirituelle, et le délassement d'une honnête récréation. On en jugera par ce seul trait.

4. Errosalia[rɪ]⁸ bereciki citzajon lakhet jondone Paulo lehen Morturraren bicitcearen iracurtcea, eta ez gutiago Birjiniari. Egun batez berriz haren iracurtcen hari ciren, eta lekhu hartan ciren ceinetan errana balta jondone Antonio joca cego[c]ola⁹ Mortutar done haren etcholaco atheari; jondone Pauloc aphur bat ez adituaren egin izan cioela, eta jondone Antonio etcela baratu jot[c]etic¹⁰ idec ciozon artean. Lekhu hartan cirelaric, beraz, baratcearen carontariaren emazteac, Birjiniaren amaño izan cenac eta hainitz samurki maite zuenac, deitu zuen harcilhotic cembait urratsetarat, [o]phil¹¹ baten hari eskeintcecotzat, alort bereciez bete plat batekin. Birjinia ethorricen haren ganat, eta bizkitarte hartan Errosalia gorde cen bigarren harcilhoan eta bere ganat tiratu zuen athea, lehen cilhotic berechten zuena.

Rosalie prenoit un plaisir singulier à lire la vie de saint Paul premier Hermite, et Virginie n'en avoit pas moins. Un jour en la rélisant elles en étoient à cet endroit où il est dit que saint Antoine frappoit à la porte de la cellule de ce saint Hermite qui faisoit la sourde oreille, jusqu'à ce qu'enfin il lui ouvrit : elles en étoient, dis-je, à cet endroit, lorsque la femme du rentier du jardin qui avoit été nourrice de Virginie et qui l'aimoit tendrement, l'apella à quelques pas de la caverne pour lui présenter un gâteau avec un bassin de fruits choisis. Virginie vint à elle, et dans ce moment Rosalie se cacha dans la seconde caverne, et poussa sur elle qui la séparoit de la première.

5. Birjinia bihurtu cen arratsalde gosariac cargatua, bainan e-ztuen ediren ber-adiskidea; ordean laster ezagutu zuen, athearen

8 Testuan Errosaliac.

9 Testuan cegorola (¿).

10 Testuan jotetic; baina beste behin jotcecotzat.

11 Testuan aphil.

molduratic, cer nahi izan cioen egin; eta erran cioen aire boch batekin: «Jondone Pauloc bezala egin nahuzunaz geroz, mintzaturen natzaitzu jondone Antonio bezala: "Idec diezadazu, Jaincoaren cerbitzaria, badakizu nor naicen, ta certaco nathorren; ezpanuzu nahi utci zure etcholan sartcerat, hemen berean hiltcerat nago"». Errosalia ber-aldiz eman cen mintzaten harcilhoaren barnetic, ta ihardetsi cioen jondone Pauloc bezala: "Nihorc eztu othoitz giten mehat[chuz]¹², ezt-irainac baltsatcen errekerimenduekin; espantitcen zare ezpadautzut idekitcen, hemen hil nahi zarela diozunaz geroz?". Ondoan ideki zuen athea irrhaicitz gozo batekin, eman cio-ten batac bertceari bakhesco musua, elkhar ber-icenez deitcen zute-laric, Mortutar done hejec bezala.

Virginie revenant chargée de la collation, et ne la voyant point, comprit d'abord par la disposition de la porte, ce qu'elle avoit voulu faire. Puis que vous voulez imiter saint Paul, lui dit-elle d'un ton enjoué, je vous parlerai comme saint Antoine. Ouvrez-moi, serviteur de Dieu: vous sçavez qui je suis, et pourquoi je suis venu; si vous me refusez l'entrée de votre cellule, je suis résoluë à mourir ici. Rosalie prit la parole à son tour du dedans de la caverne, et répondit comme saint Paul. Personne ne prie en menaçant, ni ne mêle des supplications avec des injures: vous étonnez-vous si je ne vous ouvre pas, puisque vous dites que vous voulez mourir ici; ensuite ouvrant avec un doux sourire, elles se donnerent le baiser de paix en se nommant réciproquement par les noms de ces saints Hermites.

6. Etcen hortan ere baratu hejen gozaldi garbia. Mortutar done hejec bezala osoki egitecotzat, jarri ciren ur-chirriparen aldean, et-ucitu zuten ophila, zoinec ber-aldetic thiratur, escuan gelditcen citzajon pha[r]taia¹³ gelditcen zuela; edan zuten ithurburuc uretic, ber-escu barnac cituztelaric eduntcizat, baina etzuten nahi izan alorta hunkitu. «Bi done handi hejec –erran zuen Errosaliac– etzuten jan ogla balcen. Bara gaiten beraz gu ere ophilarekin¹⁴; eta hala ontsa baderitzazu, egiogun Jaincoari alort horren sagara». Eta hala eraman

12 Testuan *mehat*, baina agerikoa da zerbait eskas dela: *mehatchuz, mehatchuca*...

13 Oso ilun testuan. OEH: 'partaia.1. Parte que corresponde, lo que corresponde a cada uno. «Aequabilis praedae partitio, arrapakeri partaia» Urt I 323'. Fr: *la portion*.

14 Itzuli gabe: *ma chere Virginie*.

zuten etcherat¹⁵, eta bere dosteta garbia bu[c]atu zuten hildurazco egintz hortaz; eta hortico ageri da bere gozaldietan beretan ere khondutan ceducatela berthuten jarraitza.

Leur innocente récréation ne finit pas là, mais por achever de copier ces saints Anachorettes elles s'assirent auprès du ruisseau et partagerent le gâteau, le tirant chacune de son coté et conservant la portion qui lui étoit restée à la main; et enfin elles bûrent de l'eau de la source, se servant du creux de leur main au lieu de verre. Quant au fruit elles n'y voulurent pas toucher. Ces deux grands Saints, dit Rosalie, ne mangerent que du pain: contentons-nous donc du gâteau, ma chere Virginie; et si vous le trouvez bon, faisons à Dieu le sacrifice de ce fruit. En effet elles le porterent à leur maison, pour le distribuir à leur famille, et finirent leur jeu innocent par cet acte de mortification; ce qui montre que dans leurs récréations elles ne perdoient pas de vûe la pratique des vertus.

VII. BURUA. Adiskidetasun christabaraucoez.

Am-Escolasticaren abisuac.

CHAPITRE VII. Des Amitiés chrétiennes.

Avis de la Mere Scholastique.

7. Ama Escolastica jaincotiac irrhicaitz ezti bat egin zuen, ber-illo-ba ikhusi zuenean agertcen Errosaliarekin. Errechki gogoari eman cioen irabaci zuela. Egin cioen ongithorri bat, halaco ordutan onhesgun christabac ta bihotz-ontasunac galdatceco duten bezalacoa. Gorthesiazco solasec ta seinalec guti irau[n] zuten; jajerac eztitu empletatcen solas ongajagoetarat iragatecotz baicen. Hatsarri ta beretic bezala erori ciren mundu Jesu-Christo ezagutcen eztuenaren¹⁶ zorigaitcetarat; haren usantza gachto, haren faunkeria ta errangi gaitzhurretien gainerat; eta Am-Escolastica horiez hain sendoki ta hain gozoki mintzatu izan cen, non Errosalia ezpaltz oraino horiez gerthutua izan ere, elheca hura choilki hartaracotzat aski izanen baitcitzajon; hala aithortu cioen ber-adiskideari etcherat zoacila. Baita oraino mintz-aldi hartan berean ukhan zuen Serora izateco lehen gogoaz; etcen hargatic egin handic cembait urtheren buruan baicen.

La pieuse Mere Scholastique souÿrit doucement lorsqu'elle vit paroître sa nièce accompagnée de Rosalie. Il ne lui fut pas difficile .

15 Itzuli gabe: pour le distribuir à leur famille.

16 Testuan eztsunaren.

de comprendre qu'elle en avoit fait sa conquête. Elle lui fit un accueil tel que la charité chrétienne, et la bonté du cœur l'inspirerent en pareil cas. Les complimens durèrent peu; la piété ne les emploie que pour disposer à des entretiens plus utiles. On se jeta presque aussitôt sur le malheur du monde qui ne connoît pas Jesus-Christ; sur ses abus, ses vanités et ses dangereuses maximes; et la Mere Scholastique en parla avec tant d'énergie et d'onction, que quand Rosalie n'en auroit pas été convaincuë, ce discours seul y auroit suffi, ainsi qu'elle l'avoüa à son amie en se retirant. Ce fut même durant cet entretien qu'elle eut la première pensée d'être Religieuse; ce qu'elle n'exécuta pourtant que quelques années après.
...]

8. «Horra beraz –erran cerajen– non zareten Jaincoarenac izateco gogo cin-cinean; horra non zareten biac haren cerbitzu donean arrimatuac; eztuzue horren gainean gogo bat baicen, nahi bat baicen, chede ber-bera baicen. Jaunac izpiritu beraz bethetcen zaituztenaz geroz, elkharrekin aditu ere behar zarete berthutearen jarrailtzan. Batec bertcea behar duzue lagundu ta alaitu; zuen lothura hainitz behar da cerbitzatu zuen donetcecotzat. Hartacotzat Jaincoac bata bertceari eman zaituzte; behar zarete sarthu haren chedetan, behar tutzue bethe haren gogo urricaltzapenez betheac; horrela izanen zarete adiskide egiazki christabaraucac, eta bertcei moldetzat cerbitzatuco zarete.

Vous voilà donc, leur dit-elle, dans la sincere résolution d'être à Dieu; vous voilà toutes les deux engagées dans son service; vous n'avez là-dessus qu'une détermination, une volonté, une même fin. Puisque le Seigneur vous anime d'un même esprit, il faut que vous agissiez de concert dans la pratique de la vertu. Il faut que vous vous aidiez et vous vous encouragiez mutuellement; il faut que votre union serve puissamment à votre sanctification. Dieu vous a donné l'une à l'autre pour cela; vous devez entrer dans ses vuës et seconder ses desseins de miséricorde; c'est par là que vous serez des amies véritablement chrétiennes, et que vous pourrez servir de modèle aux autres.

9. «Adiskidetasuna –erran zuen aintcina– da bihotceco lothgune bat, ceinetaz usantza on edo gachto bat egin baititeke, bizten duen ilkhi buruaren¹⁷ ta moldatcen duten eracajen arabera. Berech ditezke

17 Testuan ilhi burucaren, baina ik. ilkhi burua (VIII 1).

hirur adiskidetasun mota: bata da os-osoki gachtoa, bertcea fauna ta gaitz-hurretia, et-azkenean hirurgarrena ona, Jaincoa ganic dathorre-na, Jaincoari daro[n]tsona, eta hala jende eginki¹⁸ prestuei dagokie-na. Lehenari eztohaco ontsa adiskidetasunaren icena ere; lehenago behar liteke deithu egiazco herra bat, ceren hartaz bihotceco khutsu gachto[a]¹⁹ batec bertceari ematen baitzajo, eta elkharrekin adituz haritcen baita arimaren gaitcen. Bigarrena ezta hain gaitz-hurreti, guciarekin ere Jaincoa ganic urruntcen du; hunec eztu bertce cimenduric gisatasun sortizcoi edo faun batzu baicen, eta ezta niholere dina bihotz christau batean leku ukhateco. Bainan hirurgarrenaz el-khar laguntcen da berthuteari jarraitcen, eta adiskidetasun done haren lokharriez nahi dut izan zaitezten elkhari iratchikiac. Hartaz on hartcen dut elkharrekin zabilzaten, zuen jajerezco egintzac elkha-rrekin adituz dagitutzuen, eta bata bertceari cerbitza zakizcoten izpiri-tuz bozkidatceco eta onbidatceco.

L'amitié, continua-t'elle, est une affection du cœur dont on peut faire un bon ou un mauvais usage selon le principe qui l'anime et les motifs qui la forment. On en peut distinguer des trois sortes: l'une mauvaise absolument, l'autre frivole et dangereuse, et enfin une troisième dont Dieu est le principe et la fin, et qui convient aux personnes véritablement pieuses. La première ne mérite pas le nom d'amitié; nous devrions plutôt l'appeler une véritable haine, puisque par elle on se communique la contagion du cœur, et on agit de concert pour perdre son ame; la seconde moins dangereuse, mais qui éloigne aussi de Dieu, est fondée sur des qualités purement naturelles ou frivoles, et ne mérite pas d'occuper un cœur chrétien; mais par la troisième, on s'aide mutuellement à pratiquer la vertu, et c'est par les liens de cette sainte amitié que je veux que vous soyez unies. C'est par elle que je consens que vous alliez ensemble, que vous fassiez de concert vos exercices de piété, et qu'enfin vous soyez l'une à l'autre un sujet de consolation spirituelle et d'édification.

[...]

10. «Baderitzat –erran zuen Birjiniac– iracurtu, edo erraten alitu²⁰ dudala etzajela gauza ginei lothu behar, hori osotasuneraco traba bat

18 Agerpen bakarra; egiazki, berriz, askotan.

19 Testuan gachto.

20 Gehienetan aditu, aditce...erabiltzen ditu Birjiniaren itzultzaileak; zenbaitetan, hala ere, -d- gabeko aldaerak ere erabiltzen ditu.

dela. Bada, horren arabaz ezta haizu adiskide bat ukhatea, ecen nol-ukhan, hari lothu gabe?»

Il me semble, dit Virginie, d'avoir lû, ou d'avoir oûi dire, qu'il ne faut pas s'attacher à la créature, et que c'est un obstacle à la perfection: or si cela est, il n'est plus permis d'avoir une amie, car comment en avoir sans y être attachée?

11. «Aditcen duzun bezalaco lothura –ihardetsi cioen Am-Escolasticac–, adiskidetasun bajatsu bat da, bertce cimenduric eztuena, maite den jendearen gisatasun sortizcojac baicen; molde hartaco adiskidec elkhar lehiatukiegi bilhatcen dute, elkharrekin egoten dira Jaincoaren nahiaren contra, elkhar gogoan erabiltcen dute bihotz beratasun sentsucarazco batekin; hitz batez halaco adiskideac ezta-gozco elkharri lothuac ez Jaincoa gatic, ez Jaincoa baithan, bainan bai lothgune osoki sortizcoi batez. Hala[co] adiskidetasunac arima Jaincoa ganic aldaratcen du, ta gauza ginetarar itzultcen. Aitcitic, adiskidetasun christabaraucoac eztio gauza ginari lotcen, harekin batean Jaincoa ganat err[ec]hkiago heltcecotan baicen; gauza gina Jaincoa ganat joaiteco bidetzat balia-arazten du. Aditcen duzue hau ongi?».

L'attache dans le sens que vous la prenez, répondit la Mere Scholastique, est une amitié défectueuse, qui n'est fondée que sur les qualités naturelles de la personne qu'on aime, qui font qu'on la recherche avec trop d'empressement, qu'on s'y arrête contre l'ordre de Dieu, qu'on s'en occupe avec une affection trop sensible; enfin ce n'est plus en Dieu et pour Dieu qu'on est liée avec son amie, mais par une affection toute naturelle. Une telle amitié détourne l'ame de Dieu, et la tourne vers la créature; au lieu que l'amitié chrétienne ne lie à la créature que dans la vuë de se porter avec elle plus facilement à Dieu: elle fait que la créature nous sert de moyen pour aller à Dieu. Comprenez-vous bien ceci?

12. «Bai andrea –erran zuen Errosalliac–; bainan nola berech iratchikimendu bat den adiskidetasun hau, christabaraucoa dene-tic?». «Baderitzat –ihardetsi zuen Ama-Escolasticac– arpeztu dautzue-dala horien bertcegita bereciena. Huna oraino agerrikiago.

Oûi, Madame, dit Rosalie; mais comment discerner l'amitié qui est une attache, d'avec celle qui est chrétienne. Il me semble, répondit la Mere Scholastique, que je vous en ai expliqué la

principale différence: la voici plus clairement.

[...]

13. «Bigarrenecoric, iratchekimendu sentsucarazco hura sopra nausitcen zajo bihotzari; maite den adiskidearen arras gathibo giten du; haren ganat lehia-arazten du bakhe gucia nahasterainocoan; khechaguneac, desfidantciac, bekhaizteac, barneco sumindurac sor-arazteintu. Baldin adiskide batec bere lothgunea bertce batekin ucitcen badu, ezpadu bihotz idekidurarc aski erakhusten, lasterregi uzten edo bakhanegi ikhusten bagitu, edo cembait paradetan hut[s]²¹ egiten badu, sortcen dira antsiac, erengurac, minhiztac, bihotz-asiki minac. Aitctic adiskidetasun christabaraucoac uzten du bihotza bere hautakin os-osoan; adiskidea maiz ala bakhan ikhus dadin, bihotz-idekidura gehiago ala gutiago erakhuts diezagun, bertcerekin adiskidetcen bad-ere, Jaincoari balcen behatcen²² ez-tioen adiskidetasunac eztauca khonduric horiez guciez. Adiskideta-sun sortizcoya ezteuskeria horiez grinatcen da; bainan christabarau-coa horiez guciez gorago ezartcen da, eta den guci-gucia Jaincoa ganat heltcen da.

En second lieu, cette attache sensible se rend trop maîtresse du cœur; elle le rend captif de l'amie qu'on aime; elle lui donne des empressemens qui altèrent sa paix; elle cause des inquiétudes, des défiances, des jalousies, des dépit secrets. Si una amie partage son affection avec une autre; si elle ne nous montre pas assez de confiance; si elle nous quitte trop tôt; si elle nos voit trop rarement; si elle nous manque en quelque rencontre, ce sont des sujets de sollicitude, de murmures; ce sont des reproches, des regrets cuisans que l'on sent. L'amitié chrétienne au contraire laisse le cœur dans toute sa liberté: qu'on soit longtems sans voir son amie, ou qu'on la voye fréquemment; qu'elle nous témoigne plus ou moins de confiance; qu'elle partage son amitié avec d'autres; l'amitié qui n'a que Dieu en vûe, ne se formalise pas de ces choses; elle est au-dessus de ces petitesesses, dont l'amitié naturelle est ordinairement en souci; elle tend à Dieu et se rapporte toute à lui.

14. «Hirurgarrenecoric, iratchekimendu sentsucarazcoac lehen-cuntza ematen dio bere jaidurari ber-eginbidearen gainean. Baldin eginbideac galdatcen badu adiskidea uz dadin, hunec eramanen du

21 Testuan hutz.

22 Testuan hehatcen.

eta eginbideari lehenago huts eginen zajo, haren ganic aldaratuco den baino. Halaco adiskideac eztira solastatcen ezteuskeriez baicen. Ezta hejen elheketetan deus sartcen benic, ez sendarric, ez onbidaric, ez deus arimaco onarentzat balia deitekenic. Aitctic adiskidetasun christabaraucoac aintcina deramatci ber-eginbideac, gauza ginac gatic hetaric urundu gabe, maiteago balitu ere. Badaki hejen uzten Jaincoa gatic, ceren ezpaititu bilhatcen chede choil garbirekin baicen. Haren elhekec bethiere arimaco onari darontsote; ezta hetan sartcen deus alferric. Jaincoa da halaco adiskiden lokharri bakharra, Jaincoa ganat ere doaz bakharric.

En troisième lieu, l'attache sensible préfère son inclination à ses devoirs. Si le devoir exige qu'on quitte son amie, elle la lui préfère, et aime mieux manquer à son devoir que de quitter sa compagnie. Ses entretiens ne roulent que sur des bagatelles. Il n'y a rien de sérieux, de solide, d'édifiant, qui tourne à l'avantage spirituel de l'ame; au contraire l'amitié chrétienne préfère l'accomplissement de ses devoirs à l'entretien des créatures, lui fussent-elles encore plus chères. Elle sçait les quitter pour Dieu, parce qu'elle ne les recherche qu'avec des intentions pures. Ses discours tendent au bien de l'ame; l'inutilité en est bannie. Comme Dieu seul en est le lien, Dieu seul aussi en est le sujet.

15. «Azkenean, nere haur maite-maiteac, ezagutireintutzue bi adiskidetasun mota hejen gisatasunac, adiskide bati lotcerat erakharico zaituzten arrazoinez, bihotcean sentituco duzuen hautakinaz edo gathibotasunaz, zuen adiskidetasunac zuen ariman banernetucoituen econde onez edo gachtuez. Erabac zaitetze horren gainean».

Enfin, mes chères enfans, vous connaîtrez les caractères de l'une et de l'autre amitié par les motifs qui vous portent à vous lier avec une amie; par la liberté ou la gêne que vous sentirez dans le cœur, par les effets bons ou mauvais que votre amitié produira dans votre ame. Décidez vous là-dessus.

2. Iruzkina

Frantseseko testua maila egokikoa da, noski, xede zituen irakurle gazte ikasiei zegokiena, baina ez da bereziki konplexua. Kontakizuna da, ez saiakera. Edo, nahiago bada, kontakizunaz mozorrotutako irakasliburua da. 'Kontakizun' horren barnean, berriz, solasa da nagu-

si; eta zenbaitetan mozorroa kenduta solasa hitzaldi bilakatzen den arren, ez da, hala ere, mendeko esaldi eta horrelakoen kate korapilatsuez eginiko prosa zail eta konplexua. Egokia da, neurri batean jaso eta landua, baina ez konplexua.

Alde horretatik ez zuen lan neketsua izan euskarazko itzultzaileak, eta aski hurbiletik jarraitu zitzaion jatorrizkoari, tonu egokia zainduduz. Ez zituen, jakina, esaldien egiturak bere hartan itzuli beti, hitzez hitz; euskarak eskaintzen zizkion baliabideak erabili zituen ez gutxitan, esaldiak egokiago emateko.

Jatorrizkoaren 'tonua' behar bezala islatzeko, eragozpenik handiena hiztegian aurkitu bide zuen itzultzaileak, eta horretantxe egin zuen ahalegin berezia, hitz jasoak, berriak maiz, barra-barra erabiliz, horrek testua irakurleentzat nekeza eta ia ulertezina egiten bazuen ere. Nekea liburuaren izenburuan berean hasten da: zergatik esan *lempizte* irakurleek erraz ulertuko zuten *istorio* ohikoaren lekuan? Eta zergatik ez erabili, *debozione*, *komentu*, *tentamendu*, *etsemplu*, *penitentzia*, *conciencia* eta horrelakoak, tradizioan erabiltiak, hitz berri ezezagunak erabiltzen ibili beharrean?

Alderdi biak ikusiko ditugu ondoko lerroetan. Esaldi-egituren itzulpenean erabilitako irizpideak aztertuko ditugu aurrena, eta hiztegi-kontuak ikusiko ondoren.

2.1. Esaldien itzulpenerako irizpideak.

Esan dudan moduan, frantseseko testuaren esaldiak ez dira bereziki konplexuak. Maiz erabiltzen ditu, hala ere, autoreak, gisa denez, erlatiboak, gerundioak eta horrelakoak. Horiek denak antzeko egiturez itzultzen badaki euskal itzultzaileak, noski, eta hala egiten du gehienetan. Baina badaki inoiz-edo egitura 'aldatzen' ere.

2.1.1. Horrela, esate baterako, ohiko euskal erlatiboak erabiliz itzultzen du bi *erlatibo* dituen honako esaldi hau:

mais ce *qui le rendoit* plus gracieux, c'étoit un bosquet de pins et de chênes, *qui donnoit* à ce lieu de plaisance tous les agréments de la solitude.

eta oraino atsegingarriago *giten zuena* cen pinozco ta haitzezco oyhan bat, *ceinac* ematen baitciotzan atseginezco toki hari mortu baten nahicara guciac (1).

Maizkara ditu, halaber, frantsesaren antzera erlatiboa ardatzaren eskuinean duten esaldiak, honako honen tankerakoak:

On se jetta presque aussi-tôt sur le malheur du monde qui ne connaît pas Jesus-Christ.

Hatsarri ta beretic bezala erori ciren *mundu Jesu-Christo ezagutzen ez* tuenaren zorigaitcetarat (7).

Zenbaitetan, ordea, bestelako egiturak aukeratzen ditu erlatiboa itzultzeko. Ez gutxitan, esango nuke nik, mendekotasuna hautsi eta esaldi lokabeak edo juntatuak erabiltzen ditu, haien arteko lotura erakusleen bitartez adieraziz. Hona adibide batzuk:

a. Le jardin des parens de Virginie où nous avons dit qu'elle se retiroit avec son amie aux jours de Fête ou de Dimanche, étoit à peu de distance de la ville, fermé de murailles, d'une étendue vaste, où il y avoit une vigne, un potager, un fruitier, qui formoient une campagne agréable et d'un revenu assez considérable.

Erran dugu Birjinia Igande bestetan joaiten ohi cela ber-adiskidearekin bere burrhoen baratce batetarat; *baratce hura* hiritic aski hurbil cen, handia cen ta murriz hertsia; bacen *han* mahasti bat, baratcecaritegi bat, alortegi bat, eta *horiec guciec* egiten zuten landonthasun pulit bat, eta ematen zuen caront bat aski handia (1).

b. Ils étoient assaisonnés d'une innocente gayeté qui leur donnoit tout à la fois et l'utilité d'une conférence spirituelle, et le délassement d'une honnête récréation.

eta giroztatcen cituzten boztasun chahu batez; eta hala *hetan* edireiten cituzten betan eta mintzaldi izpiritual baten ona eta gozaldi onhest baten phausua (3).

Inoiz izena errepikatuz egiten du lotura:

il est dit que saint Antoine frappoit à la porte de la cellule de ce saint Hermite qui faisoit la sourde oreille.

errana baita jondone Antonio joca cegocola Mortutar done haren etcholaco atheari; *jondone Pauloc* aphur bat ez adituaren egin izan cioela (4).

Bestelako egitura bat erabiltzen du, berriz, honako esaldi honetan:

elle lui donne des empressemens qui altèrent sa paix.

haren ganat lehia-arazten du bakhe *gucia nahasterainocoan* (13).

2.1.2. *Gerundioa* ere badaki pareko egituraz itzultzen:

a. en se *nommant* réciproquement par les noms de ces saints Hermites.

elkhar ber-icenez *deitcen zutelari* (5).

b. *le tirant* chacune de son côté et *conservant* la portion qui lui étoit restée à la main.

zoinec ber-aldetic *thiratuz*, escuan *gelditcen citzajon pha[r]taia gelditcen zuela* (6).

Baina ez gutxitan kontakizunari dagokion gerundioa ere esaldi lokabez, inoiz juntatuz, ematen ditu euskaraz:

a. Un jour en *la réalisant* elles en étoient à cet endroit où il est dit...

Egun batez *berriz haren iracurtcen hari ciren, eta* lekhu hartan ciren ceinetan errana baita...(4).

b. *Virginie revenant* chargée de la collation, et *ne la voyant point*, compris d'abord...

Birjinia *bihurtu cen* arratsalde *gosariaz* cargatua, bainan *etzuen ediren* ber-adiskidea; *ordean* laster ezagutu zuen... (5).

2.1.3. *Sinpletu* egiten ditu, bestalde, espero zitekeen moduan, frantseseko *c'est...que, ce sont... que, ce que...* eta horrelako itzuliak, egitura 'zuzena' erabiliz:

a. *C'étoit dans cette caverne que* les deux pieuses amies éloignées du tumulte des créatures, formoient leurs entretiens.

Bada *harcilho* hartan ematen ciren bi adiskide jaincotiac gauza ginen harrabotsetic urrun ta gericean, eta han idukitcen cituzten bere mintzaldiac (2).

b. *c'est par les liens de cette sainte amitié que je veux* que vous soyez unies. *C'est par elle que je consens* que vous alliez ensemble.

adiskidetasun done haren lokharriez nahi dut izan zaitzeten elkharri iratchikiac. *Hartaz on hartcen dut* elkharrekin zabilzaten (9).

c. *ce qu'elle n'exécuta* pourtant que quelques années après. *etcen* hargatic *egin* handi cembait urtheren buruan balcen (4).

2.1.4. Honako denborazko esaldi honetan ere egitura aldatu eta sinpletu egiten du itzultzaileak. Denboraren erreferentzia esaldi nagusian ematen du frantsesak, eta euskaraz ere egin zezakeen horrela, mendekoa *noiz ere edo noiz eta esaldiaz hasiz (lekhu hartan ciren, beraz, noiz eta emazteac...)*²³, baina nahiago izan du ohiko moldea erabili, denbora erreferentzia mendekoan emanaz:

elles en étoient, dis-je, à cet endroit, *lorsque* la femme du rentier du jardin [...] l'apella

Lekhu hartan *cirelaric*, beraz, baratcearen carontariaren emazteac [...] deitu zuen (4).

2.1.5. Frantsesez izena dena –ekintza izena inoiz– euskaraz aditz baten bidez ematen du zenbaitetan:

a. il faut que votre union serve puissamment à votre *sanctification*.

zuen lothura hainitz behar da cerbitzatu zuen *donetcecotzat* (8).

b. et qu'enfin vous soyez l'une à l'autre *un sujet de consolation spirituelle et d'édification*.

eta bata bertceari cerbitza zakizcoten *izpirituz bozkidatceco eta onbidatceco* (9).

c. dont Dieu est *le principe et la fin*

Jaincoa ganic *dathorrena*, Jaincoari *darontsona* (9).

2.1.6. 'Inpersónala' itzultzeko arazoak izan zituen inoiz. Aditz iragangaitzaren bitartez egitea ez da lan zaila, singularra –*on agit* → haritcen baita (9); *on s'aide* → elkhar laguntcen da (9)– nahiz plurala erabiliz –*on se jette* → *erori ciren* (7)–, batez ere zinezko inpersónala ez denean. Ikusi, ordea, beste adibide bi hauek:

a. *On en jugera* par ce seul trait

Ezagutuco dute hori egintz bakhar huntaric (3).

b. puisque par elle *on se communique* la contagion du cœur.

ceren hartaz bihotceco khutsu gachtoa batec bertceari ematen *baitzajo* (9).

²³ Ik. EGLU-VI, 120.

2.1.7. Honako testu honetan, berriz, *bere* izenordaina behar ez den lekuan sartzen duela dirudi:

elles se donnerent le baiser de paix en se nommant réciproquement *par les noms de ces saints Hermites*.

eman cioten batac bertceari bakhesco musua, elkhar *ber-icenez* deitzen zutelarik, *Mortutar done hejec bezala* (5).

2.1.8. Alpa daiteke, sail hau amaitzeko, jatorrizko testuan ez dauden baina euskaraz ondo heldu diren hitzak edo esaldiak erabiltzeko tentazioa ez duela itzultzaileak beti saihesten. Frantsesez '*mes cheres enfans*' soila dena '*nere haur maite-maiteac*' (15) bilakatzen da, eta, era berean, '*dans la sincere résolution*' soila '*gogo cin-cinean*' (8) bilakatzen da, euskaraz ondo heldu den hitz-berretura eta guzti. Bestetik '*qui altèrent sa paix*' soila '*bakhe gucia* nahasterainoan' (13) egiten du, *gucia* eta guzti; eta '*dans son service*' soila '*haren cerbitzu donean*' (8) egiten du, *done* erantsiz

Horiek, eta horrelako beste batzuk, dira, bada, jatorrizkoa normalean aski zuzen jarraitzen duen euskal itzultzaileak esaldi-egituretan inoizka egiten dituen aldaketak eta egokitzapenak, euskarak eskaintzen zizkion baliabideak erabiliz.

2.2. Hitzen izulpenerako irizpideak.

Hitzen aukeran erabilitako irizpideaz jabetzeko aski da, adibide gisa, *alort* (*fruit*, 4) hitzari erreparatzea. Eskura zuen itzultzaileak tradizioan erabilera luze eta sendoa zuen *fruitu* hitza, irakurleek batere arrotz izango ez zutena eta testuaren irakurketa batere trabatuko ez zuena. Baina egokiago iruditu zitzaion, itxura denez, Larramendiren hiztegiak eskaintzen zion *alort* hitz berria erabiltzea. Hamar bat aldiz ageri da hitz hori lehen liburuan, eta, hain zuzen, lehen agerpenean, *Aintcineco Solasa*-n, kopiazaileak orri-alboan *fruitu* idatzi zuen, hitz ezezaguna '*argitzeko*'.

Hitz horrek eta liburu osoan ageri diren beste askok eta askok erakusten dute ondo ezagutzen zuela itzultzaileak Larramendiren hiztegia eta zabal erabili zuela, bere helbururako laguntza ona zuela-koan.

Euskara onari dagozkion hitz garbiak aurkitzeko bide nagusietako bat izan zuen hori itzultzaileak. Baina bigarren bide bat ere erabili

zuen, *alortegi* (*fruitier*, 1) hitzak erakusten duena. Hitz hau ez da ageri ez Larramendirenean, ez OEH-n. Beraz, itzultzaileak berak sortu zuela pentsatzea ez da itxura gabea, *alort* oinarriari *-tegi* atzizkia, zuzen edo oker, erantsita. Hitz berriak eratzea zuen bere hiztegia aberasteko eta txukuntzeko bigarren bidea.

Euskara egokiago *-euskarago-* egiteko bide bi horiei jarraiki erabilitako hitzak zerrendatuko ditut ondoren, sail banatan, lagin gisa eskainitako goiko testuetara mugatuz betiere, liburu osoan askoz gehiago baitira horrelakoak.

Hirugarren zerrenda batean aipatuko ditut, azkenik, tradizioan erabilitako hitzak, baina *Birjinia*-n adiera bereziarekin erabiltzen direnak, edo orain arte ezagututako agerpenak baino lehenagokoak direnak, horretan ere itzultzailearen hautu berezia ikus baitaliteke.

2.2.1. Larramendiren hiztegitik hartutako hitzak²⁴:

Bakida (VIII, *zb*), *commun*. Lar: 'Comun, lo que es de muchos, *baquida*, *anizquida*'. Tradizioan *komon*.

Caront (1, *zb*), *revenu*. Lar: 'Renta, errenta, *carontà*, *etontza*'. Aurrekoek *errenta*.

Bisetaco (1; XI. kapituluuan, *zb*), *double*. Lar: 'Doble, cosa de dos, ò dos vezes, *bambesteco*, *biderbico*, *bisetaco*'. OEH-k, oker, *biseta* ematen du Larramendik *bisetacoa* dioen lekuan, s. v. *biseta*. Tradizioan *bikun*.

Ikhusgina (1), *vûê*. Lar: 'Vista, sentido de ver, *vista*, *icusguiña*'. Agerpen bakarra. Tradizioan *bista*.

Jaincoti (2), *pieuse*. Lar: 'Devoto, *jaiertia*, *Jaincotia*, *Jaincotiarra*, *devotoa*'; 'Beata, *serora*, *andre jaincotia*'. Beste batzuetan *jaincotiar*.

Done (2; Aintcineco Solasa-n, orri-alboan: *seinduaren*), *saint*. OEH: 'done [...]. Santo [...]. Tr. Atestiguado ya en RS, no se vuelve a encontrar hasta el s. XIX (en autores de influencia larramendiana)'. *Birjinia* aurrera-zaie horiei. Tradizioan *saindu*, *seindu*.

Jai(er)a (2; Aintcineco Solasa-n, orri-alboan: *debocionea*), *dévotion*. Lar: 'Devocion, *jaiera*, *devocioa*'. Maiztasun handikoa *Birjinia*-n.

Arthautsi (3, *zb*), *interrompre*. Lar: 'Interrumpir, *artautsi*'. Agerpen bakarra.

24 Ondoko zerrendetan erabiliko dudak *zb* laburdurak kopiazaileak hitzaren azpian zenbakia ipini zuela adierazten du, orri-alboan ordain ezagunagoa idazteko asmotan, aurreko 12 orrietan egin zuen bezala, nahiz eta orri horietatik aurrera asmoa gauzatu gabe geratu zen. Bestalde, hitz batzuen aurreko izartxoak (*) OEH-k ez dakartzala adierazten du.

Onhesgun(e) (3; I. kapituluan, orri-alboan: *caritateari*), *charité*. Lar: 'Caridad, amòr de Dios, ò de el proximo, *Jaincoaren,, edo urcoaren onesguna, onerizcoa*'; 'Amor, *amodioa, amorioa, naicundea, amaera, maitaera, amorea, onesguna, onirizcoa*'; 'Dileccion, *onesguna, maitarea*'.

Barjakinde (3; I. kapituluan, orri-alboan: *conciencia*), *conscience*. Lar: 'Conciencia, *conciencia, barjaquindea*'.

Giroztatu (3, zb) *assaisonner*. Lar: 'Sazonar, *dàr sazón, sasoitu, sasoindu, sasonatu, sasoaldu, zoritu, guirotu, arotu, zoriztatu, guiroztatu, aroztatu*'. OEH-k *girotu* badakar, baina *giroztatu* ez.

Gozaldi (3), *récréation*. Lar: 'Recreacion, *gozaldia, pozaldia, atseguña*'.

Carontari (4, zb), *rentier*. Lar: 'Rentero, *errentaria, carontaria, etontzaria*'.

Arratsalde gosari (5), *collation*. Lar: 'Merienda, *apalaurrea, arratsalde gosaria*'. OEH-k hiztegietatik aparte aipatzen duen adibide bakarra Lardizabalena da.

Eduntci (6; XXIII. Kapituluan, zb, *Calice*), *verre*. Lar: 'Vaso para beber, *edontzia, goporra, basoa*'; 'Copa de beber, *copa, edontzia*'. OEH: 'edontzi [...]'. Tr. Al Norte esta palabra se usa relativamente poco, y se encuentra únicamente *edanuntzi* en el Haraneder-Harriet y en Inchauspe'. *Birjinia*-n erabiltzen da, bada, *eduntci* forma, Larramendiren *-ontci -untci* eginaz. Tradizioa, *edaluntzi, edari untzi*.

Ongai (7), *util*. OEH: 'ongai. 1. «(G?) , útil» A.'. Lar: 'Util, *gayona*'.

Errangi (7; Aintcineco Solasa-n, orri-alboan: *maximac*), *maxime*. Lar: 'Maxima, axioma, sententia, *esanguia*'; 'Refran, *esanguia, erranguia, erran comunà*'.

Gaitz-hurreti (7 ; VI. kapituluan, zb), *dangereuse*. Lar: 'Peligroso, *periltsua, gaitzurretia, peligratsua*'. Aukera 'garblena' hartzen du hemen ere, bere era egokitua.

Alaitu (8; II. kapituluan, zb; [ikus *alai*, Aintcineco Solasa-n orri-alboan: *curajerekin*]), *encourager*. Lar: 'Animar, esforzar, *animatu, alaitu, indartu, quemendu, curayatzea, bandatzea*'. OEH: 'alaitu [...]'. Tr. Meridional [...]. Originariamente 'dar(se) ánimos', desde mediados del s. XIX convive con la acepción de 'alegrar(se)', que es prácticamente la única en el s. XX'. Duhalde bide da Iparraldean hitz hau darabilen bakarra; hura baino lehenagokoa da *Birjinia*.

Donetu (8), *à votre santification _ zuen donetcecotzat* [ikus *done*]. Larramendik *donestu, donestatu, doneguin, santueguin, santutu* ematen ditu 'santificar' itzultzeko, baina 'Sagrado, *donaquia, donatia, donetia, donetua*'. OEH-k, s. v. *donetu*, ematen dituen adibideak askoz geroagoak dira.

Eracai (9, zb), *motif*. Lar: 'Motivo, *eracaya*'.

Sortizcoi (9, zb), *naturelle*. Lar: 'Natural, lo que sucede comunmente, *sortizcoya, izacoya*'.

Bozkidatu (9), *être sujet de consolation*. Lar: 'Consolar, *consolatu, bozcariotu, pozquidatu*'. Egokitua: *pozk- bozk*. Tradizioan *kontsolatu*.

Onbidatu (9), *être sujet d'édification*. Lar: 'Edificar, por el buen exemplo, *ombidatu, etzondu*'.

Arpeztu (12, zb), *expliquer*. Lar: 'Explicar, *azaldu, arpeztu, erabaqui*'.

'Bertcegita (12, zb), *différence*. Lar: 'Variedad, diferencia, *berzeguita*'. OEH-k ez dakar, baina s.v. *bestegitu* ematen du Larramendiren aipamen hau. Agerpen bakarra.

Minhizta (13 ; III. kapituluan, zb), *reproche*. Lar: 'Reprehension, *minizta*'.

Hautakin (13; IV. Eta XIV. kapituluetan, zb). Lar: 'Libertad, albedrio, *cepeda, escucoera, autaqiña, locabea, orradea, quitadea, libertadea*'; 'Albedrio, libertad, *escucoera, autaqiña* [...]'. El albedrio es la potencia que haze eleccion de las cosas; elegir dezimos *autatu*, y à la potencia de esta eleccion *autaqiña*'. Tradizioan *libertate*.

Lehencuntza (14), *préférence*. Lar *Sup*: 'Preferencia, *lencuntza*'.

Onbidari (14), *édifiant*. Lar: 'Edificativo, *ombidaria, etzondaria*'.

Ben (15, zb), *sérieux*. Lar: 'Serio, *mená, bená*'. OEH: 'ben [...] Tr. Documentado en autores vizcaínos y guipuzcoanos, se encuentra por primera vez en Larramendi'.

Sendar (15, zb), *solide*. Lar: 'Solido, *sendarra*'.

Banernetu (15, zb), *produire*. Lar: 'Producir, *banernetu*'.

'Econde (15, zb), *effet*. Lar: 'Efecto, *ecarraya, eguicundea, econdea*'.

Hitz asko dira, bistan denez, horren lagin txikian. Itzultzaileak Larramendiren hiztegia zabal erabili zuela erakusten du horrek. Iparaldean beste inork baino askoz zabalago, seguruenera ere. Kopiatzaileak, hain zuzen, horietako gehienak seinlatu zituen, orri-alboan argitzeko asmoz.

2.2.2. Itzultzaileak berak sortutako hitzak:

'Baratcecaritegi (1), *potager*. OEH-k aipatzen du, bai, hitz honen oinarrian dagoen hitza: 'baratzekari, [...]'. Hortaliza, legumbre', baina ematen di-tuen adibide zaharrenak XIX. mendekoak dira. Aurrekoek, batzuek behintzat, *baratze-belar* erabili zuten eta Larramendik, *barazki* proposatu zuen, besteak beste, ez *baratcecarí*. Beraz, azken hau *Birjinia*-ren itzultzailearen hautua izan zen. Eta, gainera, eratorpen-atzizkia erantsiz *baratcecaritegi* sortu zuen, ohiko *baratze* zabalaren lekuan.

- *Landonthasun** (1, zb), *campagne*. Itzultzaile honek bereizten ditu *ontasun* (*bonté*) / *onthasun* (*bien*). Horregatik hemen *landonthasun*.
- *Jarraitza** (6, 8; III. kapituluan, zb), *pratique*. Beste batzuetan bezala, hemen ere *berthuten jarraitza*, *la pratique des vertus*. Tradizioan *berthuteari jarraiki* erabiltzen da, baina ez (*berthuteen*) *jarraitza*.
- *Christabarauc** (7 eta *passim*), *chrétien*. Pertsonak *christabac* izan daitezke, baina jarrerak eta jokabideak *christabarauc*, hau da, kristauari dagozkionak. Honen sinonimoa dira *christaucarazco* eta *gristinocarazco*. Atzizki berekoa du *ebanjelioarau(z)co* hitza, *évangelique*.
- Elheca** (7, 14; I. kapituluan, orri-alboan: *discursa*), *entretien*, *discours*. OEH-k dioenez XIX. mendetik aurrera erabiltzen da, Iparraldean, eta adizlagun gisa ('hablando, conversando'). *Birjiniak* maiz darabil izen bezala (*entretien*, *discours*, *conversation*).
- *Ilkhi buru** (9, zb), *principe*.
- *Gauza gin(ac)** (10, 11), *créature(s)*. Larramendik ez darabil 'hitz elkartu' hau: 'Criatura, todo lo que no es Dios, Criatura, baguetic eguiña'. *Gauza egin(a)* forman geroagoko Duhaldeak eta Arbelbideak erabiltzen dute.
- Sentsucarazco** (11, 13, 14), *sensible*. OEH-k ematen dituen adibide gutxiak XIX. mendekoak dira. *Birjina*-k maiz darabil; *-karazco* atzizkiarekin beste hitz asko eratu ditu, hala nola, *aitacarazco*, *cerucarazco*, *christaucarazco*, *gristinocarazco*, *gizarcarazco*, *haurcarazco*, *izpiritucarazco*, *nahicarazco*, *prestucarazco*, *seroracarazco* eta *zorrotzcarazco*. Hitz lokabe gisa *karazco*-k 'oportuno, apropiado' esan nahi du (Ik. OEH).
- Bajatsu** (12), *défectueux*. Tradizioan erabiltzen dira *baja* eta *bajadun*, baina ez *bajatsu*. OEH-k badakar, *Birjina* baino geroagokoak diren *Duvoisinen* eta *Harrieten* hiztegetara bidaliz, baina ez du testuetako agerpenik alpatzen.
- *Bihotz-asiki** (13), *regret*. OEH-k hitz elkartu asko alpatzen ditu, lehen osagaia *bihotz-* dutenak, baina ez hau. Tradizioan ez da erabilia.
- *Bekhaizte**²⁵ (13) *jalousie*. *Bekaitz*, *bekaizkeria*, *bekaiztasun* eta *bekaizgo(a)* erabiltzen dira tradizioan, baina ez *bekaitze*.

Ikusten denez, euskara-hitz egokiak erabiltzeko bere ahalegi-
nean hitz berriak sortzera jo zuenean, eratorpena eta hitz-elkarketa
erabili zituen batez ere itzultzaileak. Horrela sortutako hitzak ez dira
ulertzen zailak, baina bat baino gehiago seinalatu zituen, hala ere,
kopiatazailak. Ez da harrizkeoa, bestalde, hitz hauetako asko OEH-n
ez agertzea, *Birjina* ez baita haren *corpusean* sartua.

2.2.3. Adiera bereziarekin erabilitako hitzak, edo aurreneko agerpen direnak:

Hildura (6; IV. kapituluan, *zb*), *mortification*. *Pouvreauren* hiztegian ageri da *gorputzaren hildura* esaldia itzulpenik gabe, baina OEH-k erakusten duenez, Hegoaldean erabili zuten idazleek, idazkera jasoan, XVIII. mendearen erdialdetik aurrera.

Sagara (6; III. kapituluan, *zb*), *sacrifice*. *Birjinia*-k hitz hau erabiltzen du bai Mezako sakrifizioa bai bestelakoak adierazteko. Azken adiera honetan ez da erabilia tradizioan. OEH-k Harrieten azalpen hau aipatzen du: «Il a été dit pour sacrifice, don sacré, mais n'a pas été adopté. *Gure lainkoagana*ko *sagarak* (Guillaume d'Arche)».

Faunkeria (7), *vanité*. *Faun* erabilia da aurreko tradizioan ere, baina *faunkeria*-ren adibide bakarra, OEH-n, *Birjinia*-ren geroagokoa da, Duhalderena. Harrieten hiztegian *Munduko faunkeriak* esaldia ematen da, *Birjinia*-tik hartua beharbada.

Gisatasun (9, 11, 15), *qualité, caractère*. OEH-k geroagoko Duhalderen bi adibide baizik ez ditu ematen.

Lothgune (9, 11, 13), *affection*. Hitz honen azalpenean, Duvoisinin hiztegia aipatzen du OEH-k, *suture, jointure* adierarekin, baina adibiderik eman gabe, eta, gainera, ez du *affection* adiera ematen.

Osotasun (10; VII. kapituluan, *zb*), *perfection*. Hitz hau tradizioan erabilia zen, *integridad, pureza* adierazteko, baina *Birjinia*-k sistematikoki erabiltzen du *perfection* itzultzeko.

Tradizioan erabilitako hitz jasoak eta bakanak erabiltzen ere bazekien, beraz, *Birjinia*-ren itzultzaileak, zerranda labur horretan ikusten denez, bere prosarako egokiak irizten zizkienean. Eta koptatzaileak horrelako batzuk ere seinatu zituen.

3. Ondorioak

Lehen begiratuan, badirudi irizpide desberdinak erabili zituela *Birjinia*-ren itzultzaileak esaldien eta hitzen aukeran. Esaldietan ez da asko urruntzen jatorrizko frantsesetik, baina egiten duenean, euskara errazago edo 'naturalago' agertzeko egiten du. Hitzetan, aldiz, aukera zail eta 'artifizialak' egiten ditu. Ez dirudi, bada, uztartzen errazak direnik bi jokabide horiek.

Gauzak sakonago aztertuta, ordea, bi jokabide itxuraz hain desberdin horien oinarrian irizpide bat dagoela ikus daiteke: euskara

garbia, erdararen loturatik librea –'euskaragoa'– egin nahia. Oinarrizko irizpide bakar horrek, ordea, bi ondorio desberdin izan zituen bere aplikazioan: esaldietan ez zen batere gaizki gertatu euskaraz ohikoagoak edo naturalagoak diren egiturak hobestea, horrek ez baitzuen inondik ere testua zaildu. Egitekotan, erraztu egin zuen. Hitzetan, ordea, guztiz alderantziz izan zen: 'euskarago' zirelako hitzak zailak eta ulertezinak egiten zitzaizkion irakurle euskaldun ohikoari.

Garbizaleei maiz gertatzen zaiena gertatu zitzaion *Birjina*-ren itzultzaileari ere. Berak buruan zuen eredu baterako izango ziren, beharbada, 'garbiak' eta egokiak hautaturiko hitz berri horiek guztiak; ez zetorren, ordea, bat eredu hori euskaldunek egiten zuten euskarekin eta beste liburuetan irakurri ohi zutenarekin. Hauentzat *Birjina*-ren euskara ez zen euskara garbiagoa, traketsagoa baizik. Zer ulertuko zuen, esate baterako, liburuaren lehen orrian haren jabetzat agertzen den Jeanne Mari Robin, Hazparneko serorak? Ezer gutxi, kopiatzailearen laguntza eta gutxi.

Hortxe dago, seguruenera ere, liburu honek izan zuen arrakasta eskasaren arrazoiak. Hainbesteko liburua itzuli (koaderno txiki bateko 2.000 orri eta gehiago baditu eskuizkribuak), eta gero inorentzat ez zela geratu zen, Harriet bezalako hiztegi-gile edo jakinzale batentzat edo besterentzat ez bada. Gehiegiak ez duela onik dio esaerak (*Laurric ez onic*, RS 45), eta kasu honetan behintzat ez du arrazirik falta. Irakurleentzat irakurgai estimatua eta baliagarria izan zitekeena, itzulpen-ariketa antzu samarra izatek ez zen pasatu. Eta ez dut uste hori zenik itzultzaile saiatuak nahi zuena.

Bibliografia

Birjina: *Birjina, edo donceila christaba. Lempizte siciliarra, prestutasun oso-
rat heldu nahi diren nescatchei moldetzat balia dakientzat*. 1783-
1784ko eskuizkribua.

Charritton, Piarres. 2000. *Meditacione cerurat heltceco baltezpadoacoac*.
Eskuizkribua Piarres Charritton-ek aurkeztua (1999).

EGLU-VI: ikus Euskaltzaindia.

Euskaltzaindia. 2005. *Euskal Gramatika. Lehen Urratsak-VI (Mendeko perpau-
sak-2)*. Bilbo [aipamenak: EGLU-VI].

Lafitte, Pierre. 1931. *Eskualdunen Loretegia*. Baiona.

Lar: ikus Larramendi.

Larramendi, Manuel de. 1745. *Diccionario Trilingüe del Castellano, Bascuence y Latín*. San Sebastián [aipamenak: Lar].

Marin, Michel Ange. 1756². *Virginie, ou la vierge chrétienne. Histoire sicilienne, pour servir de modele aux filles qui aspirent à la perfection*. Avignon.

Michelena, Luis. 1987. *Diccionario General Vasco*. Orotariko Euskal Hiztegia. Bilbo: Editorial Desclée de Brouwer, ediciones Mensajero [1987an argitaratzen hasia; aipamenak: OEH].

OEH: ikus Michelena.

Villasante, Fr. Luis. 1979². *Historia de la Literatura Vasca*. Edit. Aránzazu.

Vinson, Julien. 1891. *Essai d'une Bibliographie de la Langue Basque*. Paris: J. Maisonneuve. (II. Liburukia 1898an) [Edición del Seminario de Filología Vasca "Julio Urquijo" de la Excelentísima Diputación Foral de Guipúzcoa, San Sebastián, 1984].

Bibliografía

3. Ondorioak

- Lar, Iñus Larramendi.
- Larramendi, Manuel de. 1745. *Diccionario Trilingüe del Castellano, Basconerri- ce y Latin*. San Sebastián [alporriñak: Lar].
- Mairi, Niche Ange. 1736². *Vieillesse de la vierge chrétienne. Histoire sicilienne, pour servir de modèle à celles qui aspirent à la perfection*. Avignon.
- Michelena, Luis. 1987. *Diccionario General Vasco*. Orosko Euska Itzategia. Bibo. *Euskarazko Hiztegia*. Bilbo: Euzko Leizor, edizioa Messagero [1987an argitaratzen hasia, alporriñak: 1989].
- OEH. Iñus Michelena.
- Vilasante, Fr. Luis. 1979⁴. *Historia de la Literatura Vasca*. E. It. Aranzazu.
- Vizón, Julien. 1891. *Essai d'une bibliographie de l'Anglo-Basque*. Paris: J. Maisonneuve. (Auzokas 1926an) [Euskarazko "Seminario de Filología Vasca" "Anglo-Basque" de la Universidad de Estación Foral de Guipúzcoa, San Sebastián, 1986].

In memoriam Miguel Azaola

Luis HARANBURU ALTUNA

Joan den Irailaren 8an zendu da 90 urterekin, Alcalá de Henaresko hirian, José Miguel Azaola bilbotar idazle euskaltzalea. Beste meritu eta dohain askoren artean *EGAN* aldizkari honen sortzaile eta eragile nagusienetakoa izatearena dagokio.

José Miguel Azaola Bilboko Abandon sortu zen 1917 urtean. Hamahiru urterekin idatzia zuen bere lehen liburua, sorterriaren historia laburra osatuaz; hartaz gero liburuen munduari atxikirik bizitu zuen bere bizitza oparo eta aberatsa.

Bilboko Licenciado de Poza Institutuan batxilergoa ikasi ondoren Salamancako unibertsitatean burutu zituen Zuzenbide ikasketak, ondoren Madrid eta Friburgon eginaz doktoradutzako ikasketak.

Gerla aurreko urte azkarretan *Alea* izeneko kultur taldearen sorreran hartu zuen parte Blas de Otero, Gustavo de Maeztu eta Lauxetarekin batera. *Hermes* izeneko aldizkariaren euskarazko jarraipena burutu nahi izan zuten beste zenbait egitasmoen artean, baina Gerla Zibilaren kariaz bertan behera gelditu ziren guztiak.

Gerlak eztanda egitean Azaola Euskal Herririk kanpo aurkitzen zen eta Suizan kokatu zuen bere egoitza, Friburgoko hirian, hain zuzen. Bertan eman zituen sei urte eta ezkondu ondoren itzuli zen sorterrira, 1942.ko urtean Donostian bizitzen jarriaz. Urte beltz eta tamalgarri haletan jakin zuen hala ere bere kultur gose-egarriari bide egiten eta Donostian berehala saiatu zen beste kultur eragileekin elkartzeko: Jose de Arteche eta Carlos Santamaria izan zituen, besteren artean, lankide. Giro arrotz hartan jakin zuen Azaolak lan premia-

zkoenei ekiten eta horrela sortu zuen beste batzuekin batera 1947 urtean EGAN aldizkaria, laister Amigos del País elkartearen babesean jarriko zuena.

Gerla osteko Donostia zurbilean Carlos Santamariak antolatu bide zituen Katolikuen elkarteratze internazionalen eta Miguel Azaola buru belarri sartu zen beraiek bultzatzen. Jadanik, bestalde, nabaria zen Azaolaren europazaletasuna eta Donostiako Ateneoaren baitan Europari buruzko ekitaldiak antolatu zituen. Donostiako bere egonaldian PAX izeneko editorialarekin kolaboratu zuen eta LAR izeneko beste aldizkari bat ere sortu zuen.

Donostiatik Madridera joan zen bizitzera eta Instituto Nacional del Libro izeneko erakundean hasi zen lanean eta *International Board on Books for Young People* izeneko erakundearen buru izatera heldu zen, ilburuen munduan buru belarri sartuaz. Unescoren baitan hasi zen lanean eta Parisera aldatu zuen bere egoitza 1963 urtean.

Europazale goiztarra

Miguel Azaolaren nortasuna ulertezina da Europarenganako bere gogoak kontutan hartu gabe. Bere ikasketak Suizan bukatu izanak eta gero gerlaren kausaz Friburgen bizi izan beharrak Europaren ezagutza are sakontzera eramanean zuten. Europaren une politiko larrienak bizitu izan zituen gertutik eta gero UNESCOko talaiatik Europa berria eta bateratua jaiotzen ikusten aukera ezin hobea izan zuen. Esan daiteke bere ideologia politikoa orobat Europari atxikirik gauzatu zuela. Federalismoaren aztarnak Suizan jaso zituen lehenik eta II Gerla osteko Alemaniaren eraikuntza ere gertutik jarraitu zuen. Bietan, Alemanian eta Suizan, alegia, gauzaturik eta frogaturik ikusi ahal izan zuen paradigma federalista. Espainiaratzean berekin dakar Europaren ereduak eta bertako federalismoaren modeloa, eta bide horretatik ikusiko du Euskal Herriaren kokagunean Espainiaren baitan.

Goiztar ibili zen, ordea, Migel Azaola eta Francoren erregimenean ezin pentsatua zen federalismoaren aldeko joera. Hala ere, Azaolak ez du etsiko eta bere lan teoriko eta artikuluetan behin eta berriro entseiatuko da demokrazia eta federalismoaren aldeko eginahalean.

Europako pentsamolde humanisten aldarri ere izan zen gure

artean, Azaola. Esistenzialismo kristaua Mounier pentsalariaren ildotik jaso zuen, eta Carlos Santamariarekin batera saiatu zen euskal elizaren haize berriak hedatzen.

Euskaltzale kritikoa

M. Azaolak Euskal Herriari buruz osatu zuen lanik garrantzitsuena *Vasconia y su Destino* izeneko liburu erraldoia da (1972). Inoiz Euskal Herriari buruz egin den lanik garaiena litzateke zenbaiten usteetan, eta, geure aburuz, Euskal Herriari buruzko lehen entsegu jenerala da, inolaz ere. Euskal historiaren begirada kritikoa burutzen da bertan, foruen izaerari bere modernotasunean ikusiaz eta Euskal Herriak Europan duen tokia aditzera emanaz. Lan erraldoia eta ezin zuzenagoa, datuetan oinarritua eta antropologia kulturalaren aitzindari. Azaolaren entseguak, ordea, ez zuen izan behar adinako arrakastarik; trantsizio politikoaren atarian argitaratu zen eta gara denbora zurbil haietan nekez entzuten ziren Azaolarena bezalako ahotsa solte eta kritikoak. Federalismoaren bidea urratu gabeko bidea suertatu zen Franco hildakoan, eta gerora ere nazionalistak gehiago jo dute Konfederalismoaren bidetik, eta ez Azaolak adieraziriko federalismoaren ildotik.

Politikaren grina bazuen ere, Azaola ez zen inoiz partidu gizona izan eta bere militantzia bakarra Europaren aldeko mugimendua izan zen. Hala ere euskaltzale bezala nabarmendu zen bere bizi guztia zehar eta, euskal nazionalismoaren zenbait joerekin kritiko agertu bazen ere, behin eta berriro ekin zion euskararen defentsari; bera izan zen Jose de Arteche idazlea eta Patxi Unzurrunzaga editorearekin batera Salvatore Mitxelenaren *Arantzazu Poema* eta Orixeren *Euskaldunak* argitaratzeko bidea urratu zuena.

EGAN aldizkari hau ere bere ekimenari zor zaio eta bera izan zen euskararen aldeko pausu labur, baina garrantzitsuak eman zituen lehena. Zorretan dago euskal kultura Miguel Azaolarekin, eta 2001 urtean Eusko Ikaskuntzak "Manuel Lekuona" sariarekin omendu bazuen ere, ez da oraino kitatu Euskal Herriak zor dion ospea eta esker ona.


Idazle oparoa izan zen Azaola eta artikulugile dotorea; "El Correo" eta "El país" egunkarietan dozenaka artikulua argitaratu zituen

eta ez legoke gaizki, bere heriotzaren samina arintze aldera, bildu eta argitaratuko balira.

Azaola, bestalde, M. Unamunoren irakurle eta ikerlea izan zen eta hari buruzko lanak ez dute parekorik Unamunoren pentsaera ezagutzerakoan. Baina, Azaola musika eta arte kontuetan ere aditua zen oso; erudituen ezagueraz idatzi zuen musika lirikoaz.

Miguel Azaola oso gizon bakana izan zen euskaldungoaren baitan. Bakana eta bakartia. Liberala zen izaeraz eta pentsaeraz, liberalismoa gorrotatu duen herri honetan, hargatik, agian, ageri zaigu hain bakarrik eta sotil. Euskaldun erraldoia izan zen, baina mediokreen erresumak ez zuen onartu; dotoregia zen, agian edo eta... libreegia.

Miguel Azaola fededuna zen eta kristaua; jaso beza zeruak bere gogoa.



...tasuna

...er

...da a

2004)

...gonago

...alborak ez

...hiru zaitan

...atlecan arrotasun

...duelarik, serriro eta pertsona bigarren atlecan irristekin diuen

...ezaleki ezainita dago, poetak gari, musikari (Louis Armstrong,

...Ela Fitzgerald) eta pintoreak (Pierre Soulages, Josep Guinovart) zen

...argaztulariak (Joni Vidal) ere badaudelarik. Hiru gaitan ez gaiterik

...guziak dakartzigu, detamen begietan diti: izadi baha ba, sutsua,

...eulak, jautzia gogoz ar den sutsua, usoa, elurreak, baxoa, Mar-

...skako lurraldea.

...Ezagutien

...eta soiltasuna.

...theosak Etxaldeko filosofia salatu ereguzi eta las mundu-urte dau

Kritikak eta erreseinak

eta ez legoke goizki, bere heriotzaren samina erintze aldera, bildu eta argitaratuko baita.

Azola, bestalde, M. Unamunoren irakurle eta ikerlea izan zen eta hiri buruzko lanak ez dute parekorik Unamunoren pentsaera ezagutzera. Baina Azola murgitu eta arte konjektan ere aditua zen oso; erudituen eta idazle onen idazlanak irakurtzen zituen.

Miguel Anasoren oso gogokoak ziren azararen leheneko hamargarren batetik. Bakoan bere gogokoak izan zituen. Baina horietatik azararen leheneko hamargarren bakoan bere gogokoak izan zituen. Baina horietatik azararen leheneko hamargarren bakoan bere gogokoak izan zituen.

Azola federrarekin batera, bere gogokoak izan zituen. Baina horietatik azararen leheneko hamargarren bakoan bere gogokoak izan zituen.

Kritikak eta erresenak

Poesiaren aniztasuna

Amaia ITURBIDE

Poesian –gutxien irakurritako generoa delako eta, beraz, merkaturko legetatik urrunago dagoelako– aukeratutako bideak askeagoak direla esango nuke eta, pentsa daitekeenaz bestera, jorratu gabeko eremua zabalagoa denez gero, desberdintasunak eta originaltasunak kontuan hartzeko ezaugarriak direla. Honi guztiari gaineratzen badiegu poesian norbanakoaren esperientziek zein existentziarekiko barne loturek daukaten garrantzia, ohartuko gara zenbat poeta hainbat poesia mota dagoela. Esandakoaren adibidetzat har daitezke hurrengo poema liburuok.

José Corredor-Matheos, ibilbide luzeko poeta izanagatik ere, ez da agerikoa, baina 2005ean *El don de la ignorancia* (Tusquets, 2004) liburuagatik eskuratu zuen Poesia Sari Nazionalari esker eza-gunagoa egin da (sariek, batzuetan, horretarako balio dute, ezkutuko altxorrak azaleratzeko).

Hiru zatitan banaturik dagoen poema liburu honetako aurreneko atalean arrotasunaz dihardu, bizitza ikuspuntu horretatik ikusiko duelarik, sentitu eta pentsatu. Bigarren atalean miresten dituen sortzaileei eskainita dago, poetez gain, musikariak (Louis Armstrong, Ella Fitzgerald) eta pintoreak (Pierre Soulages, Josep Guinovart) zein argazkilariak (Toni Vidal) ere badaudelarik. Hirugarrenean eguneroko gauzak dakarzkigu, detaileak begiesten ditu: ibilaldi bakartia, sagarra, euliak, jauzika gogoz ari den txakurra, usoa, ekiloreak, itsasoa, Man-txako lurraldea...

Ezaugarrien artean bi nituzke alpatu beharrak: benetakotasuna eta soiltasuna. Lehenengoaz den bezainbatean, José Corredor-Matheosek Ekialdeko filosofia sakon ezagutu eta bizi ondoren idatzi ditu

bertsook, gaur egungo Mendebaldeko mundu honek Ekialdekoaz egiten dituen fotokopia itxuratiez baino haratago. Horrela, benetako nihilismo budista anonimotasunean, isiltasunean, baretasunean eta barnekoitasunean datzala gogoratuko digu edota Omar Jayyamen ezerezean murgilduko da. Soiltasunari dagokionez, hitz bakarrek bezain tinkoek, ziztadek eta distirek gidatzen dituzte izenbururik gabeko poema solte eta laburrok.

Ez da falta beste poeta batzuekiko keinu konplizerik. Esate baterako, Ángel Cresporekiko (ezagutzen oinarriturik, sakratuaren bila abiatu zen poetarekiko), Jaime Silesekiko (tradizio literarioa eraberritzeko jarreratik abiaturik, izateaz eta bestelako kulturez eta kultura baloreez, batez ere, Txinakoaz biziki erakarrita dagoen poetarekiko) edota San Juan de la Cruzekiko (edota mistika, hots, barne biluztea dela-eta).

El don de la ignorancia irakurri ondoren, dar-dar egiten duten bertsook sentitutakoan, argia ezezagunean dagoelako ustean nago.

Juan Gelmanen *País que fue será* (Visor, 2004) bere poema libururik esanguratsuenetariko bat dugu. Argentinako diktadura militarrek betirako markatu zuen Juan Gelman, hainbesteko moldez, ezen bizitza eta literatura betirako bat eginda gelditu baitzitzaizkion. Gauzak honela, ulertzekoa da bere poesiaren oinarritzko gaia oinazea izatea eta helburua, berriz, maitasuna erdiestea.

País que fue será irakurri eta berehala, denbora zama bat baino gehiago delako inpresioa jaso daiteke eta horren ondorioz, sententziekin topatuko gara, harat-honateko mugimendu larriekin edo erantzunik gabeko galderekin. Mehatxu kutsuko aurrenentipenak, batez ere, heriotzari buruzkoak, eta irudi arraroen orpotiko arrotasun zentzua nonahi daude. Eta bai mina bai maitasuna –maitasuna eremu zabal eta kosmikoan, salbatzaile gisa– zain dauzkagu. Izan ere, esperientzia mistikotik abiatuta, maitasunera heltzen den poesia da Juan Gelmanena.

«¿Y qué es lo real cuando / el significado del dolor / es un dolor más?» (25 orr.) dio larru ondu eta zartatuko poetaren ahotsak. «Mayo nunca aparece / en los informes sobre la humanidad» (71 orr.) dio poetaren ahots eszeptikoak.

Hizkuntzaren atalean ezin ahantz ditzakegu hainbat eta hainbat hitz joko. Izan ere, Juan Gelman hizkuntzaren esplorazioan jarduna

balta, esplorazio linguistikoan, gaztelera hazi eta hazi ari den hizkuntza germinala dela baiteritzo, malgutasun handikoa.

Eta sufritu duenak besteen oinazearekiko daukan sentiberatasunagatik eta elkartasunagatik "Iraq /2003" bezalako poemak idatziko ditu. Hitz dago Juan Gelmanen poesian, leku egiten. Isiltasuna eta hutsunea daude, sakonak.

Karmelo C. Iribarrenek 1985etik 2005era arteko poesia guztia bildu du *Seguro que esta historia te suena*-n (Renacimiento, 2005). Poesia objektiboa, narratiboa, umoretsua eta funtzionala dugu hau, ohiko lirikaren aurka, hots, hitz hutsalez eta hanpatuez egindako lirikaren aurka altxatua. Poesia mota hau Charles Bukowskiren ildoakoa da eta gogora dezakegunez, Charles Bukowskik, errealismo zikinaren aitak, liriko askok lortu ez dutena lortu zuen: irakurleei benetako malkoak isuraraztea.

Karmelo C. Iribarren hainbat ofiziotan ibili ondoren, tabernari lanetan dihardu gaur egun. Poeta hau errealitateaz aritzen da eta poesiaz zein zinez beteriko eta sedukzioz zein estrategiaz blai egindako eleberri beltza dauka eredutzat eta Raymond Chandler maisutzat. Gauzak honela, poesia hiritarra da Karmelo C. Iribarrenena, egunero-kotasunari atxikita, material poetiko ugari eduki badaukana, hizkera kolokiala darabilena eta epikarik gabeko gizaki arruntez, kalez eta tabernaz zeharkatua. Eszenatokiok eta bere poetikak hala eskaturik, gai hauek dakartza: emakumeak, alkohola, bakardadea, nihilismoa, denboraren igarotzea, porrota... eta transzendentziarik eta estri-dentziarik gabeko errealitate soraloa ispliatuko digu, askotan aspergarria lirudikeen arren, interesik eta misteriorik ere badaukana, begi bistakoa izanagatik ere, ulertezina ere badena. Eta guzti hau bere-be-rea duen tonuaz, graziaz eta gradu altuko konplizitateaz. Poesia zuzenagorik eta zinikoagorik ezin: «No se preocupen. / Ustedes sigan / adornando / sus jodidos arbolitos / de Navidad. // Yo haré / el trabajo / sucio» (152 orr.).

J. M. Caballero Bonalden *Manual de infractores* (Seix Barral, 2005) –aurretik *La desobediencia* deitzekotan ibili omen zen– gaur egungo munduan gertatzen diren eskubideen zapalketen eta bestelako lotsagabekerien aurka idatzita dago eta, konkretuki, Irakeko gudaren aurka. Otzankeria eta taldekeria ere gorroto ditu. Gezurrak jipoitzen dituen poemategi honek badu, beraz, zentzu iraultzailerik, Caballero Bonalden poesian betidanik egon den etika sendorik. Eta

baita grinarik ere, arbulatzen dituen gauzen aurka babes harresi bat eraikitzeko. Baina gai nagusi honekin batera bada bestelakorik: malenkonia, zalantza, oroimena (bizi izan duguna garela uste du poetak), denboraren iheskortasuna ("gelditzen zaidan denbora naiz" edota "bakardadearen, erresistentziaren eta ametsen denbora gara" esan du noizbait) zein denboraren iraganaren aurkako errebeldia. Kutsu autobiografiko nabarmeneko poemategi honen azpian bada hurrengo ustea: barruan asaldatzen gaituzten obsesio larriak azaleratzean, poesiaren funtzioa salbatzaile eta sendagarri bihurtzen da. Baina salbatzailea baita honengatik ere: dimentsio metafisiko eta moraletik abiatuta, historia interpretatzeko balio duelako, kontzientzia eremuak sortzeko. *Manual de infractores*-ek ere egilearen poesiaren inguruko iritzia argitzen digu. Izan ere, Caballero Bonaldentzat poesiak esperientzia eta asmakizuna (errealitatearen osteko alor enigmatikoa, kimerikoa) lotu behar ditu.

Hizkuntzaz den bezainbatean, hizkuntza ez lantzeagatik poema liburuek gero eta elkarren antza gehiago daukaten garaiotan Caballero Bonaldek hurrengo bidea proposatzen digu: hizkuntza maitatu behar da, hitzak berpiztu behar dira, hiztegietan dakarten esanahia baino gehiago adierazi behar dute eta honekin batera hizkuntza garbitu behar da.

Alor estilistikoaren zainketa berezian maisu dugu Caballero Bonald. Hori dela-eta, alde herrikoia (flamenkoaren aztarnak eta aforismoak) eta kultura (Baudelaire eta Rimbaud –bizitzaren eremu ilunen eta debekatuen poetak–) elkartuko ditu. Eta Góngora maisutzat daukalarik, barrokiismoa ezin ahantz dezakegu, hasierako barroko-barroko hartatik oraingo barrokiismoa, *Manual de infractores*-ekoa apainduretan neurtua baita, ikasia, sintetikoa eta ordezkazina den adjektiboaren bila doana, irmoa (musikan ere tinkotasunetik hurbil omen dago gaur egun, ganbera musikaren alde eginez). Eta honi gaineratu erromantizismotik bezainbat surrealismotik edaten duen *Manual de infractores*-en hitzaren eta pinturaren bideetatik adierazkortasunak, plastizitateak eta ikus detaileek daukaten garrantzia. Barne erritmoa ere markatua du. Honengatik guztiagatik, Caballero Bonalden poemagintzaren ezaugarriak nagusiena hizki larriz idatzitako estiloa dela esango nuke.

Irudimenaren zergatiak

Amaia ITURBIDE

Literaturan bada ildo fantastiko-pikaresko bat emaitza esanguratsuak utzi dituena, hurrengo eleberriak lekuko: *Gargantua* (1534) eta *Pantagruel* (1532), *Simplicius Simplicissimus* (1668), *Gulliver-en bidaiak* (1726), *Munchausen-eko baroia* (1785) eta *La vida exagerada de Martín Romaña* (1983).

Mota honetako idazlan literario hauek ezaugarri jakin batzuen jabe badira, adibidez: lehenengo eta behin, irudimena oinarri, beste mundu baterako atea zabaltzen dizkigute, irudimenezko mapak eta geografiak direla medio, batetik, eta, bestetik, errealitatea erakusteko beste klabe eta kodigo batzuk eskaintzen dituzte eta ondorioz, interpretazio anitzetarako aukerak eman (hau hain da horrela, ezen haietariko batzuek, *Gulliver-en bidaiak* eta *Munchausen-eko baroia*, esate baterako, helduen literaturaren eta haur zein gazte literaturaren arteko mugak puskatzen baitituzte); bigarrenaz, literaturaren helburuetariko bat dibertitzea dela gogoratzen digute, literatura, azken finean, abentura dela eta askotan literatura mendekua hartzeko erabiltzeko dagoela eta, hirugarrenaz, satira eta exagerazioaz gain, guttiz plastikoak izaten dira eta alor sinbolikoetatik begiratuta, joriak. Gaur egun komikiaren eta eleberri grafikoaren generoak gero eta baloratuagoak daudenean, literatura fantastiko-pikaresko honek esanahi handia daukalakoan nago.

Elkarren jarraian edota eleberri bakar baten gisara irakur daitezkeen François Rabelaisen (1494-1553) *Gargantua*-n (1534) eta *Pantagruel*-en (1532), izenburuak berak dioenez, batez ere, bi pertsonaia nagusi hauen (Gargantuaren eta bere seme Pantagruelen) istorioa narratzen zaigu, barrea ardatz delarik. Gogora dezagun,

François Rabelais Montpellier-eko Fakultatean Medizinan doktore izan zela eta baliteke bere literatur lanetan satira erabiltzea helburu katar-tiko gisara. Honi erantsi izaeraz bizizalea bezain ugaria izan zela eta bizimodu desordenatua eta ezegonkorra eraman zuela. Gargantua erraldoi tripontzia da, bizitzaren plazerrei emana, baserritarra, traketza eta badirudi tradizioetatik ateratako heroi honen izena Goiz Erdi Arotik datorrela eta "eztarri handia" esan nahi du, "jatuna". Zerbaiti "pantagruelikoa" irizten diogunean, gehiegikeria gastronomikoari ere lotuta agertzen da. Parrandaren eta jalaren giro honen barruan, kaos sortzaile honen barruan ez da harritzeko alor histrionikoa, eskatologikoa eta esperpentoa bera topatzea. Kontatzeko era zaldun eleberrietatik zein eleberri bizantinoetatik datorkio, hots, errelatoak eta abenturak pilatzen dira eta haien artean ez dago batasunik, protagonista elkarlotzeko hari bakarra delarik. Estilo barrokoa darabil: enumerazio amaigabeak bezain aldrebesak, jokoak (hitzak direla, silogismoak direla...), denetariko pilaketak, elementu desberdinen tartekatzeak, sinbolismo oparoa zein alegoriarako joera edo denetariko aipuak agertzen dira (gastronomikoak –interpretazio psikologiko-sexualak barne–, medikuak, folklorikoak zein mitologikoak –adibidez, "Utopia" leku izena, Gargantua sortu zen lekua eta Tomás Mororen liburutik hartua–, kulturalak, biblikoak –askotan parodiatuz–). Anabasa honi guztiari hizkera kolokiala (onomatopelen agerpen nabariarekin) eta, batez ere, neurriz kanpoko konparazio bitxiak gaineratu behar dizkiogu. Gargantua eta Pantagruelekin batera bestelako pertsonaiak ere badaude, Erdi Aroko pertsonaia herrikoi-komikoak edota Panurgo bezalako bufoi maltzurak. Erdi Arotik karikatura groteskoak eta barre satirikoa –satira instituzioen aurka–, gehiegikeria eta Itzala sortzaile gisara hartzen ditu eta Errenazimendutik izpiritu kritikoa, humanitateen garrantzia eta Erdi Aroko interpretazio ilunen aurka testuen benetako jatorrira jotzeko joera. Bi aro horien ezaugarriak hartzen dituen frantziar lehen eleberria dugu hau.

H. J. Ch. von Grimmelshausen-ek (1621?- 1676) alemaniar barrokoaren gailurtzat eta Alemanian eleberri modernoaren hasieratzat jotzen den *Simplicius Simplicissimus* (1668) eleberrian Simplicius Simplicissimus deritzon pikaroaren ibilerak eta gorabeherak kontatzen dizkigu, Hogeita Hamar Urteko Guda eszenatoki hondoan daukala. Idatzi zen denboran sekulako aldaketa ekarri zuen, gorteko zein akademiako girotik bezainbeste eleberri idealista eta fantastiko-

tik urrundu eta garai hartako gizartea ikuspegi errealista islatu baitzuen. Eleberri pikareskoa den aldetik, norbanakoaren eta gizartearen arteko gatazka garatzen du, oinarrian ikuspegi morala dagoelarik, baina niri pikaroaren irudia borrero-biktimaren arteko jolas literario eta anbiguoagatik interesatzen zait, batez ere, besteak beste, gizarte poliedrikoa aztertzeko termometro eta parametro ezin doia-goia irizten diodalarik.

Jonathan Swift (1667-1745) irlandar idazle satirikoak *Gulliver-en bidaiak* eleberrian (1726), batez ere, gizarte eta aristokrazia britainiarrak, batetik, eta, bestetik, giza ergelkeria kritikatu zituen, zaldi arraza prestu bezain buruargia gizarte zibilizatu baterako eredu gisara proposatuz eta giza ergelkeriaren gainetik jarriz. Estiloaz den bezainbatean eta egileak berak aitortuta, beti ere egiaren mesedetan apaingarri estilistikoak oro saihestuz, estilo argia eta soila darabil, nahiz eta onartu ere batzuetan xehetasunetan gehiegi luzatzen dela. Baina mezuaz gain, zergatik da hain erakargarri liburua hau? Kamara ilun gisara funtzionatzen duelako: batetik, irudi liluragarriak igortzen dizkigu (erraldoiak, ipotxak...) eta, bestetik, espektrua maltzur-okerra (Freuden hizkeran "Unheimlich"). Hortik jolas eta joko bikoitza, apustu bikoitza. Ez da harritzekoa, bada, giza, gizarte zein politika kritikan eta isekarik garratzenetan trebatu nahi dezanak *Gulliver-en bidaiak* eleberrian iturri oparoa aurkitzea, idazle ziniko porrokatu-porrokatu eta trikimailuetan nahiz tranpetan aditua den honen literaturan.

Edizio asko eta desberdinak (haietariko asko manipulatuak) eza-gutu zituen *Munchausen-eko baroia* 1785ean argitaratu zen. Bertan munduan zehar egindako irudizko bidaiak kontatzen dira. Bere egileak, Rudolf Erich Raspe (1737-1794), Hannover-en jaio eta bizi izan zen, non Jorge II.aren erregealdiak ohitura frantsesak saihestu eta haien ordez ingelesak hedatu baitzituen. Honi gaineratu Göttingen-en Europako unibertsitate zaharrenean artean azkena eta alemaniar erromantizismoaren sorlekua zegoela. Beraz, Raspe buruargia, zorrotza eta polemikoa (bere kritikoak eztabaida mingotsen bitartez jazartzen zituen) goi mailako kultur giroan hazi zen, gerora idazlea izateaz gainera, arte zaharkinen, natur zientzien eta geologiaren zale ere izan zelarik. *Munchausen-eko baroia* eleberrian munduaz mendekua hartzen du eta bere ibilbide literarioa suntsitu zuten etsaien aurka aritzen da, iseken eta keinu kaustikoen bitartez, luma mihi gaiztoaren bitartez. Baina bestaldetik, Munchausen baroia, eleberriaren heroi miti-

koa, berez existitu zela azpimarratu behar da: Hieronymus Karl Friedrich, Munchausen-eko baroia, senide nobleen ondorengoa zen, aberats okitua eta iruzurtia, hizketarako zein gauzak narratzeko gaitasun handikoa eta hau guztia zela-eta, elezahar anitz harilkatu ziren bere irudiaren inguruan. Rasperen *Munchausen-eko baroia* abentura liburuak Erdi Arotik Alemanian sortutako *Lügendichtungen* ("Gezurren ipuinak") omen ditu iturri. Honetaz gain, liburuan zehar hainbat alpurekin egiten dugula topo esan behar da: kulturalak (John Dollond optiko britainiarra, Montgolfier anaia, James Bruce esploratzaile eskoziarra, Edmund Burke, Newton...); literarioak (Shakespeare, *Gulliver-en bidaiak*, *Gargantua eta Pantagruel*, François de Tott – *Bidaiak turkoen eta tartariarren herrialdean zehar* izenburuko memorien egilea–, Luis de Camões-en *Os Lusíadas* poema epikoa, Merlin pertsonaia...); mitologikoak (Vulkano, ziklopeak...); historikoak (Klemente XIV aita santua, John Drinkwater militar ingelesa...) edota politikoak (Münnich kondea, Artois-eko printzea...). Erreferentziokin batera narrazioaren erritmo bizkorra, estilo bizia, adierazkortasunez betea eta exagerazioa azpimarragarriak lirateke.

Alfredo Bryce Echeniquek (1939) *La vida exagerada de Martín Romaña* (1983) eleberrian Martín Romaña pertsonaia Voltaire besaulki batean eserita dagoelarik, Perutik etorritakoek Parisen daradamen bizitza kontatzen digu eta gogorarazi Pariseko 68 Malatzaren izpiritua, bere giro intelektualarekin (Henry Miller, Freud, Sartre, Hemingway, Proust...) zein politiko ezkertiararekin (Che Guevara, Lenin, Marx...). "Irudimena boterera" aldarrikatutako esloganean oinarritutako exagerazioa da Alfredo Bryce Echeniqueren exagerazioa, exagerazioa arte eginda, eta horren inguruan garatuko ditu prosaren erritmo bizia, fabulatzeko gaitasuna, amalgama zoragarriak eta umorea (itzalen arteko barre hori). José Luis Merinoren *¿Alguna vez hablaron los caballos?* elkarrizketez osatutako liburuan Bryce Echeniqueren honako erantzuna dago: «Askoz ere interesgarriago iruditu zait beti egiaren eta gezurraren artean dagoena. Eta, batez ere, ez dagoena». Ziur aski, horretan datza bere literaturaren magia eta etengabeko ironia.

Barne paisajeak marrazten

Pello OTXOTeko VAQUERO

Barne Ibilerak II. LUIS MARI MUJIKA. Hiria Argitaletxea. Donostia, 2006.

Poesia, genero literario modura, desagertzera kondenaturik da-goela aipatu denetik urte asko igaro dira. Aipaturiko arrazoiak anitzak dira, eta erreferentzia puntuaren arabera, begirada jakinaren angelu batetik ala bestetik, guztiak egiazkoak direla onar dezakegu (uler-gaiztasuna, errealtatearekiko urruntasuna, gehiegizko subjektibota-suna, eta abar). Baina inoiz ere ez dakigu zergatik diren egiazkoak. Zinez esateko, oso gutxitan daukagu aukera benetan konbentzitzen gaituen poema liburu bat dastatzeko, edo Pizarnik-ek zioen modura "keinuren bat igorriko duten testuak" irakurtzeko. Oro har argita-ratzen diren poema liburuak, kronologikoki ordenaturiko poemien antologiak dira, edo norbaiten kronikak edo ipuintxoak poema itxuran emanak, edo norberaren frustrazioak jasotzen dituzten folioak lerrotan apailatuak eta apainduak.

Baina honako liburu honen aurrean ez da halakorik gertatzen. Hasieratik beretik berezko sakontasun batera murgiltzen gaituzten poemak antzematen ditugu, karga kontzeptual handiko lerroak da-kuskigu, era berean zamatsuegiak ez direla onartuz. Hitz gutxitan esango nuke, poesia puruaren aurrean gaude, eta kalitatezkoa ere badena, goi mailakoa.

Idazten urteak eta urteak eman dituen poeta dugu Luis Mari Mujika. Denbora luzea darama poesia lantzen eta jorrazten. Korrante ezberdin askoren partaide eta eragina jaso du: sinbolismoa, exis-tentzialismoa, surrealismoa,... Denetatik edan du eta bere poesia hauetan guztietan aberastu da. Ibilbide luzea egin digu Mujikak bere

hasierako garai haietatik. Berak utzitako lorratzean estilo eta norabide anitzak nabariak dira. Sinbolismoa maite zuen hasierako urteetan, poesia soziala ere landu du eta tarteka-marteka surrealismoaren bezalaz txango jori bezain interesgarriak egin ditu. Baina azkenaldi honetan, existentzialismo sakon eta indartsuan murgildurik ageri zaigu. Metaforak eta hitz jokoak maite dituen poeta ez da batere kikildu poesia kontzeptualaren estrata malkartsuetan barrena abiatzeko. Luis Mari Mujikaren lehen poetika Juan Mari Lekuonaren eta Mikel Lasaren sinbolismotik hurbil ezar zitekeen, baina bi hauek baino bide surrealistagoak jorratu zituen. Egilearen iritziz, idazkeraren sinbolismotik, lizardismoari uko egin eta gero, beste estilo ez-zehatz batera egin zuen jauzi Mujikak. Eta beti ere surrealismoaren kutsu nabari bezain azpimarragarriarekin, izan ere, iruditeria sakon eta ugari honetan, metafora surrealisten indarra berebizikoa baita. Uneoro oso presente azaltzen da surrealismoa Luis Mari Mujikaren poesian, eta era berean, bere giroak eta atmosfera inguratzailleak Federico García Lorca eta Miguel Hernández-en eraginak dituzte. Limurtzailea da oso, eta lurrin gozo eta xuabea baillitza dastatzera iritsiko gara.

Era berean, aipatu beharra dago naturarekiko dauden harremanak eta erreferentziak etengabeak direla. Aldiro-aldiri kontenplaziorako abaguneak lortzen ditu, lerroen segidan paisaiak marraztu, eta begirada zerumugan pausatzeko erreztasunak eskaintzen dizkigu. Hauekin loturik, nabarmenki suma daiteke Juan Mari Lekuonaren eragina bere poesiaren pasarte zenbaitetan. Juan Mari Lekuonaren kasuan bezalaxe, bere garaiko filosofoen eragina topatzen dugu, esate baterako Teilhard de Chardin, Bernanos, Unamuno, e.a. Eta *leit motiv* iraunkor gisa azaltzen zaigu gizakiari buruzko galderak egiten dituzten lerroak, izan ere, aspaldikoa baita Luis Mari Mujikaren kezka existentziala. Hasierako bere poemetatik hona etengabe dirauen leloa dela esango nuke nik. Existenziaren bidegurutzera eramango gaitu, eta bidegurutze zalantzakor horretan hustasunaren presentzia agerian utziko digu. Efimerotasunaren eta hutsaltasunaren halabeharra identitatea osatzeko, eta modu honetan, infinituaren eta eternoaren ezkaratza begiz jotzeko. Modu iraunkor eta etengabean galderak egingo dizkigu: "*Galderek trenak bezala / barne paisaiak zeharkatzen dituzte*". Maisua dugu Luis Mari Mujika paisaiak, toki-izenak, geografia ezberdinak eta gunek hautatuak deskribatzen eta bere poesian barnetatzen. Gauza bera egiten du *barne paisaiei* dagokielarik, eta berak

dioen lez "dena existentziaren ele nagusi egiten / eta atzemanikoaren bozkarioa hitzaren biltzarrera jasotzen". Dena den, bere poesiak ezin dio existentziaren besarkadari uko egin, ezin dio nolnahi ere begirada arakatzaille bati muzin egin. Eta besarkada honen kate-begi bakoitzean poetaren xamurtasuna une oro dagerkigu, errealtatearen osotasunak harritzen du, harritzen gaitu, eta natura eta barne izatea existentziaren ardatz bihurtu. Maitasunaren gaia ere pil-pilean, eta gori-gori sumatuko dugu zenbait poematan, maitasunaren zertzeladak nonahi aurki daitezke. Hala ere, poemario existentziala da zailtzarik gabe. Horren lekuko, etsipenaz jota iristen zaizkigu lerrook:

"bizi nabarretik heriotzaren betera
hutsaren eskutik allegatu gura dut."

"Jarraitzea -foto hieratiko ez izatea-
gizasemearen mugak gainditzea da,
ezin horretan datza bere borroka."

"Argiak biltzen du maiz mendia
itzalak ito ez ditzan iraupen-gogoak;
borrokaren hegitik -kosta ahala-
hurbiltzen naiz existentziara,
jalotzen naiz goiztiri galantara."

Sarri askotan esperientzia poetikoa etsipenarekin uztartu ohi da. Etsipenaren bidez irekitako bide honetan, ibiliaren ibilliaz, azkenean argitasunezko leihoak begitantzen ditu poetak, eta modu horretan ametsak, gezurrak eta kimerak baztertzera behartua aurkitzen da une batean. Egun melankoliko, nostalgiko eta utopikoko eguraldiaz lagunduriko bidai luzean, azkenean errealtate gordinaren aterpea azaltzen da. Eta batzuetan aterpe ankerra eta ez hain ederra baldin bada ere, azken finean aterpe da, eta altzoa ere bihur daiteke. Helmuga honetara kondenaturik dago poeta, eta Luis Mari Mujikaren poesian, batez ere bere obra osoaren bigarren bilduma honetan, horixe bera nabaritzen da behin eta berriz biziari buruzko galdera sakonak eta gogorak tarteka jaurtikitzen dizkigunean. Poeta handietan aurkitzen den konstantea da, hala nola, Eliot, García Lorca, Alberti, Cernuda edo Neruda. Izakiak beren lanetan hutsik edo jantzi husturik azaltzen dira, edo zeruak erahilda, bestela; azken finean, poematan azaltzen den gizakiak barnea husturik du, edo hiletsita. Irudi hauetan gizaki modernoaren irudia gauzatu egiten da, errealtate-

tearen joan-etorrian erabat nora ezean aurkitzen den gizabanakoarena, bere identitatearen barruan babestu egiten dena Ezerezero iritsi arte, eta ondoren kanpora irteten dena Osotasunaren deuseztapena iragarri eta bere arriskuaz konturatu arte. Ibilbide latz honek kontzientziara irekitzen gaitu eta jakituriaren bideak zabaldu. Bide hauetan dabil Luis Mari Mujika eta bide hauek irekitzen dizkigu. Batzuetan Sisiforen lanean ez ote dabillen otutzen zait niri, baina bere mezuaeren erantzule gu geu gara, geuri dagokigu Sisiforen irudia Jasonen abentura bihurtzea eta gauzatzea, bere poesia urrezko ardi larru gisara jaso dezagun.

Liburuaren esentzia poemario osoa ongi deskribatzen eta laburtzen diguten bertso-lerro hauetan topa daiteke:

“Izakietara makurturiko soak
esperientziara atxikitzen nau,
eta ametsa –bihar izan daitekeena ere–
poemaren baitara ekartzen du,
nahiz ametsen haraindi ezer gutxi dagoela jakin;
azken lurraldera
oroimenaren ertzak ailegatzten dira.”

Bestelako honek ere, existentziarenganako atxikimendu ezkor bat adierazi beharrean, aldarte baikorrago baten giroa igorriko digu etorkizuneko begiradari eta esperantzari leiho ttiki-ttiki bat –Gandia-gak dixit– zabalduz:

“Izarren dardarazioa zero oztinean inoiz ez da bukatzen,
elorriaren zuritasuna sekula ez ahitzen,
oroimenaren argia lerdan eusten da
gauzei behatzen dudan bakoitzean.

Nahiz ikusia aldiari itsatsia egon
edertasunak fingabea nahi luke izan,
ortzian beti izarrak eskegita ikustea gura nuke
inoiz ez itzaltzea,
sekretuaren sua edonolako zirimolen erdian
pizturik irautea.”

Hona hemen edertasunaren luma bat erortzen, hona hemen doinu xamurrez belarriak limurtzen gaituzten hotsak, hona hemen errealitate gordina eta geure barnea kraskatuko digun mezu sakona, hona hemen aurrera begiratzen lagunduko diguten lerroak.

Poetek agian ez digute behar dugun erantzunik emango, baina aztoramen eta nora ezeango uneetan bidaide oso onak dira. Eta hauen ahaleginen irakaspenak onartuz, agian, geure mugak zedarritza ditzakegu eta argirantz eramango gaituzten zirrikitueta hurbil gaitzke.

UZTARRO

giza eta gizarte-zientzien aldizkaria

UZTARRO aldizkaria jaso nahi dut.

Izena _____

Helbidea _____

Herria _____ Posta-kodea _____

Telefonoa _____

N.A. / I.F.K. _____

Ordainketa:

Kontu korrontearen zenbakia (20 digitoak)

Bankoa _____

2003. urterako harpidetza (4 zenbaki)

Harpidetza-bxartela:

UDAKO EUSKAL UNIBERTSITATEA
Concha Jenerala 25, 4 - 48010 BILBO
Telefonoa eta Faxe: (94) 4217145 / 4214679
e-mail: bulegoa@ueu.org

LiteraTur alDizkaRiak esKura

Urteko harpidetza-saria, 50 € besterik ez!



LITERATUR ALDIZKARIEN HARPIDETZA BATERATUA NAHI DUT:

Izen-abizenak:.....
Helbidea:.....Herria:.....K.P.:.....
Telefonoa:.....e-posta:.....
Kontu korronte zenbakia (20 digito):.....


Literatur aldizkariak-Harpidetza

EIE

Zemoria, 25

20013 Donostia

Posta elektronikoa: ei@ei.euskainet.net





EGAN

Euskalerrriaren Adiskideen Elkarteko
BOLETIN-aren euskarazko gehigarria



EDUKIAK

- 1.- Azterketa literarioak
- 2.- Sorkuntza: poesia, antzerkia, kontakizunak
- 3.- Ahozko tradizioa
- 4.- Itzulpenak. Autore unibertsalen itzulpenak
- 5.- Adabakiak: Euskara eta literatur inguruko berrien komentarioak.
- 6.- Kritikak eta erreseinak: euskal eta erdal liburuak

| | | |
|---------------------|----------------------|------|
| Harpidetzu zaitetz: | Urteko harpidetza: | 18 € |
| | Atzerrian: | 21 € |
| | Dendan ale bakoitza: | 18 € |
| | Ale atzeratuak: | 21 € |

Informazio gehiago nahi baduzu, eskatu konpromisorik gabe.

Gure helbidea: EGAN

Euskalerrriaren Adiskideen Elkarte

Peña y Goñi, 5. 2gn. ezk.

Postakutxatilla 3.263 - 20080 - DONOSTIA

egan@bascongada.e.telefonica.net

HARPIDE TXARTELA

Izen deiturak _____

Helbidea _____

Herria _____ Posta-kodea _____ tel. _____

Banku edo Kutxa _____

Kontu zkia.: _____

Begiratu zientziari beste era batera

gizarte ekintza

hezkuntza



Kutxak, bere Gizarte-Ekintzaren bidez, zientzia jolasgarriago bihurtzeko formula zehatza aurkitu du, Zientziaren KutxaGunea.

Ingurunean duguna hainbat sistema elkarrengaileren bitartez uler dezagun asmatutako gune bat. Hemen ukitu, behatu, ulertu, gazatu egin daitezakezu. Zatoz eta begira egiazu munduari beste begirada batez.

- 170 esperimentu interaktibo.
- 10 erakusketa finko (goiakak).
- Planetarium digitala eta Planetarium Tsikloa (inbentzako).
- Elektrizitate-taiera.
- Denboraldi baterako erakusketak.
- Ikastetxeetarako hezkuntza-programak eta material didaktikoa.
- Animazio-ekintzak eta adin guzietako jendearentzako zuzeneko ikusizunak.
- Aparakalea, dohaiak. Eratz iristen da Museora.




ZIENTZIAREN KUTXAGUNEA
KUTXAESPACIO DE LA CIENCIA

**Zatoz Zientziaren
kutxaGunera**

Mikeletegi Pasealekua 45. DONOSTIA

Museoari buruzko informazioa osatzeko, bisita ezazu kutxasocial.net edo deitu kutxaren Gizarte Ekintzaren informazio-bulegora: **943 00 12 17.**

www.kutxa.net

 **kutxa**

zer nahi duzu bihar?



EUSKALERRIAREN ADISKIDEEN ELKARTEKO
“BOLETIN”-AREN EUSKARAZKO GEHIGARRIA

Idazkaritza: Euskal Herriaren Adiskideen Elkarte, Gipuzkoako Saila
3.263 Postakutxatila - DONOSTIA